

Aurkezpena

Zenbait lege indarrean sartzea lehen mailako gertakaria da, bereziki lege horiek aztertzen eta aplikatzen aritzen garenontzat, baina hiritarrentzat ere bai, oso handia baita gizartean duten eragina. Hain zuzen ere hori da Prozedura Zibileko 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koaren kasua, nahikoa arrazoi mardula lan honi ekiteko.

Hemen aurkezten dizuegun argitalpen hau jatorri desberdina duten (epailetza, fiskaltza, unibertsitate) adituen lan gogotsuari zor zaio, horrek erabat bermatzen duela bere kalitatea. Nolanahi ere, ikuspegi akademikoa gailendu da unibertsitate desberdinetako irakasleen lankidetzari esker gauzatu den lan hone-tan zehar.

Ezinezkoa denez uneotan PZL berriaren azterketa sistematiko bat egitea, ordena jurisdikzional zibilaren bizkarrezurra osatzen duten gaiak dira xehetasunez aztertzeko hautatu ditugunak, eta, era bere-an, aipaturiko Legearen ekarpen esanguratsuenen berri ematen dugu.

Eranskinean jasotzen den Zuzenbide Prozesal Zibilaren inguruko hiztegi espezializatu eguneratu berriak are balio handiagoa ematen dio lanari, baterakuntza terminologiko-zientifikoa lortzeko aurrerapauso sendo bat izanik. Hiztegi honen prestakuntzari eta berau erabiltzeko aukerari dagokionez, UZEIren lankide-tza baliotsua eskertu beharra dugu.

Benetan poz handi eta berezia ematen digu obra hau zuen esku ipintzeak. Bere helburua bikoitza dela esan genezake: batetik, PZL berriaren gako interpretatibo batzuk emango dituen ekarpen zientifiko bat egitea, eta bestetik euskarari adiera eremu berriak ematen laguntzea, ahalik eta modurik zuzen eta eraginkorrean, egungo eta bidean datozen legelariei lan tresna berri bat eskainiz.

Donostian 2001eko uztailaren 12an
Iñaki Esparza Leibar, lanaren koordinatzailea

Prozesuaren printzipioak

Iñaki ESPARZA LEIBAR*

1. Prozesuaren printzipioak

1.1. Sarrera

Legegileak Prozedura Zibileko Lege (PZL hemendik aurrera) berri bat egiteko erabakia hartu zuenean abiapuntutzat kontuan hartu zuen egoera (inguruabar soziologiko, ekonomiko eta juridikoa), izaeraz, ez da 1984.eko (34/1984, Legea, abuztuaren 6koa) Premiazko Erreforma aholkatu zuen egoerarekiko desberdina. Beraz, eta ondorioz, prozesu zibilaren eraginkortasuna eta arintasuna bultzatzeko asmoarekin orduan onartutako neurriek (adibidez, formalismoen eta epeen murrizpena, hurrentasunaren promozioa, autokonposizioaren estimulua, agerraldien artikulazioa, etab.) ez zituzten legegileak espero izan zituen fruituak eman.

Deskribatu dugun porrotaren arrazoiak, zalantzarik gabe, askotarikoak dira eta operadore juridiko guztiak ukitzen dituzte, baina bada bereziki azpimarratu nahi dugun bat: 1984.eko aipatutako Premiazko Erreforma printzipio bateraezinetan oinarritutako arau desberdinen –eta sarritan kontraesankorren– nahitaezko nahaste eta elkarrizatea inposatzen du. Une historiko konparaezinetan eta behar zehatz desberdinetan oinarritutako erreformen bateratzea. Atera dezakegun ondorio garbi bat, honakoa izan daiteke: ez da posible izango araudiaren garapen harmoniko edo osagarri bat, ezta, logikaz, jarduera jurisdikzionalaren eraginkortasuna, prozesuaren eta prozeduraren azpiegitura osatzen duten printzipioak izaeraz adostezinak direnean.

Deskribatutako aurrekariak, gaur egungo egoera historikoan kokatzen gaituzte. 2001.eko urtarrilaren 8tik, Prozedura Zibileko Lege berri bat dago indarrean –120 urte igaro ondoren, PZL zaharra 1881ean sartu baitzen indarrean–, eta, guretzat bereziki azpimarragarria dena, printzipio prozesal homogeen eta bateragarrietan inspiratutako testua da.

Egoera juridiko berri honetan modu egoki eta emankor batean kokatzeko asmoarekin, Lege berriaren ikuspegi global eta panoramiko eskaintzeko asmoa dugu, PZL berria sakonki ezagutu eta haren azpiegitura ongi ulertzeko, eta, ondoren, aplikazio eta interpretazio garaian, etekin osoa, dagokigun jurista jardueran, ateratzeko helburuarekin. Proposatzen dugun metodologia, printzipioen azterketa sistematikoa edo printzipioen teoriaren esleipena da. Lortutako emaitza (Lege berriaren egiturari buruzko informazioa), Lege zaharraren printzipioek sortutako egiturarekin konparatuko dugu, eta azkenean honek emango digu berrikuntzaren benetako maila.

Gure iritziz, printzipioen teoria, lehen mailako elementu interpretatzaile eta integratzailea da, eta metodologiaren aldetik ezinbestekoa aipatu ditugun helburuak lortu ahal izateko. Beraz, premiazkoa izango da prozesu zibila informatzen duten printzipio zehatzak aztertzea, beraiek erabakitzen baitituzte prozesuaren ezaugarri nagusiak, alderdien aukerak, eskubide eta zamak, epailearen fakultate edo ahalmenak, etab.

* Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea.

PZL berriak ez ditu prozesuaren printzipio zehatzak aldatzen. Espainiako Konstituzioak (EK) jasotako eredu ekonomikoa –jabetza pribatua eta borondatearen autonomia aldarrikatuz– mantentzen den bitartean, prozesu zibilak ezin izango ditu oinarriak (printzipio zehatzak) aldatu. Dena den, legegileak, PZL berriaren aitzakiarekin, eguneratu eta egokitu egiten ditu formulazioak, prozesuaren oinarritzko egitura mantenduz, baina teknika prozesala hobetuz.

PZLaren berrikuntza nagusia prozeduraren eskutik datorkigu. Puntu honetan, legegileak, prozeduraren itxura eta izaera aldatzen dituen garrantzi handiko neurri –edo printzipio– berri bat onartzen du. Honen arabera, urteetan idatziz tramitatu edo garatu den prozedura, hemendik aurrera ahoz gauzatuko da; hau da, ahozotasun printzipioa bultzatzen du. Ondorioak ez dira formaren aldaketan agortzen; askoz ere sakonagoak dira, eta jarduera jurisdikzional osoan izango dute eragina. Legegileak jurisdikzioarentzat lortu nahi duen helburu nagusia, eta hala aitortzen du espresuki –adibidez PZL berriaren Zioen Adierazpenean, l. atalean–, tutela eraginkorra da, EKak 24.1 artikuluan adierazten duenaren arabera.

Alde batera utziko ditugu prozesu mota guztiek errespetatu behar dituzten printzipioak (posizioen bikoiztasuna, kontraesateko printzipioa eta berdintasuna). Legegileak mantendu egiten ditu PZL berriari –ez du beste aukerarik, EKak jasotzen dituelako–, eta zenbait kasutan hobetu egiten ditu hauek lortzeko baldintzak. Adibidez, eta bereziki kontraesateko printzipioari dagokionez, nahitaezko auzikidetzak pasiboa, hirugarrenen interbentzio edo esku-hartze probokatua eta interes kolektiboaren legitimazioari buruz lehen aldiz egindako erregulazio edo arauketa (ikus PZL berriaren 12.2, 14 eta 11. artikulua, hurrenez hurren).

Hemendik aurrera ordena metodologiko egokia jarraituko dugu gure azalpenean, printzipioen teoria aurkezteko helburuarekin. Horretarako, oportunitate printzipio zehatzarekin hasiko gara.

1.2. Oportunitate printzipioa

Aurrerago esan dugu EKak espresuki eredu ekonomikoa jakin bat aukeratzeko duela, ondoko elementuetan oinarritua: jabetza pribatua (33.1 art.) alde batetik, eta enpresa askatasuna merkatu ekonomia baten barnean (38. art.) bestetik. Honek guztiak zuzenbideko subjektuentzat borondatearen autonomia adierazten du, jabe diren ondasun eta eskubideen erabilera libre edo askea, xedagarritasuna. Sistema ekonomiko honen ondorioa oportunitate printzipioa dugu prozesu mailan, prozesuaren bitartez tramitatzen diren pretentsioak titulartasun pribatuko ondasun edo eskubideei buruzkoak direnean.

PZL berriak, zaharrak egin zuen bezala, oportunitate printzipioa onartzen du. Dena den, aipatu beharra dago salbuespenak ere agertzen direla, logikaren arabera, interes publikoa nagusi denean. Orduan, borondatearen autonomia desagertu egingo da, eta berarekin zenbait aukera prozesal, bereziki objektuaren xedagarritasunaren inguruan, nahiz eta prozesua izaeraz zibila izan, adibidez 751 artikulua. Hauek dira PZLko Laugarren Liburuko Lehenengo Tituluan arautzen diren prozesu bereziak: gaitasuna, filiazioa, ezkontza eta adin txikikoei buruzko prozesuak, 748. eta ondorengo artikuluetan arautzen direnak.

Oportunitate printzipio zehatzetik eratorritzen diren printzipio teknikoak ondorengo hauek dira:

1.3. Xedapen printzipioa

Printzipio honek, kaltetu edo perturbatu den eskubidearen titularrak haren edukia osotasunean berreskuratzeko dituen aukera desberdinak adierazten ditu. Auzitegiak ez dira irtenbide bakarrik; modu heterokonpositiboaren artean, badaukagu arbitrajea ere. Horrez gain, beste aukera batzuk ere badaude; hain zuzen ere prozesutik kanpoko modu autokonpositiboak, adibidez transakzioa. Beraz, alderdiek auzia nola konpondu erabakitzeke eskubidea dute, auzitegien bitartez edo ez, eta erabakia oinarritzen duen irizpide nagusia oportunitatea izango da, alderdiari gehien komeni zaion bidea.

Prozesuaren objektua pretentsio pribatuek osatzen dutenean, prozesua inoiz ez da ofizios hasiko; ekimen prozesala ez dagokio orduan organo jurisdikzionalari. Estatuak eskubide pribatuen babesa egikaritzen du, baina ez beretzat, ez baita eskubide edo interesen titularrak. Ondorioz, eta eremu honetan, ez dagokio ekimen prozesalirik.

Aztertzen ari garen printzipioaren eduki zehatzak zera suposatzen du: ekimen prozesalaren erreserba alderdientzat denean, ezin da inor dagokion akzioa egikaritzera behartu. Beste alde batetik, printzipioaren edukia izango da baita ere prozesuari bukaera emateko aukera alderdien esku izatea, nahi dutenean, kontrol edo baimenik gabe –adibidez, demandatzaileak atzera egitea, edo demandatuak amore ematea–. PZLan, eta orokorrean, xedapenaren inguruan, bai prozesuaz, bai pretentsioaz, ikus 19. artikulutik 22. artikulura arte.

Ondorioz, prozesuaren edukia eskubide pribatu bat denean, epaileari dagozkion ahalmen prozesalak eskatutakora moldatu beharko dira; hau da kongruentzia. Epaileek eskatu denaren inguruan eman beharko dute erabakia, mugak errespetatuz, areagotu gabe eta exhaustiboki (ikus PZLko 218.1 artikulua).

Xedapen printzipioaren esleipena –gutxienez bere elementu edo ezaugarri nagusiak– prozesu zibilean ikusi eta gero, gauza batez jabetzen gara: interes edo eskubide pribatuarekiko borondate autonomiaren eskaerak –harreman materialaren mailan– prozesura eramaten ditugunean –harreman jurisdikzionalaren mailara–, xedapen printzipio bilakatzen direla, haren irudi prozesala direlako.

1.4. Alderdien ekarpenaren printzipioa. Zuzendaritza materialeko ahalmenak

Beharrezkoa da jakitea, aurrez eta abstraktuki, nola konbinatzen diren prozesu zibilean alde batetik epaileak egikaritzen duen potestate edo ahalmen jurisdikzionala, eta bestetik alderdien jarduera gidatzen duen borondatearen autonomia. Horrela, aurrez ezagutuko ditugu “jokoaren” arauak, auzian parte hartzen duen subjektu bakoitzaren jarduera eremua, prozesuaren edukia eta eztabaida finkatzeko helburuarekin. Abiapuntutzat, alderdien ekarpenaren printzipioa erabiliko dugu. Honen arabera, alderdiei dagokie, modu eskusiboan, jarduera jurisdikzionala estimulatzea; hau da, auzitegiaren aurrean prozesuaren edukia finkatzea –bereziki gertakari buruzko alegazioak, frogatzaileak eta pretentsioak–, auziaren berri zehatza emanez. Printzipio honen arabera, prozesura eraman eta frogatu ez diren gertakariak edo hauei buruzko alegazioak –epaileak ezagutzen ez dituenak– ez dira kontuan hartuak izango epaileak erabakia emateko unean (ikus PZLko 216. artikulua).

Dagoeneko aurreratu dugu aztertzen ari garen printzipioaren beste ondorio bat, alderdiek frogarekiko duten ardura adierazten duena. Beraiek proposatu beharko dituzte erabili nahi dituzten frogatzaileak, aurrez gertakari buruz egindako alegazioak frogatzeko helburuarekin. Materia honetan, auzitegiaren aukerak –ofizioz egikari daitezkeen kasuan bereziki– oso mugatuak daude, eta esanenez gisa bakarrik gauzatuko direla (ikus PZLko 435. artikulua, non legegileak “azken eginbideak” arautzen dituen). 1881eko PZLan, tresnak ez zuen benetako salbuespen edo aparteko egoera bat arautzen “hobeto epaitzeko eginbideen” (340. artikulua) bitartez; epaileak ez zuen objektiboki baldintzatuta frogatzailearen ahalmenik. PZL berrian, eta araudiaren arabera, epailearen diskrezionaltasuna erotik murrizten da, objektiboki baldintzatu egiten da ahalmenaren egikaritzea, nahiz eta erabakitzeke garaian zalantzak mantendu (ikus PZLko 217. artikulua).

Frogaren eremuan, deigarriak diren beste berrikuntza batzuk ere aurkitzen ditugu PZL berrian. Beste ordenamendu batzuetan –Alemanian edo Austrian, non PZLek, tradizionalki, aztertzen ari garen printzipioaren nagusitasuna matizatu izan duten– progresiboki jorratutako tendentziari jarraitzen dio. Epailearen egoera –edo, hobeto esanda, parte-hartzea– sendotu egiten da frogaren eremuan, auzia argitzeko betebeharra duela arrazoituz. Ondorioz, epailea prozesuaren emaitzaren ko-erantzulea bihurtuko da (ikus PZLko 429.1, II artikulua). Puntu hau nahiko eztabaidatua izan da aurreko lanetan proposatu zenetik.

Gure iritziz, aipatutako tendentziak ez du derrigorrean okerra izan behar –nahiz eta prozesu zibilean aritu– helburutzat jarduera jurisdikzionalaren eraginkortasuna hartzen dugunean, EKaren arabera. Aukera honek ez du prozesu zibilaren izaera urratu, eta ez du alderdien ekarpenaren printzipioa ahaztu denik suposatzen. Benetan egin dena, gure ustez, aztertzen ari garen printzipioa egokitzea izan da. Gertakariak alegatzea alderdien ardura da eskusiboki, eta frogatzaileak ere bai, baina epaileak egindakoa kontrolatzeko aukera izango du, eta ez bazaio –balorazioa gauzatu ondoren– egokia edo nahikoa iruditzen, proposamen bat egiteko aukera ematen dio Legeak. Kontrola gehitu egiten da, eta horrek ez du txarra izan behar tutelaren eraginkortasuna kolokan dagoenean. Azkenean, frogatzailearen jatorrizko ahalmena alderdiei dagokie.

lido berdinean, eta epailearen parte-hartzea selektiboki froga jardueraren inguruan sendotuz, PZL berriaren beste –bereziki interesgarria den– artikulua bat aipatu behar dugu: 282.a hain zuzen ere. Arauaren arabera, *“Las pruebas se practicarán a instancia de parte. Sin embargo, el tribunal podrá acordar, de oficio, que se practiquen determinadas pruebas o que se aporten documentos, dictámenes u otros medios e instrumentos probatorios, cuando así lo establezca la ley”* (ikus, adibidez, PZLko 770.4 edo 752. artikulua). Legean jasotako behin betiko bertsioak aurrerapen nabarmen bat suposatzen du, bereziki kontuan hartzen badugu 1998ko PZL Proiektuan froga jarduerari buruzko ekimena alderdien eremu birtualki eskusibo bezala arautzen zela.

Orokorrean esan dezakegu epailearen ahalmenak eta froga jardueran parte hartzeko aukerak sendotu eta gehitu egiten direla Lege berriarekin. Horrez gain, aipatu beharra dago epaileari dagokiola alderdiek proposatutako froga baliabide bakoitza onartzeko kontrola (ikus PZLko 283 eta 285. artikulua).

Azpitarragarritzat hartzen dugu Legeak frogaren inguruan araututako beste berrikuntza bat ere. Epaileak ofizioz sor dezake –noski, alderdiek ere gauza berbera egiteko ahalmena dute– aurrez onartutako froga baliabideen zilegitasunari buruzko eztabaida, haiek lortzeko oinarritzko eskubideak errespetatu diren edo ez zalantzak daudenean. Intzidentea kontraesanaz gauzatuko da epaiketa edo bistan (egintza nagusiak), froga burutu aurretik (ikus PZLko 287. artikulua).

Epailearen arduren artean, froga baliabide bakoitza burutzearen kontrola dugu; adibidez, lekuko edo alderdiek erantzun behar dituzten galderak onartzea (alderdien galdeketari buruz, ikus PZLko 302 eta 306. artikulua). Lekukoen frogaren inguruan, ikus PZLko 368. artikulua). Epaileek kontrol orokor hau gauzatzeko dituzten irizpideak, pertinentzia edo egokitasuna eta erabilgarritasun edo baliagarritasuna dira. Adituen edo perituen frogaren kasuan, adibidez, alderdiek eskatutako perituen parte-hartze eredu epaiketa edo bistan onartzeko (ikus PZLko 347.1 artikulua).

Froga baliabide bakoitza burutzeko garaian, ikus dezakegu Lege berriak sendotu egin dituela epailearen zuzendaritza ahalmenak. Esandako hau guztiz logikoa da, kontuan hartzen badugu Lege berriak, prozeduraren aldetik, hurrentasun printzipioaren benetako gauzaketa duela helburu. Hurrentasunak epaile ahalmentsu bat, tresna aniztuna, galdatzen du, eztabaida prozesala zuzentzeko gai izango dena. Ikus dezagun froga baliabide bakoitzaren arauaketa puntu honetan.

Alderdien galdeketari buruz –aitortza judiziala 1881eko PZLan– zera dio 306.1 artikulua, bigarren paragrafoan: *“Con la finalidad de obtener aclaraciones y adiciones, también podrá el tribunal interrogar a la parte llamada a declarar”*.

Perituen irizpenari buruz –Lege berriari froga baliabidearen izena ez da aldatu edo egokitu–, zera dio 347.2 artikulua: *“El tribunal podrá también formular preguntas a los peritos y requerir de ellos explicaciones sobre lo que sea objeto del dictamen aportado, pero sin poder acordar, de oficio, que se amplíe, salvo que se trate de peritos designados de oficio conforme a lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 339”*.

Epailearen errekonozimendua aztertzerakoan –hemen ere ez dago izen aldaketarik–, logika berbera jarraitzen duen arau bat aurkitzen dugu PZLko 353.2 artikuluan: *“Sin perjuicio de la amplitud que el tribunal estime que ha de tener el reconocimiento judicial, la parte que lo solicite habrá de expresar los extremos principales a que quiere que éste se refiera e indicará si pretende concurrir al acto con alguna persona técnica o práctica en la materia”*.

Azkenik, lekukoen galdeketa –lekukoen froga 1881eko PZLan–, Lege berriak baimentzen duen epailearen parte-hartzea, alderdien galdeketa frogan ikusitakoaren parekoa izango da (ikus PZLko 372.2 artikulua). Arau honek zera xedatzen du: *“Con la finalidad de obtener aclaraciones y adiciones, también podrá el tribunal interrogar al testigo”*. Baita ere, bekaldura mota desberdinak finkatuz eta harekiko epailearen ahalmena finkatuz, ikus Legearen 373. artikulua.

1.5. Aurrerapostu prozesalen kontrola eta prozesuaren bultzada. Zuzendaritza prozesaleko ahalmenak

Orain aztertu behar dugun materia, izaera aldetik, teknika juridiko prozesalari bakarrik dagokion eremu bat da. Jakin nahi dugu nori dagokion, organoari edo alderdiei, prozesua hasieratik ondo gauzatua

izatearen kontrol sistematikoa. Ondo gauzatu izatea edo ez, auresupostu prozesal guztiak errespetatu izanaren emaitza izango da, eta ondorioz, prozesuaren bukaera funtsari buruzko ebazpen baten bitartez bermatua izango dugu. Berriz ere ziurtatu nahi den helburu nagusia tutela eraginkorra izango da, kasu honetan prozesuaren gauzaketa edo planteamenduaren aurre kontrolaren bitartez. Honek, zalantzarik gabe, nabarmenki bermatzen du ziurtasun juridikoa, tramitazioaren inguruan sor daitezkeen akats larrienak –auresupostu gabeziaren ondorio direnak– uxatuz.

Gure ordenamenduak, prozesu zibilaren arloan, tradizionalki lehentasunez alderdien esku kokatu du auresupostu prozesalak kontrolatzeko ahalmena (ikus 1881eko PZLko 687. artikulua, 1984ko Premiazko Erreforma aldatu baino lehen). Ordura arte, prozesu zibilean, auresupostu prozesalen kontrolaren ardura osoa, birtualki, demandatuaren esku zegoen, epailearen aukerak, eremu honetan, serioki mugatuz. Aurreratu dugu PZL zaharrak 1984ean erreforma sakon bat izan zuela, 34/1984 Legearen bitartez. Honen ondorioz, 693.3 artikulua, Munta Txikiko Adierazpen Prozesu Arruntaren agertze egintzaren barnean, epaileari ahalmena ematen zion ofizioz edozein prozesuren auresupostu edo ukanbeharren falta kontrolatzeko. Prozesu zibilari dagokionez, une honetan gauzatu zen inflexio puntua auresupostu prozesalen kontrolaren arloan. Baina PZL zaharrak ez zion erakundeari tratamendu sistematiko bat eman, eta garapen asimetriko bat gauzatu zen, lau prozesu arrunt zirela kontuan hartuz. Azter dezagun, banan-banan, prozesu bakoitzaren egoera. Munta Handiko Adierazpen Prozesu Arruntan ez zen aldaketarik egin, eta horrek suposatzen zuen auresupostuen kontrola alderdiei zegokiela, epailea alde batera utziz. Kogniziozko Prozesuan, 1952ko azaroaren 21eko Dekretuaren bitartez arautua, jadanik jasotzen zen auresupostu prozesalak kontrolatzeko epailearen ahalmena. Azkenik, Hitzezko Prozesuan, auresupostu prozesalen kontrolaren egoera ez da definitiboki finkatuko apirilaren 20ko 10/1992 Erreforma Prozesalerako Presazko Neurrien Legera arte, irizpide tekniko prozesal soilak aplikatuz, hau da, organo jurisdikzionalaren alde, auresupostu prozesalen kontrola ofizioz gauzatuz.

Lege berriak ildo berdinetik jarraitzen du epaile eta magistratuen zuzendaritza prozesaleko ahalmenak sendotuz eta zabalduz. Honela, ofiziozko kontrolari ondoko auresupostuen zaintza dagokio:

- Jurisdikzioari dagokionez, nazioko jurisdikzioaren mugak (PZLko 36.2 artikulua), eta ordena desberdinen arabeko jurisdikzioa (PZLko 37. artikulua).
- Eskuduntzari dagokionez, ofizioz kontrolatuko dira eskuduntza objetiboa (48. artikulua), lurralde eskuduntza (58. artikulua), eta eskuduntza funtzionala (62. artikulua).

Puntu honetan, 1997ko Justiziaren Liburu Zuriak auresupostu prozesalen kontrolaren inguruan dioena aipatu beharra dago: *“cualquier proceso ha de estar basado en la posibilidad de resolver con carácter previo a la sentencia la subsanación de cualquier defecto procesal, evitando las absoluciones en la instancia”*. Helburu hau lortzeko modurik egokiena, eta prozesuaren izaera ondoen errespetatzen duena, ofiziozko kontrola da. Lege berriak bultzatzen duena, hain zuzen ere.

Prozesuaren izapidetza hasi ondoren, gainontzeko auresupostu prozesalen kontrola aurre entzunaldian (Epaiketa Arruntan) edo bistan (Hitzezko Epaiketan) egikaritzeko dute alderdiek edo organo jurisdikzionalak, hau delako akatsak konpontzeko une prozesal aproposa. Ikus PZLko 414.1 artikulua, Epaiketa Arrunterako, eta 443 artikulua, Hitzezko Epaiketarako, non kontrola bista deritzan egintzan gauzatuko den. Ikus, baita, PZLko 416. artikulua. Kontrolaren ondorioz adierazitako akatsa konpontzea posible ez izanez gero, prozesuari bukaera eman beharko zaio. Planteamendu oker batek ez du prozesu horretan funtsari buruzko epai bat emateko aukerarik utziko, auresupostu prozesalen bat falta delako, hain zuzen ere.

Bestalde, prozesuaren bultzada aipatzen dugunean, jakin nahi duguna zera da: nori (organoari edo alderdiei) dagokion prozeduraren progresioaren ardura, Legeak ezarritako epeak betearaziz, prozesuaren fase batetik bestera pasatuz, azken epaia lortu arte. Zalantzarik gabe, harreman estu bat dago batetik prozeduraren arintasun eta eraginkortasunarekin, eta bestetik ofiziozko bultzadarekin. Bultzada organo jurisdikzionalaren ardura denean (ofiziozko bultzada), legearen aginduaren ondorioz, bultzada ziurtatua dago. Aldiz, alderdien esku uzten badugu, alderdien bultzada deritzan aukera gauzatuz, interes partidistek erabakiko dute bultzadaren eraginkortasuna, eta ondorioz jurisdikzioaren jardura zuzen eta seriozki kaltetua suerta daiteke. Argi dago, beraz, jardura jurisdikzionalaren ardura ezin dela alderdien esku utzi, arriskutsuegia delako eraginkortasunaren ikuspegitik. Baina arau prozesalak ez dira xedagarriak, izaera juridiko publikoa dutelako; ondorioz, eta logikaz, organo publiko bati –epaileari hain zuzen ere– esleitu beharko zaio haren aplikazioaren zaintza.

Gure ordenamenduan, eta prozesu zibilerako zehazki, 1924az geroztik behin betirako finkatzen da ofiziozko bultzada. Ordura arte kontrako printzipioak agintzen zuen, hau da, legeak berak jasotako alderdien bultzadak, baina bere aplikazioaren emaitza oso eztabaidagarria eta kezkarria zen, luzamendu ulertezinekin, eskubideen gehiegikeriekin, geldiarazpen interesatuekin, etab. Aldaketa beharrezkoa zen. Ondorioz, ofiziozko bultzada aldarrikatu eta aplikatu zenetik, epaileari dagokio egintza edo fase batetik hurrengora pasatzea, hau da, prozedura martxan mantentzea, araututako epeak eta prozesuaren erritmoa errespetatzeko helburuarekin.

1984ean ordena jurisdikzional zibilean egindako Premiako Erreformak mantendu egin zuen bultzada ofizialaren printzipioa. Hurrengo urtean emandako Botere Judizialaren Lege Organikoak (BJLO), 237 eta 288. artikuluen bitartez, definitiboki finkatzen du ofizialtasuna, bultzadaren eremuan, eta epaitegiko idazkariaren esku uzten du haren egikaritzea materiala.

PZL berriak materia honi buruzko aipamen zuzena 179.1 artikuluan egiten du, ikusi dugun joera mantenduz eta sendotuz. Hau organo jurisdikzionalari dagokion ahalmen bat da, eta ofizioz egikarituko du. Dena den, eta prozesu zibilararen izaera kontuan hartuz, ez da harrizkoa izango salbuespenen bat aurkitzea; hori bai, mugatua –esekipen erabakia hartu baino lehen, hirugarrenen edo interes orokorraren kaltea hartu beharko da kontuan– eta bi alderdien borondate adostuan oinarritua (ikus 19.4 artikulua).

Lege berriak tresneria egokia arautzen du, eta epailearen esku jartzen du prozesuaren dinamika mantentzeko helburuarekin, alderdiek maltzurkeriaz bultzatutako gerorapen edo luzapenak ekiditeko; ikus, adibidez, PZLko 288.1 artikulua: *“El litigante por cuya causa no se ejecutare temporáneamente una prueba admitida será sancionado por el tribunal con multa que no podrá ser inferior a diez mil pesetas ni exceder de cien mil, salvo que acredite falta de culpa o desistiese de practicar dicha prueba si él la hubiese propuesto”*. Helburu berberarekin (prozesuaren dinamika mantendu edo erraztea), baina beste ikuspegi batetik, beste tresna batzuk ere arautzen direla aipatu beharra dago; adibidez, 156 edo 590. artikuluetan organo jurisdikzionalaren inplikazioa ziurtatzen da, zilegi denean, aktorearen (demandari edo exekutari) ardura edo zama tradizionala arinduz, eta ordainetan prozesuaren garapena erraztuz; labur esanda, jurisdikzioaren jardura modu egoki batean bermatuz.

Zuzendaritza prozesaleko ahalmenak aztertu ondoren, eta azken urteotan izandako bilakaera kontuan hartuz, konklusioak garbia izan behar du: aipatutako ahalmenak (aurrepostu prozesalen kontrola eta prozesuaren bultzada), arau edo irizpide teknikoek bidez ebatzi behar dira. Zuzendaritza prozesaleko ahalmenak eta prozesuaren funtsean (objektua) dagoen harreman materiala bereiztu behar ditugu. Alderdiek objektuaren inguruan duten nagusitasuna (zuzendaritza materialeko ahalmena), lehen ikusi dugun bezala, nabarmena eta logikoa da. Zuzendaritza prozesalean, aldiz, eta jurisdikzioaren helburu nagusiengan duen eragina ikusiz, epaileak du nagusitasuna.

Lege berriak eskaintzen duen epaile eredu berriak, behin betiko alde batera uzten du sarritan –prozesu zibilean bereziki– izan duen paper pasiboa, alderdien arteko arbitroarena. Hemendik aurrera, prozesuaren benetako zuzendari eta egiazko begirale bihurtuko da eremu prozesalean.

1.6. Froga baloratzeko sistemak

Froga baloratzeko sistema teoriko desberdinak daudenez, eta eragin praktiko desberdinak dituztenez, komenigarria litzateke haien azterketa batekin hastea. Jakin nahi duguna zera da: zein den jardura jurisdikzionalaren izaerara ondoen egokitzen dena, eta tutelaren eraginkortasuna ondoen bermatzen duena. Beraz, ez ditugu kontuan hartu beharko prozesu desberdinetan tramitatzen diren pretentsioak; arlo honetan, oportunitatearen edo beharrezko printzipio zehatzen aplikazioak ez du eraginik. Konponbide berbera, bi prozesu motetarako, guztiz onargarria litzateke.

Tradizionalki PZLak balorazio sistema misto bat eraiki du. Sistema honen balorazio arauak –froga baliabide desberdinen arabera– bi irizpide desberdinetan oinarritu dira: legeak ezarritako balorazioan batzuetan, eta epaileak askatasun osoz egindako balorazioan besteetan.

1.6.1. Legeak finkatutako balorazioa

Jatorrian, sistema juridikoen bilakaeraren aurre urrats edo estadioetan, legeak finkatzen zuen, modu abstraktu eta orokor batean, froga baliabide desberdinen balorazioa, esperientziaren maximak kontuan

hartuz. Horrela, aurrez finkatutako irizpideek, aplikatzeko garaian, epailearen kontzientzia eta konbikzio pertsonala sakatu edo behartzen dituzte sarritan.

Balorazio legalaren aldeko argudio nagusia ziurtasun juridikoa da, ikuspuntu honen arabera alderdiek alde zuzenetik jakingo dutelako frogaren baliabide bati prozesuan zein balio emango zaion. Adibide gisa, dokumentu publikoa aipa dezakegu, eta kategoria orokorraren barnean, eskritura notariala. Horrelako dokumentu baten eraketan fede-emaile publiko batek parte hartuko du (notarioak), eta honek dokumentuan jasotako zenbait elementuren egia ziurtatzen du: tokia, data, egindako adierazpenak (formalki), parte-hartzaileak, etab. Ondorioz, alderdiek eskritura publikoa aukeratzekoan beraien arteko harremana dokumentatzeko, badakite –ebentualki harremana kontentziosoa bihurtuz gero– euskarri materialak legearen poderioz prozesuan zein balio izango duen.

Balorazio legalak nabarmenki muga dezake auzitegien erabaki eremua, eta izugarri konplikatu du motibazioa bi balorazio irizpideak aldi berean erabili eta adostu behar direnean, eta emaitza kontraesankorrak eskaintzen dituztenean. Ondorioz, eta aspalditik, Auzitegi Gorenak (AG) zenbait ebazpenetan baimendu egin du balorazio legalaren arauak urratzea, frogaren “baterako balorazioa”-ren teknikaren bitartez (adibidez, 1978ko abenduaren 16ko eta 1979ko ekainaren 19ko AGE). Aldi berean, balorazio legalaren arauen urrapena Kasazio helegitearen bitartez helegin zitekeen (ikus PZL zaharraren 1692.4 artikulua). Gaia benetan korapilatsua izanik, Auzitegi Konstituzionalak (AK) ere parte hartu zuen, irizpide malgu bati eutsiz; 307/1985 Autoan, maiatzaren 8koa, adierazi zuenez, *“La Constitución no veda ni podría vedar la apreciación conjunta de las pruebas aportadas”*.

“Baterako balorazioa” teknika modu egokian aplikatzeko, motibazio zehatza galdatzen da (EK 120.3 artikulua arabera). Motibazioa ezin da baterako balorazioari aipamen orokor bat eginez ordezkatu; beraz, hemen kokatuko dugu erabilera zilegiaren muga. Motibazio egokiak automatikoki baztertzeko balorazio diskrezional edo arbitrarioak; hala (modu egokian) egiten ez den neurrian, ebazpena aurkatzeko aukera garbi bat izango dugu, indefentsioa sortu duelako.

1881eko PZLan, ondoko frogaren baliabide hauek baloratzen ziren legeak emandako irizpidearen arabera:

Aitortza judiziala (alderdien galdeketa Lege berrian), aitortza zinpeko erabakigarri moduan ematen zenean (ikus PZLko 580, II eta III. 587 II, artikulua). Baita ere, Kode Zibileko (KZ) 1232 eta 1238. artikulua.

Dokumentuak. Dokumentu publikoak (PZLko 596 eta ondorengo artikulua, eta KZeko 1218 eta ondorengo artikulua). Dokumentu pribatuak, legearen arabera errekonozituak zirenean (KZeko 1225 eta ondorengo artikulua).

Gainontzeko frogaren baliabideak, prozesu zibilean, 1881eko PZLaren arabera, balorazioa irizpide askearen bidez neurtuko dira.

1.6.2. Balorazio askea

Sistema honen oinarria, epailearen erabaki librea da; honek esan nahi du erabakiaren formazioan irizpide nagusia epailearen konbikzio pertsonala dela. Legeak ez du ezer agintzen, ez du irizpide legalik finkatzen frogaren baliabideen balorazioaren inguruan. Epaileak, prozesuan zuzenean parte hartu ondoren, ebazpena oinarritu edo motibatuzko erabiliko du frogaren praktikaren emaitzari buruz lortutako konbikzioa.

Zuzenbide konparatuaren mailan, gero eta gehiago erabiltzen da balorazio askearen sistema. Gure ordenamenduaren barnean, prozesu penalean hain zuzen ere, balorazio sistema askea erabili izan da tradizionalki. Esan beharra dago balorazio askeak ez duela, inondik inora, balorazio arbitrario edo diskrezionala suposatzen. Ebazpena, legearen aginduari jarraituz, berdin-berdin motibatuzko behar da, argudio arrazoituetan oinarrituz, bestela EK 24.1 artikulua urratuko baita, indefentsioa sorraraziz (ikus EK 24.1 eta 120.3 artikulua, eta BJLO 247 eta 248 artikulua). Baita ere uztailearen 1eko 142/1991 eta urriaren 28ko 199/1991 AKE. Azkenik, 1990eko otsailaren 26ko eta 1992ko ekainaren 20ko AGE).

1.6.3. Balorazio sistema PZL berrian

Gaur egungo legegileak balorazio sistema misto bat mantentzen du prozesu zibilerako. Baina honek ez du esan nahi 2000ko PZLan sistema zaharrarekiko berrikuntza edo aldaketarik ez dagoenik. Froga arautzen duten artikulua irakurri ondoren, berehala jabetzen gara legegileak izan duen une aproposa profitatu duela erregulazio zaharra gaurkotu eta egokitzeko. Ikus dezagun.

1881eko PZLan askatasunez baloratzen ziren froga baliabideek berdin jarraitzen dute 2000ko PZLan; adibidez, aditu edo perituen irizpenak, 348. artikuluan: *“El tribunal valorará los dictámenes periciales según las reglas de la sana crítica”*. Epailearen azterketa kasu berezia dugu, kontuan hartuz froga baliabide honek, izaeraren arabera, harreman zuzen bat galdatzen duela frogatu nahi diren gertakarien eta epailearen artean, ez baitago bitartekaririk; beraz, balorazio askea nahitaezkoa agertzen zaigu. Beharbada esandakoan oinarrituz, Legeak ez dio erreferentzia espresurik egiten epailearen azterketaren balorazioari. Azkenik, lekukoen galdeketa dugu, 376. artikuluan: *“Los tribunales valorarán la fuerza probatoria de las declaraciones de los testigos conforme a las reglas de la sana crítica...”*.

“Kritika osasuntsuaren arauen arabera” formularen bitartez gauzatzen da balorazio askea PZL berrian ere. Argi dago kritika osasuntsu hori adierazi edo kanporatzeko, motibazioa –lehen esan dugun bezala– beharrezkoa dela arbitrariedade arriskua aldentzeko.

Gainontzeko froga baliabideen balorazioa, legeak finkatutako irizpideen arabera izan daiteke, baina logikan oinarritua betiere, esperientziaren maximak kontuan hartuz. Hemen bereziki, legegileak araua gaurkatzeko ahalegin serio bat egin du gure iritziz. Ikus dezagun:

Alderdien galdeketa dagokionez (PZLko 316. artikulua), bakarrik baloratuko dira legearen arabera –hau da, bakarrik finkatu edo ontzat hartuko dira– alderdiak egiaztatutako gertakariak, berarentzat kaltegarriak direnean, eta emaitza ez doanean praktikaturako beste froga baliabideen emaitzen kontra. Gainontzeko kasuetan, epaileak modu libre batean gauzatuko du balorazioa.

Dokumentu publikoei dagokienez (PZLko 319. artikulua), legegileak kontuan hartzen du fedatzaile publikoaren parte-hartzea, eta honek benetan egiazta dezakeena. Beraz, balorazioaren irizpide legala benetan neurtua dela esan genezake. Hala dio Legeak: *“harán prueba plena del hecho, acto o estado de cosas que documenten, de la fecha en que se produce esa documentación y de la identidad de los fedatarios y demás personas que, en su caso, intervengan en ella”*.

Dokumentu pribatuak (PZLko 326. artikulua) froga irizpide legalen bidez baloratu ahal izateko, nahitaezkoa izango da kaltetuak dokumentuaren kautotasuna ez aurkatzea. Legearen hitzetan, *“Los documentos privados harán prueba plena en el proceso, en los términos del artículo 319, cuando su autenticidad no sea impugnada por la parte a quien perjudiquen”*. Inpugnazioa eskatuz gero, tramitazioa adituak egindako *cotejo pericial de letras* baliabidearen bitartez gauzatuko da –egokiena delako–. Honek suposatzen du balorazioaren aldetik gehienetan erabakigarria izango den irizpidea, froga askearena izango dela.

1.7. Fede on prozesalaren printzipioa

Zalantzarik gabe printzipio honek aipamen berezi bat merezi du, berarekin gauzatzen delako, printzipioen eremu honetan, PZLak egindako berrikuntza nabarmen bat. Legegileak, PZLko 247. artikulua bitartez, lehen aldiz positibizatu du prozesu zibilerako beste ordenamendu batzuetan –eta gurean ere bai, gutxienez enuntziatua (ikus BJLOko 11. artikulua)– aspalditik indarrean dagoen fede onaren printzipioa. Gainera, azken urteotan zenbait autorek antzeko zerbaiten beharra aldarrikatu dute, prozesuan leialtasuna eta joko garbia bultzatzeko helburuarekin. Beraz, guretzat aurre balorazioak aldekoa eta laudatorioa izan behar du.

Printzipio honen arabera, epaileari prozesuan jardueraren zuzendaritza bermatzeko ahalmen zehatz bat ematen zaio, zenbait tresna desberdinetan gauzatzen dena. Galdera izan daiteke: beharrezkoa zen horrelakorik? Erantzuteko, ordena jurisdikzional zibilarren errealitatea aztertuko dugu, eraginkortasunaren ikuspegitik. Inguruabarrei dagokienez, prozesu zibilak tradizionalki aukera gehiegi eman dizkie alderdiei

azpijokoak, trikimailuak eta antzeko jokaerak garatu ahal izateko. Ondorioz, prozesua luzatu egiten da, garestitu, eta ez da eraginkorra izaten, eta, logikaz, frustrazio iturri bihur daiteke alderdientzat. Beraz, gizarteak ez du positiboki baloratuko. Labur esanda, akats larri bat da.

Deskribatu dugun arazoaren oinarrian kontrol gabezia dago; horregatik, legegileak, PZL berriaren bitartez, epailearen esku jartzen du prozesuko jarduerak garapen egokia izateko ardura. Orokorrean esan genezake ahalmena zigor ekonomikoetan (isunak) gauzatuko dela. Alderdien esku dago garbi jokatzea edo ez, baina gehiegikeriaz aritzen badira, “ordaindu” egin beharko dute, dela dirutan, dela aukerak galduz.

Neurri hauek, fede on prozesalaren printzipioan sartzen direla, joko garbiaren pizgarri bihurtuko dira eta, zalantzarik gabe, hobetu egingo dute jarduera prozesalaren eraginkortasun maila. Azpimarragarria da, baita, hiritarrek horrela Justiziarenganako konfiantza –nahiz eta gutxinaka– berreskuratuko dutela.

Epaileak bere eremu prozesaleko zuzendari funtzioan –Lege berriak indartu eta sendotu egiten duen funtzioa– onar ditzakeen neurrietako batzuk, adibide gisa, hauek dira:

- Laguntza judizialarekiko alderdien diligenzia gabeziagatik: 5.000 pezetako isuna atzerapen egun bakoitzeko (PZLko 176. artikulua).
- Froga dagokion momentu egokian ez praktikatzeagatik: 10.000 eta 100.000 pezeta bitarteko isuna (PZLko 288. artikulua).
- Peritu edo adituen aurkako tatxa ausarta edo ezleiala aurkezteagatik: 10.000 eta 100.000 pezeta bitarteko isuna (PZLko 344.2 artikulua).
- Exekutatuaren ondasunen manifestazio betebeharra ez errespetatzeagatik: desobeditze larriagatik zigorra (PZLko 589.2 artikulua), edo aldizkako isunak (PZLko 589.3 artikulua).

2. Prozeduraren printzipioak

2.1. Prozedura zibilaren inguruko orokortasunak

Prozedura jurisdikzionala –bere egitura, konfigurazioa eta egokitasuna– ezinbesteko tresna da prozesu arin (bidegabeko atzerapenik gabe) eta eraginkor bat (guztiek berehala betetzen dituzte haren ebazpenak) lortzeko; hau da, Konstituzioak 24.1 artikuluan agintzen duen tutela eraginkorraren helburua bermatzen duen prozesu bat lortu ahal izateko.

Azpimarratu egin nahi dugu bota dugun ideia: prozeduraren eragin zuzena prozesuaren eraginkortasunarekiko. Zalantzarik gabe, PZL berriak proposamen honen adibide paregabe bat eskaintzen digu. Legegileak aldaketa benetan sakona bultzatu eta gauzatu du prozeduraren eremuan: tradizionalki idatziz tramitatzen zen prozedura, ahozko bihurtu du. Aldaketa honek ondorio izugarri garrantzitsuak izango ditu prozesu zibilaren etorkizunean.

Espainiako ordenamenduak, gure inguruko gainontzeko guztiek bezala, formen legezkotasun printzipioari eusten dio. PZL berriak konfirmatu egiten du esandakoa, eta honako aipamen adierazgarri hau egiten du lehenengo artikuluan –bere garaian PZL zaharrak aurreneko artikuluan egiten zuen bezala–: *“En los procesos civiles, los tribunales y quienes ante ellos acudan e intervengan deberán actuar con arreglo a lo dispuesto en esta Ley”*. Agindua garbia da: bai auzitegien aurrean justizia eskatzen dutenek, bai justizia egikaritzen dutenek, legeak aurrez finkatutako formak errespetatu beharko dituzte, bakoitzaren helburuak lortu nahi izanez gero. Formen legezkotasun printzipioak ziurtasun eta segurtasun juridiko maila egoki bat bermatzen du, bereziki alderdientzat. PZL berriaren printzipio honen bertsioa, zaharra baino perfektuagoa iruditzen zaigu, espresuki aipatzen dituelako alderdiak eta –hemen dator berrikuntza azpimarragarria– baita ere organo jurisdikzionala. Guztiek errespetatu behar dituzte Legeak ezarritako formak. Printzipio honen alternatiba teoriko bakarra formen askatasuna da: bakoitzak nahi duen formarekin egingo ditu dagozkion egintza prozesalak, baina gauzak izugarri konplikatuko lirarteke guztiontzat hala eginez gero, eta

beraz ez da erraza izango, eta ezta ere eraginkorra edo ziurra, gizarte zibilizatu bateko auziak horrelako sistema baten bidez izapidatzea.

Legeak agindutako forma eta egintza desberdinek prozedura bera osatzen dute eta, ikuspegi honetatik garbi dago prozedurak prozesuarengan eragin zuzena daukala, eta prozesuaren berme aktibo bat bihur daitekeela.

Formen legezkotasun sistema finkatu ondoren, aukera bikoitz bat erabaki behar dugu oraindik, hau da, idazketa edo ahozketasun printzipioen artekoa. Tradizionalki, mendetan, idazketa printzipioa izan da prozesu zibilean nagusi; konsagratu den formula honen arabera, *Quod non est in actis non est in mundo*. Beste alde batetik, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak, 1997an argitaratutako Justziaren Liburu Zurian, sendoki gomedatzen ditu ahozketasun, hurrentasun eta trinkotasun printzipioak jarduera jurisdikzionala gauzatzekoan, tutela eraginkorra lortzeko helburuarekin.

Idazketa eta ahozketasun printzipioen arteko alternatiba aipatzen dugunean, ez dugu esan nahi bien arteko bereizketa absolutua denik, ko-existentzia baizik. Prozedura idatzia edo ahozkoa den esateko, egintza nagusiak aztertu beharko ditugu: nola tarteratzen den pretentsioa, nola praktikatzen den froga, etab.

Neurri batean, prozedura guztietan nahasten eta konbinatzen dira idatziz eta ahoz izapidetzen diren egintzak. Hortaz, egintza nagusietarako erabiltzen den formak emango digu prozedura osoaren izaera, eta, forma aldetik, printzipio nagusitik ondorioztatuz jakingo dugu zeintzuk diren printzipio eratorriak. Ahozketasuna edo idazketa aukeratzeak ondorioak ditu, ondorio logiko eta bazterrezinak; izan ere, aukeratu dena ez da printzipio formal soil bat, sistema oso bat baizik. Hori guztia kontuan hartu beharko dugu aukeratu baino lehen, aztertuz eta neurtuz.

Legegileak diseinatutako sistema ahozketasunaren ondorioa da, eta hurrentasun, trinkotasun eta publizitate printzipioetan oinarritzen da. Azkenean, doktrina prozesalak eta beste zenbait juristek egindako proposamenak –Konstituzioaren aginduetan errotoak– onartzen dira, hiritarrengandik gertu egon behar duen prozesu bat garatzeko, eta epailea prozesuarekiko kokapen apropos batean eta tresna egokiekin hornituta egon dadin.

2.2. Ahozketasuna eta bere printzipio eratorriak

Ahozketasunak suposatu behar du hori dela prozeduraren forma nagusia; ondorioz, ahoz gauzatuko da auziari buruzko eztabaida juridikoa, alegazio eta frogen inguruan. Ahoz izapidetutako eztabaida eta bere emaitzak izango dira epaileak –hurrentasun aktibo baten bidez aritu dena– azken ebazpena edo epaia emateko aztertu eta erabiliko dituen materialak.

Lehentxoago aurreratu dugu 1978ko Konstituzioak –arauen piramidearen tontorrak– formari buruzko aipamen espresuak egiten dituela. Hori argi ikus daiteke EK-ko 120.2 artikulua irakurriz gero: arau honen arabera, ahozketasunak lehentasunezko tratamendua jasotzen du, bereziki –baina ez bakarrik– jurisdikzio penalaren arloan. EKak esandakoa errepikatu eta zabaldu egiten du 1985etik indarrean dagoen BJLOak, 229. artikuluan, publizitatea eta hurrentasunari erreferentzia espresuak eginez. BJLOaren asmoa –ordena jurisdikzional guztien oinarri komuna denez–, aukeratu eta gauzatutako formari buruzko sistema, prozedura jurisdikzional mota guztietara zabaltzea da.

Ahozketasunaren aldeko argudioak askotarikoak dira seguruenik, baina gure aldetik bereziki bat azpimarratu nahi dugu –orokorra, oinarrizkoa–. Ahozketasunean –eta, noski, dagozkion printzipio eratorrietan– oinarritutako prozedura jurisdikzional bat askoz ere egokiagoa da tutela eraginkorra lortu ahal izateko, zalantzarik gabe. Dena den, gure ordenamenduan gaur egun oraindik badaude irizpide hauek errespetatzen ez dituzten hainbat prozedura jurisdikzional; egia da gero eta gutxiago direla, baina –esan beharra dago– legegileak ez ditu aurkeztu zaizkion aukera guztiak aprobetxatu ahozketasuna zabaltzeko agindua betetzeko; adibidez, eta denboran gertu, 29/1998ko Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legea (AAJL). Arrazoiak askotarikoak dira: legeen eta errealitatearen artean tradizionalki egoten den disfuntzioa, praktika jarriaren ondorio den inertzia, etabar. Aipagarria da, baita, ahozketasunaren aplikazio eraginkorrak idatzizko sistemak baino kostu handiagoa duela, eta ez dirutan bakarrik.

Ahazkotasuna, XIX. mendearen erdialdean agertzen zaigu idazketaren alternatiba erreal bezala. Aldaketa garrantzitsu hau Alemania eta inguruko herrialdeetan kokatzen da geografikoki, eta aplikazio zehatzaren ikuspegitik, bai prozedura penalean, bai zibilean. Ahazkotasunak dauzkan abantailak hartzen dituzte kontuan, eta ez bakarrik metodologikoak; hala nola ahazkotasunak azalpenari ematen dion argitasuna eta energia, bizkortasuna eta naturaltasuna. Erteuropako juristak jabetzen dira ahazkotasunak hobeto bermatzen duela prozesu eraginkor bat, kasu zehatz bakoitzari bereziki egokitzen zaiola, material prozesala osatu eta argitu egiten duela, eta interpretazio oker edo desegokiak baztertzeko dituela.

Gure ordenamenduan, eta aipatutako 29/1998ko AAJL izan ezik, gainontzeko prozedura juridikozko nagusiak ahazkotasunaren –eta printzipio eratorrien– arabera izapidetzen dira: tradizionalki prozedura penala, aspalditik lan prozedura, eta aurtendik baita prozedura zibila ere.

Ahozko prozeduraren bitartez tramitatzen diren prozesuek, ahazko eztabaida edo antzekoren bat dute egintza nagusi gisa, ohiz epaiketa edo bista deritzana. Organo juridikozkoen debate publiko horren bitartez bakarrik bete dezakete EKak ahazkotasunari buruz agindutakoa.

Legegileak, PZL berriaren bitartez, apustu sendo bat egiten du ahazko prozeduraren alde. Honela, Zioen Adierazpeneko XII. atalean zera aurkitzen dugu, haren helburuak eta asmoak azalduz: *“La Ley diseña los procesos declarativos de modo que la intermediación, la publicidad y la oralidad hayan de ser efectivas. En los juicios verbales, por la trascendencia de la vista; en el ordinario, porque tras demanda y contestación, los hitos procedimentales más sobresalientes son la audiencia previa al juicio y el juicio mismo, ambos con la inexcusable presencia del juzgador”*.

Aurre entzunaldia (414 eta 430 bitarteko artikuluetan arautua) eta epaiketa (431 eta 433 bitarteko artikuluetan arautua) prozesu arruntean, eta bista (443 eta 447 bitarteko artikuluetan arautua) hitzezkoan, dira bakoitzeko egintza prozesal nagusia, ahoz izapidetzen dena. Egintza hauen bitartez, prozesu zehatz bakoitzeko jardura juridikozkoaren elementu nagusiak gauzatzen dira: prozesuaren planteamendu egokia (aurrepostuen zaintza) kontrolatzen da, alegazioak osatzen dira, froga proposatu eta praktikatu da, konklusioak azaltzen dira. Guztia ahoz, epailearen hurrentasunarekin eta alderdien parte-hartze eraginkorarekin.

Azkenez, esan genezake PZLarekin ahazkotasun printzipioa behin betiko nagusitu dela prozedura zibilerako, azken urteotan sumatu den baina arrakasta eskasa izan duen joera bat burutuz. Lege berriak ez du aukerarik ematen; alderdiek ezin dute egintza bat ahoz edo idatziz egin hautatu nahi dutenaren edo komeni zaienaren arabera. Araudi berriak forma bakarra baimentzen du –forma ez da negoziatzen–, eta gehienetan ahazkoa izango da.

Hemendik aurrera ahazkotasunaren printzipio eratorriak aztertuko ditugu –orain arte aipatu ditugunak (hurrentasuna, trinkotasuna eta publikitatea), baina sistematikoki landu ez ditugunak–, PZLak eraikitzen duen sistema berria osotasunean aurkeztuz.

Dena den, eta nahiz eta erreforma, gure iritziz, positiboa eta beharrezkoa izan, ezin dugu baieztatu Lege berria indarrean dagoenetik ahazkotasunaren gauzaketa egokia eta berehalakoa izango denik. Idazketaren ohitura eta haren ondorioak oso sustraituta daude operadore juridiko prozesal zibilen artean. Beraz, hauek forma berrien aldeko borondatea agertzea nahitaezkoa izango da Legearen potentzialitate osoa zabaldu eta garatu ahal izateko. Aldi berean, eta Legearen aginduak modu egoki batean bete nahi badira, baldintza objektiboak eta baliabide pertsonal eta materialak ziurtatu beharra dago. Azkenik denbora dezente igaro behar da tresna ezezagunak asimilatu eta forma berriei baliatzeko modua ikasi arte.

2.3. Hurrentasun printzipioa

Prozesu berria, epailearen aurrean garatuko da –gutxienez egintza nagusiak, aurre entzunaldia, epaiketa eta bista–, bitarteko elementu edo pertsonarik gabe. Helburua, epaile eta alderdien artean ahalik eta hurbiltasun intelektiborik handiena egotea da, alegazioarekiko eta froga praktikarekiko.

Bilatzen dena ez da hurrentasun formal soilak bakarrik, baizik eta baita horrekin lotuta dagoen auzitegi kideen aldatzeko aukerak zorrozki mugatzea ere. Bi elementuen arteko lotura logikoa da, eta bien

arteko emaitza hurrentasun materiala izango da; justizia eskatzaileen bermea, azken finean (ikus PZLko 190 eta 194. artikulua).

Beraz, hurrentasunaren muinean dogoen ideia zera da: azken ebazpena oinarrituko duten gertakarietarako buruzko materialen produkzio edo sorkuntza zuzenean epailearen aurrean gauzatu behar dela, froga baliabide zuzen eta egokia erabiliz eta, ahal den neurrian, bigarren eskuko edo zeharkako frogak ekidinez.

PZL berriak argi eta garbi bultzatzen du hurrentasun printzipioa, epailearen eta alderdien arteko harremana modurik egokienean errotzeko helburuarekin (ikus PZLko Zioen Adierazpeneko IX. atala: *“Cabe destacar un singular énfasis en las disposiciones sobre la necesaria publicidad y presencia del Juez o de los Magistrados –no sólo el Ponente, si se trata de órgano colegiado– en los actos de prueba, comparencias y vistas”*). Ikus, agindua zehaztuz, PZLko 289.2 artikulua).

Legeak larriki zigortzen du aztertzen ari garen printzipioaren urrapena, deuseztasunarekin hain zuzen ere. Ikus PZLko Zioen Adierazpeneko IX. atala: *“Se sanciona con nulidad radical la infracción de lo dispuesto sobre presencia judicial o intermediación en sentido amplio”*, eta, zehazki, PZLko 137.3 artikulua: *“La infracción de lo dispuesto en los apartados anteriores (hurrentasuna edo epaile eta magistratuen presentzia) determinará la nulidad de pleno derecho de las correspondientes actuaciones”*. Pentsa genezake, legegilearekin batera, urrapen kasuan ezartzen den zigorraren larritasunak behin betiko eraginkortasuna bermatzen diola hurrentasuna agintzen duen arauari.

2.4. Trinkotasuna/egintzazko batasuna/arintasuna

Trinkotasun eta egintzazko batasunaren printzipioak, prozedura penaleko irizpideak izan dira tradizionalki, eta PZL berriaren eskutik prozedura zibilera zabaltzen dira. Aurreikuspen honek, legegilearen asmoen arabera gauzatuz gero, izaerako aldaketa sakon bat suposatuko luke, zibil arloan tutela eranginkorrekiko intzidentzia edo eragin zuzena izanik. Ikus PZLko Zioen Adierazpeneko IX. atala, hurrentasun printzipioarekin lotuz: *“La presente Ley no exagera la importancia de la intermediación en el proceso civil ni aspira a una utopía, porque, además de la relevancia de la intermediación para el certero enjuiciamiento de toda clase de asuntos, la ordenación de los nuevos procesos civiles en esta Ley impone concentración de la práctica de la prueba y proximidad de dicha práctica al momento de dictar sentencia”*. Ikus, zehazki, PZLko 290. artikulua.

Printzipio hauek –trinkotasuna bereziki– modu egoki eta erreal baten gauzatu ahal izateko, kontuan hartu beharko dugu jurisprudentziak esandakoa (jatorriz, ordena penalean emandako ebazpena guztiz aplikagarria zaiola gaur egun daukagun prozesu zibil berriari). Auzitegien interpretazioaren arabera, ikuspegi murriztaile batetik aztertu behar ditugu epaiketa esekitzeko ahalbideak. Trinkotasunaren eta egintzazko batasunaren garrantzia garbi agertzen zaigu; ahozko batasun erreala bermatzeko, eta, ondorioz, prozeduraren arintasuna ziurtatzeko, beharrezkoa da benetako trinkotasuna eta batasuna gauzatzea. Bista esekitzeko ahalbideei dagokienez –*numerus clausus* bezala daude formulatuta–, ikus PZLko 188. artikulua.

Bista edo eztabaidaren batasuna, trinkotasunaren ondorio da, prozedura idatzietan ematen diren preklusio eta ebentualitate printzipioen kontrakoa. Eztabaida edo debatearen batasunak prozesuaren malgutasuna ahalmentzen du prozedura izapidetzan zehar, bistan (eztabaida garaian) alegazioak eta froga proposamenak gaurkotuz (ikus PZLko 286 eta 433.1 II, artikulua).

2.5. Publizitatea

Publizitatearen eta sekretuaren arteko alternatibaren aurrean, gure ordenamenduan orain arte ahozko prozeduren bidez izapidetu diren prozesuek (prozesu penala eta lan prozesua) publizitatea aukeratu dute. Arrazoen artean, kontuan hartu behar dugu ahozko batasunarekin koherentzia duen alternatiba bakarra publizitatea dela. Publizitatearen interpretazio zuzen edo egokia, prozesua hirugarrenei irekitzea eta gardentasuna da. Ideologia liberalaren arabera, jarduera jurisdikzionalaren kontrola komunitatea osatzen duten hiritarren parte-hartze ebentualaren bidez gauzatuko da.

Publizitatea, prozeduraren oinarriko printzipio gisa onartua dago, eta, aldi berean, prozesuaren izaerazko bermea da. Ondorioz, nazioarteko testu juridiko garrantzitsuenek erreferentzia espresuak jasotzen dituzte publizitateari buruz; adibidez, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak bere 14.1 artikuluan, eta 1950eko Giza Eskubide eta Oinarriko Askatasunen Europar Hitzarmenak 6. artikuluan.

Gure ordenamenduaren barnean ere, publizitateak duen arreta lehen mailakoa da, EK-ko 24.2 artikuluan oinarriko eskubide eta prozesuaren berme kontsiderazioarekin, eta 120.1 artikuluan egintza judizialak informatzen dituen printzipio orokor bezala. Ordena jurisdikzional guztiak oinarritzen dituen arauetan, BJLOan, errepikatu eta zehaztu egiten da Konstituzioak 120.1 artikuluan publizitateari egindako erreferentzia (ikus 232. artikulua).

Publizitatearen xedea, jarduera jurisdikzionalak *ad extra* gizartearengan duen eragina da, eta bereziki penal arloan. Horregatik, ez da defendagarria ezta ulergarria izango jarduera jurisdikzionala isilean edo modu sekretuan izapidetzea. Sekretuak gizartearen kontrola eragozten du, eta ezin dugu ahaztu ahalmen edo potestate jurisdikzionalaren jatorrian herriaren subiranotasuna dagoela. Beraz, ez dago sekretuaren alde argudiatzerik, ez duelako euskarri edo sostengu juridiko ezta logikorik.

Zuzenbidezko Estatu batean, jurisdikzioaren edozein manifestaziok, derrigorrean publizitate printzipioan –benetako publizitatean– oinarrituta egon beharko du.

Auzitegi Konstituzionalak sarritan aztertu du prozesu publikoa jasotzeko oinarriko eskubidea, bere eduki zehatza finkatuz. Orokorrean esan genezake publizitate erreala bultzatu duela, EKak agindutakoa sakonduz eta zabalduz (ikus paradigmaticoa den 96/1987 AKE, ekainaren 10ekoa). Publizitateak baditu, logikoa denez, salbuespenak, aparteko egoeretan oinarrituak egon behar dutenak eta legeek espresuki onartzen dituztenak. Beraz, publizitatearen salbuespenei dagokien interpretazioak hertsia izan behar du (ikus PZL berriko 138. artikulua).

Orain arte, ordena zibilean, ez zen benetako publizitatea edo publizitate osoa bermatzen –kontuan hartu behar dugu prozedura idatziz izapidetzen zela, eta, esan dugunez, idazketa eta publizitate printzipioak ez dira, inondik inora, bateragarriak–. Aztertzen ari garen printzipioaren izaera juridikoaz jabetuz, esan beharra dago ikuspegi juridiko-prozesalek eta berme jurisdikzionalen irizpideen arabera, egoera nahiko larria zela publizitatearentzat PZL zaharraren aplikazioaren ondorioz.

PZL berriarekin, prozedura zibilean benetako publizitatea lortzeko baldintzak ematen dira, eta guztia ahozkotasan printzipioaren aplikazioaren ondorioz. PZL berriaren 138.1 artikulua zera dio, egintza judizial nagusiei buruz: *“Las actuaciones de prueba, las vistas y las comparencias cuyo objeto sea oír a las partes antes de dictar una resolución se practicarán en audiencia pública”*. Publizitatearen salbuespenak (puntualak, printzipioaren eraginkortasuna ukitzen ez dutenak), beren zioak, prozedura eta ebazpena, artikulua berberak arautzen ditu 2. eta 3. zenbakietan.

Zehazki publizitateari eta froga jarduerari buruz, ikus PZLko 289.1 artikulua: *“Las pruebas se practicarán contradictoriamente en vista pública, o con publicidad y documentación similares si no se llevasen a efecto en la sede del tribunal”*. Salbuespen oinarrituak ere badaude; ikus, adibidez, 754. artikulua.

3. Konklusioak

Orokorrean, eta Legea printzipioen ikuspegitik aztertu ondoren, behin-behineko balantzea egiteko orduan esan genezake argiak gerizpeak baino zabalagoak direla. Legearen aldeko gogarpenak askotarikoak dira; adibidez, eta aurreko orrialdeetan esan bezala, zuzendaritza prozesaleko ahalmenak, ahozkotasuna, hurrentasuna, arintasuna, sinplifikazioa, ulergarritasuna, etab. Noski akatsak daudela zenbait artikulua interpretatzeko edo, baita ere eta bereziki, aplikatzeko garaian. Dena den, eta gure ustez, aipatutako aplikazio akatsak oso zehatzak dira eta, gehienak, entitate txikikoak, gainditzeko modukoak.

Ikuspegi teoriko eta orokor batetik (printzipioena), legegileak asmo sendo bat azaltzen du PZL berria EKaren aginduekin adosteko, tradizionalki egon diren oztopoak, tutela jurisdikzionalaren eraginkortasuna eragozten zutenak, desagertaraziz. Bestalde, epailearen irudia indartua agertzen zaigu orokorrean, eta

bereziki dagokion paperean hau da, prozesuaren zuzendari edo lider gisa, eta aldi berean, ahalmenak orekatuz, jarduera jurisdikzionalaren erantzule nagusi gisa.

Gure iritziz, benetan sakona izan da bultzatu den aldaketa, prozesu eta prozedimendu zibilarekiko, behar eta baliabide berri eta ugari galdatuz. Horregatik, urriegia iruditu zaigu Legeak aurreikusitako *vacatio legis* epea (urte betekoa). Egoera analogo baten aurrean (jurisdikzio zibilaren erreforma sakona), Italiako legegileak, azken hamarkadaren hasieran, bost urteko *vacatio legis* epea erabaki zuen.

Aipatu ditugu jadanik baliabide eta behar berri eta ugariak. Ikuspegi praktiko batetik, Legearen aplikazioa ez da egokia izango aurrez nahiko baliabide material eta pertsonal bermatzen ez badira. Hala eginez gero, ezin izango da zalantza gabeko arrakasta ziurtatu, baina egiten ez bada, porrota segurua izango da.

Baliabideez gain, beharrezkoa da operatzaile juridikoek Lege berria barneratzea, asimilatzea, eta, noski, bere aldeko jarrera izatea. Ohiturak aldatzea, batik bat zaharrak sakonki sustraituak daudenean, lan isil eta delikatua bihurtzen da.

Azkenez, eta esandako guztia kontuan hartuz, gure ustez, PZL berriaren garapen osoak eta funtzionamendu egokiak, guztion aldetik –bereziki administrazioaren eta operadore juridikoen aldetik– zenbait urteko ahalegin serio eta irmoa galdatzen du.

Bibliografia

- BANACLOCHE PALAO, J. "Las líneas generales de la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *Revista de Tribunales de Justicia*, 1. zkia., 2000ko urtarrila, 3-14 orr.
- BERZOSA FRANCOS, M.V. "Los principios inspiradores del futuro proceso civil", In: PICÓ I JUNOY, J. (koordinatzailea) *Presente y futuro del Proceso Civil*, Bartzelona: J.M. Bosch Editor, 1998.
- BLANES RODRIGUEZ, E. "Notas críticas sobre la aplicación de los principios de oralidad, concentración e intermediación en el Anteproyecto de la L.E.C.", In: *Jornadas sobre el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Asociación Jueces para la Democracia, Zaragoza: Edijus, 1999.
- CAPPELLETTI, M. *La oralidad y las pruebas en el proceso civil* (itzultzailea: Sentís Melendo), Buenos Aires: E. J. Europa-América, 1972.
- CARMENA CASTRILLO, M. "El incumplimiento del principio de intermediación real como causa de nulidad en el proceso civil", In: *Jornadas sobre la Reforma de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: Consejo General del Poder Judicial, 1985.
- CARNELUTTI, F. *Derecho Procesal Civil y Penal. Derecho y proceso*, I. lib., Buenos Aires: E. J. Europa-América, 1971.
- CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, *Libro Blanco de la Justicia*, Madril, 1997.
- CORDON MORENO, F. "En torno a los poderes de dirección del Juez Civil", In: *RDpriv*, 1979, 807-826 orr.
- COUTURE, E.J. "Las garantías constitucionales del proceso civil", In: *Estudios de Derecho Procesal Civil*, Buenos Aires: Depalma, 1948.
- CREMADES MORANT, J.B. "El Anteproyecto ante las exigencias del modelo del nuevo procedimiento civil. Las facultades del Juez en la prueba", In: *Jornadas sobre el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Asociación Jueces para la Democracia, Zaragoza: Edijus, 1999.
- CHIOVENDA, G. *Principios de Derecho Procesal Civil*, II. lib., Madril: Reus, 1977.
- DE LA OLIVA SANTOS, A. "Sobre la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil: criterios inspiradores e innovaciones principales", In: *Revista Tribunales de Justicia*, 2. zkia., 2000ko otsaila, 127-141 orr.
- DE LA OLIVA/DIEZ-PICAZO/VEGAS. *Derecho Procesal. Introducción*, Madril: Centro de Estudios Ramón Areces, S.A., 1999.

- DE LA OLIVA/DIEZ-PICAZO. *Derecho Procesal Civil. El proceso de declaración*, Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, S.A., 2000.
- DEVIS ECHANDIA, H. *Compendio de Derecho Procesal*, II. lib., Buenos Aires: ABC, 1969.
- ESPARZA LEIBAR, I. *El principio del proceso debido*, Bartzelona: J.M. Bosch Editor, 1995.
- ESPARZA LEIBAR, I. *El presupuesto procesal del procedimiento adecuado*, Granada: Comares, 1996.
- ESPARZA LEIBAR, I. *El dictamen de peritos en la Ley 1/2000, de Enjuiciamiento Civil*, Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000.
- FAIREN GUILLEN, V. *Doctrina general del derecho procesal, hacia una teoría y ley procesal generales*, Bartzelona: J.M. Bosch Editor, 1990.
- GOMEZ COLOMER, J.L. *Paralización del procedimiento*, NEJ 1986, t. XVIII.
- GOMEZ COLOMER, J.L. "Principios y características esenciales del nuevo proceso civil (Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil)", *RGD*, 675 zkia., 2000ko abendua, 14455-14481 orr.
- GOMEZ MARTINEZ, C. "El modelo de Juez en el Anteproyecto de la L.E.C. de diciembre de 1997", In: *Jornadas sobre el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Asociación Jueces para la Democracia, Zaragoza: Edijus, 1999.
- GUTIERREZ-ALVIZ CONRADI, F. "Del "ordo iudicarius" al proceso civil armónico", In: *El Proceso Civil y su Reforma*, Madrid: ICSE/Colex, 1998.
- LENT, F. *Wahrheit und Aufklärungspflicht im Zivilprozess*, Berlin: Walter de Gruyter, 1942.
- LORCA NAVARRETE, A.M. *Tratado de Derecho Procesal Civil. Parte General. El Nuevo Proceso Civil*, Madrid: Dykinson, 2000.
- MARCO SAAVEDRA, A. "El modelo de Juez en el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *Jornadas sobre el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Asociación Jueces para la Democracia, Zaragoza: Edijus, 1999.
- MARTIN OSTOS, J. "La prueba de oficio en el nuevo proceso civil", In: *El Proceso Civil y su Reforma*, Madrid: ICSE/Colex, 1998.
- MONTERO AROCA, J., *La prueba en el proceso civil*, 2. ed., Madrid: Civitas, 1998.
- MONTERO/GOMEZ/MONTON/BARONA, *Derecho Jurisdiccional. Parte General*, I. lib., 10. ed., Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000. *Proceso Civil*, II. lib., 9. ed., Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000.
- MONTERO/GOMEZ/MONTON/BARONA, *El nuevo proceso civil.(Ley 1/2000)*, Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000.
- MONTON REDONDO, A. "Algunas reflexiones sobre la prueba en el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *Jornadas Nacionales sobre el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil*, Murtzia: Consejería de Presidencia, 1997.
- MORENILLA ALLARD, P. "Las diligencias finales del juicio ordinario en el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil: Observaciones críticas", In: *Justicia*, III-IV zkia., 1998.
- MORENO CATENA, V. "Algunos problemas de la prueba en el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *El Proceso Civil y su Reforma*, Madrid: ICSE/Colex, 1998.
- PASTOR BORGÑOÑON, B. "Eficacia en el proceso de las pruebas ilícitas", In: *Justicia*, 2. zkia, 1986.
- PRIETO-CASTRO, L. *Estudios y comentarios para la teoría y la práctica procesal civil*, Madrid: Reus, 1950.
- PRIETO-CASTRO, L. *Tratado de Derecho Procesal Civil*, 2. ed., 2. lib., Iruña: Aranzadi, 1985.
- SARAZA JIMENA, R. "Los principios del proceso civil en el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil, con especial referencia a la primera instancia", In: *Jornadas sobre el Anteproyecto de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Asociación Jueces para la Democracia, Zaragoza: Edijus, 1999.
- SERRA DOMINGUEZ, M. *Comentarios a la reforma de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, koordinatzailea: CORTES DOMINGUEZ, Madrid: Tecnos, 1985.

Prozesu arruntak

Katixa ETXEBARRIA ESTANKONA*
Alberto SAIZ GARITAONANDIA*

1. Sarrera

1.1. Epaiketa arrunta eta hitzezko epaiketa. Beren eremuak

2000ko Prozedura Zibileko Legeak, izapide berezi baten bitartez ebatzen ez direnerako (248.1 art.), bi prozesu arrunt aurreikusten ditu 248.2 artikuluan: epaiketa arrunta eta hitzezko epaiketa.

Gatazka juridiko baten aurrean gaudenean, PZLak berak ezartzen du aipaturiko bi epaiketa motetatik erabili beharrekoa zein den, bi irizpide nagusi erabiliz: irizpide objektiboa eta kantitatezkoa. Hauei ekin aurretik, kantitatezko irizpidearen erabilera ordezkatzailerak dela esan beharra dago: irizpide objektiboaren erabilpenak lehentasuna du, eta Legeak hala azaltzen digu 248.3 artikuluan.

Irizpide objektiboari dagokionez, PZL 249.1 eta 250.1 artikuluek (epaiketa arrunta eta hitzezkoa, hurrenez hurren) gatazka juridiko mota batzuek osatutako zerrenda bi ematen dizkigute. Beraz, esandako artikuluetan bildutako gatazka jakin batekin topo eginez gero, argi izango dugu zein motatako epaiketari ekin beharko diogun. Adibidez, pertsonaren ohorezko eskubide bat urratzean datzan demanda bada, epaiketa arruntaren bidez ebatziko da, PZL 249.1./1 artikulua horrela ezartzen duelako. Jakiak eskatzeko demandek, aldiz, hitzezko epaiketaren izapidea jarraitu beharko dute, PZL 250.1./8 artikulua dioenaren arabera.

Beste aldetik, kantitate irizpideak arrunta eta hitzezkoaren arteko kopuru-muga zehatza adierazten digu: 500.000 pezeta, hain zuzen ere (PZL 249.2 eta 250.2 art.); hortaz, demandaren zenbatekoak milioi erdi bat gainditzen badu, epaiketa arruntaren eremuan egongo gara, eta gainditu ezean, ostera, hitzezkoaren esparruan.

Baina maiz demandaren zenbatekoa ez da hain zehatza izaten (edukitzan datzana, esaterako). PZLak aintzat hartu du datu hori, eta diru jakinik gabeko kasuetarako hamabi arau ematen ditu PZL 251. artikuluan, kopurua finkatzeko asmoz.

Nolanahi ere, eta PZL 251. artikulua bildutako erregelak erabiltzen baditugu ere, litekeena da demandaren kopurua zehaztea ezinezkoa izatea; halako kasuetan epaiketa arrunta izango da erabili beharrekoa (PZL 249.2 art.).

1.2. Epaiketa arruntaren eta hitzezkoaren faseak

1.2.1. Epaiketa arruntaren faseak

Alegazioetarako fasea, epaiketa arruntaren lehendabiziko fasea dugu. Demanda jarri eta onartu ostean, demandatuari helarazten zaio, demandaren erantzuna hogeit egunetan eman dezan (PZL 404. art.).

* Zuzenbide Prozesaleko bekadunak. Eusko Jaurlaritzak.

Demandatzaileak PZL 405. artikulua ezartzen duen eran erantzun behar dio demandari; honela, bada, balizko amore emateaz gain, ekintzak eta alegazio juridikoak ez ezik berak aurkeztu nahi dituen salbuespen material edo prozesalak ere nabarmenduko ditu, aurreko entzunaldian azter daitezten. Era berean, erantzunean errekonbentzioa edo kontrademanda egin daiteke, hots, demandatzailearen edo PZL 407. artikulua jasotako lagunen aurkako demanda jartzea (PZL 406-408. art.).

Epaiketa arruntaren bigarren fasea den *aurre agerpenak* helburu anitza du: akordio batera heltzen saiatzea prozesua bukatutzat emateko, epaiketaren objektua eta eztabaidaren puntuak (bai ekintzazkoak, baita juridikoak ere) zehaztea, eta froga proposatu eta onartzea dira Legeak (414.1/II art.) azpimarratzen dituen xede nagusiak, gorago aipatutako salbuespen prozesalen azterketa ahortzi barik.

Entzunaldia, epaiketarako zitazioarekin ematen da amaitutzat; honen bidez, epaileak alderdiei eta epaiketan parte hartu behar duten gainerakoei egun eta ordu jakin bat zehazten die, epaiketako saioa egin dezaten (PZL 429.2 art.).

Judizioan, PZL 431-436. artikuluetan araututa dagoena –epaiarekin batera–, epaileak onetsiriko frogak burutuko ditu (PZL 431. art.). Gero, alderdiek, ahozko konklusioen bitartez, prozesuan agertutako berorren egintza eztabaidagarriei buruzko iritzia laburtuko dituzte (PZL 433.2 art.).

Epaiketa bukatu ostean, eta PZL 435. artikuluko azken eginbideak egin beharrik ez balego, epaileak hogeit eguneko epean eman beharko du epaia (PZL 434. art.).

1.2.2. Hitzeko epaiketaren faseak

Hitzeko epaiketaren *alegazioetarako fasea*, arruntarenaren aldean laburra da, demanda onartu eta gero bistarako zitazioa zuzenean egiten delako, PZL 440.1 artikulua dioenaren arabera. Erantzuna idazki berezi bat izan barik, bistan bertan egiten da, ahoz, eta horrela prozesuaren iraupena murriztu egiten da.

Ondorioz, prozesua demandarekin jartzen da abian (PZL 437. art.). Aipatzekoa da judizioan eskatutako diru-kopurua 150.000 pezeta baino gutxiago bada, demanda epaitegietan dauden inprimaki normalizatuak betez aurkez daitekeela (PZL 437.2 art.).

Bistak erantzunaren zereginak hartuko lituzke, baita aurretiko entzunaldiarenak eta judizioarenak ere. Hortaz, alde batetik demandatuaren erantzuna emateko, eta bestalde balizko arazo prozesalak aztertu eta proposatzeko zein onarturiko frogak burutzeko balio du (PZL 443. art.).

Frogak egin ondoren, bista bukatutzat ematen da, eta epaileak hamar egunetan emango du epaia (PZL 447. art.).

2. Epaiketa arrunta

2.1. Demanda

2.1.1. Kontzeptua

PZL 399.1 artikulua esanetan, demandarik gabe ezin da prozesurik egon; hortaz, ordena juridikozibilean prozesua hasten duen alderdiaren egintza dugu demanda.

Demandan, auzi-jartzailearen aldeko epaia eskatzen da (*“eskatzen dena argitasun eta zehaztasunez finkatuko da”*), eta, horrela, auzitegiaren epaia emateko betebeharra sortzen da. Hori dela-eta, jurisdikzio jarduera martxan jartzen da, PZL 404. artikulua ezartzen duen demanda demandatuari helarazteko auzitegiaren eginkizunak erakusten digun moduan.

Halaber, demandatuaren aurkako akzioa egikaritzeko bitartekoa denez, erantzunarekin batera eztabaidaren edukia finkatzen du demandak. Horrez gain, eta uziaren adierazgarria den neurrian, epaiaren edukia mugatu ere egiten du, eta horrela PZL 218. artikulua exigitzen duen eskatutako eta emandakoaren arteko koherentzia bermatzea lortzen da.

2.1.2. Demandaren baldintzak

Arestian hitzezko epaiketarentzat esan dugunak (demanda betetzeko epaitegietan inprimaki normalizatuak egotea), demandak araudiak aurreikusitako forma jakin batean eman behar denaren ideia ekar diezaguke burura. Baina gure ordenamendu juridikoan demandak beti idatzia izan behar duen arren, Legean ezin da demanda egiteko forma espresua agintzen digun artikulurik aurkitu –aipatutako salbuespena alboan utzita–; hori dela medio, nabarmen dezakegu demandan garrantzitsuena ez dela bere forma, edukia baizik; zeren eta edukiaren baldintzak betez gero –bai demandari, bai uziari dagozkienak–, izapidetza onartu egingo baita.

1. BALDINTZA SUBJEKTIBOAK

Lehenengo eta behin, demandak organo jurisdikzionala zehaztu behar du. Zehazte hau generikoa bada ere, auziaz arduratuko den organo mota (kolegiatua edo pertsona bakarrekoa) adierazi behar du.

Beste aldetik, alderdiak identifikatzeko datuak eman behar dira: auzi-jartzaileari dagokionez, prokuradorearen izen-abizenak eta ahalordetza emateko era; aldi berean, argi gelditu behar dute abokatuaren eta alderdiaren datuek; demandatuaren kasuan, identifikatzeko datu zehatzak eskaini behar ditu demandak. Horrez gain, helbide edo bizileku batzuk eman daitezke epatzea era egokian burutzeko, eta erabat ezezaguna izanez gero, auzitegia ofizioz jakiten ahaleginduko da (PZL 155 eta 156. art.).

2. EGINTZA, ZUZENBIDEKO OINARRIAK ETA ESKAERA

PZL 399.1 artikulua adierazten duenez, demandan *“egintza eta zuzenbideko oinarriak zenbatuta zein banatuta azalduko dira, eta eskatzen dena argitasun eta zehaztasunez finkatuko da”*. Honekin, auzi-jartzaileak proposatutako eztabaidaren objektua ahalik eta argien utzi nahi du Legeak, honako xede hauekin:

- A) Litispendentzia mugatu egiten da; honen bidez, auzitegiek ezin diote gai berean oinarritutako prozesu berri bati ekin (PZL 421. art.).
- B) Epaiaren edukia ere mugatu egiten da, lehen aipaturiko eskatu eta emandakoaren arteko koherentzia bermatu nahi izanez gero (PZL 218. art.).
- C) Prozesuan zehar ezin da objektua aldatu (*mutatio libelli* izeneko debekua) (PZL 412. art.).

Ondorioz, eskatzen duguna eta eskaera horren zuzenbideko oinarriak zein egintzak era ordenatuan jaso behar ditu demandak.

Egintzei dagokienez, demandatuaren erantzuna errazteko, *“era argi eta ordenatuan”* azal ditzagula eskatzen digu PZL 399.3 artikulua. Uziak oinarritzen dituzten dokumentu eta bitartekoak era berean eman behar ditugu, eta egoki baderitzogu, horien gaineko balorazio edo arrazoibideak egin daitezke. Eskatutako argitasuna funtsezkoa izango da batez ere epailearentzat, zein egintza epaitu behar dituen jakiteko, baina baita demandatuak bere burua zeren aurka defendatu behar duen jakin dezan ere.

Horrez gain, litekeena da demandan galdatutakoa ekintza edo titulu juridiko batzuetan oinarrituta egotea. Honela izango balitz, demanda jartzean ezagunak diren guztiak nabarmendu behar direla ezartzen du PZL 400.1 artikulua, geroko prozesu batean alegatzeko inolako aukerarik gabe.

Bigarrenez, *zuzenbideko oinarriak* ditugu; hemen PZL 399.4 artikulua horiei buruz egiten duen izaera prozesalekoen eta gaiaren funtsaren gaineko oinarrien arteko banaketa argiaren aipua egin behar dugu.

Hortaz, funtsaren gaineko oinarriek alde batetik auzi-jartzailearen aldeko epaia erdiesteko balio dute; auzitegiak uzia baieztan, alegia. Beste alde batetik, oinarri prozesalek prozesuaren lehendabiziko partean formazko akatsak ezagutu eta saihestea dute helburu; hori lortzeko, demandan alderdien ahalmenari eta berorren ordezkartza edo prokuradorearenari buruzko alegazioak nabarmendu behar dira, baita jurisdikzioa, eskumena eta epaiketa-motari buruzkoak zein eztabaidaren funtsa aztertzen duen epaia ekidin dezakeen edozein ekintza-mota ere.

Hirugarrenez, *eskaera*, baldintzarik garrantzitsuena dela esan genezake. Aipatutako PZL 399.1 artikulua (*“eskatzen dena argitasun eta zehaztasunez finkatuko da”*) eskaeraz dagoeneko hitz egiten bazigun ere, bosgarren atalean berriz aipatzen du, eskaera egiteko era zehazteko asmoz: erabaki judicial

batzuk eskatuz gero, banatuta adierazi beharko dira. Horrez gain, eskaera ordezkatzaillea egitekotan, banatuta eta euren ordenean idatziko dira demandan, nagusia zein den argi utzi ondoren.

3. BESTE BALDINTZA BATZUK

Gorago esandako baldintzak garrantzitsu edo esanguratsuenak diren arren, Legeak agerian uzten dizkigun beste batzuk gogorarazi behar ditugu:

- A) Prozesu-mota zehaztea: ohikoena, demandaren lehendabiziko partean (goiburukoan) adieraztea da.
- B) "Berebatak" (gaztelera *otrosíes* deiturikoak): demandako eskaeraren ostean erabili ohi den esaera honek eskaera gehigarriak egiteko balio du; kautelazko neurriak eskatzeko, esaterako.
- C) Data eta sinadurak: data jarri behar bada ere, aurkeztearena izango da kontuan hartu beharrekoa. Prokuradoreak eta abokatuak ere, parte hartuz gero, sinatu egin behar dute demanda. Demandatzailea bera epaitegian ager badaiteke, eta horrela egiten baldin badu, berorrek sinatu beharko du.

2.1.3. Demandarekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak

Aurreko atalean demandak bete behar dituen baldintzak azpimarratu ditugu. Baina, horrekin batera, demandatzaileak PZL 264, 265 eta 266. artikuluetan agindutako dokumentu batzuk aurkeztu behar ditu.

1. DOKUMENTU PROZESALAK

PZL 264. artikulua agintzen dituenak dira, eta demandaren onespina baldintzatzen dute:

- A) Prokuradoreari emandako notario-ahalordea. Honek parte hartu ezean, edo *apud acta*-z edo ofiziozko txandaren bitartez egindako ahalordetza izango balitz, ez legoke zertan aurkeztu.
- B) Ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak. Pertsona fisiko edo juridikoaren ordezkaritza dagoenean besterik ez dira beharrezkoak izango, noski. Normalean prokuradorearen ahalordetzan egiten da.
- C) Auzigaiaren balioari buruzko dokumentu eta irizpenak, prozedura eta eskumena zehazteko.

Une honetan PZL 275. artikulua ezartzen duena hartu behar da kontuan: demandatukideentzat zerrendan aipaturiko dokumentuen kopia bana aurkeztu behar du demandatuak; bestela, konpontzeko eskatuko liokete, eta bost eguneko epean egingo ez balu, ez aurkeztutzat joko lituzkete.

- A) Gaiaren funtsari buruzko idazki eta dokumentuak

Halaber, demanda edo uzia oinarritzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira, eta hala adierazten dute PZL 265 eta 266 artikuluek. Froga egiten duten dokumentu, bitarteko edo ziurtagiri zein perituen irizpen edo beste txosten batzuk osatzen ditu lehendabiziko artikulua; 266. artikulua, ostera, Legeak prozesu berezi batzuetan nahitaezkoztat jotzen dituen dokumentuak zerrendatzen ditu; jakiak eskatzeko titulua justifikatzen duten dokumentuak, esate baterako.

Euren aurkezpen ezak prozesuan ondorio desberdinak izango dituela esan beharra dago: PZL 265. artikuluko dokumentuei dagokienez, demandarekin batera aurkeztu ezean, prozesuan zehar erabiltzeko aukera galtzen da (270. artikulua xedatutako gertakari berriei buruzko dokumentuak izan ezik); 266.eko dokumentuen aurkezpena, berriz, beharrezkoa izango da auzitegiak demandari izapidetzeko onspina eman diezaion.

2.1.4. Demandaren onartze eza

Legeak berak baldintzatzen du onartze eza PZL 403. artikuluan:

- A) Legeak aurreikusitako zioetan oinarrituta egon behar du onartze ezak (PZL 403.1 art.). Hemen auzitegiak ofizioz demanda onartzean oinarri prozesalak betetzen ote diren aztertu behar du; honela, alderdien ahalmena, jurisdikzioa edota eskumena izango dira aztergai, eta baita prokuradorearen ahalordetza eta beronen nahiz abokatuaren sinadurak ere.

B) Legeak demandarekin beren beregi eskatutako dokumentu jakin batzuk aurkeztu ezik, edo Legeak aginduriko adiskidetze edo erreklamazioak egin ezean, demandak ez du onarpenik jasoko (PZL 403.3 art.).

Horrez gain, esan beharra dugu Legeak ez duela gaiaren funtsarekin lotuta dagoen onartze ezik aurreikusten. Babes judizial eraginkorrek, txarto oinarrituta egon arren, demanda onartzea eskatzen duela esaten da; ondorioz, oso arriskutsua izango litzateke demanda txarto oinarrituta egoteagatik epaileari ez onartzeko askatasuna ematea, Espainiar Konstituzioko 24.2 artikuluaen aurka lihoakeelako. Hala eta guztiz ere, ordenamendu juridikoan printzipio orokor hori ukatzen duten adibide isolatu batzuk aurki daitezke –ezkontitza betetzeko eskatzen duen demanda ez da onartuko (Kode Zibileko 42. art.)–.

2.1.5. Izapidetzeko onartzea eta honen ondorioak

1. ONDORIO PROZESALAK: LITISPENDENTZIA

Demanda onartuta, demandatuari helarazten zaio, hogei eguneko epean erantzuna eman dezan, PZL 404. artikulua dioenaren arabera. Beraz, lehenengo ondorioa prozesua abian jartzea dela esan genezake, eta hasiera batean harreman juridiko pribatua zena juridiko publiko bilakatzen dela. Urrats horrek auzibitate edo litispendentzia du izena.

Litispendentziak prozesua “pendentzian” edo auzipean dagoela adierazten du. Demanda jartzearekin batera hasten da, “*baldin eta gero onartzen bada*” (PZL 410. art.), eta funtsezko ondorioak honakoak ditugu:

- A) *Perpetuatio jurisdictionis* delakoa PZL 411. artikuluan uzten da agerian. Honen bitartez, prozesuan zehar aldaketak egonda ere, demanda onartzean auziaz arduratzen den auzitegiak epaia emateko unera arte jarraituko du demandaren arduradun izaten, hasierako prozesu-motaren izapide berarekin, gainera.
- B) Prozesu bat egotekotan, ezin du beste batek alderdi eta objektu berarekin egon (identitate objektibo eta subjektiboa); hori erdiesteko, PZL 416.1/2 artikuluko litispendentzia salbuespena jar lezakete alderdiek.

Litispendentziaz gain, demandaren edukia aldatzeko debekua (*mutatio libelli* izeneko debekua) ere aipatu behar dugu (PZL 412. art.): demandan, erantzunean eta errekonbentzioan prozesuaren objektua finkatzen da, eta aurrerantzean alderdiek ezingo dute aldatu.

Nolanahi ere, hastapen horri hurrengo ñabardurak erantsi behar dizkiogu:

- A) Demanda-zabalkuntza: erantzunaren aurretik akzio berriak bateratzeko edo demandatu berriak gehitzeko demanda zabal daitekeela xedatzen du PZL 401.2 artikulua. Kasu honetan, demandatuaren erantzuteko epea berriz kontatzen hasiko litzateke.
- B) PZL 412. artikulua beste salbuespen bat egiten du bigarren atalean: Legeak ezartzen duen eran, alegazio osagarriak egin daitezke. PZL 426. artikuluan araututa dauden alegazio hauen bidez, uzien edo euren oinarrien mamia aldatu ezean, eta aurkaria ados egonez gero, eskaera osagarri edo gehigarriak egin daitezke aurre agerpenean.

2. ONDORIO MATERIALAK

Aipatutako Zuzenbide Prozesaleko ondorioak ez ezik, esparru pribatuan gauzatzen diren ondorio batzuk ere badaude:

- Preskripzioa gelditu egiten da, bai jabetzekoa, baita iraungitzekoa ere (Kode Zibileko 1945 eta 1973. artk., hurrenez hurren).
- Zorduna berandutzan erori dela jotzen da.
- Ondasunak auzipeko ondasun bihurtzen dira.
- Zor solidarioa auzi-jartzaileari ordaindu behar zaio (Kode Zibileko 1142. art.).

2.2. Demandatuaren balizko jarrerak

Demanda jaso ostean, demandatuaren jarrera oso anitza izan daiteke: alde batetik, baliteke ez agertzea, eta horren ondorioz auzitegiak auzi-iheslaritzat joko du. Beste alde batetik, demandatua prozesuan ager daiteke; hortaz, eta har ditzakeen jarrerak oso desberdinak izan badaitezke ere, honakoak nabarmendu behar ditugu: erantzutea, ez erantzutea, edo errekonbentzioa edo kontrademanda jartzea.

Horrez gain, demandatuaren beste bi aukera erants genitzake: alde batetik, amore ematea (PZL 21. art.); horren ondorioz, amore ematearekin bat datorren epaia eman beharko luke auzitegiak, eta horrela prozesua bukatutzat joko litzateke –prozesuaren ezohiko garapen eta amaiera izeneko goiburukoan zehaztasun osoz ikasiko dugu–. Beste aldetik, PZL 63. artikuluko deklinatoria daukagu; epaitegi eta auzitegiaren jurisdikzio edo eskumen eza salatzeke erabiltzen den baliabide prozesal hau erantzunaren aurretik jartzen da, eta honen bidez bai erantzuteko epea, bai prozeduraren *iter* arrunta gelditzea lortzen da (PZL 64.1 art.).

2.2.1. Auzi-ihesa

Judizioan agertzeko zitazioa jaso eta horrexek finkaturiko data eta orduan era egokian agertzen ez den demandatua dugu auzi-iheslaria (PZL 496.1 art.).

Azter ditzagun PZL 496.1 artikuluko emandako definizioaren ezaugarri nagusiak:

- 1) Legeak demandatua besterik ez du aipatzen, eta logikoa da, demandatzaileak demanda jarri duelako, eta ondorioz, dagoeneko agertu egin delako.
- 2) “Zitazioak edo epatzeak finkatutako data edo epean era egokian ez agertzea” da funtsezkoa auzi-iheslari egoeran egoteko; honela, bada, auzi-iheslari deklaratzeko ezinbestekoa izango da aurretiaz bidezko zitazioa egin izana.
- 3) Auzi-iheslari izateko, auzitegiaren beren beregiko deklarazioa behar da, auziaz arduratzen den epaileak berak ofizioz egindakoa, hain zuzen ere.

1. AUZI-IHESLARI DEKLARAZIOAREN ONDORIOAK

Auzitegiak demandatua auzi-iheslaritzat jo badu ere, prozesuak bere *iter* arrunta jarraitzen du. Baina, alde batetik, alderdi bat ez bada agertzen, ezin izango du defendatzeko egintzarik proposatu. Beste aldetik, auzi-iheslariari dagokionez, Legeak jakinarazpenei buruzko erregimena aldatzen du.

Auzi-iheslari deklarazioak ez du demandaren egintzak onartzea ekarri, ezta amore ematea ere, eta PZL 496.2 artikuluko hala adierazten du; beraz, auzi-jartzaileak alegatutako egintzak ukatzea eta uziaren aurkako erresistentzia adieraztea da auzi-ihesa. Baina demandatuak, preklusio printzipioa dela-eta, ezin izango du prozesuan defendatzeko duen baliabiderik erabili –erantzuna, esaterako–, ez duelako prozeduran parte hartzen.

Horrez gain, eta jakinarazpenei dagokienez, auzi-iheslaritzat jotzen duen deklarazioa postaz, berorren etxebizitza ezaguna bada, edo ezezaguna bada ediktuen bidez, jakinaraziko zaio demandatuari. Jakinarazpen hori eginda, prozesuari bukaera ematen dion ebazpenarena besterik ez zaio jakitera emango, PZL 497.1 artikuluko ezartzen duen moduan. Ediktuen bitartez eginez gero, litekeena da prozesuan zehar bere egonlekua ezagutzea; honela, bada, prozesuaren pendentzia jakinarazi behar zaio (PZL 498. art.).

2. AUZI-IHESEKO EPAIKETA

Arestian aipatu dugun moduan, prozesuak bere *iter* arrunta jarraitzen du. Ondorioz, auzi-jartzaileak, bere uziak nagusi daitezten, berorrek alegaturiko egintzak aurkakoa prozesuan agertu izan balitz bezala frogatu behar ditu. Nolanahi ere, auzi-ihesekeko judizioaren gaineko hausnarketa batzuk egin beharrean gaude:

- A) Demandatua edonoiz ager daiteke, baina prozesuaren bideratzeak ez du atzera egingo (PZL 499. art.). Horrek esan nahi du auzi-iheslaria agertuz gero, prozesua dagoen-dagoenean bere gain hartu behar duela.
- B) Ordena jurisdikzional zibilean kontraesateko printzipioaren arabera (*audiatur et altera pars* izenekoa), demandatuari defendatzeko aukera eman behar zaio; baina aukera baino ez da, eta hortaz, berak ez agertzea erabakitzen badu ere, prozesua erabat zilegia izango da.
- C) Prozesua bukatutzat ematen duen ebazpena demandatuari berari jakinaraziko zaio, PZL 161. artikulua ezartzen duen eran. Berorren egonlekua ezezaguna izango balitz, jakinarazpena ediktuen bitartez egingo litzateke; kasu honetan, ediktu hori Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren Aldizkarian edo BOEn argitaratu beharra legoke (PZL 497.2 art.).
- D) Auzi-iheseko epaiketan ematen den epaiaren aurka, auzi-iheslariari entzuteko izeneko errekurtsua aurkez daiteke: auzi-iheslaritzat jo den pertsonak aurkeztuta, Legeak baldintza ugari (PZL 501. eta hurrengo artikulua) jartzen dizkion prozesu berezi honek demandatuaren kontrako epai irmoa desagitea du helburu. Aipatu helegitea onetsiz gero, alderdi eta auzigai bereko judizioa egingo da.

2.2.2. Demandari erantzute eza

Demandatua agertu ostean, litekeena da berak ez erantzutea. Horrela balitz, auzi-iheslariari buruz esan duguna errepikatu behar dugu: ez du esan nahi demandatzaileak proposaturiko egintza edota uziak onartzen direnik, ezta amore ematen denik ere. Demandatuak erantzunarekin doakion defendatzeko aukera galtzen du, eta, ondorioz, froga demandan alegatutako ekintzei buruzkoa izango da.

Hala ere, baliteke Legeak berak ez erantzuteko baimena ematea (adibidez, PZL 63. artikuluko deklinatoria aurkeztekotan). Egoera hauetan demandatuak ez du erantzuteko aukerarik galtzen, Legeak eginkizun hori egitetik askatzen duelako.

2.2.3. Demandari erantzutea

Demandatuak auzi-jartzailearen alegazioei kontra egitea (demandaren edukia ukatuz edo salbuespen eta eragozpenak jarritz) dugu erantzutea. MONTEROren esanetan, "demandatuaren erresistentzia adierazten duen egintza prozesal espresua da"; hau da, bere aldeko epaia eskatzeko bitartekoa.

Demandatuak hogeiei eguneko epea izango du erantzuteko (PZL 404. art.). Erantzunean demandatzaileak alegaturiko ekintzak ukatu edo onartu egin behar dira –demandatuak isilean egon edo ihes-erantzunak eman ez gero, berorren aurkako ekintzak izango bailiran jo ditzake auzitegiak, PZL 405.2 artikulua dioen moduan—. Honela, bada, balizko amore emateaz gain, erantzunean salbuespen materialak zein prozesalak alega daitezke (PZL 405. art.).

1. SALBUESPEN PROZESALAK

Demandatuak, halako salbuespenik alegatuz gero, oinarri prozesalen edota betekizunen hutsak nabarmendu nahi ditu; hau da, aurretiko harreman juridiko-prozesala akastuna zela adierazi gura du. Ondorioz, auzigaiaren mamia ezagutzen ez duen ebazpena emango du auzitegiak, prozesala soil-soilik, alegia.

PZL 416. artikulua arabera, hurrengoak dira salbuespen prozesalak:

- A) Alderdien ahalmenik edo ordezkaritzarik eza
- B) Gauza juzgatua edo litispendentzia
- C) Bidezko auzikidetzarik eza (litiskontsortzioa)

D) Prozeduraren desegokitasuna, bai gaiagatik eta baita diru-kopuruagatik ere

E) Demanda akastuna

Horrez gain, aipatutakoari PZL 405.1 artikuluko akzio-metatze desegokia gehitu behar diogu. Nolanahi ere, PZL 416. artikulua salbuespen-zerrenda irekia xedatzen duela aintzat hartu beharra dago; hortaz, bidezkoa izango da uzigaiaren mamari buruzko epaia eragotz dezakeen edozein baldintzatan oinarritutako salbuespena jartzea, betiere salbuespen jakin batekin: eskumen edo jurisdikziorik eza, deklinatoriaren bidez aurkeztu behar dena (PZL 63. art.).

Oro har, ahaleginak egin behar dira akats prozesalak konpontzeko –“konpongarria dena, konpon dadila” esaerarekin Konstituzio-Auzitegiak azaltzen duenez–; baina konponezina izanez gero, edo konpongarria izanik auzi-jartzaileak konponduko ez balu, epaitegi eta auzitegiek ez lukete auzigaiaren mamia ezagutu beharrik izango (Botere Judizialaren Lege Organikoko 11.3 art.).

2. SALBUESPEN MATERIALAK

Salbuespen prozesalen bidez, oinarri prozesalen edo betekizunen hutsak nabarmendu nahi direla azpimarratu dugu; salbuespen materialek, berriz, uziaren ezespina dute helburu.

Demandatuak, demandatzaileak alegatutako egintzak ikusita, ukatu egin ditzake, beste berri batzuk proposatu barik; honela, bada, egintzak eztabaidagarri bilakatzen dira; frogatu beharrekoak, alegia. Beste aldetik, onartzen baditu ere, auzi-jartzaileak egindako interpretazio juridikoaren aurka ager daiteke. Kasu honetan, eztabaida erabat juridikoa izango litzateke, eta ez legoke frogarik zertan aurkeztu. Baina benetako salbuespen materialak jartzeko, eztabaidan egintza berri batzuk sartu beharra dago. Egintza haiekin arau batzuen ezarpena lortu nahi da; hau da, demandatuak bere alde dauden xedapen batzuk auzira ekartzen ditu, epaileak auzi-jartzaileak proposatutakoak onar ez ditzan, eta horrela auziaren ezestea erdiesteko.

Demandan eta erantzunean ekintza osagarriak zein eragozle, iraungitzaile eta baztertzailak aurki ditzakegu:

- A) *Osagarriak*: demandatuak uzia halako ekintzatan oinarrituko du; onartzekotan, uzia baietsi egingo da, eta epaia auzi-jartzailearen aldekoa izango da. Ondorioz, alegatzea eta frogatzea auzi-jartzaileari dagozkio.
- B) *Eragozleak*: egintza osagarriek izan ohi duten eraginkortasun arrunta azaltzea eragozten duten egintzak dira. Adibidez, kontratugile baten ahalmen eza.
- C) *Iraungitzaileak*: hasiera batean egintza osagarriek eraginkortasun osoa azaldu dute, baina geroago ondorio horiek bertan behera utzi dituzten beste batzuk jazo dira; kontratuaren kasuan ordainketa, esate baterako.
- D) *Baztertzailak*: hauekin ere osagarriak eraginkorrak izan dira, baina beren ondorioak alde batera uzten dituzten beste egintza batzuk alegatu ditu demandatuak; egintza berriek demandatuak duen “kontraeskubidea” erakusten dute, uzia ukatzeko eskubidea, hain zuzen ere, preskripzioarekin gertatzen den moduan, adibidez.

Gorago aipatu dugunez, egintza osagarriak alegatu eta frogatzea demandatzaileari dagokio. Iraungitzaile, eragozle eta baztertzailen kasuan, ostera, froga-karga demandatuak izango du, absolutioa berak lor dezan balio dutelako.

3. ERANTZUNAREKIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Demandarekin gertatzen zen bezala, erantzunarekin batera dokumentu eta ziurtagiri batzuk aurkeztu beharra dago; izan ere, demandarako aipatutako PZL 264. artikulua erantzunaz ere hitz egiten du. Hortaz, demandan emandako dokumentu-zerrenda ekarriko dugu hona:

- A) Prokuradoreari emandako notario-ahalordetza
- B) Ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak
- C) Demandatukide-kopuruaren arabera, dokumentu eta ziurtagirien kopiak

Gaiaren funtsari buruzko dokumentuei dagokienez, azpimarratu behar dugu salbuespen materialik aurkeztekotan besterik ez direla beharrezkoak: salbuespen materialak direla medio prozesuari egintza berriak dakarzkiogun heinean, idazkien bidez frogatzen ahalegindu behar dugu, eta egintza berririk egon ezean, ez dago halako idazkirik zertan eman.

2.2.4. Errekonbentzioa edo kontrademanda

1. KONTZEPTUA

Ikusi dugun bezala, erantzunaren bidez demandatzailearen uzien kontrako erresistentzia adierazten du demandatuak. Errekonbentzioa, berriz, demandatuak berak demandatzailearen aurka aurkezten duen uzia da; horrela demandatua auzi-jartzaile bihurtzen da.

Nahiz eta PZLak erantzunaren idazkian jarri behar dela dioen (406. art.), hori ez litzateke erantzutea. Arestian baieztatu dugun moduan, errekonbentzioa demandatuak auzi-jartzailearen aurka aurkeztu duen demanda berri bat da. Ondorioz, lehendabiziko prozesuaren objektua aldatu egiten da: kontrademandaren ostean, prozesuak gutxienez bi uzi izango ditu: alde batetik demandatzailearena, eta beste aldetik demandatuarena, eta bakoitzak erabaki independentea aurkituko du epaian; baina epai berean, epaile edo auzitegiak prozesu bakar batean ezagutuko ditu-eta. Laburbilduz, auzi-jartzaileak irekitako prozesua bere aurkako beste uzi bat jartzeko aprobetxatzen du demandatuak.

2. KONTRADEMANDA JARTZEKO BALDINTZAK

Errekonbentzioak Legeak ezarritako berariazko baldintzak bete behar ditu, auzitegiak onar dezan:

Lehendabizi, erantzunaren idazkian egiten bada ere, PZL 406.3 artikulua adieraziriko era berezian bete behar da: demandarako PZL 399. artikulua ezartzen duen itxuraz, erantzunaren ostean proposatuko da; edukiaren aldetik, bai egintzazko eta zuzenbidezko oinarriak zein eskaera edo *petitum* zehaztu behar ditu errekonbentzioak.

Bigarrenez, demanda eta kontrademandaren uzien arteko lotura eskatzen du Legeak (PZL 406.1 art.). Baldintza berria dugu hau, eta esan dezakegu oraindik ez daukala doktrinak irizpide bateraturik, eta interpretazio-zailtasunak iragartzen dituela.

Horrez gain, lehenengo demandaren prozesuarekin alderatuta, errekonbentzioarenak mota berekoa izan behar du; hau da, bi prozedurek homogeneoak izan behar dute –hemen prozesu zibil bereziaz eta arruntekin bateraezintasunaz ari gara–.

Hirugarrenez, legitimazio pasiboari aipua egin behar diogu: printzipioz, kontrademanda auzi-jartzailearen kontrakoa izango da, PZL 406. artikulua dioenaren arabera. Nolanahi ere, PZL 407. artikulua errekonbentzioaren jasotzaile-zerrenda hedatu egiten du, lehen demandatzailea ez ezik berorren balizko auzikideak ere –bai nahitaezkoak, baita borondatezkoak ere– ezartzen ditu-eta.

Laugarrenez, eskumenari dagokionez, judizioaz arduratu den auzitegiak uzi berriaz arduratzeko eskumen objektiboa izan behar du, betiere salbuespen batekin: kontrademandatik etorritako uziak diru-kopuruagatik hitzezko epaiketaren izapidea hartu beharko balu, arruntaren izapidearekin jarraituko luke (PZL 406.2/2 art.).

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu bi auziak prozedura berean tramitatuko direla, eta epaian erabaki bana izango dutela (PZL 409. art.).

Horrez gainera, lehenago aipatu dugu kontrademandak prozesuaren objektuaren aldaketa eragiten duela. Legeak, kontradikzio-hastapena bermatzeko asmotan, objektu berriaz alegatzeko aukera eman nahi dio lehenengo auzi-jartzaileari, eta xede honekin demandaren erantzunaren parekoa den PZL 407.2 artikuluko kontrademandaren erantzuna sortzen du (honen bitartez, demandatzaileak hogeit eguneko epean kontrademandaren uzi berria erantzuten du, demandaren erantzunean gertatzen zen moduan).

2.3. Aurre agerpena

Aurre agerpenari buruz atal jakin bat du liburuak (Etxeberria Guridi irakasleak idatzitakoa).

2.4. Epaketako ekitaldia

PZLak ahozkoatasun-printzipioa bultzatzea du helbururik nagusienetakoa. Hastapen hori gauzatzeko asmoz, Legeak prozeduran bi ahozko egintza aurreikusi ditu: alde batetik, aipaturiko aurre agerpena; bestalde, orain hizpide dugun epaiketa.

Aurre agerpenean egiten den azken ekintza, epaiketa-eguna jartzea dugu. Oro har, aurre agerpenaren osteko hilabetean burutuko da (PZL 429.2 art.), baina alderdiren batek eskatuz gero, epea bi hilabetera luzatuko da, baldin eta froga gehienak auzitegiaren egoitzatik at egin behar badira (PZL 429.3 art.).

Epaketako ekitaldia saio bakar batean burutu ohi da; edonola ere, onarturiko froga-kopurua kontuan hartuta, baliteke auzitegiak judizioa egiteko saio bat baino gehiago hartzea. Honela balitz, zitazioak burutze-egunak zehaztu beharko lituzke (PZL 429.7 art.).

Bestalde, alderdien abokatu eta prokuradoreek epaiketan agertu behar dute; auzi-jartzaileak zein demandatuak, aldiz, ez daukate azaldu beharrik –balizko alderdien galdeketa-frogan parte hartu ezean, noski–, PZL 432.1 artikulua dioen moduan. Abokatu eta prokuradoreen agertze ezak ondorio desberdinak ekarriko lizkioke prozesuari: alderdi bietatik bat agertzen ez bada, epaiketa azaldu denarekin burutuko da; alderdi biak agertu ezean, ostera, auzia epaia emateko prest dagoela adieraziko du auzitegiak (PZL 432.2 art.).

Orokorrean, epaiketaren estreinako egintza, onetsiriko frogak burutzea izango da; burutze hau PZL 300. artikulua ezartzen duen ordenean egingo da. Hala eta guztiz ere, alderdiek aurre agerpenaren ostean jakin dituzten egintza berriak egotekotan, aurrez haien gainean eztabaidatuko da (PZL 286. art.).

Frogak eginda, alderdien ahozko ondorioak izango ditugu. Konklusio hauek helburu bikoitza dute: alde batetik, egintza eztabaidagarri buruz egindako frogen emaitza azalduko dute; beste aldetik, arrazoibide juridikoa egin dezakete (PZL 433.2 eta 3. art.) –dena dela, ezin dugu ahaztu *iura novit curia* hastapenagatik epaileak Zuzenbidea ezagutu behar duela–. Ondorioen ostean, judizioa epaia emateko prest geratuko da.

2.5. Epaia eta gauza juzgatua

2.5.1. Epaia

Normalean, bai judizio arrunta, bai hitzezko judizioa, behin epaia emanda amaituko dira (PZL 447.1 artikulua). Beraz, prozesua amaitzeko ohiko era epaia dela esan dezakegu. PZL 206.1, 3 artikulua dioenez, *“behin Legeak aurreikusitako izapide arrunta amaituta, prozesua amaiazteko epaia emango da, lehenengo edo bigarren auzialdian, eta baita aparteko errekurtsio eta epai irmoak berrikusteko prozeduretan ere”*.

1. KONTZEPTUA

Epaia epaile edo auzitegiaren egintza prozesala da, zeinean auzi-jartzaileak aurkezturiko uzia baiestea edo ezestea erabakitzen den, ordenamendu juridikoarekiko adostasun edo desadostasunean oinarritua. Hau da, auziaren funtsari buruz erabakitzeko Legeak aurreikusten duen ebazpen judiziala da. Alde batetik, borondatezko ekintza da, baina bestetik, eragiketa intelektualak.

Botere Judizialari subiranotasuna herritik badator, eta hau epaile eta magistratuei ematen bazaie, beren erabakiak eraturako botere baten jarduketa dira. Hala ere, ahalmen hori prozesuko alderdiek mugatu duten eremuaren barruan bakarrik jardun daiteke; PZL 216. artikulua arabera, *“auzitegi zibilek, alderdiek aurkezturiko gertakari, froga eta uziak aztertutakoan erabakiko dituzte auziak”*.

Oro har, botere guztiak Konstituzio eta gainerako ordenamendu juridikoaren menpe daude, baina Botere Judiziala bereziki. Honela, bere borondatezko ekintzek inoiz ezin dute arbitrarioak izan, baizik eta eragiketa intelektual batean oinarrituta egon behar dute. Konstituzioak aurreikusten dituen Zuzenbidearen iturrien menpe aritu behar du, eta epaian erabakiaren zioak (motibazioa) azaldu behar dituzte.

2. MOTAK

PZL 207. eta BJLO 245. artikuluek behin betiko epaia eta epai irmoa bereizten dituzte. *Behin betiko epaiak*, auzialdian nahiz errekursoan aurkezturiko auzia erabakitzen du. Epaiak behin betiko erabakitzen du auzia, organo judizialaren eginkizun zehatza amaituz –honen funtzio jurisdikzional deklaratiobari dagokionean–. Hots, behin betiko epaiak auzialdian edo errekursoan auzialdia amaitzen du. *Epai irmoak*, ordea, bere aurka errekurso bat jartzeko ezintasuna dakar, Legeak ez aurreikusteagatik edo epe egokian ez errekurriteagatik. Eta hau izango da gauza juzgatuaren efektua ekarriko duena.

Akzioen sailkapenari dagokionez, epaiak *deklaratzaile, eratzaila* edo *exekutiboak* izan daitezke. Beti epai baiesleak izango dira.

Amaitzeko, *epai deklaratzaila* eta *kondena-epaiak* ditugu; lehenengoek judizio logikoa besterik ez dute –honela lortzen da ziurtasun eta segurtasuna–, eta bigarrenetan judizio logikoari jarduketa jakin baten betebeharra eransten zaio.

Epai deklaratzaila eta kondena-epaien arteko bereizketa dela-eta, PZL 219. artikulua zera ezartzen du: kondena-epaiak, diru-obligazioei buruzko auziak erabakitzen dituztenean, likidoak izan behar dute, eta ezinezkoa da likidazioa zigorra betearazten den momenturako uztea. Epaiak zenbatekoa zehaztu behar du.

Diru kantitate zehatza, nahiz fruitu, nahiz errenta, nahiz edozein motatako baliagarritasun edo emaitza ordaintzea eskatzen badu auzi-jartzaileak, eskubidearen deklarazio-epaiak gain, ordaintzeko kondena eskatu behar du. Baina, horretarako, zorraren zenbateko zehatza kuantifikatu edo geroago egingo den likidazioaren oinarriak zehaztu beharko ditu –oinarrien bitartez, exekuzioan likidazioa eragiketa matematikoa baino ez da izango–. Epai baiesleak demandatzailearen eskubidea deklaratu eta kondenatuak ordaindu behar duen zenbateko zehatza edo likidazioa egiteko oinarriak adierazi behar ditu. Hala ere, auzi-jartzaileak eska eta auzitegiak deklaratu dezake ordaintzeko obligazioaren existentzia bakarrik, likidazioa ondorengo auzi baterako –ez exekuziorako– utziz.

Bestetik, badira geroko kondenak deritzotenak ere, oraindik sortu ez diren obligazioei buruzkoak alegia (PZL 220. art.); kasu hauek, oraindik epemuga heldu ez zaien interesei edo aldizkako prestazioei buruzko diru-obligazioak dira. Normalean, demandatzaileak eskatzen duenak, demanda jartzeko unean benetan zor zaiona izan behar du; hala ere, kondenak demandatuak ordaindu arte sortzen diren interes guztiak edo aldizkako prestazioak bere barnean hartzen ditu.

3. MOTIBAZIOA ETA BARRUKO ERAKETA

A) *MOTIBAZIOA*: Espainiar Konstituzioko 120.3 eta PZL 218.2 artikuluek ezartzen dutenez, auzitegiek epaiak motibatuta beharra dute. Motibatzea, egitatezko eta legezko arrazoibideak azaltzea da:

alde batetik, frogen interpretazioa eta balorazioa egiteko, eta beste aldetik, Zuzenbidea interpretatu eta ezartzeko erabili diren arrazoibideak ezagutzeko.

Arrazoitu beharra, funtzio jurisdikzionalarekin eta Legearen inperioarekin lotuta dago; izan ere, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro azpimarratu du epailearen Legea eta Zuzenbide-iturri sistemarekiko menpekotasuna. Bestalde, epaitua izan denak motibazioa eskatzeko eskubidea dauka, eta EK-ko 24.1 artikulua aurreikusten duen benetako babeserako eskubidearen baitan dago. Honela, benetako babesa jasotzeko eskubideak erabaki zehatza eskatzen du, hau da, erabaki arrazoitua, eta ez edozein erabaki. Gainera, motibazioak alderdiari helegiteak egikaritzea ahalbidetzen dio, honetan ezeste edo baiestearen arrazoibideak agertzen direlako. Eta, aldi berean, motibazioaren bitartez gizarteak epaile eta auzitegiak boterea nola erabiltzen duten kontrolatzen du.

Baina nolako izan behar du motibazioak epaian? Motibazio motza eta motibaziorik eza gauza bera dira? Konstituzio Auzitegiaren esanetan, motibazio motza eta motibazio eza ez dira baliokideak. Nahiz eta motza izan, motibazioak aurrekariak eta arrazoibide juridikoak ondo azaltzen baditu, nahikoa izango da. Epaian gertakari frogatuak zeintzuk diren eta arau egokia nola interpretatzen den azaltzea da funtsezkoena. Honenbestez, oinarri nahikoa eratzen da alderdiek erabakiaren zioa ezagutu eta helegitea jartzeko, eta baita goiko auzitegiak kontrolatzeko ere egitatez eta juridikoki erabakia egokia denentz. Motibatze nahikoa, erabakiaren arrazoa ezagutzea baino ez da –honen luzapena alde batera utzita–. Beste era batean esanda, arrazoitu beharraren garrantzia arbitrariotasuna kanporatzean datza. Epai arbitrarioak edo arrazoitu ez denak benetako babeserako oinarritzko eskubidea (Zuzenbidean oinarritzen den epaia jasotzeko eskubidea) urratuko du (1992ko martxoaren 7ko eta 1995eko urriaren 22ko Konstituzio Auzitegiaren Epaiak, besteak beste).

B) **BARRUKO ERAKETA:** Epaiaren barruko eraketaren gainean mintzatzea, prozesu batean auzitegiak uziaren funtsari buruz erabakitzeke jarraitu behar duen arrazoibideaz aritzea da. Esan genezake epaia judizio logikoa dela, zeinak silogismoaren eraketa jarraitzen duen. Funtsean, epaia Zuzenbidearen aplikazioa da, eta hau gertakari bat arau juridiko egokian subsumitzean datza (ondorio juridiko zehatza gauzatzeko). Jakina denez, epaileak aplikatu behar duen araua egitate-suposamenduez eta ondorio juridikoez osatuta dago:

- 1) Lehenengo eta behin, epaileak, demandatzaileak eskaturiko ondorio juridikoa orokorrean ordenamenduan dagoen edo ez aztertu behar du; hau da, demandatzaileak baieztatu dituen gertakariak aztertu barik, eskatutako ondorio juridikoa gauzatzeko aukera ematen duen araurik dagoen.
- 2) Araurik badago, eskatu den ondorio juridikoa gertakariarekin eta demandatzailearen pertsonarekin lotu behar da. Gertakariak eta auzi-jartzailearen posizio juridikoa kontuan izanda, ordenamendu juridikoak ondorioa aintzatesten duen edo ez ikusi behar da, zeren eta batzuetan, nahiz eta arauak ondorioa aintzatesi, pertsona batzuei –posizio juridikoaren arabera– eta hainbat gertakariri dagokienez baino ez dute egiten.
- 3) Behin ondorio juridikoaren existentzia gertakari batzuekiko lotura zehaztuta, hauen existentzia bera aztertu beharra dago. Horretarako: a) Frogarik behar ez duten gertakariak zeintzuk diren mugatu beharra dago, prozesuan epaileak benetakotzat har ditzan. Hauek, gertakari ez eztabaidagarriak (alderdi batak baieztatuak eta besteak espresuki onartuak, edo alderdi biek baieztatuak) eta gertakari nabarmenak direlakoak dira. b) Gertakari eztabaidagarriak (froga behar dutenak) ere aztertu beharra dago. Froga burututakoan, hiru gauza desberdinu behar dira: lehenik, frogabide bakoitzaren interpretazioa, bakoitzetik ondorioztatzen den emaitza zehaztea alegia. Bigarrenik, frogabideen balio frogagarria (bakoitzari dagokion balio jakina). Legeak ezartzen duen balorazio-sistema erabiliko da, legezko balorazioak lehentasuna daukala ahaztu gabe. Azkenik, epaileak *ficta confessio* ezartzeko edo hainbat gertakari egiazat hartzeko aukera du (pronuntziamendu-karga duen alderdiak espresuki ez ukatzeagatik). PZL 304, 307 eta 405. artikulua hurrenez hurren.
- 4) Gertakariak finkatu ondoren, auzitegiak aztertu behar du egokia den arauaren suposamendu juridikoan sartzen diren edo ez. Gertakari guztiak izango dira kontuan, bai demandatzaileak, bai demandatuak baieztatu dituztenak; hots, epaileak ontzat eman dituen guztiak.

- 5) Amaitzeko, epaileak ondorio juridikoa finkatu behar du. Batzuetan arau juridikoak berak zehazten du zein den ondorioa, beraz ez da inolako arazorik agertzen. Hala ere, hein handi batean arauak ez dituzte ondorio juridikoak erabat zehazten; hori dela-eta, kasuaren baldintzen arabera, epaileak berak mugatu beharko du ondorioa, ekitate edo egokitasun irizpideak erabiliz

Legegileak honekin batera nahi duena, epaileek epaiak arrazoizko irizpen logikoak erabiliz ematea da, arau juridikoetan oinarrituz eta alderdien eskaeren arabera.

4. BARRUKO BETEKIZUNAK

Barruko betekizunei dagokienez, PZL 218.1 artikulua dugu ardatz: *“epaiek argiak, zehatzak eta kongruenteak izan behar dute”*; halaber, *“auzitan jarri eta epaketan eztabaidatu diren puntu guztiak”* erabaki behar dituzte.

- A) **ARGITASUNA:** Epaiaren erabakiek argiak eta nabariak izan behar dute. Honek esan nahi du epaia ulertzeko ez dela interpretazio sakonik behar. Ez da argitasunik egongo epaian kontraesanak agertzen badira; hau gertatuz gero, epaia arautzen duen arau baten haustea gertatuko litzateke.
- B) **ZEHAZTASUNA:** Honek esan nahi du epaia ezer gehiagorik egin gabe exekuta daitekeela. Likidezia betekizunarekin zerikusia du.
- C) **KONGRUENTZIA:** Kongruentzia, organo judizialak eskatuaz eta eskatu den guztiaz erabaki beharra da. Alderdiek egindako eskaera eta alegazio guztiek mugatzen dute auzitegiaren erabakitzeko objektua. Hauek muga bilakatzen dira epailearentzat. Beraz, inkongruentzia bi motatakoa izan daiteke: 1) Inkongruentzia *ultra petitum*-agatik: epaileak eskatutakoa baino gehiago ematen duenean (gehienekoa, eskatua izango da). 2) Inkongruentzia *extra petitum*-agatik: eskatu ez dena ematen denean, eta eskatua eman edo ukatzen denean, baina alegatu diren zio desberdinengatik (bai *petita*, bai *causa petendi*). 3) Ez dago inkongruentziarik *infra petitum*-agatik, epaileak eskatua baino gutxiago eman dezakeelako.

Alderdiak dira erabaki judizialaren menpe dagoena mugatzen dutenak –demandatzaileak uziaren bidez prozesuaren objektua mugatzen du, eta demandatuak erresistentzia jarrita eztabaidaren objektua zehaz dezake–. Horregatik, kongruentziaren oinarria alderdien xedapen eta ekarpen printzipioetan dago. Izan ere, kongruentzia xedapen printzipioaren ondorioa da, eskubide subjektiboaren izaera pribatutik ondorioztatzen dena. Horrela, epaileak eskatu ez denari buruz erabakiko balu, eskubideen izaera pribatua kolokan jar liteke.

PZL 218.1 artikulua arabera, epaileak auzi-jartzaile eta demandatuaren uzi guztiak erabaki behar ditu; hau da, eztabaidaren objektu izan diren puntu guztiak erabaki behar ditu, horretarako elementu hauek kontuan izanik: a) auzi-jartzailearen uzia (bai eskaera, bai eskatzeko arrazoibideak), demandaren gertakari eratuak, eta uzian aldaketaren bat eragin duten egintza guztiak. b) Demandatuak jarritako salbuespen materialak –mugapen eta luzapenak barne, PZL 412. art.–. c) Prozesuko objektuaren xedapen egintzak (uko egitea, amore ematea eta abar), eta prozesuaren xedapenak –bakarrik sententziaren edukia baldintzatuz gero–.

lura novit curia printzipioa aipatu beharra dago. PZL 218.1, II artikulua dioenez, *“eskatzeko arrazoibidea alde batera utzi gabe, eta alderdien egitatezko arrazoibide nahiz arrazoibide juridiko desberdinak kontuan izanda, arau egokien arabera erabakiko du auzitegiak, alderdiek ondo aipatu edo alegatu ez dituzten arren”*. Alderdien arrazoibide juridikoek ez dute kongruentzia zehazten, ez dutelako uzia osatzen.

Amaitzeko, epaileak ezin du alderdi izan ez direnei buruz erabaki, ez absolbitzeko, ez kondenatzeko. Ondoren, epaiak hauei buruz erabakitzen duenean, inkongruentzia gauzatzen da. Gauza bera gertatzen da epaiak eskatu ez den babes mota bat (deklaratzaile, eratzaille edo kondenatzaile) erabakitzen duenean, edo eskatu ez dena eman edo ukatzen duenean; epailea, eskatutakoa emateko, alegatu ez diren zioetan oinarritzen denean; edo alegatu ez den salbuespen material bat onartzen duenean –ofizioz kontuan izan behar den salbuespena denean izan ezik–.

D) **EPAIAREN SAKONTASUNA:** Auzitan jarri eta epaiketan bertan eztabaidatu diren puntu guztiak erabakitzea da. Horrela gertatu ezean, epaiaren eduki-betekizunetariko baten urraketa gertatuko da. Eta, honekin batera, pronuntziamentu eza gauzatuko da. Baina pronuntziamentu gabeziak benetako babes jasotzeko eskubidea urratu al dezake? Egia esan, auzi-jartzailearen funtsezko eskaeratariko bati buruz ez erabakitzeak bakarrik urra dezake oinarrizko eskubide hori. Pronuntziamentu eza demandatuak aurkezturiko salbuespen material edo prozesalari buruzkoa bada, ez da aipatutako eskubidea urratzen –epaiketaren funtsa erabakitzen duen epaia dagoelako–; dena dela, honek errekurtsio arrunt edo aparteko errekurtsio bat ahalbidera lezake –baina ez babes helegitea–. Kasu hauetan guztietan urratzen dena, epaiaren edukia zehazten duen arau arrunta baino ez da.

Bestalde, motibaziorik ezak ez du pronuntziamenturik ezarekin zerikusirik, honek motibaziorik eza baitakar berekin. Alabaina, beharrezkoa da pronuntziamentu edo erabaki bat egotea, motibaziorik eza dagoela esateko –motibazioa beti erabaki nahiz epaiarekin lotuta baitoa–. Ondorioz, sakontasunari dagokionez, epaiak bai demandatzailearen uzia, bai demandatuaren erresistentzia erabaki behar ditu, eta ez da erabaki taziturik onartuko.

Ez da ahaztu behar kasu bakoitzean oinarriak desberdinak direla:

- 1) a) Demandatzailearen funtsezko eskaeratariko bati buruzko erabaki eza gertatzeko, suposatzen da honek alde zuzenetik eskaera bat baino gehiago egin dituela, eta epaileak haietako bat gutxienez erabaki duela. Hemen dago, hain zuzen ere, justizia ukapenaren eta erabaki ezaren arteko desberdintasuna. Justizia ukatzeak esan nahi du epaileak ez duela demandatuak aurkezturiko eskaera guztiei edo bakar bati buruz ere erabaki. b) Beste aldetik, erabakirik eza inkongruentziatzat hartu ohi den arren, bata eta bestearen oinarriak guztiz desberdinak dira; inkongruentziak xedapen printzipioa eta alderdien ekarpen printzipioak oinarri dituen bitartean, demandatuaren eskaera guztiei buruz erabaki behar izanaren oinarria babes jurisdikzionalerako eskubidean dago. Eskaera bat edo gehiago erabaki gabe uzten dituen epaia osagabea da, eta helegiteen bidez zuzendu ezean, esan liteke erabaki ez den eskaera ez dagoela gauza juzgatuaren menpe. d) Erabaki edo pronuntziamenturik eza, prozeduran une egokian egindako eskaerei buruzkoa bakarrik izan daiteke. Alegazio prozesalak egiteko une egokia, prozeduraren arabera izango da. d) Bukatzeko, demandatzailearen eskaera guztiak erabaki behar dira; bestela babes helegitea jarri ahal izango da, babesaren oinarrizko eskubidea urratzeagatik.
- 2) Gainerako kasuak: Demandatuak ez du prozesuaren objektua zehazten, baina bere erresistentziaren bidez –hau da, berak jarritako salbuespenen bidez–, eztabaidaren objektua mugatzen du. Eta epaileak espresuki erabaki behar ditu salbuespen guztiak, baiesteko nahiz ezesteko –erabaki eza ezespren tazitutzat hartu ahal izan barik–. Horrez gain, epaileak, erabaki ez ezik, erantzun guztiak arrazoitu ere egin behar ditu.


2.5.2. Gauza juzgatua

Hasteko, gauza juzgatu formala eta gauza juzgatu materiala ezberdindu beharra dago.

- 1) **GAUZA JUZGATU FORMALA** (*PZL 207.3 eta 4 art.*): *Ebazpen judiziala errekurritu nahiz inpugnatzeko ezintasunean datza, Legeak ezarritako epe egokiak pasatu direlako, edo honek errekurtsorik ez aurreikusteagatik. Azken finean gauza juzgatu formala preklusioa baino ez da, eta honen ondorioa irmotasuna da. Efektu hau ebazpen judizial guztiek dute –eta ez bakarrik epaiek–, eta prozesuko barruko efektua da.*
- 2) **GAUZA JUZGATU MATERIALA** edo gauza juzgatua *bakarrik* (*PZL 222. art.*): *Epaiek besterik eragiten ez duten efektu prozesala da. Efektu horrek epaia aldatzeko ezintasuna eta denboran zehar iraupena dakartza. Irmoak diren epaiek bakarrik eragiten dute gauza juzgatuaren efektua. Honek esan nahi du ondoko prozesuetako ebazpen judizialek ezin izango dutela emandako deklarazio judiziala ezeztatu, honela segurtasun eta ziurtasun juridikoa lortuz.*

PZL 222.1 artikulua *“baiesle edo ezesleak izanda, epai irmoen gauza juzgatua”* aipatzen du. Orduan epaiak uzia erabakitakoan sortuko da gauza juzgatua, hots, arazoak ebatzi ondoren. Gogora

**EPAIKETA
ARRUNTA**



dezagun epaiak direla arazoaren funtsa erabakitzen duten ebazpen judizial bakarrak. Honekin batera, ezinbestekoa da epaiak irmoak izatea, hau da, haien kontra errekurritu ezin izatea. Alabaina, irmoak izanda ere, zenbait epaiak ez dute gauza juzgatuaren efekturik sortzen (PZL 447.2, 3 eta 4 art.). Esate baterako, prozesu sumarioetako epaiak: ondoren prozesu deklaratzailer berri bat egitea posiblea denez, gauza juzgatua egikaritu den uzira mugatzen da –efektua sortzen da, baina mugatuta–. Modu berean, borondatezko jurisdikzioko espedienteetan ematen diren epaiak ere ez dute gauza juzgatuaren efekturik izango, haietan ez direlako akzio prozesalak egikaritzen. Kautela-erabakiei dagokienez, esan genezake baldintzak mantenduz gero, gauza juzgatua salbuespentzat har litekeela –*rebus sic stantibus* printzipioa kontuan hartuz–.

Ondorioei dagokienez, hauek izaera prozesala dute. Gauza juzgatuak arazo bera bi aldiz ebatzi ezin izatea dakar (*non bis in idem* printzipioa). Honek zera erakusten digu: beste erabaki berri bat lortzearren, ezin dela aurreko judizio batean ebatzi den arazo bera berriro aurkeztu. Gainera, ebatzia izan dena juzgatu ari denaren epaiketa aurreko arazoa bada, auzitegiak derrigorrean hartu beharko du kontuan aurreko erabakia. Hitz gutxitan esanda, epaileak ezin du berriz juzgatu jadanik epaitua dagoena, eta epaiketa aurreko arazoetan, aldez aurretik epaituaren arabera erabaki beharko du. Egia esan, Legeak galarazten duena ez da epaiketa berri bat hastea, ebaztea baizik.

Bestetik, gauza juzgatuaren mugak zeintzuk diren aztertu beharra dago. Gauza juzgatupean dagoena uzia da; hau da, ebazpen judizialak bere barnean hartzen duen guztia: uzia, egitateak eratzen duten eta alegatzeko preklusioaren aurretik gertatu diren gertakari guztiek zehaztua. Alegatzeko preklusioaren ondoren gertatzeagatik prozesura ekarri ez denak ezin du gauza juzgatuaren objektua eratu –ez baita prozesuaren objektua izan–.

Egikaritzen den uziari buruzko arrazoibide juridiko guztiak efektuaren pean daude; epaiketa aurreko arazoak, aldiz, ez. Salbuespen materialen aldetik, epaileak demandatua kondenatuz gero, honek jarritako eta jar zitzakeen salbuespen guztiak gauza juzgatuaren efektupean izango dira, aurkezteko aukera izan zuelako. Gauza desberdina da zentzu hertsian salbuespen prozesalak badira; oro har esan daiteke hauek ez daudela efektupean.

PZL 222.3 artikulua dioenez, gauza juzgatua prozesuko alderdiei, beren jaraunslerei eta kausahabienteei dagokie. Baita, PZL 10. artikulua arabera, alderdien legitimazioa oinarritzen duten eskubideen tituludunei ere. Jaraunslerei eta kausahabienteen kasuan, hauek transmititzen duenaren posizioan jartzen dira, eskubidea aldatu gabe. PZL 10. artikuluar dagokionez, ordezkoak, Legeak xedatzeko ahalordetza emanda, ordezkatuaren eskubidea egikaritzen du. Bestalde, egoera zibil, ezkontza aitatasun, amatasun, ezgaitasun eta gaitasunaren itzulerari buruzko epaietan, Legeak *erga omnes* efektua aldarrikatzen du. Baina, batzuen ustez, hau ez da erabat egia: kasu batzuetan ez da gauza juzgatuaren efekturik egongo, epai baieslearen eraginkortasun eratzailer baizik (ezkontza baten anulazioa, adibidez). Beste batzuetan, ematen den epaia ezleslea denean, gauza juzgatuaren efektua egongo da, aldaketarako eskubiderik ez dagoela deklaratzeko baita. Hala eta guztiz ere, gauza juzgatua Legeak akzioa ematen dien guztiei dagokie, baina ez hirugarrenei –Legeak, ordea, kontrakoa dio–.

Azkenik, akordio sozialen inpugnazioei buruzko epaiak bazkide guztiei dagozkie, nahiz eta auzitan aritu ez. Inpugnatzeko eskubideak eduki bera du bazkide guztientzat; beraz, epaiak akordioa anulatzen badu –hots, epai baieslea bada–, bazkideak eskubiderik gabe geratuko dira. Aitzitik, epaia ezleslea bada, gauza juzgatuaren efektua izango du bazkide guztien aurrean, baina alegatua izan den zioari dagokionez bakarrik.

3. Prozesuaren ezohiko garapen eta amaiera

Hasieran aipatu dugunez, epaia da prozesua amaitzeko era arruntena. Ohiko garapena duen prozesua honela amaitzen da. Hala ere, zio desberdinak direla-eta, prozesuaren garapena gelditu egin daiteke; edo, prozesua auzia erabakitzen duen epaiaren bidez amaitu beharrean (alderdien dispozizio-egintzagatik nahiz arrazoi objektiboak direla-eta), ezohiko erak izeneko bidez amaitu daiteke prozesua.

3.1. Gelditzea

Batzuetan, prozesua ez aurrera, ez atzera egiten ez duen egoera batean gelditzen da, eta etendura gertatzen da. Gelditzea prozesu osoari nahiz egintza prozesal jakin batzuei buruzkoa izan daiteke; hau da, erabatekoa edo alde batekoa.

A) PROZESU NAGUSIA GELDITZEA (edo atzeratzea):

Kasu hauetan ez dago inolako jardura prozesalik, eta prozesuaren ohiko garapenean ondorioak dituen egoerek eragindakoa da (litispendentzia aldatu gabe). Betiere jarduketa-etendura autoaren bidez egingo da:

- 1) Alderdi guztiek eskatzen dutenean (PZL 19.4 eta 179.2 art.). Dena den, betekizun batzuk ezinbestekoak dira: gelditzeak ez du interes orokorra edo hirugarrena kaltetu behar, eta alderdietako batek eskatuz gero, berriz ekingo zaio prozesuari; etendurak ezin du 60 egun baino gehiago iraun; eta epe hau pasa ondoren, berriz hastea inork eskatu ezean, autoak behin-behinean artxibatuko dira, norbaitek berrituz hastea eskatu edo iraungitzea gertatu arte.
- 2) Legeak berak gelditzea ezartzen duenean: batzuetan, prozesu nagusiaren garapena gelditzen duten eragozpenak agertzen dira; hala eta guztiz ere, honen menpe dagoen jardura prozesalak aurrera jarraitzen du [deklinatoria (PZL 64. art.), bateratzea (PZL 82.4 art.), epaile eta magistratuen abstentzioa (PZL 120.2 art.), eta abar].
- 3) Beste batzuetan, gelditzea, oraindik amaitzeke dagoen jardura prozesalari buruzkoa da; eta honela gertatzen da judizio aurreko arazo debolutiboetan. Hauek prozesua erabaki baino lehen erabaki behar dira (judizio aurreko arazo penala, zibila, konstituzionala, eta abar).

B) EGINTZA PROZESAL JAKINAK GELDITZEA (edo etendura):

Egintza prozesal jakinak gelditzeak ondoko ondorioetariko bat ekar dezake: egintzaren hasiera atzeratzea, edo, egintza hasi bada, honen etendura. Gelditzearen zioa desagertutakoan, prozesuak azken egintzatik hasita jarraituko du, baina, hainbatetan, eta *egintza batasun printzipioa* dela-eta, hau errepikatu egin behar da. PZL 188. artikulua egintza prozesalaren etenduraren adibide da, bistaren etendura hain zuzen ere; artikulua dioenez, zioa desagertuta, alde aurretik burutu diren jarduerak baliozkotzat emango dira.

3.2. Intzidenteak

PZLak 387. eta hurrengo artikuluetan arautzen ditu. Intzidenteak, prozesu batean auzitegiak epaia eman aurretik erabaki behar dituen arazoak dira. Legeak bi motatako intzidenteak aurreikusten du: *Erabaki bereziko arazo intzidentalak* (389. art.) eta *aurretiaz erabaki beharreko arazoak* (390. art.). Lehenengoek epaian erabakia bereiz eskatzen dute, eta inoiz ez dute prozesuaren garapena eteten. Bigarrenek, ordea, prozesua etenarazten dute (esate baterako, suposamendu prozesalari buruzkoak, PZL 391.I eta II art.). Hasieran aipatu ditugun artikuluek arazo hauen izapideak eta prozedura ezartzen dituzte; hala ere, batzuek izapide bereziak dituzte.

3.3. Prozesuaren amaiera alderdien borondatea dela-eta

Batzuetan, alderdien zuzeneko edo zeharkako borondatea dela kausa, prozesua presazko eran amaitzen da. Kasu hauetan guztietan alderdiak gaitasun prozesal betea behar du, eta prokuradoreari ahalordetza berezia eman behar zaio (PZL 22.5 art.). Gainera, egintzak lehenengo auzialdiko, errekurtsioetako, nahiz exekuzioko edozein unetan burutu daitezke, bakoitzaren izaera kontuan izanda (PZL 19.3 art.).

3.3.1. Uko egitea

Demandatzaileak utzi egiten du egikarituriko akzioa edo bere uzia oinarritzen den eskubidea (PZL 20.1 art.); uko egitearen bitartez, bere uzia funsgabea dela baieztatzen du. Demandan agerturiko eskubideari buruzko deklarazio ezleslea baino ez dela esan daiteke, zeinak babes juridikoari uko egitea

dakarren. Kontuan hartu behar da demandatuaren adostasuna ez dela beharrezkoa, uko egiteari onura ateratzen baitio (absoluzio epaia).

Ondorioei dagokienez, uko egiteak gauza juzgatuaren efektua duen absoluzio epaia dakar –eta jakina, uziaren ezespena–. Honela, epaia emateko ez da prozesu osoa jarraitu behar, zeren eta honen garapena edozein izanda, epaia beti absolutzailea izango bailitzateke (PZL 20.1 art.).

PZL 19.1 artikulua uko egitea galarazten du zenbait kasutan: Legeak berak debekatzen duenean, edota interes orokorragatik nahiz hirugarrenen onetz mugak ezartzen dituenean (zentzu berean, Kode Zibileko 6.2 eta 6.3 art.).

Uko egitea erabatekoa zein partziala izan daiteke. Bestetik, idatziz nahiz ahoz egin daiteke, baina beti espresua izan behar du.

3.3.2. Atzera egitea

Prozesua uzteko asmoa adierazten duen demandatzailearen alde bakarreko borondate-deklarazioa da; dena den, honek ez du esan nahi akzioari uko egiten dionik (PZL 20.3.II art.). Demandatzaileak, berak hasitako prozesuari eta sortutako egoera prozesalari uko egiten die. Ondorioz, uzia epaitu gabe geratzen da –ez baitago erabakirik–. Honek, alderdi berberen artean uzi bera duen beste prozesu bati hasiera ematea ahalbideratzen du. Ez dago gauza juzgatuaren efekturik.

Atzera egitea alde bakarrekoa izan daiteke –hau da, ez da beharrezkoa demandatuaren adostasuna– demandatua demandari erantzuteko epatua izan baino lehen, edo edozein momentutan demandatua auzi-ihes dagoenean (PZL 20.2 art.). Baina gainerako kasu guztietan demandatuaren adostasuna beharrezkoa da; beraz, idazkia demandatuari helarazten zaio, nahi izanez gero aurka egiteko. Demandatuak aurka egiten ez badu, epaileak largespen autoa emango du; eta aurka eginez gero, epaileak egokia dena erabakiko du: prozesuaren jarraipena, nahiz largespen autoa (PZL 20.3 art.).

Orokorrean, atzera egitea edozein motatako prozesutan da posible, uzia epaitu gabe geratzen delako. Espresuki nahiz tazituki egin daiteke, baita idatziz nahiz ahoz ere. Eta, amaitzeko, prozesu osoari edo zati bati buruzkoa izan daiteke. Atzera egitea erabatekoa bada, prozesua amaitu egingo da.

3.3.3. Amore ematea

Demandatuaren egintza prozesala da, eta honen bitartez demandatzailearen uziarekin adostasuna adierazten du. Demandatuak auzi-jartzailearen uziaren aurka ez egiteko edo jadanik egindakoa uzteko borondatea adierazten du. Beste era batean esanda, amore ematea auzi-jartzaileak eskatzen duenaren onespenean hutsa da (PZL 21. art.). Ez da nahastu behar gertaeren onespenearekin, zeren eta hau gertakariei buruzkoa da –eta ez uziei buruzkoa–, demandatuak nahiz demandatzaileak egin dezake, eta ez du erabakiaren edukia baldintzatzen.

Zuzeneko ondorioa, prozesua amaitzen duen kondena-epaia da –partziala denean izan ezik– (PZL 21.1 art.). Gainera, erabakiaren edukia zehazten du; hau demandatzaileak eskatu duenaren arabera izango da. Auziaren mamian sartzen denez, epaiak gauza juzgatuaren efektua izango du. Hau dela kausa, *ius cogens* izeneko erlazio juridikoei buruzko prozesuetan ez dago amore ematerik (PZL 751.1 art.).

Baina PZLak mugak ezartzen ditu: ordena publikoari buruzko arauak. Beraz, amore emateak epaileari kondena-epaia emanarazten dio, baldin eta deklarazio horrek ordena publikoari buruzko arauen urraketa edo hirugarrenaren nahiz interes orokorraren kalterik ekartzen ez badu. Idatziz edo ahoz egin daiteke, baina beti espresuki.

Orain arte erabateko amore emateari buruz aritu da, baina PZLak, 21.2 artikuluan, lehenengo aldiz, amore emate partziala arautzen du. Prozesu batean uzi batzuk egikaritzen direnean, demandatuak haietariko baten edo batzuen aurrean amore ematen badu, hauei bakarrik dagokienez, prozesua amaitu egingo da, eta besteentzat prozesuak jarraitu egingo du. Hala eta guztiz ere, hau posiblea izango da baldin eta uzien izaerak aparteko erabakiak ahalbideratzen baditu.

3.3.4. Elkarraditzea

Elkarraditzeak epai beharrik gabe amaiarazten du prozesua. Uko egiteak eta amore emateak epaiaren edukia erabakitzen dute, baina ez dute hau saihesten. Elkarraditzeak, ordea, epaia saihestu eta prozesua amaiarazten du –hau objekturik gabe geratzen baita–.

PZL 19.1 artikulua arabera, alderdiek prozesuaren objektuari buruz elkar adi dezakete, Legeak galaraztean edo interes orokorrarengatik nahiz hirugarrenen onez mugak ezartzen dituenean izan ezik. Hau da, alderdiek elkarrekiko emakiden bidez prozesuari amaiera emateko burutzen dute elkarraditzea.

Gai honetan, Kode Zibileko 1809. artikulua ezinbestekoa da: *“Elkarraditzea kontratu bat da, zeinaren bidez alderdiek gauzaren bana emanez, aginduz edo atxikiz, auzi baten hasiera saihesten edo hasitakoa amaiarazten duten”*. Jakina, elkarraditzeak prozesua amaiarazteko auzitegiaren aurrean egin behar dira (elkarraditze judiziala). Prozesuz kanpo eginez gero, prozesua amaiarazi ez arren, epaiaren edukia baldintzatuko du, behin epaileak homologatua.

Prozesua, alderdien akordioa homologatuko duen auto baten bitartez amaituko da (PZL 19.2 art.). Autoa exekuzio-titulu bihurtuko da; beraz, epaiak exekutatzeko arruntak diren izapideak jarraituko dira. Hala eta guztiz ere, autoak ez du gauza juzgatuaren efektu materialik, zeren eta elkarraditzeak obligaziozko menpekotasuna baino ez dakar. Alderdiek akordioaren zehaztasun guztiak errespetatu behar dituzte. Ondorioz, elkarraditza eginda, ondorengo prozesu batean alegatuz gero (demandatzaileak nahiz demandatuak), erabakia akordioaren arabera izango da, hots, elkarraditzeak ez du bigarren erabakirik saihestuko. Beste aldetik, akordioa denez, elkarraditza kontratuak baliogabetzen dituzten zioak alegatuz inpugnatuko da, eta muntaren arabera egokia den prozesua jarraituz.

PZLak ezartzen dituenez gain, Legeak elkarraditza judiziala burutzeko hainbat muga aurreikusten du (Kode Zibileko 1813, PZL 751 artikulua, eta abar). Ahoz nahiz idatziz egin daiteke; ahoz egiten bada, akordioaren zehaztasunak akta edo kopian edozein euskarriren bidez jasoko dira. Dena den, judizioz kanpoko elkarraditza izatekotan, dokumentu batean agertu behar du, epaileak homologatu ahal izateko (PZL 19.2 art.).

3.3.5. Prozesuz kanpoko asetzea edo bat-bateko objekturik eza

PZL 22. artikulua prozesua amaitzeko beste era bat aurreikusten du: babes judiziala lortzeko bidezko interesaren desagertzea, auzi-jartzailearen –edo, kasua bada, kontrademandatzailearen– uziak prozesutik kanpo asetzeagatik. Uziak asetutakoan, babes judiziala lortzeko interesa desagertu egiten da. Ondorioz, prozesua auto baten bidez amaitzen da. Egia esan, auzia amaitzen duen funtsezko erabakiaren antzeko balioa ematen dio Legeak; horregatik, gauza juzgatuaren efektuak aurreikusten zaizkio.

Beharrezkoa da alde biko borondatea izatea; prozesua honela amaitzeko adostasuna, alegia. Honela, alderdietako batek babes judiziala lortzeko asmotan jarraituko balu, bere uziak asetzea ukatuz, epaileak agerraldi batera deituko ditu alderdiak. Agerraldia amaituta, epaileak erabakiko du prozesua jarraituko duen edo ez.

PZLak prozesuz kanpoko asetzearen kasu berezi bat aurreikusten du, ordainketa dela kausa: *hiri finikaren irazpen-prozesua enerbazioaren bidez* (PZL 22.4 art.).

3.4. Prozesuaren amaiera legea dela-eta

Arrazoi prozesalaz direla kausa, prozesua ezohiko eran amaitzen den kasuetan ez dago auziari buruz erabakitzen duen epairik; hots, uzia epaitu gabe geratzen da –gauza bera gertatzen da atzera egitean–. Beraz, auzi berari buruzko prozesu berri bat has daiteke.

3.4.1. Largespena

Largespena, epaileak prozesua amaitutzat emateko ematen duen ebazpen judiziala da. Kasu honetan ere ez da auziari buruzko erabakirik; uzia epaitu gabe geratzen da. Prozesu barruan eragozpenak ager daitezke, alderdiei leporatzen zaizkienak (adibidez, ez agertzea, PZL 414. art.), edo alderdiei ez dagozkienak (litispendentzia, PZL 421. art.). Hauexek izan daitezke: suposamendu prozesal gabezia, konponezinak direnean (PZL 421. art), edo konpongarriak izanda ere konpontzen ez direnean (PZL 420. art.); betekizun prozesal eza (PZL 424. art.); alde zurreko entzunaldira ez agertzea (epai prozesalak saihesten dira, erlazio juridiko-prozesala txarto eratuta dagoenean).

Ondorioak ondokoak dira: epaileak auto baten bidez amaitutzat emango du prozesua; beraz, ez da egongo auzia erabakitzen duen epairik. Alabaina, honek ez du esan nahi alderdi beren artean eta uzi berari buruz prozesu berri bat posible denik, hori eragozpenaren arabera izango baita; izan ere, hainbat kausak (esate baterako, litispendentziak eta gauza juzgatuak) galarazi egiten dute uzi berari buruzko prozesu berri bat alderdi beren artean hastea.

3.4.2. Iraungitzea

Behin prozesua hasita, Legeak aurreikusitako denboran zehar ez jarduteagatik gertatzen da iraungitzea; izan ere, litispendentziak denboran mugatua izan behar du. Epaileak ofizioz eta auto baten bitartez deklaratu du. Iraungitzeak ziurtasun eta segurtasun juridikoak ditu oinarri.

PZL 237. artikulua arabera, iraungitzea deklarazio-prozesuaren edozein unetan gerta daiteke: lehenengo auzialdian, bi urtetan zehar jarduera prozesalik ez dagoenean; bigarren auzialdian, hauste prozesalagatik; aparteko errekurtsioan edo kasazio errekurtsioan, berriz, urte betean zehar.

Haatik, denbora joatea ezinbesteko zioek edo alderdiei leporatu ezin zaizkien zergatien eragindakoa bada, ez da iraungitzerik gertatuko. Era berean, nahitaezko exekuzioan, inoiz ez da iraungitzerik egongo, juzgatua bete arte jarraitu behar baita (PZL 238 eta 239. artikulua, hurrenez hurren). Alderdiei egindako azken jakinarazpenetik kontaktzen da.


Iraungitzearen ondorioei dagokienez, PZL 240. artikulua zera aurreikusten du: lehen auzialdian bada, atzera egitea maila horretan gertatu dela ulertuko da; horregatik, uzia epaitu gabe geratzeak, alderdi beren artean objektu bera duen prozesu berri bat hastea ahalbideratzen du –iraungi dena akzioa denean izan ezik–. Beste aldetik, bigarren auzialdian nahiz aparteko errekurtsioetan gertatzen bada, apelazioan edo errekurtsioan atzera egiten dela ulertuko da, eta errekurrituriko ebazpena irmotzat emango da. Iraungitze-deklarazioak ez ditu kostuak ezarriko; alderdi bakoitzak bereak ordainduko ditu, eta komunak direnak erdi bana egingo dira.

4. Hitzeko epaiketa

Espaniako Zuzenbide historikoan judizio eredu bakarra zegoen, *solemnis ordo iudiciarius* zeritzona. Hau, aldi berean, epaiketa arrunta eta plenarioa zen. Izan ere, haren inguruan eratu zen ordenamendu prozesal osoa, 1881eko PZLak munta handiko judizio bihurtu zuen arte. Dena dela, laster egiaztatu zen epaiketa hau ez zela nahikoa. Erdi Aroan, eguneroko beharrak asetzeko egokia ez zela ikusteak beste epaiketa mota bat sorrarazi zuen. Plenario eta arrunta izaten jarraitu zuen, eta dirua eta denbora gutxitzeaz gain ahozkoatasuna zuen ezaugarri. Merkataritzako arloan agertu arren, prozesu zibilean ere eragin handia izan zuen, hitzeko judizioa sortuz.

1534. urtean agertu zen lehen aldiz Hitzeko judizioa, 400 *maravedi* baino munta gutxiagoko auzi zibilak ahoz, azkar eta handitasunik gabe tramitatzeko. Denboraren poderioz, munta handituz joan eta lege desberdinek arautua izan zen. 1881eko PZLak oso munta gutxiko uzietarako ezarri zuen hitzeko judizioa, Bake-epaitegien eskumena (8.000 pezeta artekoa) edo Lehen Auzialdiko epaitegien eskumena (80.000 pezeta artekoa) zenean bereiztuz. Gaur egun 2000ko PZL II. liburuko III. tituluak arautzen du hitzeko judizioa (437. artikulutik 448. artikulura).

HITZEZKO JUDIZIOA



4.1. Hitzeko epaiketaren eremua eta motak

PZLak Bake-epaitegi eta Lehen Auzialdiko epaitegien artean banatzen du eskumena (150.000 eta 500.000 pezeta artekoa, hurrenez hurren). PZL 250. artikulua arazo jakin batzuen ezaguera eranstean dio hitzeko judizioari, materia edo munta kontuan hartuz:

A) *MUNTAREN ARABERA*: munta dela-eta hitzeko judizioa egokia denean (PZL 248 eta 250.2 art.), *prozesua deklaratzailer, arrunt eta plenarioa* izango da. Deklaratzailea izango da, haren bidez uzi deklaratzailerak egikaritzen direlako; arrunta, edozein motatako objektuari buruz izan daitekeelako; plenarioa, alderdien alegazioei, frogaren objektuari eta epailearen kognizioari mugarik ezartzen ez zaielako; ondorioz, emango den epaiak gauza juzgatuaren efektua izango du.

B) *MATERIAREN ARABERA*: *judizio berezia* izango da (PZL 250.1, 2, 8 art.). PZL 250.1 artikulua ezartzen duenez, munta edozein izanda, objektu konkretu batzuei buruzko demandetan hitzeko judizioa izango da egokia. Hots, nahiz eta munta dela kausa prozesu arrunta egokia izan, hainbat materiatan hitzeko judizioa erabiliko da. Horrez gain, babesa sumarioa izango dela edo epaiak izaera sumarioa izango duela ezartzen bada, *judizio berezi eta sumarioa* izango da hitzeko judizioa (PZL 250.1, 1, 3, 4, 5, 6, 7, 10 eta 11 art.). Kasu honetan alderdien alegazioei, frogaren gaiari eta batzuetan frogabideei eta epailearen kognizioari mugak jartzen zaizkie. Auziari buruzko epaiketa mugatua denez, erabakitzen duen epaiak ez du gauza juzgatuaren efekturik izango; ondorioz, alderdiek ondorengo judizio plenarioa has dezakete.

4.2. Demanda

PZL 437. artikulua dioenez, hitzeko judizioa demandaren bidez hasiko da. Baina artikulua honetan bertan demanda mota batzuk bereizten dira.

A) *DEMANDA LABURRA*: 150.000 pezeta baino gehiagoko muntako diru-uziak izanez gero, edo materiarengatik hitzeko judizioa egokia bada, PZL 437.1 artikulua epaiketa demanda laburraren bidez hasiko dela dio. Demandan zehaztu behar dira auzi-jartzaile eta demandatuaren identifikazioa eta hauei zitazioak egiteko helbidea, eta eskatzen dena "*argitasunez eta zehaztasunez*" finkatu behar da. Gainerako betekizunak, judizio arrunteko demandarenak dira (auzitegia, dokumentuak, eta abar). Hala eta guztiz ere, PZL 437.1 artikulua betekizunak zehazten dituenean, ez ditu gertakari eta zuzenbideko oinarriak aipatzen; hots, ez du oinarritzea baldintzat hartzen. Demandaren bitartez demandatzaileak akzio-eskubidea bakarrik egikaritzen du, baina ez du uzia erabat aurkezten. Demandan uzia prestatzen da, gero, bistan oinarritzeko. Judizio arruntean, ordea, demanda arrunta edo betea da, uzia erabat aurkezten delako. Dena dela, kontuan hartu behar da PZL 437.1 artikulua betekizun minimoak ezartzen dituela; beraz, ez dio auzi-jartzaileari demanda betea jartzea galarazten. Demanda betea jarriz gero, demandatzaileak bistan oinarritu beharrean, demanda berrestuko du.

B) *INPRIMAKI NORMALIZATUAREN BIDEZKO DEMANDA* (PZL 437.2 art.): 150.000 pezeta edo gutxiagoko muntako hitzeko judizioetan, demandatzaileak inprimaki normalizatu batzuk betez aurkez dezake demanda. Inprimakiak egokia den auzitegian izango ditu eskuragarri. Abokatu eta prokuradorea ez dira beharrezkoak izango. Baina demanda mota hau demandatzailearentzako aukera baino ez da.

4.3. Demanda-onarpena eta bistarako zitazioa

Behin demanda aurkeztuta, epaileak, bost eguneko epean, hau onartzea edo ez onartzea erabaki beharko du. PZL 440.1 artikulua arabera, epaileak ofizioz bere jurisdikzioa eta eskumen objektiboa egiaztatuko ditu, eta baita bere lurralde-eskumena ere. Hitzeko judizioetan, auzitegi baten eskumenean jartze espresua eta jartze tazitua ez dira onargarriak (PZL 54.1 art.). Izan ere, lurralde-eskumeneri buruzko arauak aginduzkoak dira.

Demanda ez onartzeko zioak judizio arruntetakoak dira; hala ere, materia dela-eta, batzuetan hitzeko judizioa prozesu berezizat hartzen da. Beraz, PZL 439. artikulua hainbat arau ezartzen ditu demanda ez onartzei buruz.

- 1) Edukitza atxiki nahiz berreskuratzeko demandak ez dira onartuko, baldin eta perturbazioa edo edukitza-kentzea gertatu zenetik urte beteko epea igarota aurkezten badira. Demandatzaileak zehaztu egin behar du noiz gertatu zen perturbazio edo edukitza kentzea, eta urte beteko epe barruan gertatuz gero, auzitegiak onartu egingo du (PZL 439.1 art.)
- 2) Jabetza-Erregistroan eskubide inskribatu baten erabilera asaldatu nahiz oztopatu izateagatik –egileak titulurik ez duenean– haren eraginkortasuna lortu nahi izanez gero, titularrak aurkeztutako demandak baldintza bereziak bete beharko ditu: epaiaren eraginkortasuna lortzeko neurrien aipamena, demandatuak egin behar duen kauzioaren zehaztapena, eta Jabetza Erregistroko ziurtapena. Baldintza guztiak bete ezean, demanda ez da onartuko (PZL 439.2 art.).
- 3) Maizterra zor dituen errenta edo kantitateak ez ordaintzeagatik hiri finkatik botatzeko demandan, errentatzaileak egoera zehaztu behar du. Honek maizter-botatzearen enerbazioa (PZL 22.4 art.) ahalbideratuko du edo ez (PZL 439.3 art.).
- 4) Ondasun higigarrien epekako salmenta eta finantza-errentamendu kontratuak ez betetzeari buruzko demandei, dokumentu bereziak erantsi behar zaizkie –PZL 439.4 artikuluan aipatzen direnak–.
- 5) Amaitzeko, PZL 439.5 artikulua klausula orokor bat ezartzen du: legeek aurreikusitako onargarritasun baldintza bereziak bete ez dituzten demandak ez dira onartuak izango.

Ondoren, epaileak autoa emango du. Honela, demanda onartutzat hartuko da eta demandatuari helarazteko agindua ezarriko da. Honekin batera, bistarako zitatuko ditu alderdiak, data eta ordua zehaztuz. Gutxienez hamar eta gehienez hogeit hamar egun igaro behar dute zitatu zen hurrengo egunetik bista egin arte. Prozesu arrunterako aurreikusitako zitazio-betekizunez gain, PZL 440.1 artikulua zenbait gehiago aipatzen ditu: zitazioan agerian utziko da bista ez dela atzeratuko demandatua ez agertzeagatik, honela gertatuz gero judizioak jarraitu egingo duelako eta demandatua auzi-iheslari deklaratu delako. Alderdi biei ohartaraziko zaie baliarazi nahi dituzten frogabideak edukita joan behar dutela bistara, han bertan proba guztiak egiteko –hau da, jardun guztiak ekitaldi bakarrean egikaritzen dira–; gainera, beraiek agertu ezean, eta beraien deklarazioa frogabide gisan proposatu eta onartuz gero, galdeketa gertakariak onartutzat eman ahal izango direla jakinaraziko zaie (PZL 304. art.). Bestalde, demandatzaileari ohartaraziko zaio bera bistan ez agertzea demandan atzera egitetzat hartuko dela, baldin eta demandatuak prozesuaren jarraipenean bidezko interesik alegatzen ez badu prozesuaren funtsari buruzko epaia emateko. Kasu honetan, kostuak eta kalte-galerak –demandatuak eskatuz gero– ordaintzera kondenatuko da demandatzailea. Zitatuak izan zirenetik hiru eguneko epean, epaileak alderdi edo lekuko gisan zitatu behar dituen pertsonak adierazi behar dituzte alderdiek.

Amaitzeko, abokatu eta prokuradorearen eskuhartzea beharrezkoa ez den kasuan, demandatzailea hauen laguntza edukita bistan agertuko bada, demandaren helarazpenarekin batera zitazioak egoera honen jakinarazpena ekarri beharko du.

4.4. Bistarako aurretiko jardunak

Zitazioak egin ondoren eta bista hasi baino lehen, jardun batzuk izan daitezke:

- A) *POSTULAZIOA* (PZL 31 eta 32. art.): 150.000 pezetako munta baino gehiagokoak ez diren hitzezko judizioetan ez da beharrezkoa abokatu, ezta prokuradorea ere. Aitzitik, auzi-jartzaileak haien ordezkapen edota defentsaz baliatu nahi izanez gero, horrela adierazi behar du demandan, demandatuak jakin dezan eta defentsa gabezia ez gertatzeko. Jakinarazpena jasota, demandatuak ere postulazioaz baliatu nahi izanez gero, ondorengo hiru egunetan jakinaraziko dio epaileari. Baina baliteke postulazioaz lagunduta jardun nahi duena demandatua izatea (eta demandatzailea ez); orduan, demandatzaileari jakinaren gainean jarriko zaio, eta honek ere abokatu eta prokuradoreaz baliatu nahi badu, jakinarazpenaren ondorengo hiru egunetan honen berri emango dio epaileari. Aipatutako bi kasuetan, jakinarazpenarekin batera alderdiek doako laguntza juridikoa eskatzea dute; honela bada, epaileak prozesua etetea erabaki dezake.

- B) *FROGEN PRESTAKETA*: Batzuetan, alderdiek lekuko edo alderdi gisa zenbait pertsonak bistan deklaratu dezaten nahi dute, beraiek aurkeztu ezin dituztenak. Hau gertatuz gero, zitazioaren ondorengo hiru egunetan alderdiak idazki bat aurkeztuko du epaitegian, pertsonak zeintzuk diren zehaztuz (datuak eta zirkunstantziak), epaileak berak zita ditzan (PZL 440.1. 3 art.).
- D) *JURISDIKZIOKO DEKLINATORIA* (PZL 64.1 art.): Bistarako zitazioaren ondorengo bost egunetan aurkeztu behar da. Bistarako konputu eta prozesuaren etendura du ondorio.
- E) *ERREKONBENTZIO ETA KONPENTSAZIOA* (PZL 438. art.): Hitzeko judizioetan, jardun guztiak –demanda izan ezik– ekitaldi bakar batean burutzen dira, bistan alegia. Baina baliteke demandatuak auzi-jartzaileari konpentsazioa oposizio gisan jartzea edo errekonbentzioa egitea. Egoera honek auzi-jartzailea defentsarik gabe utz dezake; ondorioz –hau ez gertatzeko–, bista hasi baino lehen demandatzaileak demandatuaren asmoak zeintzuk diren jakin behar du, bistan bertan konpentsazioari buruz egoki alegatu edo errekonbentzioari erantzun ahal izateko. Izan ere, PZL 438. artikuluek dioenez, izaera sumarioa duten hitzeko judizioetan ez dago errekonbentzioa egiterik; gainerako judizioetan, aldiz, errekonbentzioa onartzen da baldintza batzuk beteta: auzi-jartzaileari gutxienez bista egin baino bost egun lehenago jakinaraztea; errekonbentzioaren uziak hitzeko judizioaren desegokitasuna ez ekartzea; eta azkenik, demandaren eta errekonbentzioaren uzien artean lotura egotea. Konpentsazioari dagokionez, demandatzaileari bista egin baino bost egun lehenago notifikatu behar zaio, eta konpentsagarria den kredituaren muntak ez du hitzeko judizioaren desegokitasuna ekarri behar.
- F) *UZIAK BATERATZEA*: PZL 438.3 eta 438.4 artikuluek arau bereziak ezartzen dituzte uziak bateratzeaz. Oro har, auzi-jartzaileak demandatu baten aurkako akzio guztiak demanda bakarrean batera ditzake, objektuen artean loturarik ez egon arren, baina hitzeko judizioan honako kasu hauetan bakarrik batera ditzake: 1) uziak gertakari berberetan oinarritzen direnean, baldin eta kasu guztietan hitzeko judizioa egokia bada, 2) kalte-galerak ordaintzeko erreklamazio uzia eta honi buruz epaiketa aurrekoa den uzia ere batera daitezke, eta 3) maizterra finkatik botatzeko judizioetan, epemuga betea izanda, errenta edo ordaindu ez diren antzeko kantitateen erreklamazio uziak (500.000 pezeta baino gehiagokoak izan ezean). Bateratze subjektiboari dagokionez, batek zenbaitzuen kontra dituen edo zenbaitzuek baten kontra dituzten akzioak batera daitezke, baldin eta PZL 72 eta 73. artikuluek ezarritako betekizunak errespetatzen badira. Auzitegiak eskumena izan behar du (materia eta muntarengatik) uzi guztiak erabakitzeko; uzietariko bati, muntaren arabera, judizio arrunta badagokio, ezin izango da hitzeko judizioan aurkeztu. *“Gehiena dezakeenak gutxiena dezake, baina ez alderantziz”*.

Bestalde, badira beste jardun batzuk, hitzeko judizio bereziei (materiarengatik) baino ez dagozkienak (PZL 441. art.):

- A) *EDUKITZAREN ESKURAPENA*: Auzi-jartzaileak jaraunspena dela kausa bereganatutako ondasunen edukitza nahi duenean, eta hauek usufruktudun nahiz jaraunse gisan inork ez baditu, epailearen jardura bi motatakoa izango da. Lehengo eta behin, auzi-jartzaileak epailearen aurrean idazki bat aurkeztu behar du. Idazkian lekukoaren informazioa agertuko da, ondasunak usufruktudun edo jaraunse gisan inork ez dituela adieraziz. Auzitegiak lekukoak deituko ditu eta hauen deklarazioa kontuan izanda, autoa emango du, zeinaren bidez eskatutako edukitza eman edo ukatuko den, eskubide hobeari kalterik egin gabe. Autoa ediktuen bitartez jakinaraziko zaie interesatuei, eta auzitegiaren iragarki-taulan, Probintziako Buletin Ofizialean eta zirkulazio handiena duen egunkarietako batean argitaratuko da. Interesatuek, eskubide hobea dutela uste badute, berrogei eguneko epea dute agertu eta erreklamazioa egiteko. Inor agertuko ez balitz, auzitegiak eskatzaileari emandako edukitza berrestuko dio. Hemen amaitzen da borondatezko jurisdikzioa. Hemendik aurrera, aldi jurisdikzionala hasiko da: norbaitek erreklamazioa aurkeztuz gero, benetako demandaren bitartez egingo du, eta hitzeko judizioaren tramitazioari emango zaio hasiera. Demanda edukitzaren eskatzaileari helarazita, bistarako zitatuko dira alderdiak.
- B) *OBRA BERRIA*: Auzi-jartzaileak nahi duena sumario eran obra berri bat etetea denean, aurretiko jarduna obraren behin-behineko etenduran datza. Obra etenda, behin betiko etendura bistan eztabaidatuko da. Ondorioz, bistarako zitazioak egin baino lehen, epaileak obraren arduradun edo jabeari etendura-agindua ezarriko dio. Honek kausa eman dezake obrarekin jarraitzeko,

edo dagoeneko eraikita dagoena mantentzeko ezinbestekoak diren obrak burutzeko. Gainera epaileak errekonozimendu judiziala, perituen errekonozimendua edo biak egiteko agin dezake.

- C) **JABETZA ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO ESKUBIDE ERREALA:** Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide errealak izanda, honen aurka jasandako egintzak edo asalduren aurrean, auzi-jartzaileak bere eskubidearen eraginkortasuna eskatzen duenean. Kasu honetan, epaileak, demanda onartu eta berehala, egoeraren arabera beharrezkoak diren eskatutako neurriak hartuko ditu, emango den epaia beteko dela ziurtatuko dutenak.
- E) **EPEKA EROSITAKO ONDASUN HIGIGARRIEN KONTRAKO EXEKUZIO ESKLUSIBOA:** Auzi-jartzaileak Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan inskribatutako kontratuek dakartzaten obligazioei buruz sumario eran erabakitzea nahi duenean, erosleak kontratua ez betetzeagatik. Auzi-jartzaileak nahi duena, exekuzioa epeka finantzatu diren ondasunen gainean zuzentzea besterik ez da. Epaileak edukitzaileari ondasunak erakus ditzan aginduko dio, egin ezean autoritate judizialari desobedientziapen eroriko dela ohartaraziz. Horrez gain, berehalako aurreneurritzko enbargua burutuko da, eta ondasunak gordailuaren bitartez aseguratuko dira. Bestetik, bete ez den kontratua finantza-errendamendua edo jabari-erreserba duen epekako salmenta-kontratua izanez gero, auzitegiak demanda onartutakoan finantza errentatzaile, saltzaile edo finantzagileak eskatzen duen ondasunaren gordailua aginduko du. Aipatutako kautelazko neurriak hartzeko ez zaio demandatzaileari kauziorik eskatuko, eta ez da onartuko demandatuaren neurrien aurkako oposizioa, ezta neurrien aldaketa edo kauzio ordezkapenik ere. Baina demandatua epatuko da bost eguneko epean prozesuko jardunetan agertu eta demandaren kontrako oposizioa jarri ahal izateko.

4.5. Bista

Hitzezko judizioan, jardun guztiak –demanda eta epaia izan ezik– ekitaldi bakar batean burutzen dira, bistan alegia. Bista ahozko ekitaldia da, eta haren garapenean hitzezko judizioa bera arautzen duten araez gain, PZL 182. artikulutik 193. artikulura ezartzen diren arau orokorrak hartu behar dira kontuan.

- A) **ALDERDIAK EZ AGERTZEA** (PZL 442. art.): Bistarako eguna eta ordua helduta auzi-jartzailea agertzen ez bada, demandan atzera egin duela ulertuko da, eta sortutako kostuak ordaintzeko eta agertu den demandatuari kalte-galerak indemnitzatzeko –baldin eta honek eskatu eta egiaztatzen baditu– kondena ezarriko zaio. Agertzen ez dena demandatua bada, epaiketak jarraitu egingo du, baina ez agertze honek ez dakar amore ematerik, ezta gertakariak onartzerik ere. Ez bata, ez bestea agertzen ez badira, prozesuak ezin du jarraitu; beraz, demandatzaileak atzera egin duela ulertuko da, eta epaileak jardunak artxibatzea aginduko du. Alderdi biak agertuz gero, bistak ahozko ekitaldiaren garapena izango du; honela, epaileak behar adina aldir hitz egiteko aukera eman diezaieke hauei (PZL 443. art.).
- B) **DEMANDATZAILEAK OINARRITZEA:** Demandatzaileak ahoz arrazoituko du bere uzia (eskatzeko arrazoia adieraziko du). Baina demanda osoa izan bazen, berretsi baino ez du egingo.
- C) **SALBUESPENAK:** Demandatuak ahoz erantzungo dio demandari, egokitzen jotzen dituen salbuespen prozesal eta material guztiak aurkeztuz: onartezintzat jotzen duen akzio-metatzeari zein erlazio juridiko-prozesalari buruzko alegazioak egin ahal izango ditu, hau da, prozesuaren jarraipen eta amaiera oztopa dezaketen gertaera edo zirkunstantziei buruz (PZL 443.2 art.). Baina momentu honetan demandatuak ezin izango du auzitegiaren jurisdikzio edo eskumenik eza inpuignatu, zeren eta hori judizioaren hasieran deklinatoria moduan egin behar zuen (PZL 64. art.). Honek ez du esan nahi auzitegiak berak ofizios bere jurisdikzio edo eskumenik eza ikusterik ez duenik.

Demandatuak salbuespen prozesalak aurkezten baditu –beti demandatzaileari hitz egiteko aukera emanda–, epaileak zer egin erabaki behar du (PZL 443.3 art.): salbuespen prozesalen bat baiestea, eskumena beste organo judizial bati dagokiola esanez nahiz prozesua amaiazaz; edo salbuespen prozesal guztiak ezestea, bista eta epaiketaren jarraipena aginduz –kasu honetan ez dago erabakia

errekurritzerik, baina demandatuak bere desadostasuna aktan agertzea eska dezake, emango den epaia apelatu ahal izateko—. Honekin batera, saneatze funtzioa betetzen da.

- D) *GERTAKARIAK FINKATZEA*: Salbuespen prozesalik alegatzen ez bada, edo alegatuak izanda ere auzitegiak epaiketa jarraitzea erabakitzen badu, hitz egiteko aukera emango die alderdiei, hauek beraien uziak oinarritzen dituzten gertakari nabarmenak argi finka ditzaten (PZL 443.4 art.). Horrela, lehenago egindako demandaren oinarritze eta erantzunaren bidez zehaztuko dira zeintzuk diren gertakari eztabaidagarriak eta zeintzuk ez. Demandari ematen zaion erantzunaren edukia judizio arruntekoa da, nahiz eta kasu honetan ahoz izan. Honekin batera, eztabaidaren baldintzak mugatzen dira.
- E) *FROGAK*: Gertakari buruzko adostasuna izan ezean, alderdiek frogabideak proposatuko dituzte. Epailleak egokiak eta baliagarriak direnak onartuko ditu, eta jarraian praktikatu dira. Alderdien frogen proposamena PZL 429.1 artikulua dioenarekin osa daiteke (PZL 443.4 art). Froga eta presuntzioei dagokienez, 445. artikulua, 281. artikulutik 386. artikulurako xedapen komunetara bidaltzen du. Horrez gain, PZL 446. artikulua zera ezartzen du: frogak ez onartzeari edo oinarritzeko eskubideak urratuz lortu diren frogak –honela salatu direnak– onartzeari buruzko erabakien kontra, alderdiek protestatu egin ahal izango dutela, beren eskubideak baliarazi ahal izateko.
- F) *BISTAREN AMAIERA*: Frogak praktikatu ondoren, epailleak bista amaitutzat jo eta hurrengo hamar egunetan epaia emango du (PZL 447.1 art.).

Behin eta berriro aipatu denez, hitzezko judizioa batzuetan prozesu berezi eta sumario gisan agertzen da. Honek arau bereziak izatea dakar, demandatuek egin ditzaketen alegazioen mugaketari buruz, hain zuzen ere (PZL 444. art.); beraz, emango den epaiak ez du gauza juzgatuaren eraginik izango.

Akuran eman den landa edo hiri finkaren berreskurapena eskatzen denean –errenta edo antzeko kantitatea ez ordaintzeagatik–, demandatuak ordainketa edo enerbazioaren jatorriaren gaineko zirkunstantzia besterik ezin izango du alegatu eta frogatu. Kontuan hartu behar da mugaketa frogaren objektuaren gainekoa dela, eta ez frogabidearen gainekoa.

Auzi-jartzaileak Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide errealak babestea nahi duenean –norbaitek asaldatu edo hauen kontra jokatzegatik–, demandatuak kauzioa emanez gero bakarrik aurkeztu ahal izango du oposizioa, eta PZL 444.2 artikulua ezarritako zioetako batean oinarritzen bada.

PZL 250.1, 10 eta 11 artikuluen kasuetan, demandatuaren oposizioak PZL 444.3 artikulua zergatietan oinarritu beharko du.

Bibliografia

MONTERO AROCA, GOMEZ COLOMER, MONTON REDONDO, BARONA VILAR. *Derecho jurisdiccional II*, Valentzia: Tirant lo Blanch argitaletxea (9. argitalpena), 2000.

DE LA OLIVA SANTOS, DIEZ-PICAZO JIMÉNEZ. *Derecho procesal civil*, Madril: Centro de estudios Ramón Areces S.A., 2000.

CORTES DOMÍNGUEZ, GIMENO SENDRA, MORENO CATENA *Derecho Procesal Civil. Parte general*, Madril: Colex (3. argitalpena), 2000.

MONTERO AROCA, GOMEZ COLOMER, MONTON REDONDO, VARONA VILAR. *El nuevo proceso civil. Ley 1/2000*, Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000.

Z.A., *Presente y futuro del proceso civil*, Bartzelona: J.M. Bosch, 1998.

Judizio aurreko entzunaldia

Patxi ETXEBERRIA GURIDI*

1. Sarrera

Prozedura Zibileko Lege (PZL) berrian (1/2000), hainbat berrikuntza eta aldaketan artean, badago aipamen berezia merezi duen instituzio bat: judizio aurreko entzunaldia (JAE). JAEren izaera berritzaletzat jotzea eztabaidagarria izan daiteke. Honekin esan nahi dugu hau ez dela arau prozesalean antzeko instituzio juridiko bat arautzen den lehen aldia. 1881eko PZL zaharrean 34/1984 Legearen ondorioz egiten diren aldaketetan jasotzen da JAErekin elementu komunak dituen antzeko instituzioa, hau da, derrigorrezko “agerraldia”, 691-693 artikuluetan arautzen zena. Esan bezala, Lege zaharreko “agerraldia” eta Lege berriko JAEren artean badaude komunak diren elementuak. Esaterako, baten eta bestearen helburu nagusia zera da: fondoari buruzko erabakia hartzea eragotzi dezaketen bizio eta akatsak lehenbailehen garbitzea. Modu honetan, epai prozesalak ekidin egiten dira, hau da, prozeduraren izapidetza osoa amaitu ondoren –horrek suposatzen duen lan eta diru kostuarekin– akats prozesal horientatik fondoko auzia alde batera utzi eta epai absolutorioa emateko arriskua. Aitortu behar da 1984ko “agerraldi” hartan jarri ziren itxaropen guztiek porrot egin zutela, besteak beste akats teknikoak zituelako arauketa legal hark, baina, batez ere, judizioan parte hartzen duten agenteen (epaile, abokatu, prokuradore, etab.) lan egiteko modu berria galdatzen zuelako.

“Agerraldi” zaharraren eta JAE berriaren artean kidetasunak badaude ere, desberdintasunak agerian daude. Ez da deituraren aldaketa bakarrik, zerbait sakonagoa baizik. Epailearen hurrentasuna, hau da, bere presentzia nahitaezkoa, orain nulitate zigorpean bermatzen da PZL berrian. Alderdiek –batez ere demandatzaileak– beraien abokatuekin azaldu beharko dute baita ere, ez badituzte ondorio kaltegarriak jasan nahi; JAEn adiskidetze edo transakzio batera iristea posiblea denez, prokuradoreek horretarako ahalorde berezi batez horniturik azaldu beharko dute JAEren eraginkortasuna bermatzeko. Gainera, JAE berrian, orain arte “agerraldirako” jasotzen ziren funtzioez gain, frogari buruzko jardura garrantzitsuak –proposatzeko eta ametitzeko– emango dira. Horrek esan nahi du alderdien abokatuek entzunaldira azaltzerakoan gaia sakontasunez jorratuta izan beharko dutela. Ikus dezakegun bezala, legegileak hainbat neurri hartu ditu “agerraldi” zaharraren porrota berriro errepika ez dadin.

Orain artekoak ez du esan nahi institutu honen eraginkortasuna eduki eta funtzio berrien horniduraz berma daitekeenik. JAEk galdatzen duen agente juridikoen (epaile, abokatu, prokuradore) jardura aktiboa ezinbestekoa izango da, erabat aldatzen baitira prozedura zibilaren printzipio inspiratzaileak. Orain arteko judizio zibilak –batez ere muntaia handikoa eta muntaia txikikoa– erabat idatzizkoak ziren. Muntaia txikiko judiziorako 34/1984 Legeak “agerraldia” jaso zuenean, egintza prozesal konkretu hau idatzizko prozedura osoan zegoen ahozko egintza isolatu bat baino ez zen. Abokatu eta prokuradoreen ohitura faltagatik-edo, “agerraldia” derrigorrean pasa beharreko tramite hutsa bihurtu zen, non alderdiek demanda eta erantzunean esandakoa berretsi egiten zuten –epailea ere ez zen sekula agertzen, eta idazkari edo ofizialaren aurrean egiten zen berrespen hori –. PZLan egoera hau zeharo aldatzen da. Hemendik aurrera, judizio zibiletan eta judizio penaletan antzera jardun beharko dute abokatu eta prokuradoreek. Gaur egun dauden bi prozedura zibilak (“ordinarioa” eta hitzezkoa) ahozkotasan printzipioan oinarritzen dira. Judizio “ordinarioan”, jardun prozesalak entzunaldi kontzentratutan garatuko dira: alegazio idatzien ondoren (demanda eta erantzuna) JAE ospatuko da eta

* Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ondoren judizioa, azken bi egintza hauek ahozkoak eta epailearen presentziarekin izango direlarik. Orain arteko egintza prozesalen sakabanatzeari amaiera ematea da helburua. Ez bakarrik JAE, baizik eta prozedura osoa izango denez ahozkoa, lehen aipaturiko ohitura falta horrek ez du arrazoi izan behar Lege berriaren espiritua ez betetzeko.

2. Aurrekinak

JAE edo antzeko institutuak gaur egun ulertzen diren modua, austriar egile baten lanei esker ugaldu zen. Austrian ere, leku guztietan gertatzen zen bezala, ohartu ziren salbuespen prozesalak zirela medio, fondoko auziaren erabakia atzeratu egiten zela, eta ahalegin ugari xahutzen zela prozesua ez zelako modu egokiz eratzen fondoaz erabaki ahal izateko. Franz KLEIN austriar jurista, prozesuaren egitura aldatzearen alde agertu zen. Hau da, prozesuaren hasieran honek dituen bizio eta akats prozesalak konpondu edo garbitu egin beharko dira, eta pauso hau eman ondoren ahalegin guztiak benetako auzian, fondoko auzian, zentratuko dira. Akats prozesalez garbiketa egiteko fase edo tramite prozesal honi *Erste Tagsatzung* edo *Vortermín* deitu zitzaion. Egitura berri hau XIX. mende amaieran (1895) Austriako Prozedura Zibileko Legean (*ZPO*) jasoko da, eta izan zuen arrakasta ikusirik, Alemanian jasoko dute ondoren, eta mundu osoan izan zuen eragina. Espainian, antzeko institutuak berandu eta fede handirik gabe jasoko dira. XX. mendeko 50. hamarkadan Víctor FAIRÉN GUILLÉN hasten da espainiar lege prozesal zibiletan *Erste Tagsatzung* horren antzeko arauketaren beharra defendatzen, ugariak direlarik gai honi buruz idatzi dituen liburu eta artikulua.

2.1. 1944ko uztailaren 19ko Oinarrien Legea eta 1952ko azaroaren 21eko Dekretua

Autore gehienek iritziz, aipaturiko arauetan aurki dezakegu gaur egungo JAEren aurrekina, erabakitasun handirik gabe egin bazen ere. Oinarrien Legean, JAE eta antzeko instituzioekin zerikusi handia duen gertaera garrantzitsu bat arautzen da: epaileak ofizioz aurrepostu prozesal batzuk aztertze ahalmenak bereganatzen ditu (esku-duntza, alderdien gaitasuna, etab.). Gainera, alderdiak judiziora deituak direnean eta agertzen direnean, demandan, kontrademandan edo erantzunean egindako eskaerari buruzko argitasunak egin beharko dituzte, epailearen ustez nahasketak edo zehaztasun gutxiegi badaude.

Oinarrien Lege honetako oinarriak 1952ko Dekretuen bidez garatuko dira. Dekretu honetan "kogniziozko judizioa" arautzen da eta Oinarrien Legean jasotakoa garatuz, epaileari, esan bezala, hainbat aurrepostu prozesal ofizioz aztertze ahalmena ematen zaio, alderdiek alegazioetan falta diren argitasunak egiteko aukera eman eta, gainera, demandatuak –erantzunean– edo aktoreak –kontrademandari erantzutean– azaldutako salbuespenei erantzuteko aukera eman behar die epaileak hauei. Kogniziozko judizioaren esperientziak porrot egin zuen; hau da, ez zitzaion arauketak ematen zituen aukerei –prozesua onbidertzeko edo beharrezko zehaztasunak egiteko– probetxua atera. Porrotaren arrazoiak honako hauek izan ziren doktrinaren arabera: batetik, epailearen presentzia edo hurrentasunaren falta; bestetik, kogniziozko judizioa ahozkoa bezala diseinatu bazen ere, praktikan erabat idatzizkoa bihurtu zen eta, azkenik, ezinezkoa izan zen agente juridikoen lan modua aldatzea, hainbat urtetan idatzizko sisteman ohituta egon ondoren.

2.2. Abuztuaren 6ko 34/1984 Legeko "agerraldia"

Kogniziozko judizioaz aparte, beste deklaraziozko prozedura arruntetan ez zegoen antzeko figurarik. Atzerapen hau 1984ra arte luzatuko da. Urte honetan, aipaturiko Legearen bidez 1881eko PZLan aldaketa ugari sartuko dira. Besteak beste, muntaia txikiko judizioa bihurtuko da, muntaia handiko judizioaren ordez, judizio tipo edo eredu. Eta, gaiari eutsiz, muntaia txikiko judiziorako "agerraldia" arautuko da (PZLko 691-693 art.). Figura hau izan zen, doktrina gehienaren iritziz, aldaketa legalaren piezarik garrantzitsuena, eta berehala ohartu ziren austriar *Erste Tagsatzung*-arekiko loturaz.

Ez gara orain "agerraldi" honetaz arituko, JAE aztertzerakoan izango baitugu biak alderatzeko aukera. Baina JAEren etorkizuna aurreikustean adierazgarri izan daitekeelako, interesgarritzat jotzen dugu momentu hau "agerraldiaren" emaitzak eta beraien arrazoiak azaltzeko aprobeztatzea. Aipaturiko lege

aldaketa eman aurretik, FAIRÉN GUILLÉNek aurreratu zuen *Erste Tagsatzung*-en antzeko instituzioa arautu baino lehen aldaketa organiko bat behar zela, batez ere baliabide pertsonal eta materialak ugarituz (gauza bera SERRA DOMÍNGUEZ, MUÑOZ SABATÉ, PASTOR LÓPEZ). Esan bezala, aurreikusitako porrota gauzatu egiten da. Emandako motiboen artean, organikoki ezintasun materiala adierazi zen, eta baita ere profesionalen jarrera apatikoa, Legeak hutsune teknikoak zituela ahaztu gabe (PRIETO-CASTRO, ALONSO-CUEVILLAS, FAIRÉN GUILLÉN, GÓMEZ ORBANEJA).

3. PZL berriko judizio aurreko entzunaldia

3.1. Ezaugarri orokorrak

JAEren arauketa II. Tituluko (judizio “ordinarioari” buruzkoa dena) II. Kapituluaren jasota dago. Erabilitako teknika legalaren ikuspegitik bilakaera positiboa eman dela baieztatu daiteke, “agerraldi” zaharrenekin alderatuz. PZL zaharrean “agerraldi” osoa hiru artikuluko nahasietan araututa bazegoen ere (691-693 art.), PZL berriaren JAE hamazazpi artikuluetan jasotzen da (414-429 art.), sistematika egokiagoa bat jarraituz (ALONSO-CUEVILLAS).

3.1.1. Deitura

PZL berriaren, esku artean dugun instituzio honi “judizio aurreko entzunaldia” deitzen zaio. Lehen esan bezala, muntaia txikiko judiziorako “agerraldi” arautu aurretik modu askotako deiturak erabiltzen ziren doktrinaren artean antzeko figurak kalifikatzerakoan. Batzuek “agerraldi” espresioa erabiltzen zuten (GUASP DELGADO), besteek “aurretiazko entzunaldia” (FAIRÉN GUILLÉN, ALCALÁ-ZAMORA). 1984ko Legea “agerraldi” terminoaren alde azaltzen denean, kritika ugari jaso zituen aukera honek, ez baitzen nahiko adierazgarri, kontuan izanik beste motatako agerraldi asko zeudela garaiko PZLan. “Agerraldi” hau ospatzea derrigorrezkoa zenez, “derrigorrezko agerraldi” deitu zioten batzuek, edo bere helbururik nagusia akats prozesalako onbideratzea zenez, “agerraldi saneatzailea” beste batzuek.

“Judizio aurreko entzunaldia” deitzeak badu abantailarik, “agerraldi” terminoarekin alderatuz. Argi dago entzunaldia emateak agerraldi soilak ez duen zerbait gehitzen diola, hau da, alderdiak entzunak izatea (LORCA NAVARRETE). Bestalde, “aurretiazko” eta “aurreko” terminoak (“aurretiazko entzunaldia”, “aurre entzunaldia”) erabiltzearen kontra azaldu zen hainbat autore, esanez deitura horiek austriar egituraren oinarritutako sistemetan zutela zentzua, hau da, entzunaldia hau demandari erantzun baino lehen ospatzen zenean. Espainian, orain arteko esperientzia guztietan, berriz, entzunaldia hau demanda eta baita erantzunaren ostean ere ospatu izan da. Eragozpen hauen arrazoirik ez legoke PZL berriaren, orain ez zaiolako “aurretiazko entzunaldia” edo “aurre entzunaldia” deitzen. Orain azpimarratzen da judizio aurrekoa besterik ez dela. Dena den, deitura berriak kritikak jaso ditu azken ikuspegi honetatik. “Judizio” aurreko entzunaldia dela esaten du Legeak, baina entzunaldi horretan hainbat arrazoigatik prozesua amaitu daiteke (adiskidetze batera iristeagatik, akats prozesalako konponezinak izateagatik, edo konpongarriak izanik karga hori duenak ez badu egin beharrekoa egin, etab.), eta horrek esan nahi du judiziorik ez dela egongo, beraz entzunaldia ez da beti “judizio aurrekoa” izango (FAIRÉN GUILLÉN).

3.1.2. Judizio aurreko entzunaldiaren garai prozesala

Noiz ospatuko da JAE? PZLko 414.1. artikulua dioenez, epaileak JAE demandari erantzuna, edo kontrademandari bere kasuan, eman ondoren konbokatuko du, edo horretarako epeak agortu eta gero ez bada erantzunik aurkeztu. Horrek esan nahi du alderdi bien alegazio idatziak aurkeztu ondoren egingo dela. Hau ez da dagoen eredu bakarra. Lehen esan dugun bezala, bai Austriar, bai Alemaniar, demanda soilik aurkeztu eta berehala ospatzen da bertako “entzunaldia”. Honen arrazoia zera izan daiteke FAIRÉN GUILLÉNen esanetan: Alemaniar eta Austriar, Espainiar ez bezala, alegazio idazkiak ez dira behin betikoak, behin-behinekoak baizik, eta hitzeko epaiketa nagusia prestatzea dute helburu nagusiz. Gainera, JAE demandari erantzun eta gero gauzatzen bada, konpondu daitezkeen akats prozesalako ez dira demandan azaltzen direnak bakarrik izango; aktoreak aurkatu ahal izango ditu erantzunean azaltzen direnak ere.

ALONSO-CUEVILLASen ustez, soluzio egokienaren alde egin baino lehen kontuan hartu beharko da ea zeintzuk diren entzunaldiak bete behar dituen funtzioak. Akats prozesalak konpontzea balitz entzunaldiaren helburu bakarra, lehenbailehen gauzatzearen aldekoa izango litzateke, hau da, demandari erantzuna eman aurretik. Kontuan hartu behar da, dena den, JAEk aipatutakoaz gain beste funtzio desberdinak betetzen dituela, adibidez, alegazio idazkietan argitasun edo zehaztasunik gabeko eskaerak argitzea, prozesuaren eta eztabaidaren objektuari buruz epaileak zalantzarik izan ez dezan. JAEren edukiarekin jarraituz, esan behar da aipatutakoaz gain, bertan adiskidetze edo transakzioa lortzen saiatu behar dela, eta horretarako alderdi bien baliabideak zeintzuk diren jakitea komenigarria izan daitekeela. Azkenik, JAEen orain arte ezohikoa izan den funtzio berri bat kokatzen da, oso garrantzitsua bera: judizioan erabiliko diren frogabideak proposatu eta beraiei buruz ametitze edo baztertze erabaki bat hartzea. Funtzio hauek guztiak behar bezala garatu nahi izanez gero, badirudi PZLan hautatutako garai prozesala egokia dela, hau da, erantzuna aurkeztu ondoren.

Garai prozesalari buruzko eztabaida ez da hemen agortzen. JAEren izaera juridikoari buruz galdetzean, zalantza hau sortu da: ea betidanik prozesu zibil gisa sailkatu den eta dagoeneko existitzen den faseren batean koka daitekeen edo, aldiz, fase berri eta desberdin bat osatzen duen. PZL zaharreko “agerraldia” buruz hainbat autorek mantendu zuten figura hark ez zuela lekurik existitzen ziren fase klasikoetan (alegazio, froga eta konklusioak) eta, beraz, “tarteko fase” berri bat osatzen zuela (ALMAGRO NOSETE, BONET NAVARRO). ALONSO-CUEVILLASek, ordea, zera mantentzen zuen: alegazio fasearen luzapen bat besterik ez zela “agerraldia”.

JAE berriari dagokionez, gauzak ikuspegi desberdin batetik aztertu behar dira. Lehen esan dugun bezala, judizio zibil berriak printzipio erabat desberdinetan inspiratzen dira: ahozotasuna, kontzentrazioa, epailearen hurrentasuna, etab. Idatzizko prozeduran ez bezala, orain egintza prozesalak ez daude guztiz sakabanatuta; alegazio idatziak egin ondoren, entzunaldi kontzentratutan garatuko da prozedura. Hauetako bat JAE izango da, eta bestea judizioa. Ahozko epaiketa bati dagokion bezala, orain froga guztiak judizio batean egingo dira, eta konklusioak ere ahoz bertan adieraziko dira –judizio penolarekin antza du, ikus daitekeen bezala–. Judizio nagusi horretan fondoko arazoa soilik eztabaidatu ahal izateko, momentu horretan akats prozesaletatik garbi azaldu behar da fondoa. Garbiketa edo konponketa hori JAEen egingo da. Gainera, muntaia handi eta txikiko judizio zaharretan froga fasea bereiztuta zegoen; froga bideak proposatu eta praktikatzeko ziren, baina egintza sakabanatuetan. Proposamena idatzien bidez eta ondoren praktika, baina nagusiki idatziz egiten zelako ia guztia –froga pertsonaletan ere alderdi, lekuko edo adituei egin beharreko galderak idatziz egin behar ziren–, epailearen hurrentasun edo inediaziarik gabe garatzen zen guztia. Orain, JAEen froga ahoz proposatuko da epailearen aurrean, eta ondoren honek erabakiko du zeintzuk diren egokiak eta erabilgarriak judizioan praktikatu ahal izateko.

Prozesu zibilak duen egitura berria kontuan izanik, eta baita ere egitura horren barnean JAEk duen protagonismoa, ez da harrizkoa autore batzuek “tarteko fase” baten aurrean gaudela esatea (LORCA NAVARRETE, GIMENO SENDRA).

3.1.3. Judizio aurreko entzunaldiaren derrigortasuna

1984ko “agerraldia” arautu zenean, nahitaez ospatu beharrekoa bezala eratu zen. Ez epaileak, ez alderdiek, ez zuten “agerraldia” ez ospatzearen eskaera egin edo erabakia hartzeko aukerarik. “Agerraldia” ospatzearen behar hau kritikatu izan zen. 1984ko erreforma eztabaidatzen zen bitartean, Austrian adibidez (1983) *Erste Tagsatzung*-aren derrigortasuna aldatu egin zen, eta egintza honi uko egitea baimendu zen eztabaidatzeko eta garbitzeko arazo prozesalik ez zegoenean.

PZL berrian, JAE derrigorrean ospatu beharrekoa bezala eratu da berriro. Argi uzten du 414.1. artikulua: “*convocará a las partes*”. Aukera hau ez da bakarra izan, eta PZL oraindik aurreproiektua zenean ebentual edo balizko bezala zegoen aurreikusita. Dena den, aurreproiektuaren eta behin betiko testuaren artean badaude, besteak beste, edukiari buruzko aldaketak. Aurreproiektuan, adibidez, ez zen jasotzen froga proposatzeko eta, bere kasuan, ametitzeko funtzioa. PZLan, berriz, bai. Honek esan nahi du JAE nahitaez ospatu beharko dela gutxienez izapide hau betetzeko, hau da, alderdiek froga proposa dezaten eta epaileak erabaki dezan zeintzuk praktikatu diren judizioan eta zeintzuk ez. Gainera, JAEri dagokion eraginkortasuna gauza dadin, legegileak hainbat neurri hartu ditu alderdien parte-hartzea bermatuz, agertzeko karga betetzen ez denerako ondorio negatiboak jasoz. Hala ere, doktrinaren artean badago iritzi desberdinik gai honi buruz, derrigortasunaren alde eta kontra.

3.1.4. Judizio aurreko entzunaldiaren printzipio inspiratzaileak

Lehen aurreratu bezala, PZLan erabat aldatu dira prozedurak eratzeko moduak. PZL zaharreen muntaia handiko eta txikiko –eta praktikan kogniziozkoa ere– judizioak idatziz izapidetzen baldin baziren, orain ahozkotatuta da nagusi. Bata eta bestearen artean aukeratzeko eragina du prozedura inspiratzen duten gainerako printzipioetan. Hau da, prozedura idatzizkoa bada, egintza prozesalak sakabanaturik egongo dira, dispersaturik eta, gainera, epailearen hurrentasunak zentzua galduko du. Prozedura ahozkoa izanik, egintza prozesalak kontzentratuak garatu beharko dira, eta epailearen presentzia. PZLak bigarren sistemaren alde egin du. Judizioari dagokionez, ez dago inolako zalantzarik: bere helburua frogak praktikatzeko eta ondoren konklusioak ematea izango da (PZL 431 art.). Frogaren praktikari buruz esan behar da, batez ere pertsonalak direnean, ahoz egin beharko direla galderak edo txosten emateak judizioan [alderdien galdeketa (PZL 302.1. art.), adituen txostenak (PZL 347. eta 431 art.), lekukoak (PZL 368 art.)]. Konklusioak ere ahoz eman beharko dira (PZL 433.2 art.).

Judizioari buruz esandakoa, aplikagarria al zaio JAERI? Erantzunak baiezkotzea izan behar du nahitaz. PZLren Zioen Adierazpenean hau esaten da: *“Legeak deklaraziozko prozesuak diseinatzen ditu hurrentasuna, publikotasuna eta ahozkotatuta eraginkorrak izan daitezkeen”*. Ahozkotatutari dagokionez, nahikoa da JAERIren arauetari begirada bat ematea, izapide hau gauzatzeko modu bakarra ahoz egitea dela ohartzeko. Kontuan izan behar da epaileak entzunaldiaren deitzen dituela alderdiak, JAE garatzen den bitartean epaile eta alderdiak aurrez aurre egongo direla, eta JAERIren berezko funtzioak garatu ahal izateko ahoz baino ezin izango direla burutu (adiskidetzeko saioa bera edo arazo prozesalei buruzko erabakiak hartu baino lehen alderdiak entzuteko beharra, etab. –JAE arautzean, hainbat artikulutan *“oirá”, “oyendo”,* edo antzeko terminoak erabiltzen dira–). Beraz, espainiar Konstituzioak bere 120.2. artikuluan baldin badiu jardun prozesalak ahoz burutuko direla, *“batez ere penal arloan”*, orain PZL berriaren ahozkotatuta hori orokor bihurtu da.

Epailearen hurrentasun edo inmediazioari buruz gauza bera esan daiteke. Orain arteko “agerraldian” bete gabeko galdakizuna izan bada ere, Lege berriaren ahaleginetako bat egoera hau aldatzea izan da. PZLren 137.2. artikulua gauzak garbi uzten ditu agintzean bistak eta agerraldiak, zeinaren helburua ebazpen bat hartu baino lehen alderdiak entzutea den, “beti” epaile edo magistratuaren aurrean burutuko direla. Agindu hau jasotzeaz gain, bere haustea ere ondorio erradikal baten bidez zigortzen da: erabat deusezko izango dira egintza hauek (PZL 137.3 art.). Hau izan daiteke JAERIren arrakasta ziurtatzeko bide bakarra. Legegilearen asmoa izan bada JAE amaitu ondoren prozesua akats prozesaleatik garbi egotea eta epaileak benetako fondoko auzia zein den argi izatea –hau da, zeintzuk diren puntu eztabaidagarriak eta zeintzuk dauden frogak beharrezkoak judizio garairako–, ezinbestekoa izango da epaileak auziaren ezagutza sakona edukitzea JAE amaitu ondoren –eta baita ere JAE prestatzeko– bertan egonez.

JAE, halaber, publikotasun printzipioaren pean burutuko da. Hurrentasunaren antzera, zera dio PZLko 138.1. artikulua publikotasunari buruz: frogak jardunak, bista eta agerraldiak, zeintzuen helburua ebazpen bat hartu baino lehen alderdiak entzutea den, entzunaldi publikoan burutuko dira.

Eta printzipio hauen guztien ondorioz, nahitaz JAE kontzentratuak burutuko da. Lehen aipatu dugu judizio zibil berriak egintza kontzentratuetan eratzeko direla orain: alegazio idatziak eta ondoren JAE bat eta judizioa besterik gabe –hitzezko judizioan kontzentrazioa askoz ere nabarmenagoa da, demanda aurkeztu ondoren alderdiak bista batera deitu behar baititu epaileak, non gainerako egintzak burutuko diren–. Kontzentrazio printzipioa JAERI berari aplikatu beharko zaio. Nekez burutu ahal izango da JAE saio bakar batean, batez ere bertan eztabaidatu daitezkeen gai guztiak planteatzen badira, baina legegilearen asmoa kontzentrazioa lortzea izan da dudarik gabe. JAERIren arauetari irakurtzen badugu, legegilearen ahalegin hau nabarmena da: epaileak berehalakoan hartu behar ditu erabakiak, gehienetan ahoz; erabaki beharreko gaien konplexutasuna kontuan izanik, Legeak hainbat kasutan bost eguneko epea ematen dio epaileari ebazteko; beste kasutan, batez ere salbuespen batzuk konpontzeko, epaileak hamar eguneko epea eman diezake alderdiei konponketa horiek ezin badaitezke berehalakoan egin, baina antzeko kasuetan ere Legeak JAERIekin jarraitzeko agintzen du gainerako helburuetako.

3.1.5. Subjektu parte-hartzaileak

Aurreko epigrafean adierazi dugun bezala, epailearen parte-hartzea nahitazkoa izango da, ez bada horrela egiten nulitate zigorra izanik. Gainera, epailearen jardura JAERI ezin izango da inola ere pasiboa

izan. JAE eraginkorra izan dadin, epaileak aurretik auzia aztertuta eraman beharko du, hartu behar dituen erabakiak ikusiz. Hainbat arazo berehalakoan ebatzi beharko ditu, aurrepostu prozesalak ofizioz azter ditzake, prozesuaren eta eztabaidaren objektua zein den garbi izan behar du froga proposamenari buruz erabaki ahal izateko, etab. Esan bezala, agenteek jarduteko modua erabat aldatu beharko dute; epailea ezin daiteke hemendik aurrera bere bulegoan gelditu, ofizialak edo idazkariak froga praktikatu eta emaitzen zain epaia eman ahal izateko, baizik eta epaitegietan alderdiekin eta frogabideekin kontaktu zuzenean egon behar du.

Alderdiei dagokienez, "agerraldiarekiko" desberdintasun nabariak daude. "Agerraldi" zaharrea nahikoa zen alderdi bat –edozein– agertzea hura burutu ahal izateko, eta abokatuen ez-agertzea ez zen agerraldia eteteko arrazoia. JAEn gauzak sakon aldatu dira puntu honetan ere. JAEn eraginkortasuna bermatzeko nahian, legegileak beharrezkotzat jo du alderdiak agertzea. Eta bertan bete beharreko funtzioak teknikoak direnez, abokatuen presentzia nahitaezkoa izango da. Gainera, JAEn lehendabiziko funtzioa alderdien artean adiskidetzat lortzea denez, hauek pertsonalki ez badira agertzen prokuradoreen bitartez egingo dute agertzea, baina transakzioak lortu ahal izateko, ahalorde berezi batez horniturik egin beharko dute.

Dena den, PZLak desberdinu egiten du demandatzaile eta demandatuaren arteko tratamenduan. PZLko 414.2.3. eta 4. artikuluen arabera, aktoreak edo demandatzaileak nahitaez agertu beharko du bere abokatuarekin batera JAE burutu ahal izateko. Pertsonalki egiten ez badu, prokuradorearen bitartez ahalorde berezi horniturik, konponketa edo transakzio batera iritsi ahal izateko. Ez-agertzearen ondorioak honako hauek dira:

- Ez badira ez demandatzailea, ez demandatua agertzen, epaileak largespen autoa emango du jardunak artxibatuz (414.3.I art.)
- Demandatua edo bere abokatuak ez badira agertzen, JAEk aurrera egingo du, demandatzailearekin bakarrik (414.3.II eta 4 art.)
- Demandatzailea edo bere abokatuak ez badira agertzen, demandatuak aukera izango du erabakitzeke ea interes legitimoa duen prozedurak aurrera egiteke eta fondoari buruzko epai bat lortzeko, edo, aldir, ez duen interesik, azken kasu honetan largespen autoa emango delarik (414.3.II eta 4 art.).

Ikus daitekeenez, zorrotz jokatu du legegileak alderdien eta beraien abokatuen presentzia galdatzean. Ez-agertze horrek batez ere demandatzailearentzat izango ditu ondorio latzak. Arrazoi honengatik, DAMIÁN MORENOK hau matizatu egiten du, esanez epaileak adi egon beharko duela ez-agertzearen zioa justifikatu gabea dela arduratuz; gainera, zergatik jasan behar dituzte alderdiek aipaturiko ondorioak errua abokatuena baldin bada? Bestalde, Legeak ez du esaten zein bide hartu behar den demandatzaileak bat baino gehiago direnean. Aipaturiko autorearen iritziz, guztiek azaldu beharko dute, bakoitzak bere abokatuarekin, ez badiote guztiek defentsarako lana abokatu bati eman.

3.2. Adiskidetze funtzioa

Esan dugun bezala, JAEk era desberdinetako funtzioak garatzeko bidea ematen du. Horietako bat, alderdien arteko kontziliazio edo adiskidetzat lortzeko saioa litzateke. Badirudi, gainera, funtzio desberdin horien artean adiskidetzat dela garatu behar den lehendabizikoa. Egintza honen hasierako pausuak aztertzen baditugu, hauexek dira: a) demandari edo kontrademandari erantzun ondoren edo horretarako epeak agortu ondoren, hiru eguneko epe barruan egin beharko du epaileak deialdia, eta 20 eguneko epean burutu behar izango da (PZL 414.1.I art.); b) PZLko 415. artikulua dio nola ematen zaion hasiera JAEn: *"alderdiak agertu ondoren, egintza hasitzat emango du eta auziak irauten ote duen egiaztatuko du"*.

Auziaren existentziaz arduratzeak esan nahi du epaileak aztertu beharko duela ea hura mantentzen den edo, aldir, auziarekin jarraitzeko arrazoirik ez dagoen, alderdiak akordio batera iritsi direlako edo iristear daudelako. Adiskidetze saio hau "agerraldi" zaharrea ere jasota zegoen, eta orain mantendu egiten da –indartu esango genuke, ikusiz orain alderdiek pertsonalki edo prokuradoreen bitartez baina

ahalorde bereziarekin azaldu behar dutela—. Logikoa denez, legegileak garrantzi handia eman dio adiskidetze funtzio honi, auziak aurrera egin dezan ekiditeko. Adiskidetze saioak legegilearentzat duen garrantzia JAEn arauketan zehar nabari da, ugaritu egiten baitira adiskidetze saioak. “Agerraldi” zaharrari gai honetan egiten zitzaion kritika honako hau zen: entzunaldiaren hasieran, lehendabiziko kontaktu honetan zaila dela alderdiak akordio batera iristea, oraindik ez baitute ezagutzen zein izango den kontrako alderdiaren jarrera. Bere garaian, komenigarritzat eman zen behin prozesua eta eztabaidaren objektua (*themas probandi* eta *decidendi*) zehaztu ondoren adiskidetze saioa berriro bultzatzea (ALONSO-CUEVILLAS). Legegileak horrela egin du, eta orain, PZLko 428. artikulua arabera, gertakari eztabaidagarriak zehaztu ondoren, epaileak akordio batera iristea exhortatuko die alderdiei. Dena dela, PZLko 19.3. artikulua arabera, lehen auzialdiaren, errekurtsoaldiaren edo exekuzioaldiaren edozein momentuan iritsi daiteke transakzioa. Akordiora iritsi eta prozesua amaitzeko aukera badago beraz, baina JAEn ematen den akordioan (428. artikuluan) epailea da inizatiba hartzen duena.

PZLko 415. eta 428.2. artikuluen artean badago, gainera, desberdintasun nabarmen bat: lehendabiziko arauetan epaileak aztertu besterik ez du egiten ea auziak dirauen edo ez. Bestean, berriz, epaileak jardun aktibo bat izan dezake, alderdiak akordio batera iristeko “exhortatuz”. Doktrinak adierazi duen bezala, epaileak momentu honetan duen jarrerak eragin handia izango du alderdiengan (DAMIÁN MORENO). Bigarren artikulua galdu egiten du lehendabizikoak duen zentzu aseptikoa, eta epaileak aurreiritzirik izan ez dezan, zera interpretatu da: exhorto horrek formala soilik izan behar duela, akordioak izan dezakeen edukia adierazi edo hitzerdika esan gabe epaileak (ALONSO-CUEVILLAS; interpretazio honen aurka FAIRÉN GUILLÉN azaltzen da). FAIRÉN GUILLÉNen ustez, lehendabiziko adiskidetze saioak, hau da, akats prozesalak garbitu baino lehen egiten denak, arrisku bat du: akordioa akats prozesal horiekin batera onartzea, eta honek akordioaren eduki negoziatuan eragina izan dezake.

Epaileari dagokio, gainera, alderdiek akordiora iristeko gaitasun juridikoa eta xedatzeko ahalmena duten edo ez aztertzea (415.1.3 art.), gai batzuk ahalmen horretatik kanpo baitaude (ikus PZLko 751. art.).

Behin akordioa lortu denean, alderdiek epailearen homologazioa eskatzea erabaki dezakete (415.1.II eta 428.2 art.). Akordioaren eraginkortasunari buruz badu honek bere garrantzia, hark transakzio judizialaren efektuak izango baititu eta sententziak exekutatzeko izapidetza jarraituz bete baitaiteke (414.2 art.). Legeak ontzat ematen du lortutako akordio guztiak transakzio baten bidez eginikoak direla, eta hori ez da kasu guztietan horrela izango (DAMIÁN MORENO), beraz kontuan izan beharko dira akordioaren izaera eta dagokion arauketa. Akordio hau aurkatua izan daiteke transakzio judizialari aplikagarri zaizkion arrazoi eta moduan (415.2 art.) eta Legeak zehazten ez badu ere, deklaraziozko prozesu bat bultzatu beharko da nulitatea, anulagarritasuna edo deuseztapena eskatuz (ALONSO-CUEVILLAS). Azkenik, praktikan bada bere garrantzia izango duen gai bat, eta Legeak argitu gabe uzten duena; hau da, nork ordainduko ditu orain arte sortu diren kostuak? Isiltasunaren aurrean, doktrinak ulertu du honek akordioaren edukia puntuetako bat izan beharko duela (DAMIÁN MORENO).

3.3. Funtzio garbitzaile edo saneatzailea

Aurreratu dugun bezala, hau izan da JAE eta antzeko institutuen jatorria. Judizioak aurrera egin baino lehen, prozesuak izan ditzakeen akats eta bizio guztiak garbitu behar dira, epaileak fondoari buruz ebazpen bat ematea oztopatzen badute. PZLko 414.1.II artikulua horrela jasotzen du JAEn helburua: prozesuaren jarraipena eta objektuari buruzko epai baten bidez amaitzea oztopa dezaketen arazo prozesalak aztertzea. Legean jasotzen diren akats prozesalen arauketa aztertu aurretik, egokia izan daiteke ohar orokor batzuk ematea.

Batetik, esan behar da, JAEn arauketan aipatzen diren salbuespen edo akatsak ez direla eztabaidatu eta erabaki daitezkeen bakarrak, hau da, Legean jasotzen den akatsen zerrenda ez da *numerus clausus* bat. PZLko 416.1 artikulua dio epaileak “*ondorengo artikuluetan jasotzen denaren arabera*” ebartziko duela, eta pentsa daiteke ondoren aipatzen diren arazo prozesalak bakarrik eztabaida daitezkeela. Baina paragrafo berdinak dio prozesuaren jarraipena eta fondoari buruzko epai batez amaiera ematea oztopa dezaketen arazoak eztabaidatuko direla, eta zerrendari ekin baino lehen “*eta bereziki*” dio. Beraz, 416.1 artikuluan jasotzen den akatsen zerrenda *numerus apertus* da. Honekin batera 425 artikulua aipatu behar dugu, non espresuki aipatu gabeko akats prozesalak analogiaz erabaki daitezkeela onartzen den.

Egin daitezkeen beste galdera honako hau da: ea JAE momentu preklusiboa den akats prozesalak salatzeke, eta fase hau amaitu eta judizioak aurrera egiten duenean akats berriak planteatu daitezkeen edo ez. Gure iritziz jarrera apur bat estremista mantenduz, DAMIÁN MORENOK ezetz dio; hau da, JAE amaitu ondoren, eta bertan akatsen bat salatu ez bada, epaileak ere ezin duela akats prozesalak egoteagatik sententziaren fondoa epaitu gabe utzi. Hau da, bere iritziz preklusioaren ondorioak aplikatu beharko litzaizkioke JAERI, eta bertan erabakitzen ez diren akatsak konponduz emango liriteke. Interpretazio erradikal honek eragozpenak sorrarazten ditu. Egia da alderdiekiko iruzurrezko jokaerak ekidin egingo liritekeela modu honetan, baina egia da baita ere akats prozesalak JAE burutu ondoren sor daitezkeela. Bestalde, epaileak arazo prozesalak aztertzean ofizios jarduteko ahalmena du hainbat kasutan, hau da, benetako auresupostu prozesalen aurrean gaudenean, eta epaileari ezin zaizkio alderdientzat pentsatuta dauden preklusio arauak aplikatu. Beraz, egokiagoztat jotzen dugu ALONSO-CUEVILLASen jarrera; hau da, epaileak kontuan har ditzakeela JAE burutu ondoren sortu diren akats prozesal berriak edota fondoari buruzko erabakia hartzea erabat oztopatzen dutenak –konponezinak izateagatik–.

Preklusioarekin jarraituz, beste arazo bat planteatu daitezke: ea demandatuak bere erantzunean salatu behar dituen akats prozesal guztiak eta, ondorioz, ea demandatuarentzat erantzuna den salaketa horiek egiteko momentu preklusiboa. JAERen arauketa kontuan izanik, akatsak eta beren konponketa aztertzean nabarmen ikusten da legegilearen asmoa demandatuak bere erantzunean salaketak egitea izan dela (418.1, 419, 420 art. etab.). DAMIÁN MORENOn ustez, ez da arrazoizkoa demandatuak bere erantzunean bizioak edo akatsak ez adieraztea, eta “bat-batean” JAE horretarako aprobetxatzea. Jarduera hau fede txarraren adierazgarri izan daitezke, baina ez beti –gerta daitezke erantzuna aurkeztu ondoren eragina duen egoera berri bat sortzea edo ezagutza izatea–. Gainera, demandatua bera egoera berdinean egon daitezke, aktoreak JAERen gaitasuna edo ordezkari buruzko akatsak adieraz baititzake (PZL 418.1 art. –egia esan kasu hau desberdina da, aktoreak ez baitu beste aukerarik demandatuaren akatsak salatzeke–).

Esan dugun bezala, JAERen mota desberdineko akats prozesalak eztabaidatu eta, bere kasuan, konpon daitezke. Baina, bat baino gehiago izanik salatutako akatsak, ordena bat jarraitu behar al da azterketa horretan? PZLko 417.1 artikulua horrela agintzen du: *“ondorengo artikuluetan azaltzen diren ordenean eztabaidatu eta erabakiko dira”*. Badirudi, beraz, Legeak agintzen duen ordena nahitaez jarraitu behar dela. Gai honetaz arduratu diren ia autore guztiak ez datoz bat Legeak ezartzen duen ordena lotesle honekin. Esaterako, adierazi izan da ordena hau ez dela logikoa. DAMIÁN MORENOK, adibidez, dio ordena askoz logikoagoa litzatekeela lehendabizi litiskontsortzioa edo auzikidetzaz azterzea –Legearen arabera hirugarren aztergaia litzateke–, falta diren auzikideekin gainerako arazoak aztertu ahal izateko –eta ez laugarrenetik aurrera daudenak soilik–. Beraz, epailea eta alderdiak ados egonik, ordena hau aldatzeko aukera ematen diote autoreek (DAMIÁN MORENO, ALONSO-CUEVILLAS).

Sarrera gisa honi amaiera emateko, esan behar da JAERen arauketak jurisdikzio eta eskumenaren falta salatzeke aukera kendu egiten diola demanduari. Horrela dio PZLko 416.2 artikulua; hau da, demandatuak jurisdikzio eta eskumenaren falta aurkatu nahi badu, erantzun baino lehen salatu behar du, deklinatoriaren bidez (PZLko 63 eta ondorengo artikuluen arabera). Dena den, auresupostu prozesala denez organo jurisdikzionala jurisdikzioz eta eskumenez horniturik izatea, artikulua berdinen arabera epaileak berak ofizios aintzat har dezake auresupostu hauen falta. Esan behar da, hala ere, ofizios deklaratu honek ez duela esan nahi alderdiek entzunak izateko aukera galtzen dutenik. Eskumen objektibo (48.2 art.) nahiz lurraldetarrari –xedaezina denean– (58 art.) buruz erabaki baino lehen, epaileak alderdiak “entzun” behar ditu, edo “entzunaldia” eman.

Legean jasotzen diren akats edo arazo prozesalen azterketa banan-banan egitea baino ez zaigu falta.

3.3.1. Gaitasun edo ordezkari akatsak

Aipaturiko artikuluan jasotzen den lehendabiziko akatsa alderdien gaitasun edo ordezkari buruzkoa da, eta baita ere akats horien konponketa faltak izango dituen ondorioak. Arau honen arabera, demandatuak bere erantzunean egin behar ditu dagozkion salaketak, eta aktoreak JAERen bertan. Artikulu hau PZLko 416.1.1 artikulua lotu behar da, azken honetan zera esaten baita: mota guztietako gaitasun edo ordezkari azter daitezkeela (alderdi izateko gaitasuna, gaitasun prozesala eta ordezkari modalitate desberdinak). Espresuki esaten ez bada ere, postulazioari buruzko akatsak sala

daitezkeela dio doktrinak (DAMIÁN MORENO, ALONSO-CUEVILLAS), prokuradorearena ordezkari mota bat baino ez baita, eta abokatuarena analogiaz (PZL 425 art.) planteatu daiteke. Eztabaida al daiteke gaitasun eta ordezkariarekin batera legitimazioaren falta? Doktrina ezezkoaren alde azaltzen da. Legitimazioa, prozesuarekin baino gehiago, auziaren fondoarekin lotu behar da; beraz, prozesua amaitzen denean fondoari buruzko ebazpen baten bidez jakin ahal izango da alegazioetan adierazitako legitimazioa dagoen edo ez, baina ez prozesuaren momentu honetan (ALONSO-CUEVILLAS, DAMIÁN MORENO).

Salatutako akatsek tratamendu desberdina jasotzen dute, konpongarriak izan edo ez. Konpongarriak badira, Legeak dio berehalakoan konpondu behar izango direla, eta ez bada posible zuzenketa horiek momentu horretan egitea, gehiengoz hamar eguneko epea emango du epaileak horretarako, bitartean JAE esekiz (PZL 418.1 art.). Gerta daiteke salatutako akatsak konpongarriak izanik ez zuzentzea epaileak zehaztutako epean, edo beren izaeratik erabat konponezinak izatea; kasu honetan ez JAEn ez prozesuak ezin dute aurrera egin, eta auto baten bidez amaiera emango zaio (PZL 418.2 art.). Zehazten ez bada ere, auto honek largespen autoa izan beharko lukeela diote autoreek (ALONSO-CUEVILLAS). Hala ere, Legeak bereiztu egiten du aipaturiko akatsak demandatari buruzkoak badira. Demandatuaren presentzia ez denez nahitaezkoa prozesu zibilean, Legeak ezin zitzakeen modu berdinean tratatu aktorearen eta demandatuaren arduragabekeria edo ezintasuna. Gaitasun edo ordezkariak akatsak demandatuarengan badaude, prozesua ez da amaituko, baizik eta demandatua auzi-ihesean deklaratu da (PZL 418.3 art.). Zer gertatzen da JAEn azken kasu honetan? Legeak zehazten ez badu ere, pentsa dezakegu JAEn aktorearekin bakarrik aurrera jarraituko duela, 414.3.II eta 414.4 arauen arabera demandatuaren presentzia ez baita JAE gauzatzeko beharrezkoa.

3.3.2. Akzioen metaketa aurkatua

Arazo prozesalak tratatzeko ordenaren garrantzia azpimarratuz, zera dio Legeak aipaturiko artikuluan: gaitasun eta ordezkariari buruzko arazoak planteatu eta erabaki ondoren, bere kasuan, akzioen bateratze edo metaketari buruz arituko direla JAEn, aktoreak bere demandan akzioak pilatu baditu eta demandatua arrazoiturik aurka azaldu bada bere erantzunean. Epaileak JAEn bertan erabakiko du, ahoz, metaketaren egokitasun eta onargarritasunari buruz, horretarako aktorea aurretik entzunez –JAEn baita ere–. Arau honek dioen bezala, demandatari dagokio bere erantzunean akzioen metaketaren aurka azaltzea, eta horrela ondorioztatzen da baita ere PZLko 402. artikuluan, non espresuki esaten den aurkatze hau JAEn erabakiko dela.

Kontuan izan behar da akzioen metaketa eta bere baldintzak PZLko 71 eta 73 artikulua bitartean arautzen direla. Aipaturiko azken prezeptuan, Legeak epaileari metaketaren egokitasuna demanda ametitu baino lehen ofizioz aztertze ahalmena ematen dio. Epaileak uste badu akzioak ezin daitezkeela pilatu, aktoreari bost eguneko epea emango dio akatsa zuzen dezan, *“pilagarriak diren akzioak mantenduz”* –GASCÓN INCHAUSTIren ustez, aktoreari dagokion karga izango da hasierako akzio pilatuetatik zeintzuk mantendu nahi dituen hautatzea; epailearen iritzia garrantzitsua izango da aktorearen erabakian, hark azaldu beharko baitio honi zergatik ez diren pilagarriak akzioak–. Akatsa ez bada zuzentzen edo zuzentzeina bada, demanda artxibatu egingo du, besterik gabe (PZL 73.4 art.). Honen arabera, JAEn epaileak ofizioz prozesuaren hasieran (demanda ametitu baino lehen) konpontzea lortu ez duen akatsa sala dezake demandatuak.

Artikulu honek interpretazio arazo bat sorrarazten du jurisdikzio eta eskumena direla medio. Esan dugun bezala, demandatuak ezin du JAEn jurisdikzio eta eskumen falta salatu, deklinatoriaren bidez egin behar baitzuen. Akzioen metaketaren bidez, eztabaida honi ekiteko zirrikitua irekitzen da. Honekin esan nahi duguna zera da: akzioen metaketaren baldintza prozesala dela epaileak akzio nagusiaz eta pilotutakoaz jurisdikzioa eta eskumena izatea (PZL 73.1.1 art.), eta baldintza hauek ez errespetatzeagatik demandatuak akzioen metaketaren ezegokitasuna aurka baldin badezake, zalantzan jartzen ari da epailearen jurisdikzioa eta eskumena –GASCÓN INCHAUSTI arazo hauek deklinatoriaren bidez planteatzearen aldekoa da, nahiz eta akzioen metaketarekin lotura izan, eta ez JAEn–. Honekin lotuta, erabaki al dezake epaileak ofizioz JAEn metaketaren onargarritasun eza? PZLko 419. artikulua ez dio ezer, baina baieztatu behar da argudioak eman daitezke. Batetik, 73.4 artikulua horrela ofizioz aritzeko ahalmena ematen dio; bestetik, metaketak jurisdikzioaren eta eskumenean eragina izan dezakeenez, PZLko 38 eta 48.1 artikulua aplikatu beharko genituzke; hau da, epaileak ofizioz aztertuko ditu prozesuaren edozein momentuan.

Esandakoarekin lotuta, gehitu behar da, gainera, akzioen metaketa aurkatzen bada, JAEn eztabaida daitekeen beste arrazoiarekin lotura izan dezakeela. Akzioen pilotzearen baldintzen artean, PZLko 73.1.2 artikulua zera dio: pilatu nahi diren akzioak ez direla materiaren arabera mota desberdinetako judizioetan izapidetu behar. Hala ere, hitzezko judizioan zenbatekoagatik eztabaida daitekeen akzioa pila dakiok judizio "ordinarioari" (PZL 73.1.1 art.). Bide honetatik abiatuz, prozedurari buruzko ezegokitasun salaketak akats prozesal honen barnean aurki dezake eztabaidatzeko aukera. Baina gai honek tratamendu berezi bat du JAEn bertan ondoren datozen beste artikuluetan: prozeduraren ezegokitasuna zenbatekoagatik (PZL 422 art.) eta prozeduraren ezegokitasuna materiagatik (PZL 423 art.).

Izapidetzarekin jarraituz, zera dio 419. artikulua: epaileak JAEn aktorea entzungo du demandatuaren aurkako jarreraz, eta berehalakoan ahoz erabakiko du metaketa egokia den edo ez. JAEk eta prozesuak aurrera egingo dute epailearen ebazpenaren arabera prozesuaren objektu izan daitezkeen akzioekin. PZLko 73.4 eta 419. artikulua parekatzen baditugu, tratamendu desberdina ematen diote gai berari: han epaileak aktoreari espresuki bost eguneko epea ematen dio pilatu ezin daitezkeen akzioak bazter ditzan eta, beraz, akats hau konpon dezan; JAEn berriz, epaileak aktorea entzun eta erabakia hartzen du, prozesuak zein akzioekin jarrai dezakeen zehaztuz. Izan al dezake aktoreak kasu honetan ere zuzenketak egiteko aukera? Badirudi ez dela beharrezkoa, epailearen ebazpenean erabakiko baita prozesuaren objektua zein izango den. GASCÓN INCHAUSTIren ustez, aktoreari bere iritzia azaltzeko aukera eman beharko zaio, adibidez, pilatu nahi zituen akzioak bateraezinak zirenean eta ez badu akzio nagusia eta ebentuala zeintzuk diren zehaztu –PZLko 71. artikulua aukera hori adieraztera derrigortzen du–.

Bestalde, kontuan hartu behar da akzioen metaketa eska dezakeela ez bakarrik aktoreak bere demandan, baizik eta baita demandatuak erantzunean ere, errekonbentzioa edo kontrademandara planteatzen badu. Kasu honetan ere PZLko 419. artikulua aplikatu beharko litzateke, baina aktoreak kontrademandari erantzutean azaldu beharko luke ea ados dagoen edo ez demandatuak nahi duen akzioen metaketarekin. Honekin lotuta, beste zalantza sortzen da: PZLko 406.1 artikulua errekonbentzioa baldintzatu egiten du, esanez hasierako pretentsioa eta errekonbentzioan planteatutakoaren artean konexioak edo loturak egon behar duela. Eztabaida al daiteke lotura horren falta PZLko 419. artikuluan? DAMIÁN MORENOk baietz dio; ALONSO-CUEVILLASek, berriz, dio literalki ez dela momentu egokia, baina onartua ez bada, ondoren inolako dudarik gabe eztabaida daitekeela analogiaz, PZLko 425. artikulua arabera.

3.3.3. Auzikidetzari buruzko eztabaida

Demandatuak bere erantzunean sala dezakeen beste akats prozesala, demandatuen artean auzikideak edo litikontsorteak falta izatea izan daiteke. Auzikidetzarena da praktikan arazo gehientsuen sorrarazi dituen gaia. Jurisprudenziaren arabera, auzikidetzaren defektuak fondoari buruzko erabaki bat hartzea oztopatzen du. "Agerraldi" zaharrea ez zen espresuki jasotzen arazo hau momentu prozesal horretan eztabaida zitekeenik, baina Auzitegi Gorenak onartu egin zuen aukera hau (1992ko maiatzaren 14ko Epaia). Esan bezala, demandatuak erantzunean salatu behar izan du auzikidetzaren falta, JAEn gai hau eztabaidatu ahal izateko. Doktrinaren ustez, epaileak ofizioz ere azter dezakeen gaia da (ALONSO-CUEVILLAS, DAMIÁN MORENO) eta batzuen iritziz baita aktorearen eskariz ere, berak baitu harreman prozesala osorik osatua egon dadin interes nagusia –fondoari buruzko erabaki bat lortu ahal izateko–, eta demandatuaren erantzuna jakin ondoren demanda auzikideekin osatzeko asmoa azal dezake JAEn (ALONSO-CUEVILLAS).

Antza denez, arauketa kontuan harturik, badirudi Legeak auzikidetzaren pasiboa beharrezkoa soilik konpontzea duela helburu –hau da PZLko 12.2 artikuluan jasotakoa–. Bestalde, DAMIÁN MORENOk dioen bezala, auzikidetzari buruzko erabakia hartzeko, nahitaez legitimazioarekin zerikusia duten gaiak jorratu beharko dira; baina, lehen esan dugunaren arabera, JAE ez da momentu egokia legitimazioari buruzko azterketa egiteko, honek fondoarekin baitu lotura. Hala ere, auzikidetzari buruzko eztabaida planteatzen bada, PZLko 420. artikulua bi egoera bereizten ditu: a) aktorea hasieratik ados egotea auzikidetzaren osatzearekin, demandatuak eskatutakoaren arabera; eta b) eskaerarekin ados ez egotea; kasu honetan erabakia epaileak hartu beharko du.

- A) Demandatuak bere erantzunean auzikidetzaren falta sala dezake, esan bezala. Aktorea eskaera honekin erabat ados egon daiteke, eta berehalakoan saia daiteke akats hau konpontzen.

Horretarako, 420.1 artikulua araberako, aktoreak demanda berri bat aurkeztu beharko du, bertan demandatuaren ustez auzikide izan behar dutenak aipatuz. Hau modu egokiz gauzatu ahal izateko, beharrezkoa izango da demandatuak aurretik auzikideak zeintzuk diren azaltzea erantzunean. Aktoreak demanda berri honen aurkezpena JAEn bertan egingo du, dagozkion kopiak erantsiz. Hala ere, Legean ez dago batere garbi nola gauzatu den demanda berri honen aurkezpena. Aktoreak ez baditu demandatuak bere erantzunean adierazi dituen salbuespenak ezagutzen, nola jakingo du zein den demandatuaren asmoa? JAEn bertan idatziko al du demanda berria? Nola lortuko ditu behar dituen kopiak? PZLak garbi uzten duena da "idazkia" aurkeztu behar duela. Arazo honi eta antzekoei aurre egiteko, egokia izan daiteke oso FAIRÉN GUILLÉNek proposatzen duena; hau da, epaileak JAE konbokatzen duenean aurretik JAEn eztabaida daitezkeen gaien programa edo egitarau bat prestatu izatea alderdiei helarazteko.

Aktoreak demanda berri hau aurkezten duenean, ezin du auzikidetzaren aitzakiarekin hasierako demandarekiko aldaketarik erantsi. PZLko 420.1.II. artikulua araberako, hasierako demandarekiko sar ditzakeen aldaketak ezinbestekoak baino ezin daitezke izan, demandatu berrien aurkako pretentsioak justifikatzeko. Hona hemen nola den arauaren amaiera: *"eskatzeko arrazoia funtsean aldatu gabe"*. Epaileak ontzat ematen badu auzikidetzaren demandatu berriak epatuko ditu demanda berriari erantzun diezaioten (PZL 420.1 art.). Legeak ez dio ezer demandatu berriek erantzuna aurkezteko duten epeari buruz. Pentsatu behar da epe hau hogeit eguneko epe arrunta dela (PZL 404. art.), ez baita ulertzen Legea kasu honetarako zergatik dagoen isilik, eta aktorea auzikidetzaren aurka azaltzen denean, berriz, PZLko 404. artikulura igorpen espresua egiten duen.

B) Aktorea, auzikidetzaren eskaeraren aurrean, aurka ere azal daiteke. Auzikidetzari buruz ezadostasuna dagoenean alderdien artean, epaileari dagokio baten edo bestearen alde erabakitzea; horretarako alderdi biak entzun beharko ditu aurretik. Ebazpena autoa izango da, eta erabakia konplexuegia izateagatik ezin baldin badu berehalakoan eman, JAE amaitu eta ondorengo bost egunetan eman beharko du. Hala ere, PZLko 420.2. artikulua dioenez, *"JAEk aurrera jarraitu beharko du gainerako helburuentzako"*. Azken aipamen honek buruhauste ugari sorraraziko ditu, ikusiko dugun bezala.

Epaileak, behin erabakia hartu duenean, eta erabaki hori auzikidetzaren aldekoa bada, epe bat emango dio aktoreari (*"gutxienez hamar eguneko"*) auzikidetzaren osa dezan (PZL 420.3 art.). Zergatik dago hemen "gutxieneko" epe hau aktoreak auzikidetzaren osa dezan eta bestean ez? Lehen esan dugun bezala, aktorea auzikidetzarekin ados egon arren, zaila izango zaio bat-batean JAEn bertan demanda berri hura aurkeztea. Bigarren kasu honetan, legegileak aintzat hartzen ditu zailtasun hauek, "gutxieneko" epe hori aurreikustean. Beraz, kontsideratu behar dugu 420.1 artikulua kasuan (aktorea auzikidetzarekin ados) "gutxieneko" epe bat eskaini beharko liokeela aktoreari, JAEn bertan demanda berri hura aurkezteko gauza ez bada. Demanda berria aurkezten bada, demandatu berriek PZLko 404. artikuluko epea izango dute erantzuteko –orain espresuki egiten da arau orokorrera igorpen bat–, hau da, hogeit egun. Bitartean, jardunak (JAE) eseki egingo dira hasierako aktore eta demandatuentzat.

Aktoreak auzikidetzaren osatzeko epea demandaren kopiak eta dokumentuak aurkeztu gabe agortzen badu, zehapen larria jasotzen dio Legeak: prozesuari amaiera eman eta jardunak behin betiko artxibatu (PZL 420.4 art.).

Puntu honi amaiera eman baino lehen, hainbat kezka azaldu nahiko genituzke, logikoa denez, Lege berrian ez baita arauketa borobila lortu. Horietako bat, honetan datza: aktorea demandatuaren auzikidetzaren eskaerarekin ados egoteak ez du esan nahi epaileak nahitaez onartu behar duenik; PZLko 420.1 artikulua dioenez, epaileak egokitzen eman behar du auzikidetzaren. Azal al daiteke aktorearen eta demandatuaren borondatearen aurka? Badirudi Legearen araberako epaileak auzikidetzaren egokitasuna azter dezakeela.

Beste zalantza JAEn esekitzearekin lotuta dago. PZLko 420.1 eta 420.3 artikuluek diote demandatu berriek erantzuna aurkeztu bitartean JAE eseki edo suspenditu egingo dela. Kontuan izan behar da, "bistari" buruz baldin bada ere, Legeak bereiztu egiten duela hasi gabe dagoen bista esekitzea [*"suspensión"* (PZL 188. art.)] eta hasita dagoen bista etetea [*"interrupción"* (PZL 193. art.)]. Bereizketa honek badu bere garrantzia, bista eten egiten bada, eta hogeit eguneko epean ez bazaio jarraipenik ematen, berriro bista osoa hasi behar baita (PZL 193.3 art.). Aztertzen ari garen kasuan hogeit eguneko

epe hori erraz gaindituko da, demandatu berriek erantzuna aurkezteko epea hogeai egunekoa baita. Egia da egoera erabat desberdina direla bista eta JAE, han froga praktikatzeko baita –ahoz gainera– eta epailearen hurrentasunak horrela galdatzen baitu. JAEn berriz, epaileak ez du fondoari buruz konbikziorik eratu behar, eta egintzen kontzentrazioa hausten bada ere, ez du horrenbesteko eraginik izango.

Hala ere, esekitzearen arazoak ez dira hemen agortzen. Esan bezala, demandatu berriak erantzuna aurkeztu bitartean JAE eseki egiten da, eta zer gertatzen da demandatu berriak pertsonatu ondoren? JAEk hasieratik hasi behar al du berriro alderdi guztiak (demandatu auzikideekin batera) daudelarik, ala eseki zen momentutik jarraituko du? Badirudi alderdi berriak daudenez hauei ere jadanik erabakita dauden akatsei buruz dagozkion salaketak edo adierazpenak egiteko aukera eman behar zaiela. Kasu honetan, gutxienez, JAE eseki egingo da hasierako alderdientzat, baina PZLko 420.2 artikulua zera dio amaieran: epaileak ez badu auzikidetzari buruzko erabaki bat berehalakoan hartzen, erabaki hori JAE amaitu eta bost eguneko epean har dezakeela, baina bitartean JAEk aurrera egingo duela gainerako helburuentzat. Zer gertatzen da JAE amaitu eta ondorengo bost eguneko epean auzikidetzaren aldeko erabakia hartzen badu? Jar dezagun JAEn Legeak jasotzen duen eduki guztia garatu dela: prozesuaren objektua zehaztu da, akats guztiei buruz erabaki da, froga proposamena eta onartzea erabaki dira, etab. Ze aukera izango dute demandatu-auzikide guztiak gai garrantzitsu hauei buruz beren iritzia adierazteko? Hobe izango zen Legeak kasu honetan ere auzikidetzari buruz erabaki bat hartu baino lehen JAE esekitzeko aukera jaso izan balu.

3.3.4. Litispendentzia edo gauza juzgatua

JAEn eztabaidatu eta erabaki daitekeen beste arazo prozesal bat litispendentzia eta gauza juzgatua dira. Gauza desberdinak badira ere, Legeak tratamendu berdina ematen die bie salbuespen bezala. Soluzio hau logikoa da, bai litispendentziak, bai gauza juzgatuak helburu berdina baitute: auzi berdina bi prozesu desberdinetan eztabaida dadila ekiditea. Gauza juzgatuaren lehendabiziko prozesua jada amaituta dago; litispendentzian, berriz, oraindik iraun egiten du, baina bai batean bai bestean ezin daiteke objektu berdina duen prozesu berri bat hasi. Honek guztiak ondorio garbi bat izango du: JAE burutzen ari den prozesuan amaituta edo hasita dagoen beste prozesu bateko auzi berdina baldin bada eztabaidagai, hari amaiera eman beharko zaio.

ALONSO-CUEVILLASek gogor salatzen duen bezala, Legeak kasu honetan jarraitzen duen sistematika ez da oso egokia. Araua, hasieratik, epaileak har dezakeen erabakiak izango dituen eraginez ari da, baina ez dio ezer erabakia hartu baino lehen arazoak izango duen izapidetzaz. Adibidez, gainerako kasuetan ez bezala, hemen ez da esaten demandatuak salatutako arazo prozesala izan daitekeenik, epaileak ofizios aintzat har dezakeela baizik –MONTERO AROCAREN ustez, gauza juzgatua jurisdikzioaren funtsezko elementua da eta, beraz, ofizios azter daitekeena, eta ez orain arte gertatu den bezala alderdien alegaziopean dagoen zerbait–. Logikoa denez, alderdiek ere akats hau salatzeko aukera izan behar dute. Espresuki esaten ez bada ere, epaileak, bere erabakia hartu baino lehen, alderdiek diotena entzun beharko du, edo gutxienez aukera hori eman.

Litispendentziak edo gauza juzgatuak JAEn izango dituzten ondorioak aztertu baino lehen, aipaturiko figura hauek zein kasutan ematen diren zehaztu beharko da. PZLko 421.1 artikulua arabera, “*objektu berdinari*” buruzko judizio pendiente bat edo ebazpen irmoa baldin badago estimatu behar da, eta ondoren PZLko 222.2 eta 222.3 artikuluetara igorpen bat egiten du. Artikulu honen lehen paragrafoa aipatzen ez bada ere, esan behar da bertan dagoela gauza juzgatuaren oinarria; hau da, epai irmoen gauza juzgatuak baztertu egingo du ondoko prozesu bat, honen objektua haren berdina bada. Bigarren eta hirugarren paragrafoetara egiten den igorpenari esker, identitate objektiboa eta identitate subjektiboa noiz ematen diren jakin dezakegu, gauza juzgatuaren muga zehatzak jakin ahal izateko. Beraz, PZLko 421.1.1 artikuluan, gauza juzgatuaren eta litispendentziaren ondorio negatiboa jasotzen da, edo, ohiko deitura erabiliz, *non bis in idem* printzipioa.

Gauza juzgatuak edo litispendentziak bere funtzio negatiboan dituzten ondorioak garbi daude: epaileak amaitutzat emango du JAE, eta ondorengo bost eguneko epean largespen autoa emango du (PZL 421.1.1 art.; esan dugun bezala, honen oinarria PZLko 222.1 artikuluan dago). Hala ere, lehen paragrafo honek suposatzen du gauza juzgatua edo litispendentziaren existentzia berehalakoan har daitekeela aintzat, eta largespen autoa bost egun beranduago eman badaiteke ere, JAEn bertan entzunaldiari amaiera emateko agindua emango du. Hala ere, Legeak aurreikusten du horrelako erabaki bat JAEn berehalakoan hartzea ez dela beti erraza izango. Hain zuzen ere, litispendentzia eta gauza

juzgatuaren arazoan zailtasunak edo konplexutasunak komenigarria egiten badu, epaileak atzeratu egin dezake bere erabakia hartzea, entzunaldia amaitu eta bost eguneko epean –bitartean JAEk aurrera egiten duelarik gainerako helburuetarako–. Ez da hau 421.3 artikulua jasotzen duen berezitasun bakarria erabakiaren zailtasuna edo konplexutasuna dela medio. Egitate arazoaren bat argitzeko egokia balitz jardunak burutzeko, aipaturiko epearen barnean gauzatuko lirateke. ALONSO-CUEVILLASen esanetan, hau litzateke JAEren arauketak benetako jarduera frogagarria burutzeko jasotzen duen kasu bakarria, fase prozesal honetan sortzen diren arazoak argitzeko.

Epaileak erabaki dezake litispendentzia edo gauza juzgatua ez direla existitzen. Supostu hauetan, JAEn bertan adieraziko du, entzunaldiak aurrera egiten duelarik bere gainerako helburuak gauzatu ahal izateko (PZL 421.2 art.). Artikulu honetan gauza bat nabarmen azaltzen da, beste kasuetarako esaten ez dena: epaileak entzunaldian hartu behar duen erabakiak “motibatua” izan behar duela. Gainerako kasuetan epailearen erabakiak arrazoitua izan behar duenik esaten ez bada ere, horrela izan behar duela ulertu behar da.

Orain arte gauza juzgatua funtzio edo zentzu negatiboan aztertu dugu; hau da, prozesu bat amaiturik edo pendiente baldin badago ezin dakiokela objektu berdina duen beste prozesu bati hasiera eman. Hala ere, gauza juzgatuak izan dezake beste funtzio positibo edo prejudizialik. Funtzio positibo honen arabera, lehendabiziko prozesuan erabakitakoak ez du ondoko prozesua baztertzeko, azken honen erabakia baldintzatzen baizik, aurretik emandako epai irmo bat loteslea denean ondoko prozesuaz ezagutzen ari den auzitegiarentzat (PZL 421.1.II art.). Funtzio positibo edo prejudizial hau PZLko 222.4. artikuluan dago jasota: epai irmo batean gauza juzgatuaren indarrez erabakitakoak lotetsi egingo du ondoko prozesuko auzitegia, azken prozesu honen objektuarentzat aurrekari logikoa denean hura. Funtzio positibo honetan ezin daitezke gauza juzgatu negatiboan objektuari buruz galdatzen diren berdintasunak galdatu. Berdintasuna erabatekoa bada, ondorio baztertzailerik izango du ondoko prozesuekiko eta, esan bezala, funtzio positiboan ondoko erabakiaren edukia baldintzatu baino ez da egiten. MONTERO AROCAren hitzetan, berdintasunak subjektiboa izan behar du –horrela dio, baita, PZLko 222.4 artikulua–, baina ez objektiboa –autore honen esanetan, bi prozesuetako objektuek “*parzialki berdinak*” edo “*konexoak*” izan behar dute–.

Ze eragin izango du beraz gauza juzgatuaren funtzio positiboak JAEn? Esan dugun bezala, ez da ondoren prozesu berri bat irekitzeko oztopo izango, bigarren prozesu honetan hartuko den erabakiaren edukia baldintzatzailerik baizik. Beraz, prozesuak, eta ondorioz JAEk, aurrera egingo du –PZLko 421.1.II artikulua dio prozesua ez dela largetsiko–. Hala ere, MONTERO AROCAri jarraituz, esan behar da gauza juzgatuaren funtzio positiboak bigarren prozesura ekartzeko interesatuta egon daitezkeen multzo zabalagoa osatzen dutela. Argi dago funtzio negatiboak bigarren prozesura sartzeko interesatu nagusia demandatua izango dela, horrela bi aldiz epaitua eta kondenatua izateko posibilitatea ukatzen baitu. Funtzio positiboak edo prejudizialak azaltzeko interesatuak, berriz, izan daitezke ez aktorea bakarrik –bigarren prozesuan egikaritutako pretentsioaren egitate konstitutiboa izan daiteke lehendabizikoa, eta egitate hori loteslea izango da–, baizik eta baita demandatua ere –bigarren prozesuan aurreko batean onartu zaion salbuespen material batez baliatu nahi duenean–.

Epaileak ofizioz kontuan har al dezake gauza juzgatuaren ondorio positibo hau? MONTERO AROCAk bereizketa bat egiten du: a) indar loteslea duen epai irmoaren existentzia interesatuak adierazi beharko du, epaileak ez baitu epai horren berririk izango; b) epai irmoa identifikatua izan denean, efektu lotesleak epaileak berak ofizioz har ditzake kontuan.

Funtzio negatiborako esan dugun bezala, hemen ere bat-bateko erabaki bat hartzea zaila izan daiteke hainbat kasutan. Beraz, lehen erabakia atzeratzeko eta jarduera frogagarria burutzeko aukerari buruz esandakoa aplikagarria litzateke kasu honetan ere.

3.3.5. Prozeduraren desegokitasuna zenbatekoagatik

Arazo hau Lege zaharreko “agerraldiaren” edukia bezala ere jasota zegoen. Supostu honetan jasotzen den aurkatzearen arrazoiak ez da aktoreak demandaren zenbatekoa zehazteko Legean jasotzen diren arauak ondo edo gaizki aplikatu dituen eztabaidatzea, gaizki aplikatze horrek eragin prozesala duenean zein judizio mota jarraitu behar den baizik. Zenbatekoaren ikuspegitik, judizio arruntak bi izan daitezke: “ordinarioa” deiturikoa eta hitzekoa. Bata eta bestearen arteko muga 500.000 pezetatan dago

(PZL 249.2 eta 250.2 art.). Beraz, zenbatekoa zehazteko arauak gaizki aplikatu badira, edo auzigaiari emandako balioa okerra bada eta honek eraginik baldin badu jarraitu behar den judizio motan, orduan sar daiteke eztabaida hau JAEn.

Printzipioz, aktoreari dagokio demandaren zenbatekoa zehaztea (PZL 253. art.), horretarako Legean jasotako arauak aplikatu behar baditu ere (PZL 251 eta 252. art.). Gainera, demandarekin batera aurkeztu behar dituen dokumentuen artean, Legeak auzigaiaren balioa ziurtatzeko bide diren dokumentu eta irizpenak aipatzen ditu (PZL 264.3 art. –eskumen eta prozedura efektuetarako dio–). Honek ez du esan nahi aktoreak adierazitakoa azken hitza denik. Batetik, epaileari dagokio hautaturiko prozedura mota demandan jasotako zenbatekoarekin bat datorren ofizioz kontrolatzea (PZL 254. art.) eta ahalmen horien arabera prozesuari dagokion izapidetza eman diezaioke, behar bada, kalkulu egokiak eginez benetako zenbatekoa zehazturik gera dadin. Epaileak ofizioz jarduteko aukera hau positibotzat jo behar da, baldin eta zenbatekoak eskumenean edo jarraitu behar den prozedura motan eragina badu.

Baina ez da epaileari ematen zaiona zenbatekoa kontrolatzeko dagoen aukera bakarra. Demandatuak aktoreak demandari emandako balioa aurka dezake; hori bai, Legeak dioen bezala, zenbatekoa okerra izanez gero, eragina baldin badu jarraitu behar den prozeduran –beste bat litzateke egokia– edo kasazio errekurtsua tarteratzeko posibilitatean. Horrela dio 255.1 artikulua, eta aurkatze hori bideratzeko irizpideak ematen ditu: prozeduraren egokitasuna zenbatekoagatik demandari erantzuterakoan aurkatu ahal izango da, eta arazoa “*JAEn erabakiko da*” (PZL 255.2 art.). Ikus dezagun, beraz, nola izapidetzen den arazo hau demandatuak erantzunean planteatu badu.

Legearen arabera, zenbatekoa zehazterakoan bi zentzutan sor daitezke desadostasunak: a) demandaren interes ekonomikoa kalkulatzeko ez bada Legeak emandako arauak ondo aplikatu; eta b) auzigaiari balioa ematerakoan. Lehendabiziko kasuan ez da arazo larririk sortuko, nahikoa izango baita epaileak aipaturiko arau legal horiek (PZL 251 eta 252. art.) aplikatzea. Aldiz, bigarren kasuan, desadostasuna auzigaiari emandako balioan datzanean, zera diote PZLko 422.1 eta 422.2 artikuluek: alderdiak entzun ondoren berehalakoan hartuko duela erabakia; alderdien artean akordiorik balego auzigaiaren balioari buruz, epailearen erabakiarentzat loteslea izango da (“*ateniéndose, en su caso*”), eta akordiorik ez balego, epaileak JAEn bertan ahoz eta arrazoiturik –berriro motibazioari buruzko aipamen berezia– erabakiko du, horretarako alderdiek aurkeztu dituzten dokumentu, txosten edo “*balioa kalkulatzeko baliaugarriak diren beste edozein elementu*” kontuan hartuz.

Esandakoak, komentario batzuk egitea merezi du. Legearen arabera, alderdiak ados jartzen badira auzigaiari eman behar zaion balioarekin, epaileak ontzat eman beharko du. ALONSO-CUEVILLASen esanetan, soluzio hau ez da egokia, akordatutako balioak epailearen ustez ez badu errealitatearekin zerikusirik. Indar lotesle hau ez letorke bat, gainera, PZLko 254. artikulua epaileari demandaren zenbatekoa ofizioz kontrolatzeko ematen dion ahalmenarekin.

Bestalde, JAEn ez bada balioari buruzko adostasunik lortzen, epaileak erabakiko du, hainbat informazio kontuan izanik (dokumentuak, txostenak, ...). DAMIÁN MORENOK uste du Legeak aipatzen dituen dokumentu eta txostenek aktoreak eta demandatuak aurkeztutakoek izan behar dutela, baina demanda eta erantzunarekin batera aurkeztutakoak, PZLko 264.3. artikulua espresuki ezartzen baitie alderdiei karga prozesal hau. ALONSO-CUEVILLASek, berriz, dio dokumentu, txosten etab. horiek entzunaldian bertan aurkez daitezkeela. Bigarren interpretazio honen alde esan daiteke PZLko 264.3. artikulua arabera demanda eta erantzunarekin batera aurkeztu behar direla balioari buruzko “*dokumentu eta irizpenak*”, PZLko 422.2. artikulua, berriz, dokumentu eta txostenez gain, “*balioa kalkulatzeko baliaugarriak diren beste edozein elementu*” aipatzen ditu. Legeak garbi uzten duena zera da: akordiorik ez bada lortzen, ez dela aditu bat edo gehiago izendatuko gauzaren balioa zehatz dezaten –horrela jasotzen zuen “agerraldi” zaharrak, adituek txostena eman bitartean “agerraldia” eseki egiten zelarik–. DAMIÁN MORENOn ustez, azkartasunaren ondorioz baztertu egin da adituaren parte-hartze hau. ALONSO-CUEVILLASek kritikatu egiten du berrikuntza hau, ontzat emanez kasu hauetan froga eginbideak burutzea –balioa ematea hirugarren batengatik dagoeneko bi txosten daudenean, baina kontrajarriak–.

Eztabaida honen guztiaren ondorioz, prozedura “ordinarioaren” desegokitasuna erabakitzen bada, hau da, hitzezko judizioa bada jarraitu beharrekoa, epaileak amaiera emango dio JAEn, eta alderdiak hitzezko judizioko bistara epatuko ditu, demanda aurkezteko epea kadukatuta dagoenean salbu, orduan prozesuaren largespena aginduko baitu (PZL 422.2.II art.).

ALONSO-CUEVILLASen ustez, memento honetan ez bada, analogiaz (PZL 425. art.), zenbatekoari buruzko desadostasuna JAEn eztabaidatzeko aukera izan behar dute alderdiek, nahiz jarraitu behar den prozedura motan eraginik ez izan. Zentzu honetan, esan behar da Legeak garbi uzten duela noiz aurkez daitekeen salaketa mota hau: jarraitu beharreko prozedura motan edo kasazioa tarteratzeko aukeran eragina duenean. Aipaturiko autoreak kasazioaren kasuz gain beste bat adierazten du, hau da, zenbatekoak profesionalen ordainsariak eta arantzelak ezartzean kostuen bidez eragina duenean.

3.3.6. Prozeduraren desegokitasuna materiagatik

Aurreko epigrafean zenbatekoari buruz esan dugun bezala, materiak ere baldintzatzen du jarraitu behar den prozedura mota –gainera, materiarena arau berezia da, zenbatekoarena orokorra den bezala, eta hark lehentasuna izango du (PZL 248.3 art.)–. Hain zuzen ere PZLko 249.1 eta 250.1 artikuluek zehazten dute noiz jarraituko den judizio “ordinarioa” eta noiz hitzezkoa, materia edo gaia kontuan hartuz. Aurreko epigrafean ikusi dugun bezala, prozedura motaren egokitasuna zalantzan jartzen bada zenbatekoaren arabera, Legeak berak jasotzen du ondoren aurkatze hori nola bideratu behar den –epaileak azterketa ofizioz egin dezake (PZL 254. art.) eta ondoren demandatuak salaketa erantzunean, JAEn erabakiko delarik (PZL 255. art.)–.

Materia denean prozeduraren egokitasuna aztertzeko irizpidea, aldiz, ez dago kontrola eta aurkatzea nola bideratu behar diren esaten duen araurik –hau da, ez dago PZLko 254. eta 255. artikuluen parekorik–. Hala ere, prozeduraren egokitasuna aurrepostu prozesala denez (MONTERO AROCA, ALONSO-CUEVILLAS), epaileak ofizioz azter dezake, aktoreak jarraitu nahi duen judizio mota ez bazaio gaiari moldatzen, eta epaileak judizioari dagokion izapidetza eman diezaioke, aktorearen asmoaren aurka ere (MONTERO AROCA). Demandatuari dagokionez, PZLko 423. artikulua esaten duen gauza bakarra da egokitasun ezaren alegazioa egin egon daitekeela, baina ez du esaten espresuki –zenbatekoari buruz PZLko 255. eta 422. artikuluek dioten bezala– aurkatze hori erantzunean egin ote daitekeenik. Hala ere, demandatuak salaketa hau egiteko garai prozesal egokia erantzuna dela pentsatu behar da –PZLko 405.3 artikulua dio erantzunean planteatu behar direla salbuespen prozesalak–.

Prozedura motaren egokitasun falta salatu bada, Legeak honako pausua jasotzen ditu: epaileak lehendabizi alderdiak entzun beharko ditu, eta ondoren dagokiona erabaki. Erabakia, JAEn bertan edo –gaiaren zailtasunak komenigarri egiten badu– JAE amaitu eta ondorengo bost eguneko epean har daiteke. Ez badu erabakirik berehalakoan hartzen, JAEk aurrera egingo du gainerako helburuetarako. Erabakia hartzeko Legeak epaileari ematen dion atzeratzeko aukera kritikatu izan da, ez baita ulertzen ze zailtasun egon daitezkeen erabakia hartzeko puntu honetan –zenbatekoaren kasuan ez da horrelako aukerarik ematen– (DAMIÁN MORENO, ALONSO CUEVILLAS). Epaileak har dezakeen erabakiak bi eduki izan ditzake: prozeduraren desegokitasuna estimatzea edo ez. Bigarren kasu honetan JAEk aurrera egingo du. Estimaten bada, berriz, eta hitzezko judizioa izan badaiteke egokia, epaileak bistarako deituko ditu alderdiak –hemen ez da esaten espresuki (PZLko 422.2.II artikuluan esaten den bezala) JAE amaitu egingo denik, lehendabiziko ondorioa hau izango bada ere–. Artikulu honetan ikus daitezkeen beste desberdintasuna zera da: Legeak gainerako arauetan lengoia inperatibo bat erabiltzen badu epailearekiko (“resolverá”), hemen potestatiboa dela (“podrá decidir”). Ez da ulertzen aldaketa honen arrazoia, baina eztaba da epaileak ezin duela arazo hau erabaki gabe utzi.

3.3.7. Demanda akastuna

Artikulu honek duen izenburua kontuan harturik, pentsa daiteke arauketaren helburua aktoreak bere demandan burutu dituen akatsak zuzentzea soilik dela. Artikuluaren edukia irakurriz, helburua askoz ere zabalagoa dela ondorioztatzen da. Salatu eta konpon daitezkeen akatsak ez dira demandan burututakoak eta demandatuak salatutakoak soilik; aktoreak ere –JAEn bertan– sala ditzake, demandatuak akats berdinak burutu baditu erantzunean edo kontrademandan. Artikulu berdinarekin lehendabiziko paragrafoak dio akatsak epaileak ofizioz ere estima ditzakeela. Aktoreari dagokionean salaketa egitea, arauak dio JAEn egin beharko duela, baina tratamendu berdina ematen dio akatsak erantzunean edo kontrademandan egin badira. Tratamendu berdin honek ez du izateko arrazoirik. Demandatuak bere erantzunean ez badu errekonbentzioa edo kontrademanda planteatzen egia da aktoreak ez duela erantzuneko akats horiek salatzeko aukerarik JAEn fasea iritsi arte. Baina

demandatuak erantzunean kontrademanda planteatzen badu, aktoreari eman egin behar zaio demanda berriari erantzuteko aukera (PZL 407.2 art.). Gainera, aktorearen erantzun hau PZLko 405. artikuluari egokitu behar zaio; hau da, aktoreak salbuespenak bere erantzunean adierazi beharko ditu. Eta kontrademandak erantzunaren jarraian eta idazki berdinean (PZL 406.3 art.) azaldu behar duenez, aktoreak bai erantzunean bai kontrademandan ikusten dituen akatsak salatzeke aukera du. Beraz, demandatuak erantzunean kontrademanda planteatzen badu, aktoreak artíkulu honetako akatsak bere erantzunean aurkeztu beharko ditu, JAEn zain egon gabe.

Eta zeintzuk dira demandak edo alderdien alegazio idazkiek izan ditzaketen akatsak eta artíkulu honen arabera sala daitezkeenak? Bi akats aipatzen ditu arau honek: zehaztasun eta argitasun falta, alderdiak eta pretentsioak determinatzeko garaian. Akats hauek konpongarriak direlako, artíkuluak dio epaileak berehalakoan jasoko dituela dagozkion argitasun eta zehaztasunak. Eta ez baldin badira zehaztasun eta argitasunak egiten? Legearen arabera, erabaki larri bat har dezake epaileak: auziaren largespena. Baina erabaki hau azken neurri bezala kontsideratzen du Legeak –Auzitegi Konstituzionalaren irizpide murriztailea jasoz–, honako hau esaten baitu: largespena aginduko duela “*bakarrik*” “*erabat*” ezinezkoa denean aktorearen –edo demandatuaren errekonbentzioan– pretentsioak edo subjektu destinatzaileak zehaztea (PZL 424.2 art.). Ikus daitekeenez, tratamendu desberdina jasotzen du Legeak largespena dela medio. Ebazpen hau, demanda eta kontrademandan aipaturiko zehaztasunak falta direnean har daiteke, baina ez demandatuaren erantzunean. Hau guztiz logikoa da, demandatuak ez baitu erantzunean –kontrademanda planteatzen duenean salbu– pretentsiorik eratzten, aktorearenari aurre egin baizik –aukera bat da–. Honek esan nahi du Legeak bi zentzu desberdinetan erabiltzen duela “pretentsio” hitza: zabalean lehen epigrafean, hertsian bigarrean.

Aurreko paragrafoarekin lotuta, esan behar da memento honetan aipaturiko zehaztasun eta argitasun faltak soilik eztabaidatu eta konpon daitezkeela –beraz, demandatuaren erantzunekoek nekez izango dute hemen sartzeko aukera, esan bezala ez duelako pretentsio bat planteatzen–. Beste motatako argitasun edo zehaztasunak falta badira, PZLko 426. artíkulan eztabaidatu beharko direla dio DAMIÁN MORENOK. Gerta daiteke ere, bai demandan bai kontrademandan, pretentsio bat baino gehiago egikaritzea. Zehaztasun faltak hauetako bati buruzkoak direnean soilik, largespenak, noski, bakar honi buruzko ondorioak izango ditu, gainerako pretentsioei buruz prozesuak aurrera egiten duelarik.

3.4. Mugatze funtzioa

Jatorriz, JAE eta antzeko institutuen helburu nagusia orain arteko akats prozesalak garbitzea edo zuzentzea izan bada ere, sarreran esan dugu gaur egun beste funtzio desberdinak ere garatzen direla bertan. Adiskidetzearen funtzioa aipatu dugu dagoeneko, eta orain beste funtzio garrantzitsu bati buruz arituko gara. Ezer baino lehen esan behar da ondoren aipatuko ditugun artíkuluetan izaera desberdinetako jarduerak arautzen direla, baina hauek guztiak aipaturiko funtzio orokorrean bil daitezke (delimitazio edo mugatze funtzioa). Esaterako, demanda eta erantzuna ez dira alegazioak egiteko dauden izapide bakarrak; garrantzitsuenak bai, baina ez bakarrak. Demanda eta erantzunaren garai prozesala amaituta ere, alderdiek alegazio osagarriak egin ditzakete JAEn, edo hasierako objektuan aldaketak egin gertakari desberdinak sartuz, berriak nahiz zaharrak izan, baina azken kasu honetan haien ezagutza berria bada.

Eztabaidaren objektuan aldaketak egiteko aukera honek, salbuetsi egiten du demandaren aldaezintasuna (*mutatio libelli*-ren debekua). Hau da, demandan, erantzunean eta, bere kasuan, kontrademandan eztabaidaren objektua zehaztu eta gero, alderdiek ezin dezakete ondoren hau aldatu (PZL 412.1 art.). Hala ere, aldaketa hauen debekua salbuetsi egin daiteke “*Legearen arabera*” alegazio osagarriak egiteko bada (PZL 412.2 art.). JAE da Legeak aldaketa hauek egiteko arautzen duen fasea. DAMIÁN MORENOK dioen bezala, hau ez da Legeak duen beritasun bat. Muntaia handiko judizioko *réplica* eta *dúplica*-ren parekoa litzateke (PZL zaharreko 546-549 bitarteko artíkuluetan); bestalde, arategi zaharrean ere bazegoen anpliazio idazkia aurkezteko aukera (PZL 563. art.) eta “agerraldi” zaharrean ere antzeko alegazioak egin zitezkeen (PZL 693. art.). Ez da beraz berrikuntza, baina, autore honen iritziz, Lege berriaren ezaugarri nagusia aldaketa horiek egiteko ematen dituen erraztasunak edo eskuzabaltasuna litzateke. Pretentsio berriekin ugaltu egiten ditu demandatua ustekabean harrapatzeke aukerak. Honek murriztu egiten ditu demandatuaren defentsarako posibilitateak, eta arriskuan jartzen du alderdien arteko oreka prozesala.

3.4.1. Alegazio osagarriak

PZLko 426. artikuluko lehen paragrafoaren arabera, alderdi bakoitzak, kontrakoaren jarrerarekiko, alegazio osagarriak egin ditzake. Hala ere, mugatu egiten da ahalmen hau, esanez ezin ditzaketela pretentsioak edo hauen oinarriak “*funtsean*” aldatu. Arazo nagusia zera izango da: alegazioek izaera osagarri hori noiz duten zehaztea. DAMIÁN MORENOren ustez, kategoria honen barnean honako jarduerak sar daitezke: eskaera nagusiari beste berri bat gehitzea, hura egikaritzeko oinarri izan diren gertakarietatik ondorioztatzen bada; kontrako alderdiek beren idazkietan eginiko alegazioak eztabaidatzeko aukera emango lieke; hau litzatekeemandatuak bere erantzunean azaldutako salbuespenei erantzuteko bide egokiena. ALONSO-CUEVILLASEk “dialektikoa” deitzen dio funtzio honi; hau da, ahozko egintza denez, alderdiek salbuespenak salbuesteko edo erantzunari erantzuteko aukera izango lukete. 1881eko Legean muntaia handiko judiziorako jasota zeuden “erreplika” eta “duplikaren” pareko jardunak lirateke.

3.4.2. Argibide egintzak

Argibideak emateko egintzak 426. artikuluko 2. eta 6. epigrafeetan aipatzen dira. 2. epigrafearen arabera, alderdiek argitu egin ditzakete egindako alegazioak, eta pretentsioetan bigarren mailako zuzenketak egin ere bai, haiek edo beren oinarriak aldatu gabe. 6. epigrafean eginbide berdina jasotzen da, baina kasu honetan epaileak hartzen du alderdiei argitasunak eta zehaztasunak eskatzeko inizatiba. Epailearen eskaerak efektu loteslea du gainera: ez badira eskatutako argibideak eta zehaztasunak ematen, kontrakoaren gertakari eta argudioekiko adostutzat hartuko dituela ohartaraziko die. Kontuan izan behar da adostutzat hartzea ez dela kontrakoak adierazitako gertakarietara mugatzen, baizik eta “argudioetara” ere hedatzen dela. Zer esan nahi ote zuen legegileak “argudioak” aipatzerakoan? Badirudi “argudio” horiek gertakari buruzkoak izan behar dutela, hau da, elementu faktikoei buruzkoak, eta ez argudio juridikoei buruzkoak. Legeak alderdien itaunketa (PZL 307. art.) edo erantzunaren edukia (PZL 405.2 art.) arautzen dituenean, gertakarietara mugatzen du ondorio hau (adostutzat hartzea).

Alegazio idazkietan zerbait iluna edo ulergaitza geratu baldin bada, hau da aipaturiko argitasunak lortzeko memento egokia. Entzunaldiaren ahozkotasan lagun diezaioke helburu honi. Hala ere, DAMIÁN MORENOK zera azpimarratzen du: JAE ez dela alderdien itaunketa egiteko memento prozesal egokia, eta beraz epaileak ezin dezakeela JAEk ematen dion aukera gertakarien egiazkotasunari buruz deklarazioak lortzeko aprobetxatu.

3.4.3. Pretentsio osagarriak. Demandaren gehitzea

Prozesu zibilean garai preklusibo bat dago eskaerak egiteko. Garai prozesal hau alegazio idazkiena da; hau da, demanda, erantzuna eta, bere kasuan, kontrademanda. Idazki hauen bidez prozesuaren objektua finkatu denean, objektu hau ezin daiteke aldatu. Honi *mutatio libelli*-ren debekua deitzen zaio, eta PZLko 412.1 artikuluan dago jasota. Hala ere, debeku hau ez da erabatekoa, eta artikulua berak bigarren epigrafean salbuespen gisa onartzen du alegazio osagarriak Legearen arabera egiteko aukera. Ikusi dugu “alegazio osagarriak” PZLko 426.1 artikuluan aipatzen direla, betiere pretentsioa eta bere oinarriak funtsean ez badira aldatzen. Zalantzarik ez dago, beraz, PZLko 426.3 artikulua zerbait desberdina jasotzen duela “*eskaera akzesorio edo osagarriak*” egin daitezkeela esaten duenean.

ALONSO-CUEVILLASEk ez du horrela ulertzen. Bere ustez, 3. epigrafeak ematen duen aukera “agerraldi” zaharrean (693.2 artikulua) edo “erreplikari” eta “duplikari” jasota zegoen; beraz, hauei buruz sortutako jurisprudenzia aplikatu beharko da besterik gabe. Horrela, onar daitezkeen aldaketak funtsezkoak ez direnak bakarrik izango dira. Adibide bezala, interesen eskaera demandan egindako eskaera nagusiari lotuta egonik, demandan eskaera berri hau ez egitea aipatzen du.

FAIRÉN GUILLÉNen esanetan, kasu honetan demandaren benetako aldaketa edo transformazio baten aurrean gaude. Gure ustez berria den zerbaiten aurrean gaudela esateko, Legeak kontrako alderdiari eskaera berriari aurre egiteko espresuki ematen dion aukera aipatuko genuke. Eskaera berria onartua izango da kontrako alderdia ados baldin badago, dio Legeak. Ez badago gehiketarekin ados, epaileak hartuko du erabakia, eta horretarako kontuan hartu beharreko irizpidea honako hau da: kontrako alderdiari bere defentsa eskubidearen egikaritzea berdintasun egoeran bermatu behar zaio.

DAMIÁN MORENOK dioen bezala, zaila izango da bereiztea noiz gauden eskaera akzesorio edo osagarri baten aurrean eta noiz ez. Bere ustez, akzioen metaketak badu bere garai preklusiboa, eta izapide hau ezin daiteke bat-batean pretentsio berriak pilatzeko erabili, konexoak badira ere. Autore honen ustez, epaileak arretatsu jardun beharko du pretentsio berri hauek onartzerakoan, eta egokitzen jotzen du eskaera berria egiten duenak adieraztea zergatik ez zuen pretentsio hura garai prozesal egokian egikaritu.

3.4.4. Gertakari berri edo ezagutu berrien alegazioa

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, Legea nahiko eskuzabala da alegazioen eta bere inguruan aldaketak –muga baten barnean– egin ahal izateko. Honen adierazgarri da, baita, PZLko 426.4 artikuluan gertakarietako aipatzen den aukera. Printzipioz, gertakariak demandan eta erantzunean aipatu behar dira, baina horretarako gertakari horiek existitu egin behar dute, eta ezagunak izan. Baina gerta daiteke gertakariak alegazio fasea agortu ondoren sortzea; hau da, berriak izatea, edo alegazio garaioak izatea baina ez ezagunak. Gertakari hauek prozesura sartzeko bidea PZLko 286. artikuluan jasotzen da. Bere lehen epigrafearen arabera, gertakari berri edo ezagutu berri horiek garrantzitsuak izan behar dute auzia erabakitzeke, eta epaia emateko epea hasi baino lehenagokoak izan behar dute –epe hau hasita baldin badago, apelazio fasean azal daitezke, eta froga bigarren auzialdirako proposatu (PZL 460.2.3 art.)–. Sarrera hau “gertakarien anpliazio” idazki baten bidez egin beharko da, alegazio hauek judizioan edo bistan egin daitezkeenean salbu.

PZLko 426.4 artikulua dioen arabera, judizioa baino lehen –hau da, JAE garairako– ezagunak baldin badira, JAEn alegatu beharko dira gertakari berri edo ezagutu berri hauek. Ze tratamendu emango zaie hemendik aurrera gertakari hauei? PZLko 426.4 artikulua igorpen bat egiten du 286.4 artikulura; agian egokiagoa litzateke igorpen zabalago bat egitea. Adibidez, 286.2. artikuluan zera esaten da: kontrako alderdiek gertakari hauek egiaztat emateko edo ukatzeko aukera izango dutela. Epigrafe horretara igorpen zehatzik egiten ez bada ere, zalantzarik gabe aukera hori izan behar dute gainerako alderdiek. Laugarren epigrafearen egiten den igorpenak zera du helburu: gertakari berriak edo ezagutu berriak proposatu dituen alderdia fede txarrez ari ez dela bermatzea. Hau da, gertakarien proposatzaileak egiaztat beharko du hauek gertatu berriak edo ezagutu berriak direla; epaileak, gainerako alderdiek alegatutakoa kontuan hartuz, gertakari hauek ez onartzea erabaki dezake, aipaturiko zirkunstantziak ez badira egiaztatzen.

3.4.5. Irizpen eta dokumentuen ekarpena

Esan bezala, JAE hainbat kasutan salbuespena da preklusio printzipioarentzat: alegazio osagarriak, zuzenketak, eskaera berriak, gehiketak edo gertakari berriak edo ezagutu berriak direnean. Hauei guztiei buruz, logikoa denez, jarduera frogagarria izan beharko da judizioan –ukatua ez badira, noski–, eta JAE da frogabide horiek proposatzeko eta epaileak ametitzeko garai prozesal egokia. Hala ere, jakina da PZL berriak ez diela frogabide guztiei tratamendu berdina ematen; hau da, batzuk JAEn proposatu behar badira ere, beste batzuk alegazio idazkiekin batera aurkeztu behar dira. Horrela gertatzen da dokumentu eta adituen txostenekin PZLko 264-266. artikuluen arabera –dokumentu kontzeptua artikulua hauetan aipatzen den zentzu zabalean ulertu behar da; hau da, soinuak edo irudiak jasotzen dituzten instrumentuak bertan ulertuz, eta ez PZLko 299. artikuluan ulertzen den bezala–.

Beraz, memento honetan ekarri behar dira JAEn adierazi diren alegazio, eskaera, gertakari, etab. hauei guztiei buruzko dokumentuak eta adituen txostenak. Hala ere, PZLko 426.5 artikuluan arabera dokumentu eta txostenak JAEn ekar baditzaizkete, hemen esandakoa ez dator 338.2 artikuluan esandakoarekin bat. Azken arau honetan zera esaten da: JAEn egindako alegazio eta pretentsio osagarrien kasuetan adituen txostenak judizioa burutu baino gutxienez bost egun lehenago aurkez daitezkeela. Artikulu hauen eta PZLko 427.3 artikuluan arabera, dokumentuak JAEn aurkeztu behar direla dirudi, eta adituen txostenak judizioa baino bost egun lehenago aurkez daitezkeela. Adituen txostena alderdiek beraien prozesura ekarri beharrean, epaileak izendatutako aditu batek ekar dezala eska dezake JAEn. Horrela jasotzen da 427.4 artikuluan. Dena den, dokumentu eta adituen txosten hauen ekarpena baldintzatuta dago (DAMIÁN MORENO), JAEn egindako alegazio, eskaera edota gertakari buruzkoak izan behar baitute.

3.4.6. Dokumentu eta adituen txostenei buruzko alderdien posizioa

Aztertzeraz goazen funtzio hau berria da. Lehen aurreratu dugun bezala, PZL berriak tratamendu desberdina ematen die dokumentu eta txostenei batetik eta gainerako frogabideei bestetik. Dokumentu eta adituen txostenak alegazio idazkiekin batera aurkeztu behar dira; gainerako frogabideak JAEn proposatu behar dira. Diseinu berri honen ondorioz, jakin daiteke zein den kontrakoak aurkeztutako dokumentu eta txostenei buruz alderdiek duten posizioa. Horrela, alderdietako norbait ez balego kontrakoak dokumentu eta txostenei eman nahi dien indar frogagarriarekin ados, entzunaldi honetan azaldu ahal izango du bere asmoa, dokumentu eta txosten horiei buruz frogaren proposamena egiteko aukera duelarik. PZLko 427.1 artikulua zera dio: alderdi bakoitzak ordura arte kontrakoak aurkeztutako dokumentuei buruz iritzia azaldu beharko duela haiek onartuz, aurkatuz edo benetakotasunari buruz froga proposatuz.

Lehen esan dugun bezala, Legeak dokumentu hitza erabiltzen duenean, ez da ulertu behar 299. artikuluan jasotzen den bezala –hau da, soinuaren eta irudiaren grabazioak kanpo utziz (zentzu hertsia)–, PZLko 265.1.2 artikulua araberaz instrumentu hauek ere demanda eta erantzunarekin batera aurkeztu behar baitira. Bideoak eta antzekoak espresuki aipatzen ez badira ere, ez da gauza bera gertatzen ikertzaile pribatuen txostenekin, 427.2 artikuluan espresuki esaten baita txosten hauei buruz ere iritzia azaldu behar dela.

Dokumentuak aurkatuak izaten badira, dokumentuei buruzko arau orokorrak aplikatu beharko dira. Legeak bereiztu egiten du dokumentu publiko edo pribatuen artean. Lehendabiziko kasuan (PZL 320 art.) benetakotasuna orijinalarekin erkatuz edo kotejatuz egingo dela dio Legeak. Pribatuak izanik (PZL 326 art.), benetakotasuna letren aditu-erkatzea eskatuz egingo da, edo egokia den beste edozein frogabideren bitartez. Esan behar da Legeak neurri zorrotzak jasotzen dituela alderdiek ez ditzaten kontrakoak aurkeztutako dokumentuak automatikoki aurkatu. Erkatzearen ondorioz dokumentuaren benetakotasuna ziurtatzen bada, hura aurkatu zuenak aurre egin beharko die sortutako gastu guztiei, eta aurkatzea epaileak ausartegizat emango balu, 20.000 eta 100.000 pezeta bitarteko isuna ezar liezaioke (PZL 320.3 art.).

Dokumentuekin gertatzen den bezala, alderdiek adituen txostenei buruz ere beren iritzia eman behar dute, onartuz, aurkatuz edo puntu batzuetan anpliazioa eskatuz (PZL 427.2 art.). Artikulu hau irakurriz, jardun hauen objektu bakarra txostena izan daitekeela dirudi. Baina JAEn egin daitezkeen alegazioak zabalagoak dira. Adibidez, txostenen aditu egileak tatxatuak izan daitezke (PZL 343.1 art.) eta tatxa horiek JAEn egin beharko dira, frogak proposa daitezkeelarik zirkunstantzia hori ziurtatzeko (PZL 343.2 art.). Adituen errefusatzeari, berriz, ez da JAEn egin daitezkeen zerbaitekin. Errefusatuak izan daitezke epaileak izendatutako adituak, baina ez alderdiek aurkeztutako txostenen egileak (PZL 124 art.). Baita ere esan behar da alderdiei dagokiela adituek judizioan izango duten parte-hartzea adieraztea. PZLko 347. artikulua araberaz, eska dezakete, adibidez, judizioan txostena azaltzea, erabilitako metodo eta hartutako konklusioei buruzko galderei erantzutea, kontrako adituen txostena kritikatzeari, etab. Badirudi eskaera hauek guztiak JAEn egin behar direla; artikulu berdinak dio adituen tatxa ere eska daitekeela, eta, lehen esan dugun bezala, (PZL 343.2 art.) eskaera hau JAEn egiten da.

3.4.7. Gertakarien finkatzea eta berehalako epaia ahal bada

PZLko 428.1 artikulua araberaz, alderdiek –edo beraien defendatzaileek– epailearekin batera finkatuko dute zein gertakariekin dauden ados eta zein gertakariekin ez. Funtzio hau oso garrantzitsutzat jo da, komenigarria delako frogabideak proposatu eta ametitu aurretik froga jarduera zehazki ze gertakari buruz izango den jakitea. Ekonomia prozesalak zera galdetzen du: behar-beharrezkoak diren frogak baino ez praktikatzeari. Alderdiek nahiz epaileak garbi baldin badute zeintzuk diren gertakari eztabaidagarriak, horietara soilik mugatuko da jarduera frogagarria. Honek, noski, suposatzen du epaileak auziaren ezagutza sakona izan behar duela JAE hasten denean, eta behin gertakari eztabaidagarriak finkatuta daudenean benetan pertinateak eta erabilgarriak diren frogak ametitzeko eta ez direnak baztertzeko egoeran egongo dela. Finkatze funtzio hau ez balego, alderdiek ezagutzen dituzten frogabide guztiak proposatzeko eta epaileak proposaturiko guztiak ametitzeko arriskua legoke.

Finkatze funtzio honen bidez zehaztuko dira alegatutako arazo guztien artean benetan garrantzitsuak zeintzuk diren (*thema decidendi*), eta zeintzuk diren benetan elementu faktiko garrantzitsuak

eta frogaren beharrea daudenak (*thema probandi*). Finkatze funtzio honen ondorioz, alderdiek ere garbi izango dute zein den auziaren konplexutasuna eta bakoitzaren aukerak gauzatzeko ahalbidea. Horregatik, Legeak aipamen berezia egiten du alderdiak adiskidetze edo akordio batera irits daitezzen memento honetan (PZL 428.2 art.). Dena den, hau beste puntu bateko aztergaia izan da.

Finkatze jardun honen ondorioz, gerta daiteke alderdiak gertakari guztiei buruz ados egotea. Gertakariak ez badira eztabaidatzen, horrek esan nahi du ez dagoela froga fasearen beharrik, alderdien arteko eztabaida arazo juridikoetara mugatuz. Honen guztiaren ondorio logikoa zera izango da: JAE amaitu eta hogeí eguneko epean epaia emango duela epaileak (PZL 428.3 art.). Beraz, ez da beharrezkoa froga proposamenerako JAERekin jarraitzea, eta are gutxiago judizioa burutzea. Hala ere, gertakari buruzko adostasuna ez da posible izango prozesuaren objektua den gaia alderdien xedatzeko ahalmenetik kanpo baldin badago (PZL 281.3 art.). Horrela gertatzen da IV. Liburuko I. Tituluko prozesu berezietan (gaitasuna, filiazio, ezkontza eta adingabeei buruzkoak), PZLko 752. artikulua araberá.

3.5.Frogaren proposamena eta onarpena

JAERen funtzio berri baten aurrean gaude. "Agerraldi" zaharrea ez zen horrelakorik jasotzen. Lege berria aurreproiektu egoeran zegoenean ere ez zen eduki konkretu hau entzunaldiaren funtzio bezala jasotzen. Sartze hau lege-proiektuarekin batera egin zen. Autore ugarien iritziz, funtzio berri hau JAERen arrakastaren berma izan daiteke, alderdientzat eta beren abokatuentzat JAERen azaltzeko nahitaezko beharra suposatzen baitu. Gainera, agertze hutsa ez da nahikoa izango. Froga proposatu behar denez, beharrezkoa izango da abokatuak auziaren ezagutza sakonarekin agertzea, eta gauza bera esan behar da epaileari dagokionez (ALONSO-CUEVILLAS).

Horrela dio PZLko 429.1 artikulua: auzia amaitzeko alderdien artean akordiorik ez balego, eta gertakari buruzko adostasunik ere ez, entzunaldiak aurrera egingo du froga proposatu eta onartzeko. Artikulu honek ez du esaten, ordea, nola egingo den frogaren proposamen hau. Zentzuduna da, frogari buruzko arauak orokorrak direlako judizio mota guztietarako. Horregatik, PZLko 284. artikulura jo beharko dugu. Bertan esaten da froga proposamena "*banandurik aipatur*" egingo dela; badirudi legegileak egitura zaharrea pentsatuz erabili dituela hitz horiek, hau da, proposamena idatziz egiten zen garaian, eta ez ahoz. Bestetik, esan behar da frogari buruzko funtzio hau orain ez dela alderdien borondatepean egongo, "agerraldi" zaharrea bezala. PZL zaharrea alderdiek eskatu behar zuten frogaldiari hasiera emateko (PZL 693 art.). Honek esan nahi du Lege berriaren araberá epaileak aztertu behar duela frogaldiaren beharra, eta baiezkoa baderitzo besterik gabe helburu horrekin jarraituko duela JAER.

Berrikuntzetatik irten gabe, zera dio artikulua eta epigrafe berdinen bigarren paragrafoak: epailearen ustez alderdiek proposaturiko froga bideak ez balira eztabaidagarriak diren gertakariak argitzeko nahikoak, horrela adieraziko diela alderdiei, azalduz gutxiegitasun frogagarri horrek ze gertakarietan izan dezakeen eragina. Eta Legea ez da hemen gelditzen, ondoren honako hau gehitzen baitu: epaileak egokiak diren frogabideak adieraz diezazkiekeela. Aipaturiko paragrafoak komentario batzuk merezi ditu. Hartzen duen soluzioa uler daiteke printzipio publikoa edo soziala jarraitzen duen sistema prozesal batean; hau da, prozesua ez da alderdien esku dagoen zerbait, eta beraz ez dute xedatzeko ahalmen osoa; prozesuaren garapenean interes publiko bat dago, nahiz eta bertan eztabaidatzen den interesa pribatua izan. 50. hamarkadan aipaturiko publikotasuna edo sozializazioa Europan zehar hedatzen hasi ziren, eta ondorioz epailearen ahalmenak ugartu eta indartu egin ziren.

Hau guztia garbi ikusten da Lege berrian, epaileak adibidez aurrepostu prozesalen azterketa ofizioz egin baitezake. Frogari buruz, berriz, eztabaida ez dago hain garbia. Inolako zalantzarik gabe, gertakariak prozesuan sartzea soilik alderdiei dagokie, printzipio dispositiboaren manifestazio bat baino ez baita. Epailea ofizioz sartze hori onar zitekeen inkisiziozko sistema baten, baina ez dispositiboan. Aldiz, ezin daiteke esan frogabideen proposamena printzipio dispositiboarekin nahitaez lotuta dagoenik (MONTERO AROCA; DÍAZ CABIALE). Beraz, legegilearen erabakia izan daiteke epaileari ahalmen handiagoak edo txikiagoak ematea froga proposatzerakoan, baina bi aukerak balekoak dira sistema dispositiboan. Lege berriaren egilea bigarren aukeraren alde azaldu da, hau da, alderdiei eskusiboki dagokie froga bideak proposatzea, epaileek inizatiba galtzen dutelarik. Esandakoa PZLko 216. artikuluan ikus daiteke, honako hau jasotzen denean: epaile zibilek alderdiek eskainitako gertakari, "froga" eta pretentsioen araberá erabakiko dute auzia. Zentzu berdinean, PZLko 282. artikulua ("*froga jardunaren*

iniziatiba) dio alderdien eskarien arabera praktikatuko direla frogak –interes publikoa dagoen auzietan salbu, hala nola, gaitasun, ezkontza eta abarri buruzko prozesuetan, non epaileak inizatiba frogagarria izango duen–.

Legegilearen aukera “azken eginbideetan” ere nabari da, hau da, “hobeki epaitzeko eginbideak” ordezkatzan dituzten egintzetan. Legeak bere Zioen Adierazpenean dioen bezala, azken eginbide hauek aurrekoekin konparatuz, izaera desberdina dute, eta hau arauketan nabarmentzen da. “Hobeki epaitzeko eginbideak” epaileak ofizioz erabaki baldin bazitzakeen, azken eginbide berriak alderdiak eskatu beharrekoak dira nahitaez. Horrela bada, legegileak aukera hori egin badu, zein da PZLko 429.1.II artikuluan jasotzen den ahalmenaren arrazoia? Gainera, arau hau ez dator Auzitegi Gorenak “hobeki epaitzeko eginbideei” buruz emandako jurisprudentziarekin bat. Jurisprudentzia honen arabera, “hobeki epaitzeko eginbideak” ezin zitezkeen frogaren ikuspegitik alderdien arduragabekeria edo nagikeria konpondu ahal izateko erabili. Hau guztia hankaz gora jarriz, epailearen ustez proposaturiko frogak nahikoak ez badira, alderdiei komenigarriak zeintzuk diren adieraziko die. Egia da epailearen inizatiba hau alderdietako norbaitek bereganatu behar duela hasierako proposamena aldatuz edo osatuz, baina zalantzarik gabe kontraesan bat dago gure ustez artikulua honen eta gainerako frogari buruzko arauketaren artean.

Froga aurreratuari ere egiten zaio aipamenik, laburra bada ere. PZLko 429.4 artikulua dio judizioan praktikatu behar ez diren frogak judizioa baino lehen praktikatuko direla. Hemen ere arau orokorretara igorpen bat egin beharko da, hain zuzen ere PZLko 293-296 artikuluetan jasotzen baita froga aurreratu nola proposatu eta nola praktikatuko den.

Entzunaldian, epaileak, frogak proposatzeaz gain, onartu ere egingo ditu. PZLko 429. artikulua, pertinenteak eta baliagarriak diren frogak onartu ondoren judiziorako data zehaztuko duela dio, baina ez besterik. Beraz, frogari buruzko arau orokorretara jo beharko dugu, bertan argitzen baita frogak noiz diren pertinenteak eta baliagarriak (PZL 283 art.). DAMIÁN MORENOren ustez, epailearen erabakiak ondorio larriak izan ditzake alderdien defentsa eskubidean, batez ere froga ez ametztearen alde azaltzen bada; beraz, egokiago litzateke zalantza kasuan froga proposamena onartzea. Epaileak frogaren onartzeari buruz hartzen duen erabakia erreposizio edo berraztertze-errekurtsoaren bidez aurka daiteke. Errekurtso honek berezitasunak ditu, PZLko 285. artikulua arabera bere bideratzea eta erabakia berehalakoan hartuko baitira, hau da, JAEn. Berraztertze-errekurtsoa ezeztatua bada, interesatuak protestatu egingo du, bigarren auzialdian bere eskubideak egikaritu ahal izateko. Errekurtso honen bideratze eta erabakia modu desberdinetan ulertu izan dira. DAMIÁN MORENOren ustez, berraztertze-errekurtsoa izapidetza erregimen zehatz baten arabera bideratu behar da (PZL 452-454 art.), batez ere idatzizkoa dena, eta, bere iritzian, epaileak lehenbailehen erabaki behar du, baina ez nahitaez berehalakoan. MONTERO AROCAk beste interpretazio bat egiten du: bere ustez, kasu honetan berraztertze-errekurtsoa JAEn bideratu eta erabaki beharko da, hau da, ahoz; eta gainera, ahozko izapidetza hau ebazpena ahoz hartzen den kasu guztietarako (PZL 210. art.) zabaltzearen alde dago.

3.6. Judizioaren data zehaztea

Behin frogak onartuz gero, epaileak judizioaren data zehaztuko du. Judizioa, JAE amaitu eta hilabeteko epean (PZL 429.2 art.) burutu behar izango da. Hala ere, froga guztia edo gehiena epaitegiko egoitza kanpo burutu behar bada, epe hau bi hilabetera luza daiteke, alderdiek hala nahi izanez gero (PZL 429.3 art.). Lehen esan bezala, prozesuaren kontzentrazioa lortzea da Lege berriaren helburuetako bat, eta asmo hau judizioaren data zehazterakoan nabarmentzen da. Praktikatu behar den froga kopurua kontuan izanik, finkatutako egunean judizioa saio batean ez amaitzea aurreikus daiteke. Judizioaren kontzentrazioa ez galtzearen –ez ahaztu ahozkoa izango dela–, aurreko zirkunstantzia ikusirik JAEn finkatuko dira gainerako saioak ospatu behar diren eguna eta ordua (PZL 429.7 art.).

Ikus daitekeenez, JAE amaitu eta judizioa ospatzeko epea laburra da (hilabete bat edo bi). Epe hauek errespetatuak izan daitezkeen, beharrezkoa izango da bertan burutu beharreko frogak –batez ere pertsonalak– gauzatu egingo direla bermatzea. Adibide bezala, esan behar da JAEn pertsonalki edo prokuradoreen bitartez agertu izan direnek ez dutela espresuki judiziorako deituak izan beharrik, dei hori JAEn egingo baitzaie (PZL 429.6 art.). Honetaz gain, alderdiek JAEn zehaztu beharko dute ea beraiek arduratuko diren lekukoak eta adituak judiziora eramateaz, edo nahiago ote duten dei horiek epaitegian

bidez egitea. Azken kasu honetan, deia JAEn erabakiko da (PZL 429.5.I art.). Memento berean, alderdiek adierazi beharko dute ea deklarazio edo itaunketak laguntza judizialaren bidez burutu behar diren –PZLko 169. artikulua arabera, batez ere jardunak epaitegiaren epai barrutitik edo egoitzatik kanpo burutu behar direnean–. Epailea laguntza judiziala eskatzearen alde azaltzen bada, dagozkion exhertoak bidaliko ditu. Hala ere, eta laguntza judizialaren eskaera judizioa atzeratzeko asmoarekin erabil ez dadin, Legeak dio exhertoa ez bada judizioari hasiera emateko epean betetzen, hau ez dela esekiko (PZL 429.5.II art.).

Funtzio honi –eta lanari– amaiera emateko, esan behar da hainbat kasutan, frogabide onartuak egon arren, ez dela beharrezkoa izango judizioa egitea. Horrela gerta daiteke onartutako frogabide bakarra dokumentuak direnean eta inork ez badu hauen benetakotasuna aurkatu, edo, adituen txostenak izanik, ez alderdiek ez epaileak ez badute judizioan bere txostena berrestetik eskatu. Aipaturiko kasu hauetan, epaileak epaia judizioa egin gabe eman ahal izango du, JAE amaitu eta hogeitaseko epean.

Bibliografia

OHARRA: Bibliografia zerrenda honetan lana egiteko erabili dugun materiala azalduko dugu. Liburu eta artikulua batzuk “agerraldi” zaharrari buruzkoak dira. Zerrenda honetan azaltzearen arrazoia justifikatua dago, JAE berriari jasotzen diren funtzio eta ezaugarri gehienak “agerraldi” hartan ematen baitziren. Lan batzuk sakonak dira eta lagungarri izan daitezke JAE berria ulertzeko eta dagoeneko eman den jurisprudentzia ezagutzeko –neurri handi batean erabilgarria baita JAerako–.

1984ko “agerraldiari” buruz

ALMAGRO NOSETE, J. *Comentarios a la reforma de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, (CORTÉS DOMÍNGUEZ Koord.), Madril: Tecnos, 1985.

ALONSO-CUEVILLAS Y SAYROL, J. *La comparecencia preparatoria del juicio de menor cuantía*, Bartzelona: Bosch, 1992.

BONET NAVARRO, A. *La comparecencia del juicio de menor cuantía*, Bartzelona: Bosch, 1988.

DÍAZ CABIALE, J.A. *Principios de aportación de parte y acusatorio: la imparcialidad del juez*, Granada: Comares, 1996.

FAIRÉN GUILLÉN, V. *Panorama crítico del proceso civil español (1938-1998)*, Madril: Civitas, 1998. Autore hau da gaiari buruz gehien arduratu eta idatzi duena. Liburu honetan aurki daitezke bere gainerako lanen erreferentziak.

GÓMEZ ORBANEJA, E. *Comentarios a la reforma de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, (CORTÉS DOMÍNGUEZ Koord.), Madril: Tecnos, 1985.

MUÑOZ SABATÉ, L. “Informe sobre el estado de la Justicia en Cataluña”, In: *Estudios de práctica procesal*, Bartzelona: Bosch, 1987.

PASTOR LÓPEZ, M. “Orígenes, desarrollo y alcance de la Ley de Enjuiciamiento Civil”, In: *Jornadas sobre la reforma de la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: CGPJ, 1985.

PRIETO-CASTRO Y FERRÁNDIZ, L. *Tratado de Derecho Procesal Civil*, Iruña: Aranzadi, 1985.

SERRA DOMÍNGUEZ, M. “Notas sobre la situación actual en el ámbito de la Administración de Justicia en el ámbito procesal civil”, In: *Justicia*, 1985, 1. zkia.

1/2000 Legeko JAeri buruz

ALONSO-CUEVILLAS Y SAYROL, J. “La comparecencia preparatoria del futuro proceso civil”, In: *Presente y futuro del proceso civil*, (PICÓ I JUNOY, Zuzen.), Bartzelona: Bosch, 1998.

ALONSO-CUEVILLAS Y SAYROL, J. “La audiencia previa al juicio”, In: *Instituciones del nuevo proceso civil (Comentarios sistemáticos a la Ley 1/2000)*, (ALONSO-CUEVILLAS, Koord.), Bartzelona: Dijusa, 2000.

ARAGONESES MARTÍNEZ, S. *Los procesos declarativos ordinarios (Procesos ordinarios y sus especialidades)*, Madrid: La Ley, 2000.

CORTÉS DOMÍNGUEZ, V. *Derecho Procesal Civil. Parte general*, (GIMENO SENDRA/MORENO CATENA), 3. ed., Madrid: Colex, 2000.

DAMIÁN MORENO, J. *La nueva Ley de Enjuiciamiento Civil. Tomo II. Los procesos ordinarios. Las medidas cautelares*, (CORTÉS/MORENO, Koord.), Madrid: Tecnos, 2000.

FAIRÉN GUILLÉN, V. *La audiencia previa. Consideraciones teórico-prácticas*, Madrid: Civitas, 2000.

GASCÓN INCHAUSTI, F. *La acumulación de acciones y de procesos en el proceso civil*, Madrid: La Ley, 2000.

LORCA NAVARRETE, A.M. "La fase intermedia de audiencia de las partes del juicio ordinario que regula la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *La Ley*, 2000, 4985. zkia.

MONTERO AROCA, J. *Derecho Jurisdiccional. II. Proceso Civil*, (GÓMEZ COLOMER/MONTÓN REDONDO/BARONA VILAR), 9. ed., Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000.

Prozesu monitorioa

Juan-Luis GÓMEZ COLOMER*

1. Prozesu monitorioa eta kredituaren babes prozesala

Prozedura Zibileko Legeko (aurrerantzean, PZL) IV. Liburuko azken Tituluak, agiri bat existitzeagatik diru kopuru bat ordaindu beharrean oinarritzen diren prozesuak arautzen ditu. Agiri horrek kasu batzuetan ez du hain itxura juridiko garbia izango, baina behintzat aski izango da (prozesu monitorioa), eta beste batzuetan, legalki babestua egongo da (kanbio letren prozesua).

Bi prozesuen helburua berdina da: kredituari babes pribilegiatua eskaintzea, bai PZLak aurreikusten dituen judizio deklaratio arrunten edo hitzezkoen mekanismo normalak nahikoak ez direlako (nahitaezko exekuzioa, behin-behineko exekuzioa, kautelazko neurriak), bai beste xede batzuetarako aurreikusten diren babesak erabiltzeko aukerarik ez dagoelako (akordio sozialen inpugnazioa, jabetza berezien babesa –intelektuala edo industrial adibidez–, etab.). Bien atzean, morositate edo berankortasunak sortzen duen kezka soziala dago, herrialdeen garapen ekonomiko egokiari (barne merkatuari) eragin diezaiokelako, eta nazioarteari ere bai, arrisku ekonomikoak nazioarteko trafiko juridiko-merkatalean ez lituzkeelako nazionalean baino arrisku gehiago sortu behar.

Horregatik, hurbilen daukagun eremu ekonomikoari dagokionez, Europar Batasunak esku-hartze prozesal komun eta egoki bat exigitzen du ordainketa jaso ez dutenentzat (Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/35/CE Direktiba, 2000ko ekainaren 29koa, operazio komertzialetako berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituenen. Espainian, 2002ko abuztuaren 8a baino lehen trasposatu beharko da, 6.1, I artikulua araberan).

Ezin da esan PZL guztia Zuzenbide pribatuan –hau da, jabetza eskubidean eta kreditu eskubideetan– oinarritutako pretentsio edo uziak asetzeko aurreikusita dagoenik, zeren badira jabetza edo kreditua babesten ez duten eta ezin duten beste pretentsio zibil batzuk ere; hala nola, harreman familiarrei edo paterno-filialen ingurukoak edota pertsonen ohoreari eragiten diotenak, nahiz eta kasu hauetako askok zerikusia izan dezaketen jabetza eta kredituarekin.

Baina argi dagoena da legegileak, bi prozesu hauen bidez, bide zehatz batzuk aurreikusi nahi izan dituela –bide arruntak baino askoz hobekak– kreditu zehatz batzuei erantzun judizial azkar bat emateko, eta benetan eraginkorra izango den babes juridikozional bat bermatzeko (Konstituzio Espainiarreko –aurrerantzean KE– 24.1 art). Hori, izapideak azkar egiteak ematen duen segurtasunagatik egin du batik batik, trafiko juridiko-merkatalak ordaindu ez zaion hartzekodunari bere ondarea lehenbailehen itzul dakiola exigitzen duelako. Hain zuzen ere agiri partikularrak daudelako, eremu ekonomikoak dira neurri horiek aplikatzeko alorrik egokienak.

Azter dezagun aukera horien arteko lehena. Prozesu monitorioa, aurrez prozesu arruntik ospatu beharrik gabe eta azkar batean titulu exekutibo bat sortzeko tresna bat da. Horretarako, aski da alderdi interesatuak epailearen aurrean diruzko zor bentzitu likido eta galdagarri bat dagoela akreditatzen duen agiri bat aurkeztea. PZL 812-818 artikuluetan arautzen da.

* Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Universitat Jaume I de Castelló.

Monitorio adjektiboa “monizio” hitzetik dator. Hitz honek autoritate (judizial) batek egiten duen ohararazpen edo intimazioa esan nahi du –mehatxatu egiten du: “ordaintzen ez baldin baduzu, exekutatu egingo dut”–, eta hori jasotzen duen agiria ere bai. Denborarekin, babes prozesal mota honi eta prozesu dokumentalari esanahi berdina eman zaie, baina baliokidetzat hori ez da guztiz zuzena, zeren eta prozesu dokumentalen inguruan –hau da, agiri bat aurkeztearen menpe dauden prozesuen inguruan– gure PZLak beste prozesu asko aurreikusten ditu (adibidez, kanbio letrena), eta prozesu arrunta edota hitzezkoa ere prozesu dokumentalak direla esan liteke (249 eta 250. artikulua). Are gehiago: teoriarik posible izango litzateke –nahiz eta gaur egun ez den egiten– prozesu monitorio bat hartzekodunaren esanetan, lekukoaren adierazpenetan edota perituen iritzietan bakarrik oinarrituz hastea, baina gure sistemak, zuzen jokatzuz, agiritan oinarritutako prozesu monitorioaren aldeko aukera egin du, aurrerago aipatuko ditugun herrialdeek bezala.

Praktikan ikus daitekeenez, agiri batzuk ez dira titulu exekutibo, berme batzuk falta zaizkielako (normalean, beren egiazkotasuna akreditatzen duten fedatario publikorik ez egoteagatik), baina hala ere fede minimo bat aitortzen zaie, eguneroko trafiko ekonomikoan guztiz ohikoak diren kreditu eta zorrei dagozkielako (adibidez, profesionalen edo enpresari txiki edo ertainen hainbat faktura; hala nola iturgin, pintore, mekaniko, dendari edota liburu-saltzaileen erosketa-albaranak, edo salgaien entregarenak, edota egindako lan eta zerbitzuengatik sendagileek, arkitektoek, informatikoez eta abar ezarritako minutak). Alegia, benetako zorraz identifikatzen dituzte, berezitasun batekin: oso garrantzi handia dutela herrialdearen ekonomian.

Hain zuzen ere diruzko kreditu likido horien hartzekoduneri babes azkar eta eraginkor bat emateko sortzen da prozesu monitorioa, agiri horiek behar bezala justifikatzen dituzten prestazio eta zenbatekoak edozein arrazoiengatik ordaindu ez dituzten zordunen aurka (PZL XIX, 6. Zioen Adierazpena).

Babes hori lortzeko modu teknikoak –aurrez organo jurisdikzional batek ez duelako eskubide hori modu arruntean deklaratu (baina bada nolabaiteko kogniziorik, ordea; ikus *infra*)–, ahalik eta modurik diligenteenean titulu exekutibo bat sortzean datza, batez ere zorduna aurka ez dagoen kasuetan –eta ugariak dira kasu horiek– balioko duena. Behin titulu hori sortuta, nahitaezko exekuzioa ireki ahal izango da, zeren eta gure sisteman ezinezkoa da esku-hartze judizialik gabe berehalako exekutibitatea lortzea.

Kontua da PZL berria onartu arte ez zekitela oso ondo hori nola egin. Prozesu monitorioa zehazki zer zen ere ez zekiten. Zuzenbide konparatuan, gainera, eredu gisa balio zuten araudietan, oso desberdintasun handiak ikusten ziren, eta horrek, noski, zaildu egiten zuen egoera.

2. Izaera eta aurrekari historikoak

Ez dago oso argi zein den prozesu monitorioaren izaera: prozesu deklaratioberezi bat, edota prozesu exekutibo bat. Legegilearentzat, prozesu deklaratioberezi bat da, eta hala dio PZLak (IV. Liburua), baina hori ez da arrazoi nahikoa halakoa dela esateko. Benetan aztertu beharrekoa, prozesu monitorioa osatzen duten bi faseak dira, fase bakoitzak irizpide desberdinei jarraitzen dielako:

1) Gure iritzian, titulua sortu bitarteko lehenengo fasea, prozesu deklaratioberezi bat da, titulu exekutiboa sortu baino lehen aurretiazko deklarazio bat behar delako, aurkeztutako agiriaren baliozkotasun eta eraginkortasuna frogatuko dituen ebazpen judizial bat emanez eta titulu exekutibo bihurtuz. Horrela eman ahal izango zaio hasiera exekuzioari (PZL 814 eta 815. art.).

Beraz, funtzio kognoszitibo bat dago titulu exekutibo bat prestatzeko. Epaileak agiria aztertu eta gainerako betebeharrak legal guztiak betetzen ote dituen ikusi behar du, eta ondoren demandaren (eskariaren) zordunari helarazi behar dio. Hori, prozesalki esanda, ezagutzea da.

Beraz, oker dabilta prozesu honetan fase deklaratorik ez dagoela diotenak, zeren eta hartzekodunak titulu exekutibo bat lortzeko eskubidea aurrez deklaratu behar da, epaileak ezin duelako sortu. Prozesu deklaratioberezi arruntarekiko daukan desberdintasun bakarra da –eta horregatik da prozesu deklaratioberezi bat– bere bitartez ezagutzen den objektuak (pretentsio monitorioak) hasierako fase honetan ez daukala oposizioko tramiterik, titulua eskuratuz gero ez dagoela kontradikziorik. Kontua ez da kontradikzioa bertan behera uzten denik, baizik eta prozesu monitorioko xedapenak indar guztiz aplikatzeko ezin duela kontradikziorik egon. Legean aurreikusita dagoen kontradikzio tramitea erabiltzen baldin bada, prozesuaren izaera aldatu egiten da.

2) Bigarren faseak, eraldatzeko bi aukera dauzka, eta bi aukeretan aldatu egiten da izaera; hau da, prozesu monitorioak utzi egiten dio prozesu deklaratio berezia izateari. Hala ere, lehenengoak bakarrik eragiten dio prozesuari:

- a) Agiriaren oinarria eta demandatuaren jarrera aztertu ostean, hau agertzen ez baldin bada –demandatuaren "ihes egite" material honek, agertu eta ez ordaintzea bezala, exekuzioa agintzera darama (PZL 816.1 art.)–, exekuzioaren izaera hartzen du, berezia hau ere, xehetasunez ikusiko dugun bezala. Hauxe da judizio monitorioaren prozeduraren jarraipen naturala.
- b) Zorduna ez baldin badago hartzekodunaren pretentsio monitorioarekin ados, eta aurka jartzen baldin bada –hau da, uko egiten baldin badio agirien bidez justifikatu eta erreklamaturako zorra ordaintzeari–, monitorioko lehen faseko prozesu deklaratio berezia prozesu arrunt bilakatuko da, eta PZL 818. artikuluko zehaztasunekin jarraitu du.

Hemen ez gaude benetako monitorioaren aurrean, legegileak kredituari babes berezia emateari uztea erabaki duelako, eta oposizioa babes orokor baten bidez bideratzen duelako. Oposizioaren aurrean, zeleritateak atzera egiten du, zentzugabea baita berehala titulu bat sortzea, eztabaida juridikoa sortuko dela ikusirik. Horregatik, hobe da egoera prozesal normaletara itzultzea. Hain zuzen hori da tradizionalki gure eredu juridiko izan diren herrialdeek erabili duten teknika.

Ondorioz, prozesu monitorioak izaera mistoa du. Lehen fase batean prozesu deklaratio berezi bat da, eta bigarrenean, bere helburuak betez gero, prozesu exekutibo berezi bat.

Prozesu monitorio espainiarra hobeto ulertzeko, aurrekariei eta gure inguru kulturalako herrialdeetako Zuzenbideari buruz ohar batzuk egitea komeni da.

Ikuspegi historikotik lehenik eta behin esan behar dena da prozesu monitorioa aspaldikoa dela. Izan ere, XIV. mendeko Italia estatutarioan sortu zen, eragin kanonikoaren pean, merkataritzaren beharrei aurre egiteko titulu exekutiboak (*mandatum* edo *praeceptum de solvendo cum clausula iustificativa*) lehenbailehen sortzeko, luzeegiak izaten baitziren *solemnis ordo iudiciarius* edo prozesu zibil arruntak. Epaiketa sumario exekutiboaren osagarri bat ziren. Berrikuntza honen eraginkortasuna ikusirik, azkar hedatu zen European barna, batik bat lurralde germanikoetan zehar.

Espainiari dagokionez, XV-XVIII. mendeetako iturri legalek ez dute prozesu monitorio italiar hori jasotzen, eta garaiko literaturak ere ez, XVI. mendearen bukaera eta XVII.aren hasierara arte. Tomás y Valienteren esanetan, existitzekotan, legez kanpoko praktika bat izango zen (*preceptum de solvendo*), epaiketa sumario exekutiboaren korrupzela gisa. Horregatik ez zen Kodifikazioan jaso, gaizki ulertu zutelako prozedura monitorioa zer zen, eta 1853ko Geronako Markesaren Instrukzioak eta 1855eko PZLak debekatu egin zuten.

Beraz, prozesu monitorioa ez da PZL XIX, 1 eta 3. Zioen Adierazpenak aditzera ematen duen bezain berria. Gainera, doktrina espainiarra azken aldia behin eta berriro ari zen behingoz arautu zedila eskatzen. Hala ere, prozesu monitorioa araudian berriz sartu izanaren –berriz sartu dela esan badaiteke, behintzat– arrazoi nagusia, Zuzenbide konparatua da; izan ere, Alemania (*Mahnverfahren*), Italia (*procedimento d'ingiunzione*) edo Frantziak (*procédure d'injonction*), besteak beste, garrantzi juridiko handiko herrialdeek, prozesu monitorioa aurreikusten dute beren instituzioen artean, kredituari babes berezia emateko tresna prozesal gisa.

Gure legerian eragin handiena duen herrialdea Alemania da, zalantzarik gabe. Baina monitorio espainiarra ez da alemaniarra, hango prozesu zibil monitorioa prozesu zibil berezi bat delako: alderdi interesatuak (hartzekodunak), bere legitimazioa justifikatu beharrik gabe, eta agiririk ere behar ez duela, ordaintzeko agindu bat (ziurtagiri monitorioa) eskuratu nahi du. Kontradikziorik sortzen ez bada, idazkari judizial moduko bati –ez baita epailearen eskuduntza– eska diezaioke exekuzio ziurtagiria, dagokion titulu exekutiboa, aurrez demanda formulatuz prozesu arrunt batera jo beharrik gabe (ZPO 688-703d, VII. Liburua). Beraz, exekuzioa atxikita daraman ebazpen judizial bat lortzeko prozesu bat da, aurrez zordunak erreakzionatu ez izanagatik. Kasuotan pretentsioek ez dute gatazkarik sortzen, edota zorduna ez da aurka agertzen; alegia, ez dago oposizio eta auzi-ihesik, zeren eta oposiziorik egingo balitz –Alemanian, normalean, zorra ordaindu ahal izateko denbora irabazteko aurreikusten da–, prozesu berezia amaitu egingo litzateke, eta prozesu arrunt bati emango litzaioke hasiera.

3. Objektua eta ezaugarriak

Prozesu monitorioa bereziki egokia da diruzko zor bentzitu eta galdagarri baten ordainketa exigitzeko pretentsioak babesteko, Legearen arabera agiriaren bidez justifikatua dagoena, eta ez dena 5.000.000 pezeta (PZL 812.1 art.) edo 30.000 euro baino gehiagokoa (PZL 2.2 xedapen gehigarria). Muga ekonomiko hau bertan behera geldituko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/35/CE Direktibaren transposizioaren Lege espainiarra indarrean sartzean –lehen aipatu duguna–, babes prozesal berezi hau, zorraren zenbatekoa edozein dela ere, prozesu honetan eman beharko baita (5.1 art.).

Bere *objektua*, beraz, pretentsio monitorioa da, eta zera eskatzen da: epaileak titulu exekutibo bihur dezala aurkezten zaion agiria. Horrela, organo jurisdikzionalak hartzekodunaren eskubidea deklaratzeko, zorraren ordainketa judizialki exigitu ahal izateko titulu exekutiboa emango dio.

Legegilea honako kontsiderazio hauetan oinarritu da prozesu hau Espainian sartzeko: “... *Punto clave de este proceso es que con la solicitud se aporten documentos de los que resulte una buena apariencia jurídica de la deuda. La ley establece casos generales y otros concretos y típicos. Es de señalar que la eficacia de los documentos en el proceso monitorio se complementa armónicamente con el reforzamiento de la eficacia de los genuinos títulos ejecutivos extrajudiciales.*

Si se trata de los documentos que la ley misma considera base de aquella apariencia o si el tribunal así lo entiende, quien aparezca como deudor es inmediatamente colocado ante la opción de pagar o 'dar razones', de suerte que si el deudor no comparece o no se opone, está suficientemente justificado despachar ejecución, como se dispone. En cambio, si se "dan razones", es decir, si el deudor se opone, su discrepancia con el demandante se sustancia por los cauces procesales del juicio verbal, según la cuantía de la deuda reclamada...” (PZL XIX, 7 eta 8. Zioen Adierazpena).

Aipaturikotik, honako ezaugarriak eratorritzen dira:

1) Batetik, kredituari ikuspegi prozesualtik babes pribilegiatu bat eskaintzeko tresna bat da, zenbait agiri –kualifikatu gabeak, hots, behar adina berme eduki ez arren baliozko direnak (itxura juridiko onekoak)– prozedura azkar baten bidez judizialki berehala betearazteko balio duelako. Prozesu hori, monitorioa da.

Agiri horiek PZL 812. artikuluan zehazten dira, *numerus apertus* gisa; beraz, hasiera batean edozein agiri da baliozko, ez bakarrik ohiko faktura edo albaranak. Nolanahi ere, merkataritzako edo arlo zibileko usadioak hartu beharko dira kontuan. Zordunaren sinadurarik nahiz autentikaziorik ere ez da behar (ikus PZL 812.1-1 art.), hartzekodunak unilateralki Legearen edo ohituraren arabera sortutakoak ere baliozkoak direlako (PZL 812.1-2 art.), eta baita sinadurarik ez daramaten merkataritzako agiriak ere (PZL 812.2 art.).

Zordunaren sinadura beharrezko ez izateak arazo handiak sor ditzake, gure tradizioa aldatu egiten duelako; izan ere, bere egiazkotasuna kontrolatzeko mekanismoak erabiltzen ohituta gaude. Sinadura beharrezkoa ez izatean, zordunari ezin izango zaio errekonozitu dezala eskatu, eta ezezkoa ematen duenean edota faltsukeria alegatzen duenean ezin izango da sinatu dituen eta zalantzarik sortzen ez duten beste agiriekin erkatu –agiri publikoen kasuan ez da erraza izango, artxiboetan bakarrik egoten direlako–, edo, azken aukera bezala, froga perizial kaligrafikora jo.

2) Prozesu monitorioaren bigarren ezaugarria, zordunaren berehalako entzunaldirik ez dagoela da, beranduagorako uzten delako. PZLak ez du demandatuak ez ordaintzeagatik epaileak zuzenean epai kondenatzailea emateko aukera aurreikusten, baizik eta zordun demandatua aurka agertzekotan prozedura berezia arrunt bihurtzeko aukera (PZL 818 art.), eta agertzen ez bada zuzenean exekuzioan sartzekoa (PZL 816 art.). Prozesu monitorioak zentzu hertsian irabazi egiten baldin bada –alegia, titulua sortzen bada, eta nahitaezko exekuzioan sartzen baldin bada–, zordunak kontradikzio eskubidea erabili gabe burutuko da.

Baina kontradikzioa atzeratzeak ez du esan nahi, inondik inora, ezabatuta gelditu denik, baizik eta beranduagorako uzten dela. Beraz, oposatzeko aukera egon badagoenez, ez da Konstituzioko 24.1 artikulua urratzen. Gauza bera gertatzen da kanbio letren prozesuan, edota aurreneurritzko enbargoaren

dekretamenduan. Gogoan izan prozesu zibilean kontradikzio printzipioa berau errekonozitzen eta egikaritzeko aukera ematen betetzen dela, ez errealitatean praktikatu.

3) Zorraren 5.000.000 pezetako gehieneko kopuruari buruz (PZL 812.1 art.), ez daukagu ezer esatekorik. Hala ere, kontuan izan behar da lehen aipatutako Direktiba europarra trasposatzen duen Legea indarrean sartzean muga honek ez duela interesik izango. Kopuru hori batzuentzat handiegia da, eta beste batzuentzat txikiegia, baina legegileak muga bat finkatu behar zuen, agiriekin babes berezia zehazki zein kopurutik aurrera jaso behar zuten zehaztu behar zelako. Hala dio PZL XIX, 10. Zioen Adierazpenak. Gainera, muga bat ezartzeak prozesu monitorioa zorrak erreklamatzeko prozesu bakarra izatea eragozten du, behintzat zor dokumentalei dagokienez. Dena dela, kopuru hori asko igo da izapide parlamentarioan, eta gaur egungo egoera ekonomiko espainiarrerako nahiko kopuru handia da. Beste herrialde batzuek, Alemaniak adibidez, ez dute zenbatekoaren mugarik.

Agiriak, bestetik, diruzko zor bentzitu eta galdagarri bat adierazi behar du (PZL 812.1 art.). Beraz, likidoa eta purua izan behar du, hartzekodunari obligaziorik edo kontraprestaziorik eskatzen ez diona (hala nola, ondasuna oraindik entregatu ez duenean). PZLak, adibidez ZPO alemaniarrekin alderatuz (§ 688, 2. ap., 2), ez du esaten zorra exigitu ahal izateko erreklamatzailerik ez duenik inolako kontraprestaziorik egin behar, ziur aski legegilearen iritzian hori pretentsio monitorioaren oposizioaren alderdi bat delako.

Hartzekodunak, prozesu monitorioari hasiera eman baino lehen, ez dio zordunari ordainketa notarialki, pribatuki edo beste edozein modu frogagarrian eskatu beharrik. Horrela, zordunari kendu egiten zaizkio prozesua ekiditearren judiziotik kanpo ordaintzeko aukera, judiziotik kanpo ordaintetari aurkajartzeko aukera, eta ordaintzen ez baldin badu gero judizialki zein kopuru erreklamatuko zaion jakiteko aukera. Garrantzitsua izango zen azken helburu hau PZLan jaso izatea, zeren eta eskaria tramitera onartu ahal izateko sinaduraren azterketa judiziala egitea beharrezkoa ez den arren, zordunak berehalako izapidea ekidin ahal izango zukeen baldin eta, jakinarazpen haren aurrean, agiriaren egiazkotasuna espresuki ukatu zuela frogatu izan balu. Tamalez, legegileak nahiago izan du ordainketa (PZL 817. art.) eta ordaintetari egindako oposizioa (PZL 818. art.) prozesua hasita dagoenerako arautzea; ez du prozesua hasi baino lehenagorako ere arautu.

Aurrekoaren harian, PZLak aurreikusita dauden kasu guztietara zabaltzea lortuz gero, praktikan garrantzi handia hartuko du prozesu monitorioak. Horretarako, beste erreforma asko egin beharko dira, batez ere organikoak, beste herrialde batzuetan egin diren bezala. Behar bezala funtzionatzen baldin badu, azkenean prozesu dokumental bakarra bihurtuko da, kanbio letra exekutiboa bera ere atzean utziz, eta oso oposizio gutxi egongo dira.

4. Eskuduntza eta prozedura egokia

Eskuduntzari buruzko arauak sinpleak dira hasiera batean, baina horrek ez du esan nahi kasu guztietarako berdinak direnik. Eskuduntza objektiboa Lehen auzialdiko epaileari ematen dio Legeak (PZL 813, I art.), baina bi foru finkatzen ditu eskuduntza lurraldetarrari dagokionez:

1) Lehenik eta behin, zordunaren edo demandatuaren helbide edo bizilekuko Lehen auzialdiko epaileari ematen zaio eskuduntza lurraldetarra (PZL 813, I art.).

2) Ondoren esaten da zordunaren helbide edo bizilekua zein den ez jakitekotan, epaileak zorduna ordainketa eskatzeko aurki dezakeen lekuko Lehen auzialdiko epailea izango dela eskuduna (PZL 813, I art.). Ez da oso esaldi argia, baina epaileak demandatua aurkituko duela ziurtatu nahi du.

Erreklamatu nahi dena higiezin hiritarren jabeen komunitateen gastu komunetako zorrak izatekotan, eskuduntza lurraldetarra izango duen epailea finka dagoen lekukoa izango da, eskatzailearen aukeran (PZL 813, I art. *in fine*).

PZLak eskusibotasunez finkatzen ditu bi foruak; beraz, horri buruz ezin izango da inolako itun espresu edo taziturik egin. Debekatuta daude mendetasun espresu nahiz tazitua (PZL 813, II art.), erreklamatuaren zenbatekoa edozein dela, ez baitago alderantzizkoa dioten araurik.

Eskuduntza zordunaren helbidera bideratzeak kaltetu egin dezake hartzekoduna –normalean bere zerbitzuak kobratu ez dituen enpresari partikular edo txikia izan ohi da–, enpresaren edo negozioaren egoitza soziala beste hiri batean daukanean. Alemanian aurkako irtenbidea finkatu da: hartzekodunaren helbideko epailea da eskuduna, hartzekodunari gauzak gehiago ez korapilatzeko.

Prozedurari dagokionez, bi aukera desberdinu behar dira, *supra* jada aipatu ditugunak prozesu monitorioaren izaera juridikoa aztertzerakoan:

1) Zorduna ez baldin bada aurka jartzen, prozesu monitorioari buruz artikulua honetan zehazten diren arauak aplikatuko dira; alegia, epai judizialak, epaileak titulua sortu ondoren, zuzenean exekutatu dira (PZL XIX, 9. Zioen Adierazpena eta 549 eta hur. art.).

2) Zorduna hartzekodunak eskatzen dion kopurua ordaintzearen aurka jartzen bada, dagokion prozedura prozesu arrunt eta plenario bihurtzen da, eta bere egunean gauza juzgatuaren ondorioa sortuko duen epai baten bidez amaituko da (PZL XIX, 8. Zioen Adierazpena), PZL 818.2 artikulua araberan.

5. Hasierako eskaria eta agiriak

Prozesua, hartzekodunak hasieran egiten duen eskariarekin hasten da (PZL 814.1 art.). PZLak ez du demanda hitza erabili nahi, alde batetik kontradikziorik ez dagoelako eta prozedura oso azkarra delako, eta bestetik oso idazki sinple eta laburra delako, informatizatu egingo dena edota formulario gisa saldu ahal izango dena (PZL 814.1, II art. eta XIX, 7. Zioen Adierazpena), eta, beraz, Justizia Auzitegietan, Epaitegietan nahiz agiri publikoak sal daitezkeen lekuetan eskuratu ahal izango da, estankoetan adibidez. Baina, hala ere, benetako demanda bat izan behar du, demanda delako prozesu deklaratio arrunt eta berezi guztiei hasiera ematen dien idazkia (PZL 399 eta 437 art.).

Demanda (eskari) horretan, hartzekoduna eta zorduna identifikatzeko datuez eta helbidea edo aurki daitezkeen lekuaz gain, zorraren jatorria zein den adierazi behar da; alegia, negozio kausala deskribatu behar da, eta bere zenbateko zehatza zein den esan. Era berean, prozesu monitorioari hasiera ematen dioten agiriak ere aurkeztu behar dira (PZL 814.1, I art.).

Hartzekodunak ez du zordunari zorraren ordainketa judiziotik kanpo exigitu dionik justifikatu behar, ez baita beharrezkoa, ikusi dugun bezala. Arrazoi berdinatik, ez du zordunak agiriaren (faktura, albaran, etab.) egiazkotasuna ukatu ez duela espresuki eta bere erantzukizunpean baieztatu beharrik ere.

Esan behar da prozesu monitorioa eskatu ahal izateko, eta zenbatekoa edozein delarik ere –beraz, 150.000 pezeta edo 900 eurotako kopurua gainditu arren–, ez dela behar ez prokuradorerik (PZL 814.2 art, PZL 23.2-1ekin lotuta), ez abokaturik (PZL 814.2 art., PZL 31.2-1ekin lotuta). Beraz, hartzekoduna eta zorduna beren kabuz ager daitezke, PZL 32. artikuluan adierazitako kasuan salbu.

Oposiziorik ez dagoen kasuetan, tituluaren nahitazeko exekuzioaren faserako beharrezkoa izango da alderdi exekutatuaren postulatze gaitasuna abokatu eta prokuradorearen bidez osatzea, exekutatu denaren zenbatekoa 150.000 pezeta edo 900 euro baino gehiagokoa baldin bada (PZL 539.1, II art.). Zordunaren oposiziorik balego, postulazio prozesalaren gaitasuna profesional horien presentziaren bidez osatu beharko da, zenbatekoa 150.000 pezeta edo 900 euro baino gehiagokoa denean (PZL 818.1, II art.).

Horixe zen indarrean dagoen PZL Parlamentuan izapidatzen ari zenean Abokatuen Elkargoek publikoki egin zuten kritikarik garrantzitsuenetariko bat. Ikusi egin beharko da –oraindik ez baitakigu– praktikan formularioa “betetzea” (PZL 814.1, II art.) beste profesionalen (kudeatzaile administratiboen) esku jarri beharko ote duten herritarrek, dauzkan zailtasunak direla-eta. Formularioa behar bezala ezartzen bada, eta betetzeko erraza baldin bada, kritikak ez du zentzurik izango. Besteak beste Alemanian duten egoera bera izango genuke, han ere formularioak erabiltzen baitira, baina trataera automatizatua emateko, eta Lege espainiarrak ez du hori aurreikusten. Bestetik, Alemanian hasierako tramiterako ez dute abokaturik behar.

Nolanahi ere, prozesuaren hasierako fase honi dagokionez beste galdera garrantzitsu ugari sortzen zaizkigu. Aipa ditugun: hasteko, zorrak metatu eta zatitu ote daitezkeen; bigarren, zein agiri aurkeztu

behar diren; hirugarren, bere izaera dela-eta prozesu monitoriotik kanpo gelditzen den agiririk ba ote dagoen; eta azkenik, demanda monitorioan kautelazko neurriak eskatzerik ba ote dagoen.

1) *Pretentsioen metaketa eta zorraren zatiketa*: Posible al da hartzekodun batek zordun baten aurka dauzkan zor guztiak prozesu monitorio batean metatzea, guztira 5.000.000 pezetako kopurua gainditzen ez bada? Hainbat kasutan abantaila handiak eman ditzakeen arren, gure ustez legegilearen asmoa prozesu monitorio bakoitzean zor bakar bat izapidatzea da. Eta hori ez PZL 812. artikulua zentzu literalagatik bakarrik –bertan singularra erabiltzen da-eta–, baizik eta baita prozedura bera errazteagatik ere, gauzak ez korapilatzeke. Pretentsioak, beraz, ezin dira metatu.

Beste alde batetik, 5.000.000 pezeta baino zor handiagoa prozesu monitorio batean izapidetu ahal izateko bitan edo gehiagotan zatitzea, iruzur prozesal bat egitea izango litzateke gure ustez. Ez dago zorraren zatiketa inolaz ere onartzerik. Hala ere, demandatzaileak formalki soberakina erreklamatzeari uko egingo balio, orduan bai onartu ahal izango litzatekeela, xedapen printzipioa erabili duelako.

2) *Agiri justifikatzaileak*: Demandarekin batera aurkeztu beharreko agiriak, azpiko lau talde hauetan aipatutakoren bat edo batzuk izan daitezke, zorra materialki agertzen dutela –izan ere, ez dago agiri formalik, ez delako beharrezkoa zordunari ordainketa aurrez eskatzea–. PZL 812.1 eta 2 artikuluan zehazten dira, zerrenda irekian:

- a) Zordunak sinatu dituen edota bere zigilu, inpronta, marka edo bere beste edozein seinale fisiko edo elektronikoa daukaten agiriak, edozein forma eta motakoak, eta edozein euskarri fisikokoak (PZL 812.1-1 art.).

Esate baterako, herri bateko liburudenda batek liburuen banatzaile nazionalari 2.445.874 pezetaren (14.700 euro) balioko liburu batzuk bidaltzeko eskatuz igorritako gutuna, prezioa onartzen duela adieraziz.

- b) Demandatzailearen eta demandatuaren artean kredituak eta zorrak ohiki dokumentatzen dituzten agiriak, hartzekodunak unilateralki sortuak izan arren (fakturak, entregarako albaranak, ziurtagiriak, telegramak, telefaxak eta abar) (PZL 812.1-2 art.).

Zerrenda hau *numerus apertus* denez, agiri hauei Internetez edo posta elektronikoz egindako erosketak gehi dakizkieke, eta bereziki sinadura elektronikoa arautu denez geroztik (Sinadura Elektronikoari buruzko 14/1999 ED-Legea, irailaren 17koa).

- c) Hartzekodunaren eta zordunaren arteko harremana aspaldikoa dela frogatzen duten merkataritzako agiriak. Beharrezkoa izango da zorra azaltzen den agiria aurkeztea (PZL 812.2-1 art.).

Esate baterako, garraio kontratua edo hornidura kontratua –non orain liskarrean dauden bi alderdiek beren merkataritzako harremanak denbora luzerako eta sinalagmatikoki konprometitzen zituzten, produktu zehatz batzuetara mugatu arren–, eta baita ordaindu gabeko faktura ere.

- d) Baita ere hirietako higiezinaren jabeen komunitateek gastu komun gisa zor dituzten kopuruak ordaindu ez izanaren ziurtagiriak (PZL 812.2-2 art.).

Atal hau hobeto ulertzen da 8/1999 Legeak, apirilaren 6koak, 1960ko Jabetza Horizontalaren Legeko 21. artikuluan sartu zuen prozesu monitorio berezia kontuan hartuz gero. PZL 1. Azken Xedapenaren arabera, artikulua hori orrialde hauetan zehar ikusten ari garen prozesu monitoriora egokitzeko erreformatu da, baina hala ere prozesu arruntera jotzeko aukera ere ematen du. Jabe berankorren aurrean komunitateak prozesu monitorioa erabiltzen duenean, prozesu honek bi ezaugarri izango ditu: aurreneurritzko enbargoa espresuki baimenduko dela, baldin eta zorduna demanda monitorioaren aurka agertu bada –berehala itzuliko gara gai honetara–, eta kostuak ordaintzera kondenatuko dela (ikus JHL 21.5 eta 6 art., PZL 1. Azken Xedapenak dioen moduan).

3) *Beste izapide prozesal bat aurreikusita daukaten agiriak*: Zalantza bat sor daiteke: PZL 812. artikulua arabera, zor bat adierazten duen edo zor horren berri ematen duen edozein agirik balio al du pretentsio monitorio bat oinarritzeko? Alegia, hasi al daiteke monitorio bat kanbio letra batean, hitzarmen erregulatzaile batean edota kontuen zin batean oinarrituz?

Erantzuna baiezkoa balitz, bi tutela egongo lirateke gai hauetarako, eta kasuren batean bi tutela berezi (adibidez, ezkontza prozesua eta prozesu monitorioa). Baina, inolako zalantzarik gabe, praktikan monitorioa erabiliko litzateke, eta baztertu egingo litzateke bestea. Erantzuna ezezkoa balitz, prozesu monitorioak ez luke edozein zor motarako balioko.

Guri aukera bikoitza ez zaigu egokia iruditzen. Gure ustez, ildo prozesal zehatz bat dagoenean aurreikusita, ildo horri jarraitu beharko zaio, eta ez prozesu monitorioari. Inork esan lezake zor baten hartzekodunak judizio berezia alboratu eta, muntaren arabera, zuzenean prozesu arruntera edo hitzekora jo dezakeela; egia da, baina aukera hau ia beti diru kopuru bat erreklamatzeko den babes pribilegiatueta edota dagokion epaia eman ostean sumarioetan egoten da. Hori ez da kontra egiteko argudio sendo bat, zeren eta babes monitorioa baztertzeko arrazoi nagusia prozesu bereziaren berearen izaeran oinarritzen da; izan ere, plenarioa izanik, Legearen esana eta espiritua urratu egingo lirateke uzia ez balitz zehazki horretarako aurreikusita dagoen ildo jarraituz tramitatuko (kanbio letren prozesua, ezkontzen prozesua). Gauza bera exekuzio berezietan dagokienez (kontuen zina). Horrela, babes prozesal pribilegiatuak espezifikoki aurreikusita dagoen ildo jarraituko du, eta ez besterik.

4) *Kautelazko neurriak*: Azkenik, beste zalantza bat sortzen da: demanda monitorioan diru kopuru bat eskatzeko egokienak diren kautelazko neurriak eska ote daitezkeen (hala nola aurreneurritzko enbargoa, gauza higigarrien gordailua, edota egoki jotzen den beste edozein), PZL 726 eta 727 artikuluen arabera. Izan ere, baliteke egoki izatea prozesu monitorioan, izugarri prozesu azkarra baita, eta dirudienek beti dago kautelazko neurrien auresupostua den atzerapena sortzeko arriskua (*periculum in mora*).

Baina gure ustez ezin da demanda monitorioaren berebaten edo *otrosí*-en bidez kautelazko neurri bat edo gehiago eskatu. Eskatuko balira, gure iritzian epaileak atzera bota beharko litzuzke. JHLko 21. artikulua –PZL 1. Azken Xedapenak adierazitako moduan– aurreneurritzko enbargoa espresuki aipatzea gauza desberdina da, zeren eta azken hau zorduna hasierako eskariari aurka jartzen zaionean eskatu eta akorda daiteke; hau da, monitorioaren prozedura, muntaren arabera, epaiketa arrunta edota hitzezkoa bihurtzen denean. Beraz, ez da onartzen hasieran, demandarekin, eskatzerik.

Ez da posible, hain zuzen ere formazko eta fondoko arrazoiengatik. Formalki, zeren eta Legean aurreikusitako izapide guztiak betez gero prozesu monitorioa hain azkarra izango litzateke, atzerapenaren arriskua ez litzatekeela kontuan hartu ere egingo. Demandaren eta exekuzioa agintzen duen autoaren artean, neurria eskatzearen eta onespina ematearen artean baino tarte laburragoak egon behar du, batez ere demandatuari audientzia ematen bazaio (ikus PZL 733. art.). Praktikan ez baldin bada aurreikuspen hau betetzen, ziurrenik kautelazko prozedura ez da behar bezala aplikatuko, baina hori ez da nahikoa kasu hauetan kautelazko neurri zehatz bat eskatu ahal izango dela esateko.

Materiarki, aurkako arrazoiak askoz ere zama handiagoa du. Demanda monitorioaren helburua, zorrak titulu exekutibo bat sortzea da, ez betetzekotan zuzenean exekutatu ahal izango dena; beraz, enbargo exekutibo bat izango litzateke. Baina enbargo hori egin baino lehen kautelazko neurri gisa tramitazio batean sartzeak zentzua kenduko lioke esfortzu horri, berehala exekuzioa etorriko litzatekeelako.

6. Prozeduraren arauak

Hemendik aurrera, eskariaren onarpenari, ordainketaren errekerimenduari eta demandatuaren jarrera posibleei buruzko prozedurazko arau garrantzitsu batzuk aztertu behar ditugu. Hortxe hartzen du garrantzia epaiketa monitorio zibilaren arauketak, eta, zalantzarik gabe, praktikan duen aplikazioaren araberkoa izango da bere arrakasta edo porrota.

Demanda tramitera onartu eta gero izango du zordunak demanda monitorioaren berri. Onarpen hori epaileak emango du, oinarritzko auresupostu prozesal bat betetzen duela kontrolatuz: aurkeztutako agiria PZL 812. artikuluan aipatutako bat izatea. Baldintza hori betetzen ote den ofizioz ikustearekin batera, munta Legeak finkatutako bera edo txikiagoa dela ere egiaztatu beharko du.

Kontuan izan behar da demandarekin batera aurkeztu den agiria dela epaiketa monitorioaren existentzia bera baldintzatzen duen auresupostu prozesala. Legegileak agiri hori harreman juridiko

material baten eta zorraren existentziaren itxura ematen duelako onartuko du, baina prozesuaren ikuspegitik, aurrepostu baten aurrean gaude. Beraz, kontua ez da agiriak eskubide subjektibo materiala “frogatzen” duen edo ez erabakitzea, baizik eta formalki egokia den edo ez ikustea.

Prozesu monitorio honetan ez dago baimentzen diren agirien zerrenda itxi bat; horregatik, PZL 815.1 artikulua dio epaileak agiria edo agiriak “*eskatzailearen eskubidearen froga hastapen bat*” ote diren kontrolatuko duela. Hala ere, horrek ez du esan nahi epaileak agiri horietatik eskubide horren existentziaren frogarik eratorzen ote den aztertu behar duenik. Prozesu monitorioan ez dago frogari buruz zentzu hertsian hitz egiterik, eta kanbio letren judizioan ere ez, agiriak ez duelako frogabide gisa balio, baizik eta demanda onartzeko aurrepostu prozesal gisa.

Alegia, demanda edo eskaria onartuko da baldin eta, adibidez, itxuraz ondo dagoen faktura bat ere aurkezten baldin bada, bertan lan batzuk deskribatzen direla, enpresaren eta baimena ematen duen pertsonaren idazpurua, zigilua eta sinadura dauzkala, eta zor den diru kopurua adierazten dela, 5.000.000 pezetakoa (30.000 euro inguru) edo gutxiagokoa izanik. Kontuan izan arau honen arabera epaileak hasieran legitimazioaren aurrepostua ere betetzen dela ikusi behar duela.

PZLak espresuki esaten ez duen arren, arrazoi gehiago daude demanda monitorioa ez onartzeko. Adibidez, ikuspegi formaletik, epailearen eskuduntza gabezia lurraldetarra (ikus PZL 813. art.), edota idazkia, informatizatua izan arren, ez izatea PZL 814. artikulua arabera prozesu honi dagokion –kontuan izan formulario eta trataera automatizatua izateak ez duela esan nahi prozedurak automatikoki egingo duenik aurrera, Alemanian bezala–. Esandakoaren arabera, auzi-jartzaileak kautelazko neurri bat eskatuz egindako eskaria ere atzera bota behar da, noski.

Tramitera onartzeak esan nahi du epaileak zordun demandatuari ordain dezala eskatzen diola –PZL 161. artikulura eragortzen duen 815.1 artikuluan adierazi bezala–. Hogei eguneko epea ematen dio hartzekodunarekiko duen zorra organo jurisdikzionalaren aurrean akreditatuz ordaintzeko, edota aurkeztu eta aurka jartzeko, zor osoa edo zati bat ez ordaintzeko dauzkan arrazoiak labur alegatzen dituen idazki bat aurkeztuz (PZL 815.1 art.).

PZLak baztertu egin ditu errekerimenduen zorrotasun formalak sortzen zituen arazo praktikoak, eta komunikazioa ebazpenaren edo zedularen kopia entregatuz egiteko arau orokorrari eragorpen bat egitera mugatu da. Zorduna ez agertzeak dauzkan ondorio larriak ikusita, berme handiagoak exigitu beharko lirarteke, prozesuaren berri badaukala ziurtatzeko.

Higiezin hiritarren jabeen komunitateen gastu komunak diren diru kopuruak erreklamatzeko bakarrik dago arau berezi bat. Arau honen arabera, errekerimendua lehenik eta behin jabeen komunitateari buruzko kontuetarako jakinarazpen eta zitazioak egiteko zordunak aurrez zehaztu duen helbidean jakinaraziko da; helbide hori existituko ez balitz, pisuan edo lokalean; eta, azkenik, horrela jakinaraztea ere posible ez balitz, 164. artikulua dioenaren arabera, ediktuen bidez egingo litzateke (PZL 815.2 art.).

PZLak ez du ezer esaten demanda monitorioa eta bere balizko inpugnazioa tramitatzeko onartzeko edo ez onartzeko eman beharreko ebazpenari buruz. Praktikan, PZL 815. artikuluan oinarrituz, probidentzia erabiltzen da, eduki bikoitza duela: artikulua horretan bertan espresuki aurreikusten dena –hau da, ordainketa errekeritzea–, eta aurrez demanda tramitera onartzea. Gure ustez, ikuspegi hau okerra da, zeren demanda onartzeko edo atzera botatzeko autoa behar da (PZL 206.2-2 art.), eta baita aurrepostu prozesalak faltatzeagatik atzera botatzeko ere (epaileak eskumenik ez duela ikusiz gero, edota munta gehiegizkoa izateagatik prozedura desegokia bada). Horrek eragina du aktoreak egin dezakeen inpugnazioan –ez ostera demandatuak, oraindik ez baitaki demandatua denik eta inpugnatzeko beste aukera batzuk dauzkanik, geroago ikusiko dugun bezala–, zeren eta probidentziaren aurka berraztertze errekurtsioa besterik ezin da tarteratu (PZL 451. art.), ez besterik (ikus PZL 453. art.); autoaren aurka, ordea, apelazio errekurtsioa tartera daiteke (PZL 455.1 art.), eta atzera botatzeko zergatiaren arabera, arau-hauste prozesalagatik errekurtsioa ere tartera liteke (ikus PZL 468 eta 469. art.).

Ordaintzeari uko egiten baldin bazaio, prozedurak aurrera egingo du; prozedura berezia exekutibo bilakatuko da, exekuzioa aginduz (PZL 815.1, II art.).

Baina demandatuak orain arte aipatutako jarrerak baino gehiago izan ditzake. Ikus ditzagun:

1) Prozesutik kanpo ordain dezake: PZLak zorra prozesutik kanpo ordaintzeari buruz deus ez dioen arren –errekerimendu judizialaren ostean egindako ordainketa bakarrik aurreikusten du (PZL 817. art.)–, ez dago aukera hau onartzeko arazorik, borondatearen autonomiaren eta xedapen prozesal printzipioei jarraituz. PZL 817. artikulua eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak hartu beharko dira kontuan; beraz, ordainketa egin dela epailearen aurrean akreditatu ostean, zorra agertzen den agiria entregatuko zaio eta prozedura bukatu egingo da, egintzak artxibatuz eta kostuak zordunari ezarri, bentzimenduaren printzipioari jarraiki (PZL 394. art.). Kondena hau ez litzaioke ezarriko zordunak lehenago ordaintzerik izan ez duela frogatuko balu (PZL 394, I art. *in fine*), baina hala ere ez dago oso garbi kasu honetan egitatezko zalantza serio baten aurrean gaudenik.

2) Prozesutik kanpo ez ordaintzeko aukera du. Kasu horretan, ikusi egin beharko da agertzen ote den edo ez:

- a) Ez baldin bada agertzen, eta ez baldin baditu ez ordaintzeko arrazoiak alegatzen, epaileak auto bat emango du egoki jotzen den kopuruagatik “exekuzioa aginduz”, lehen adierazi bezala (PZL 815.1, II eta 816.1 art.), betiere interes legalak ere gehitu behar zaizkiola (PZL 816.2, II art.). PZLak espresuki esaten ez badu ere –baina bai bere XIX, 9. Zioen Adierazpenak–, ez agertzea, agertzea eta ez oposatzearen parekoa da. Bi kasuetan, prozesu zibil berezia exekuzio prozesu berezi bihurtzen da.

Kasu honetan, ebazpen hori izango da titulu exekutiboa, kondenazko epai deklaratio baten parekoa delako, eta hala bailitzan exekutatzen delako (PZL 816.2. I art.). Beraz, titulu exekutiboa sortzen da, eta hain zuzen horixe da prozesu monitorioaren helburua. PZLtik ondorioztatzen da ebazpen honen aurka ezin dela errekurtsorik tarteratu, ez baitu aukera honi buruzko inolako aipamenik jasotzen, zordunaren oposizioaren tramite berezi bat aurreikusten da-eta.

Beraz, dagokion nahitaezko exekuzioaren prozesua hasten da (PZL 549 eta hurr. art.). Zordunak ez ditu oposatzeko aukerak galtzen, baina prozedura eraldatu ezin badu ere –ez delako agertu–, arau orokorre jarraituz exekuzioari oposizioa aurkez diezaioke (PZL 818.2 art., bereziki 556rekin batera). Honek interpretazio arazoak sor ditzake, zeren eta zor monitorioa jasotzen duen titularen nahitaezko exekuzioa egonik, oposizioa aurkezteko kausak titulu judizialen kasuetarako aurreikusita daudenak izango dira PZL 556. artikuluen arabera; ostera, ia pentsaezina da kasu horietako batzuk aurkeztea (adibidez, ordainketa), prozesu monitorioaren hasieran izango lituzkeen ondorioengatik, ez bailitzateke beharrezkoa izango prozesua jarraitzea. Hala ere, nahitaezko exekuzioari bukaera jartzen dion aukera horrek existitzen jarraitu behar du zordunak une horretara arte zorra ordaintzerik izan ez duen kasurako, dela likidezia faltagatik, dela jakinarazpena behar bezala eginga egon arren agertzerik izan ez duelako. Prozesutik kanpoko ordainketaren aurretiazko errekerimendua arautu izan balitz, orain beharbada ez ziritekeen kontraesan hauek sortuko.

- b) Agertzen baldin bada, edo ordaindu egin dezake, edo oposatuz bi jarrera har ditzake. Hala ere, ezin da esan teknikoki demandaren erantzunaren edo eskariaren parekoak direnik. Prozesu monitorioak aurrerantzean epaiketa arruntaren ildotik joko du, eta beren garrantzia dela-eta, jarraian aztertuko ditugu.

7. Zordunaren oposizioa eta prozeduraren transformazioa

Zordunak, azaltzen denean, bi jarrera har ditzake:

1) Ordaintzeko agindua betetzea. Kasu horretan, ordaindu duela akreditatzen duen bezain pronto, dagokion frogagiria emango zaio, eta ekintzak artxibatu egingo dira (PZL 817. art.).

Honako hau da PZLak zorra ordaintzeko formalki aurreikusten duen une bakarra, eta prozesu monitorioari bukaera ematen diona. Aurrez prozesutik kanpo ordainketa egiteak ondorio berbera izan beharko luke. Hala ere, aipatu dugun bezala, prozesutik kanpo baina errekerimenduaren ondoren egindako ordainketak ez du exekuzioa agintzen duen autoa ekidingo.

2) Ordainketari erabat edo partzialki oposatzea (PZL 818.1 art.). Ez dira oposizio honen arrazoiak zehazten, baina argi dago prozesu deklaratiβοetan oposa daitezkeen salbuespen prozesal eta material guztiak alegatu ahal izango direla. Hala ere, Legeak zehaztasunik ematen ez duenez, praktikan dauden aukera guztiak aztertu behar ditugu:

- a) PZL 818. artikulua ez du esaten zer egin behar den zordunaren oposizioak inolako oinarririk ez duen kasuetan. Irtenbideak izan beharko luke prozesu monitorioak aurrera jarraitzea eta epaileak exekuzioa agintzen duen autoa ematea, jarrera hori ez agertzea bezala joz (PZL 816.1 art.). Ridikuloa litzateke kostuak kondenatzera mugatzen den zehapen bat ezartzea, baina, gaur-gaurkoz egin daitezkeen bakarra hori dela dirudi.
- b) Garbi dago zordunak, arrazoirik eman gabe, oposatu egiten dela esatea, titulu exekutiboa sortzeari oposizioa agertzea dela. Baina PZLarentzat ez da nahikoa, zeren 815.1 artikulua, *in fine*, espresuki dio zorduna epailearen aurrera agertuko dela eta labor-labor alegatuko dituela *“bere iritzian, erreklamatu zaion diru kopuru osoa edo zati bat ez ordaintzeko dauzkan arrazoiak”*. Horregatik, gure iritzian, hain modu lauso eta orokorrean eta inolako azalpenik eman gabe oposatuz gero, ez oposatuzat jo beharko litzateke eta, beraz, exekuzioa agintzen duen autoa eman beharko litzateke. Ondorioz, jarduteko modu hau ez agertzearen parekoa izango litzateke (PZL 816.1 art.). Kostuak ordaintzeko kondenaren mehatxua nahikoa izan daitekeelakoan zehaztu gabeko oposizio honi baliozkotasuna ematea, oposizio orokor erabat bidegabe bat onartzea litzateke, eta gure inguru juridikoko gainerako Estatuetan ez da horrelakorik gertatzen.
- c) Zorduna azaldu egin daiteke, eta zentzu hertsian oposizioari ez dagozkion jarrerak hartu (adibidez, errekonbentzioa formulatuz). Aukera hauek erabat baztertu behar dira; ez arrazoi formalengatik bakarrik –izan ere, errekonbentzioa demandari erantzuteko idazkian proposatzen da (PZL 406.1 art.), eta prozesu monitorioan ez da idazki hori izaten–, baizik eta baita prozesu monitorioan erabat desegokia delako ere. Prozesu hau, epaile batek agiriaren bidez akreditatutako zor bati izaera exekutiboa emateko bakarrik dago aurreikusita, eta, beraz, prozeduren homogeneitatearen funtsezko baldintza faltatuko litzateke (PZL 406.2, 1 art.).
- d) Azkenik, zordunak benetako oposizio bat aurkez dezake, zorraren ordainketa osoa edo partziala alegatuz eta justifikatuz. Hau, oposizioaren supostu tipikoa izango litzateke. Oposizio bat modu honetan aurkezten denean, epaileak ez du exekuzioa agintzen duen autorik ematen, baizik eta prozedura eraldatzen du, auto bidez, egin den oposizioaren arabera motibatu behar delako. Beraz, oposizioa aurkeztu ondoren, dagokion epailetaren bidez ebatziko da auzia (PZL 818.1 art.). Honako bi aukera hauek aurreikusten dira:

- 1) Uziaren munta ez baldin bada hitzezko epailetarena baino handiagoa (500.000 pezeta, PZL 250.2 artikulua arabera), epaileak berehala prozedura honetako bista konbokatuko du, arau orokorreari jarraituz (PZL 818.2). Beraz, egintza prozesal honetatik aurrera, prozedura egokia hitzezko epailetarena izango da, baina prozesu monitorioaren tramitazioari hasiera eman dion lehen auzialdiko epaile berberak izan beharko du eskuduna, ez bake epaile batek, munta 15.000 pezeta baino txikiagoa izan arren (PZL 813, 1 art.).

Bistak PZL 443. artikulua zehazten duen eduki berbera izango du; beraz, demandatzaileak demanda monitorioan eskatu zuenaren berrespenarekin hasiko da, eta demandatuaren ahozko erantzunarekin jarraituko du.

- 2) Erreklamazioaren zenbatekoa kopuru hori baino handiagoa bada (500.001 eta 5.000.000 pezeta artean), bi egoera izan daitezke:
 - a) Hartzekodunak, oposizio idazkia helarazi zaionetik hilabeteko epean, dagokion demanda arrunta aurkez dezake. Horrela, epaileak arruntari emango zaio hasiera; horregatik egiten zaie eragorpena PZL 404. eta hurrengo artikuluei. Honek esan nahi du lehen auzialdiko epaileak berak ezagutu behar duela prozesu hau; ez dira eskuduntza eta banaketari buruzko arauak berriz aplikatzen hasiko.
 - b) Hartzekodunak aipatutako epean demandarik aurkezten ez badu, epaileak largespena emango du, eta kostuak ordainaraziko dizkio –horien artean, oposizio idazkia aurkezteagatik demandatuaren abokatu eta prokuradorearen ordainsariak ere sartu behar dira–.

Supostu berezi batean, aldatu egin daitezke xedapen horiek: zordunaren oposizioa pluseskaera batean oinarritzen denean, hain zuzen. Kasu horretarako, PZL 818.1, III artikulua 21.era eragortzen du. Amore emate partzial baten aurrean geundeke, eta PZLak, kasu horretarako, irtenbide eraginkor eta simple bat aurreikusten du:

1) Amore ematen den kopuruari dagokionez, aktoreak epaileari eska diezaioke amore ematearen objektua ontzat hartuz lehenbailehen eman dezala autoa, arau orokorren arabera titulu exekutiboa izango delarik auto hori.

2) Oposatzen den kopuruari dagokionez, edo hitzezko epaiketaren jarraitu ahal izango da, edota epaiketa arrunteko demanda aurkeztu beharko da, muntaren arabera.

Zordunaren oposizioaren ondorioz prozesu monitorioa dagokion epaiketa arrunt edo hitzezko bihurtu ondoren, epaiketa honetan aukera guztiak zabalik geldituko dira, aurrerantzean prozesua plenarioa izango delako. Hasteko, bere unean aurkeztu zen agiri monitorioa froga dokumental pribatu bat izango da orain. Baina garrantzitsuagoa da zorduna demandari idatziz edo ahoz erantzunez oposatzeko unean prozedura eraldatzeko balio izan zuten oposizio kausek zorduna lotzen ote duten zehaztea. Adibidez, demanda monitorioaren oposizioan ordainketa alegatzen du, eta demandaren erantzunean, berriz, aktorearen legitimazio eza. Arau batek ere ez du oposizioa aurkezteko zergatien interpretazio murrizkor bat egin behar denik agintzen; beraz, hasiera batean, demandatuaren iritzian dauden salbuespen material eta prozesal guztiak alegatu ahal izango dira. Sistematikoki nahiko arraro eta inkoherentea badirudi ere, hala gertatzen da.

8. Gauza juzgatua

Prozesu monitorioaren bidez epaiketa zordunaren aurkako titulu exekutibo bat sortzen duen eta gauza juzgatuaren ondorioa duen epai baten bidez amaitzeak ez du inolako arazo dogmatikorik sortzen. Hala diote PZL 818.1, I artikulua, *in fine*, eta PZL XIX, 8. Zioen Adierazpenak. Izan ere, epaiketa deklaratio hori *“prozesu arrunt eta plenario gisa”* ulertzen da, *“eta hasiera batean gauza juzgatuaren indarra duen epai baten bidez amaitu behar du”*.

Gutziz zuzena da hori, baztertu egin baita kredituari babes prozesal pribilegiatua ematen dion ildo monitorioa, horren ordez kredituaren babes ez pribilegiatu edo orokor batera pasatuz, dagokion epaiketa deklaratiobara, bertan instituzio prozesal arrunt guztiak aplikatu daitezkeela. Beraz, gure iritzian, emandako epaiak gauza juzgatu materialaren ondorioa sortuko luke, honi buruz espresuki ezer esaten ez den arren.

Eztabaidagarria dena da zordunaren oposiziorik egon gabe edota zorduna ez agertzean titulu exekutiboa sortzen duen autoak –lehen ikusi dugun moduan (PZL 816.1 art.), hau da, prozesu monitoriotik atera gabe– gauza juzgatuaren ondorioa izango ote duen. Prozesu monitorioaren jatorri historikoari eta Zuzenbide konparatuari begiratuz gero, adibidez Alemaniari, erantzuna baiezkoa izango litzateke, kasu honetan ere gauza juzgatuaren ondorioa sortzen dela prozesuan.

PZL 816.2, I artikulua zeharkako erantzun bat ematen dio galdera honi. Baldin eta prozesu monitorioaren eskatzaileak eta zordun exekutatuak ezin badute ondoren prozesu arrunt batean monitorioan erreklamatuak kantitatea edo exekuzioaren bidez eskuratutakoa itzultzea eskatu, orduan, exekuzioa agintzen duen autoak, zordunaren isiltasuna frogatu ostean, gauza juzgatu materialaren ondorioak sortuko ditu.

Horrela bakarrik uler daiteke artikulua horrek exekuzioa epai judizialeterako aurreikusitakoaren arabera gauzatuko dela esatea, kasu hauetarako aurreikusitako oposizioa aurkeztu ahal izanik. Horrela, exekuzio bakarrari egiten zaio eragorpena, baina, batez ere, titulu judizialen aurkako oposizioari; beraz, fondoari buruzko oposizioak PZL 556. artikulua muga guztiak izango ditu, eta muga horiek gauza juzgatu materiala dagoenean bakarrik dute zentzua.

Arrazoi berberetatik, PZL 818.2 artikulua ezartzen duen kasuan hilabeteko epean demandarik ez tarteratzeetatik epaileak emaniko largespen autoak ere gauza juzgatuaren ondorioak sortuko ditu. Horregatik, preskribatu ez den, agiri berberean justifikatzen den eta zordun berberaren aurkakoa den zor horretan bertan oinarrituz, hartzekodunak prozesu monitorio berri bat hasten saiatu beharko du, epaiketa arruntean ezin duelako zordunaren lehenengo oposizioan oinarrituz demandarik aurkeztu.

Bibliografia

Artikulu hau, jarraian aipatzen den liburu kolektiboan prozesu monitorioari zuzendu dizkiogun orrialdeetan oinarritzen da: MONTERO AROCA, J.; GOMEZ COLOMER, J.L.; MONTON REDONDO, A.; BARONA VILAR, S. *El nuevo proceso civil. Ley 1/2000* (2. ed.), Valentzia: Tirant lo Blanch, 2001; 989 or.

Eskuliburuak

CORTES DOMINGUEZ, V.; GIMENO SENDRA, V.; MORENO CATENA, V. *Derecho Procesal Civil. Parte Especial* (2. ed.), Madril: Colex, 2000; 113. or.

DE LA OLIVA SANTOS, A.; DIEZ-PICAZO GIMENEZ, I.; VEGAS TORRES, J. *Derecho Procesal Civil. Ejecución forzosa. Procesos especiales. Conforme a la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil*, Madril: C.E. R. Areces, 2000; 475. or.

MONTERO AROCA, J.; GOMEZ COLOMER, J.L.; MONTON REDONDO, A.; BARONA VILAR, S. "Derecho Jurisdiccional", II. lib., In: *Proceso Civil* (9. ed.), Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000; 756. or.

JUAN SANCHEZ, R.; BONET NAVARRO, J.; BELLIDO PENADES, R.; CUCARELLA GALIANA, L.A.; MARTIN PASTOR, J. *Derecho Procesal Civil*, Iruña: Aranzadi, 2000; 679. or.

RAMOS MENDEZ, F. *Guía para una transición ordenada a la LEC*, Bartzelona: J.M. Bosch, 2000; 717. or.

Iruzkina, tratatu eta monografiak

CORDON MORENO, F. (zuzendaria). *Comentarios a la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Iruña: Aranzadi, 2001, prentsan.

CORTES DOMINGUEZ, V.; MORENO CATENA, V. (koordinatzaileak). *La nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: Tecnos, 2000, V. lib.; 53. or.

FERNANDEZ-BALLESTEROS, M.A.; RIFA SOLER, J.M.; VALLS GOMBAU, J.F. (koordinatzaileak). *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Bartzelona: Iurgium, 2000, III. lib.; 3797. or.

GARBERI LLOBREGAT, J. (koordinatzailea). *Los procesos civiles. Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil, con formularios y jurisprudencia*, Bartzelona: Bosch, 2001, V. lib.; 786. or.

LORCA NAVARRETE, A.M. (zuzendaria). *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Valladolid: Lex Nova, 2000, IV. lib.; 4437. or.

HERNANDEZ PUERTOLAS, F.J., In: LLEDO YAGÜE, F. (zuzendaria), *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: Dykinson, 2000; 758. or.

ROBLES GARZON, J.A. In: CABAÑAS GARCIA, J.C. (koordinatzailea), *Comentarios prácticos a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: Trivium, 2000; 721. or.

SERRA DOMINGUEZ, M. *La Ley 1/2000 sobre Enjuiciamiento Civil*, Bartzelona: J.M. Bosch, 2000; 57. or.

VAZQUEZ IRUZUBIETA, C. *Comentarios a la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madril: Dijusa, 2000; 1001. or.

Monografia eta artikulu espezializatuak

CALAMANDREI, P. *El procedimiento monitorio* (itzultzailea: Sentís Melendo), Buenos Aires: EJE, 1946.

CORREA DELCASSO, J.P. *El proceso monitorio*, Bartzelona: J.M. Bosch, 1998

CORREA DELCASSO, J.P. "El proceso monitorio en el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *La Ley aldizkaria*, 1998, II. lib.; 1901. or.

CORREA DELCASSO, J.P. "El proceso monitorio de la nueva Ley de Propiedad Horizontal: Indicaciones prácticas de aplicación en aras a salvaguardar su constitucionalidad parcial", In: *La Ley aldizkaria*, 1999, II. lib.; 2005. or.

- CORREA DELCASSO, J.P. *El proceso monitorio de la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil*, Madrid: Marcial Pons, 2000.
- DE LA LLANA VICENTE, M. "El proceso monitorio. Su regulación en la Ley 1/2000, de Enjuiciamiento Civil", In: *La Ley aldizkaria*, 2000, IV. lib.; 1645. or.
- DE LA OLIVA SANTOS, A. "El Proyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil, de 30 de octubre de 1998, y la protección del crédito: Ejecución provisional y proceso monitorio", In: *La Ley aldizkaria*, 1999, II. lib.; 1641. or.
- DIEZ-PICAZO GIMENEZ, I. "La batalla del monitorio (acerca del carácter preceptivo o facultativo de la asistencia letrada en el proceso monitorio)", In: *Revista Tribunales de Justicia*, 1999, 4. zenb.; 299. or.
- DORADO PICON, A. "La intervención del Secretario. Referencia especial al proceso monitorio" In: GUTIERREZ-ALVIZ CONRADI, F. (zuzendaria) *Jornadas "Hacia una nueva Justicia civil"*, Sevilla: Fundación El Monte, 1999;125. or.
- GARBERI LLOBREGAT, J. "Los procesos cambiario y monitorio en el Anteproyecto de nueva Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *Revista Tribunales de Justicia*, 1998, 7. zenb.; 721. or.
- GOMEZ AMIGO, L. "La introducción del proceso monitorio en el sistema procesal español", In: *Revista Actualidad Civil*, 1999, 38. zenb.; 1175. or.
- GOMEZ MARTINEZ, C. "El juicio monitorio en la nueva LEC, un cambio cultural", In: *Revista Jueces para la Democracia*, 2000, 38. zenb.; 67. or.
- GRANDE SEARA, P. "El proceso monitorio en el Proyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil (modificaciones con respecto al Borrador y al Anteproyecto)", In: *Revista Tribunales de Justicia*, 1999, 4. zenb.; 319. or.
- GUTIERREZ-ALVIZ Y CONRADI, F. *El procedimiento monitorio. Estudio de Derecho comparado*, Sevilla: Universidad, 1972.
- GUTIERREZ-ALVIZ Y CONRADI, F. "Actualidad del procedimiento monitorio civil", In: *Jornadas sobre la reforma del proceso civil*, Madrid: Ministerio de Justicia, 1990; 197. or..
- LOPEZ SANCHEZ, J. *El proceso monitorio*, Madrid: La Ley, 2000.
- LORCA NAVARRETE, A.M. *El procedimiento monitorio civil*, Donostia: Instituto Vasco de Derecho Procesal, 1996.
- LORCA NAVARRETE, A.M. *El proceso monitorio regulado en la Ley de Enjuiciamiento Civil con particular referencia al proceso monitorio en materia de propiedad horizontal*, Madrid: Dykinson, 2000.
- LORCA NAVARRETE, A.M. "La novedad de la regulación del proceso monitorio en la Ley de Enjuiciamiento Civil", In: PEREZ-CRUZ MARTIN, A. (koordintzailea), *II Congreso de Derecho Procesal de Galicia. La Justicia Civil del siglo XXI*, Santiago de Compostela: Tórculo, 2000; 149. or.
- MARTIN BERNAL, J.M. "El juicio monitorio en la nueva Ley de Propiedad Horizontal y en el Proyecto de Ley de Enjuiciamiento Civil", In: *La Ley aldizkaria*, 1999, 4775 zenb.; 1. or.
- MARTINEZ, O.J. "Procesos de estructura monitoria", In: *XIV Jornadas Iberoamericanas de Derecho Procesal. La Plata, 24 al 27 de abril de 1994*, Avellaneda: Avellaneda, 1994; 239. or.
- TOMAS Y VALIENTE, F. "Estudio histórico-jurídico del proceso monitorio", In: *Revista de Derecho Procesal*, 1960, I. lib.; 33. or.

Inpugnatzeko baliabideak

Jesús M^a IZAGUIRRE GUERRICAGOITIA*

1. Sarrera

Zuzenbide prozesalean erabaki judizialak aurkatzeko baliabideak bikoitzak dira, erabakiaren irmotasunaren arabera: erabakia irmoa bada, gauza juzgatua ezabatzeko baliabide prozesalei buruz hitz egiten ari gara; erabakia irmoa ez bada, helegiteez arituko ginateke.

Bi kasuetan, mekanismo prozesal hauen helburua berdina da: errore judizialak zuzentzea, erabaki judizialak justizia helburua bete dezan.

Erabaki judizialen aurka helegiteak tarteratzeko eskubideak oinarri konstituzionala dauka. Kontuan izan behar dugu nazioarteko hitzarmenen arabera, helegitea prozesu penalean ezartzea bakarrik dela derrigorrezkoa, eta kondenatua izan den alderdi prozesalaren aldetik bakarrik.

Horren ondorioz, guztiz konstituzionala izango litzateke helegiterik gabeko prozesu zibil bat. Baina legegileak, bere askatasuna gauzatuz, badauka helegiteak ezartzeko posibilitatea. Hau da gure PZLak ezarri duen eredia.

2. Helegiteak: oinarrizko kontzeptuak

Helegitea aztertzerakoan, zenbait osagai ikus ditzakegu bere baitan: eskuduntza, legitimazioa, epea eta kaltea.

Esan beharrik ez dago legea dela helegitea sortzen duena. Ildo horretatik, bera izango bere egitura ezarriko duena.

Legeak ezarri beharko du, era berean, nork duen helegitea tarteratzeko legitimazioa. Zentzu horretan, PZLko 448.1 artikulua dioenez, alderdiei dagokie helegiteak tarteratzeko legitimazioa. Baina eremua asko zabaltzen du Legeak berak, interbenitzaileak orokorrean (PZL 13. art.) eta zenbait erakunde publiko legearen interesaren aldeko¹ helegitearen kasuan ere legitimatuaz.

Ildo berdinean, legea izango da legitimatuek helegitea tarteratzeko izango duten epea finkatuko duena. Epe hau tarteratzerik gabe igarotzen bada, erabaki judizialak irmotasuna bereganatuko du.

Azkenik, helegitea tarteragarria izateko, jatorrizko erabakiak kalte² bat sortu beharko dio legitimatuta dagoen pertsonari. Alderdi jakin batengan kalterik ematen den edo ez jakiteko, bere jarreraren eta erabakiaren edukiaren artean zer nolako aldea dagoen aztertu beharko dugu puntu horretan.

* Donostiako Entzutegi Probintzialeko fiskala eta Zuzenbide Prozesaleko irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

1. PZL 491. artikulua eskusiboki Ministerio Fiskala, Herriaren Defendatzailea eta Administrazio Publikoa legitimatzen ditu ezohiko helegite hau tarteratzeko.

2. Gaztelaniaz, "gravamen" (EZL 448.2 art.).

Helegiteak, irizpide ezberdinen arabera sailka ditzakegu. Aipa daitezkeen sailkapen irizpideen artean, hiru dira nagusiak: helegiteari buruz erabaki behar duen organoaren arabera, helegiteak duen erabaki eremuaren arabera, eta helegindako erabakiaren exekuzioan duen eraginaren arabera.

Aurreneko irizpidearen arabera, helegiteak debolutiboak edo ez-debolutiboak izango dira. Bigarren irizpidearen arabera, helegiteak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke. Hirugarren irizpidearen arabera, helegiteek ondorio suspentsiboa sortuko dute, edo ez.

Helegite bat debolutiboa izango da, jatorrizko erabakia eman duen organoaren gainetik dagoen beste organo batek ebatzi behar duenean. Alderantziz, ez da debolutiboa izango helegiteari buruz jatorrizko erabakia eman zuen organoak berak erabakitzen duenean.

Helegite bat ohikoa izango da inpugnatzeko arrazoiak askeak badira. Ezohikoa izango da inpugnatze arrazoiak legeak mugatzen dituenean.

Helegite batek ondorio suspentsiboa sortuko du legeak agintzen badu helegitea ebazten den bitartean eten egin beharko dela jatorrizko erabakiaren exekuzioa.

Azkenik, jakin beharko dugu zein helegite ezartzen dituen Prozedura Zibilaren Legeak. Honek zazpi onartzen ditu: berraztertzea, kexa, apelazioa, ezohikoa urrapen prozesalagatik, kasazioa eta legearen interesen aldekoa.

3. Berraztertze helegitea

Helegite hau PZLko 451. eta ondorengo artikuluetan dago araututa. Erabaki interlokutorioen aurka tartera daiteke; beraz, probidentzia eta autoen aurka. Berdin du unipertsonala edo kolegiatua den.

Inpugnatutako erabakia eman zuen organo berak ebazten du, eta ez du efektu suspentsiborik sortzen. Beraz, helegitea ez da debolutiboa, eta ezta ere suspentsiboa, baina bai ohikoa.

Prozedura erraza da: alderdiak bost egun ditu helegitea tarteratzeko, beste bost egun emango zaizkie gainontzeko alderdiei traslado alegazioak egin ditzaten eta, azkenik, epaitegiak bost egun izango ditu helegitea ebazteko.

Berraztertzea erabakitzen duen erabakia –kexa helegitea ez bada erabilgarria– ez da inpugnagarria izango. Alderdiak duen aukera bakarra, bere inpugnazioa errepikatzea izango da, sententziaren aurka tarteragarria den helegitearen barruan beste inpugnatze arrazoi bezala.

4. Kexa helegitea

PZLko 494. eta ondorengo artikuluetan dago araututa. Helegite honi buruz esan dezakeguna da bere funtzioa subsidiarioa dela, eta beste helegiteen akatsak konpontzeko baliabide bat dela.

Apelazioko, akats prozesalengatik edota kasaziozko helegiteetan tramitera onartzen ez duen autoaren aurka da tarteragarria. Jatorrizko helegitea ebatzi behar duen organo berak ebatziko du.

Tramitera onartzen ez duen autoaren aurka berraztertze helegitea tarteratuz hasiko da tramitazioa. Helegite honek berraztertze orokorraren arauak jarraitu beharko ditu.

Berraztertzea estimatzen ez bada, eskumendun organoak, ezetzarekin batera, bi erabakien testigantza eman beharko du (jatorrizko erabakiarena eta berraztertzea ebazten duenarena).

Alderdiak hamar eguneko epea izango du kexa eskuduntza duen organoaren aurrean tarteratzeko. Errekurtsoarekin batera, jasotako testigantzak aportatu beharko ditu. Forman tarteratu ondoren, Auzitegiak hamar eguneko epean emango du bere erabakia. Kexa estimatzen badu, jatorrizko helegitearen tramitazioak aurrera jarrai dezala aginduko du.

Kexa helegitea ebazten duen erabakiaren aurka ezin daiteke helegiterik tarteratu.

5. Apelazioko helegitea

Helegite honen erregulazioa PZLko 455. eta ondorengo artikuluetan dator.

Helegite honen ezaugarriak dira debolutiboa eta suspentsiboa dela.

Apelazioa beti da debolutiboa, jatorrizko erabakia eman duen organoaren gainetik dagoenak ebatziko duelako.

Ondorio suspentsiboa oso mugatuta dago, EZLko 456. artikulua dioenez. Horrela, ez da efektu suspentsiborik sortuko apelazioak pretentsioa desestimatzen duten sententzien aurka edota auzialdia amaitzen duten autoen aurka tarteratzen badira. Apelazioa pretentsioa estimatzen duen sententziaren aurka tarteratzen bada, sententzien behin-behineko exekuzioa erregulatzen duten arauen arabera sortuko da helegitearen ondorio suspentsiboa.

Erabaki apelagarriak izango dira sententziak, auto definitiboak eta beste motatako autoak, legeak espresuki egozten badie apelazioko helegitea.

Apelazioari buruz ezagutzeko eskuduntza objektiboa zein funtzionala duten organoak bi izango dira: lehen auzialdiko epaitegiak (bake epaitegiek emandako erabakien aurka tarteratutako apelazioei buruz) eta entzutegi probintzialak (lehen auzialdiko epaitegiek emandako erabakien aurka tarteratutako apelazioen kasuan).

Objektuaren aldetik, esan beharra dago apelazioa helegite arrunta dela, hau da, kognizio osoa duen helegitea. Horrela, PZLko 456. artikulua kontuan izanik, esan beharra dago inpugnatu den erabakiaren osagai faktiko zein juridikoak errebisa daitezkeela apelazioaren bidez. Honek esan nahi du apelazioko organoak errebisa ditzakeela jatorrian egindako frogaren balorazioa eta legearen aplikazioa. Gainera, onargarria da apelazioan froga berria praktikatzea, eta apelazioko organoak erabili ahal izango du horren emaitza.

Helegite hau debolutiboa denez gero, bi fase izango ditugula esan beharra dago: *a quo* eta *ad quem*; hau da, inpugnatutako erabakia eman duen organoaren aurrean, eta apelazioari buruz erabaki behar duen organoaren aurrean.

5.1. A quo fasea

Fase honetan, apelanteak apelatzeko duen borondatea azaltzen du, helegitearen baldintza formalak ematen diren edo ez kontrolatzen da eta, azkenik, alderdiek idatziz azaltzen dituzte beren jarrerak apelazioaren inguruan.

Apelazioaren prestaketa

A quo faseari alderdiak ematen dio hasiera, apelazioa prestatuz. Prestaketa hau, errekurritzaileak errekurritzeko asmoa azaltzen duen idazki baten bidez gauzatzen da.

Horrela, inpugnatu nahi duen erabakia jakinarazi zioten egunetik bost eguneko epea izango du helegitea prestatzeko. Prestaketa idazkiak bi adierazpen jaso beharko ditu: inpugnatzen den erabakiaren identifikazioa, eta inpugnatzeko asmoa, zein erabakiren zein zati zehatz inpugnatzen dituen azalduz.

Idazkia jaso ondoren, *a quo* organoak kontrol formal bat egin beharko du, inpugnatutako erabakia apelagarria den eta legeak ezarritako epeak errespetatu diren edo ez ikusiz. Horren ondorioz, *a quo* organoak tramitera onartuko du apelazioa edo ez. Ez badu onartzen, kexa tarteratu ahal izango da bere erabaki negatiboaren aurka.

Apelazioaren tarterapena

Apelazioa tramitera onartu eta gero, errekurritzaileak hogeit eguneko epea izango du tarterapen idazkia aurkezteko. Idazki horretan luze eta zabal azaldu beharko ditu bere inpugetaren arrazoiak. Idazkia ez badu ezarritako epearen barruan aurkezten, bertan behera utziko da helegitea.

Helegitea arau prozesalen urraketan oinarritzen bada, orduan idazkiak azaldu beharko du zehazki zein urraketa gertatu den, nola sortu duen defentsagabezia eta, azkenik, zer nolako protesta egin den urraketa salatzeke.

Gainera, idazki honekin batera, apelazioan zehar gauzatzeko frogak proposa daitezke. Hala ere, proposa daitezkeen frogak ez dira edozein izan, baizik eta zenbait kasutan daudenak bakarrik: lehen auzialdian proposatu eta ezeztatutakoak; lehen auzialdian proposatu, onartu eta ez praktikaturakoak alderdiaren borondatek kanpo dauden arrazoiengatik; orduarte ez proposaturakoak alderdiaren borondatek kanpo dauden arrazoiengatik eta, azkenik, auzi-iheslariak proposaturakoak, ez badu frogak lehen auzialdian une prozesal egokian proposatzeko aukerarik izan.

Horren ondorioz, *a quo* organoak apelazioaren trasladoa emango die gainontzeko alderdiei. Traslado horren aurrean, alderdiek bi aukera izango dituzte: apelazioa inpugetatu, edo apelazioari itsatsi.

Inpugetatzen badute, idazki batean azaldu beharko dituzte beren arrazoiak. Izango dute, lehen azaldutako muga berdinekin, frogabideak proposatzeko aukera ere.

Apelazioaren itsaspena, hasieran apelatu ez duen alderdiari ematen zaion mekanismo prozesala da, beste alderdiak bai apelatu duela jakinez, bere aldetik apelatzeko.

5.2. Ad quem fasea

Ad quem organoak autoak jaso bezain pronto, proposaturako frogaren praktikaren inguruan erabaki beharko du. Frogaren praktika onartzen badu, orduan derrigorrean bista bat ospatu beharko da. Bista hitzeko judizioaren arauen arabera ospatuko da.

Bista, bestetik, alderdi batek eskatzean edota *ad quem* organoak berak ofizioz horrela erabakitzean ere ospa daiteke.

Bista ospatu eta gero, edo ospatu ez bada zuzenean, *ad quem* organoak bere sententzia emango du. Entzutegi Probintzialak emandako sententzia kasazio edo urrapen prozesalengatik helegiteen bidez helegin ahal izango da.

6. Arau hauste prozesalengatik aparteko helegitea

Helegite hau, PZLak ezartzen duen nobedadeetako bat da. Bere funtzioa, prozesuetan zehar gerta daitezkeen irregulartasun prozesalak zuzentzea da. Bere erregulazioa PZLko 468. eta ondorengo artikuluetan dator.

Entzutegi Probintzialak emandako auto eta sententzien aurka da tarteragarria, baldin eta erabaki horiek bigarren auzialdiari amaiera ematen badiote. Berari buruz ezagutzeko eskuduntza Justizia Auzitegi Nagusietako Areto Zibil eta Penalek dute. Hala eta guztiz ere, PZLko 16. Azken Xedapenak dioenez, BJLO erreformatzen den bitartean, Auzitegi Goreneko Areto Zibilak izango du eskuduntza.

Helegite hau ezohikoa da; hau da, legak berak mugatzen ditu helegitea oinarri ditzaketen arrazoiak. Horrela, arrazoi hauetan oinarri daiteke helegitea:

- Eskumena edota eskuduntza objektiboa zein funtzionala ezartzen duten arauen urrapena.
- Sententzia erregulatzen duten arau prozesalen urrapena.

- Ekintza zein berma prozesalak erregulatzen dituzten arauen urrapena, baldin eta urrapena alderdiari defentsagabezia sortzeko gai balitz edo berez nuloa bada.
- Konstituzioko 24. artikulua ezagutzen dituen funtsezko eskubideen urrapena.

Gainera, derrigorrezkoa da urrapena gertatzen den memento berean salatzea, eta gertatutakoa konpongarria izanez gero, zuzenketa da eskatu beharko dena. Urrapena lehen auzialdian gertatu bada, eta eskumendun organoak ez badu salaketa onartu, protesta bigarren auzialdian errepikatu beharko da.

Helegite hau debolutiboa da, non bere tramitazioak fase bikoitza izango duen: *a quo* eta *ad quem*.

6.1. A quo fasea

Errekurritu nahi duen alderdiak idazki baten bidez azaldu beharko du bere asmoa. Errekurritzeko epea, errekurritu nahi den erabakia jakinarazi zen egunetik bost egunekoa izango da.

Idazkia jaso ondoren, *a quo* organoak, erabakia helegingarria bada, PZLko 469. artikulua ezartzen duen motiboetako bat alegatu bada, eta agindutako salaketak egin badira, tramitera onartuko du helegitea.

Helegitea ez badu tramitera onartzen, alderdiak kexaren bidez inpugna dezake erabaki negatibo hori.

Tramitera onartu eta gero, errekurritzaileak hogeit eguneko epea izango du helegitea idatziz formalizatzeko.

Idazki horretan, errekurritzaileak, bere helegitea oinarritzen duten arrazoiak azalduko ditu, kontuan izanik alegatutako urrapenak prozesuaren emaitzan izan duen eragin zehatza azaldu behako duela.

Horretaz aparte, badauka frogaren praktika eskatzerik, betiere alegatzen duen urrapena frogatzeko asmoz. Badauka bistaren ospakizuna eskatzeko aukera ere.

Idazki hau jaso ondoren, *a quo* organoak helegiteari buruz ebazteko eskuduntza duen organora erremittituko ditu autoak.

6.2. Ad quem fasea

Ad quem organoak, autoak jaso bezain pronto, helegitearen onarpenari buruz erabaki behar du. Helegitea ez da tramitera onartuko helegitea tarteratzerakoan ez badira PZLko 467, 468 edota 469. artikuluek ezartzen dituzten baldintzak bete.

Tarteratutako helegiteak nabarmenki oinarrikerik ez duela ikusiz gero ere, badu tramitera ez onartzeko aukera.

Aretoak, helegitearen onarpena gaitzetsi baino lehen, helegitearen trasladoa emango die beste alderdiei puntu zehatz honi buruz beren alegazioak egin ditzaten.

Helegitea tramitera onartu eta gero, beste alderdiei emango zaie errekurritsoaren trasladoa, erantzun dezaten. Idazki horretan beren oposaketa arrazoiak azalduko dituzte, beren jarrera oinarritzeko frogak proposa ditzakete eta, azkenik, bistaren ospakizuna eska dezakete.

Auzitegiak bistaren ospakizuna erabakiko du frogaren praktika onartzen badu, alderdi bat edo gehiagok eskatzen badute edo, azkenik, ofizioz erabakiz gero.

Bista ospatu ondoren, edo alderdien idazkiak jaso ondoren ez bada ospatzen, Auzitegiak bere sententzia emango du. Sententzia horren edukia eta ondorioak, helegitea oinarritu duten arrazoiekin lotuta egongo dira.

Eskumen zein eskuduntza falta alegatu bada, eta estimatzen bada, alderdiei eskumen edo eskuduntza duen organora beren eskubideen defentsan jotzeko askatasuna emanaz kasatuko du sententzia.

Inpugnatutako eskumen zein eskuduntza mantentzen zuen erabakia helegin bada, sententziak prozesua hastea edo hasita zegoena segitzea aginduko dio eskuduntza duen organoari.

Helegitea beste arrazoiren batean oinarrituta tarteratu bada, helegitearen onespeneren ondorioz prozesua urrapena gertatu zen une prozesalera itzuliko da, handik aurrera berriro martxan jarriko dela.

Helegitea ebazten duen sententzia, legearen interesen aldeko helegitearen bidez helegin ahal izango da.

7. Kasazioa

Helegite honen ezarpenak oinarri historikoa du. Frantzian XVIII. mendean gertatutako iraultzaren ondorioz izandako aldaketa politikoak, Botere Legegile zein Exekutiboaren demokratizazioa ekarri zuen. Baina aldaketa honek ez zuen eraginik izan Botere Judizialean.

Disfuntzio honen ondorioz, beste botereek egindako aldaketa legegileak ez ziren aplikatzen, zeren Auzitegiek berrikuntza legegileei egiten zieten interpretazio eta aplikazioak hustu egiten zituen beraiek ekartzen zituzten berrikuntzak.

Egoera anormal horri aurre egiteko, *Cour de Casation* izeneko organo politiko bat sortu zen, eta funtzio erabakigarria zeukan: eskumendun organoek beren erabakietan ordenamendu juridikoa nola aplikatu zuten errebisatzea. Horrela, eskumendun organoen interpretazio okerrak zuzentzea lortu zen eta, honekin batera, ordenamendu juridikoaren interpretazio eta aplikazioa bateratzea.

Helegite hau PZLko 477 eta ondorengo artikuluetan dago araututa.

Helegite hau ezohikoa denez, Legeak ezartzen du zein arrazoietan oinarri daitekeen. Kasu honetan, Legeak arrazoi bakarra onartzen du helegitea bideratzeko: prozesuaren objektua ebazteko arau substantiboan urrapena.

Helegingarriak dira Auzitegi Probintziales bigarren auzialdiak amaituz emandako sententziak, baldin eta: funtsezko eskubide konstituzionalen berma eskatzen den prozesuetan eman badira, 24. artikulukoak salbu; objektu prozesalaren munta 25 milioi baino gehiagokoa bada; edo helegitearen erabakiak “kasaziorako interesa³” balu.

Legeak helegite honetan ezartzen duen berrikuntzarik handiena, “kasaziorako interes” hau da. Finkatu gabeko kontzeptua denez, Legea bera da espresio horren edukia ematen duena. Kasaziorako interesa egongo da:

- Helegindako sententziak dakarren doktrina Auzitegi Gorenaren kontrakoa bada.
- Erabakitako puntuan sententzia kontrajarriak baleude Entzutegi Probintzialen artean.
- Aplikatutako arauak bost urte baino gutxiagoko indarreangotasuna badu, Auzitegi Gorenak aurrez ez badu doktrina jurisprudenzialik ezarri antzeko puntuen inguruan.

Hauekin batera, badaude beste bi kasu non Legeak adierazten duen badagoela “kasaziorako interesa” helegitea Justizia Auzitegi Nagusiari (JAN) dagokionean:

- Helegindako sententziak JANaren doktrina kontraesaten badu.
- JANak ez badu helegiten den puntu konkretuan doktrinarik.

3. Legeak “interés casacional” espresioa erabiltzen du.

Eskuduntzaren aldetik, bikoitza dela esan beharra dago. Alegia, eskuduntza dute bai Auzitegi Gorenako Lehen Aretoak, bai Justizia Auzitegi Nagusietako Zibil eta Penal Aretoek. Noski, azken kasu honetan, segidan ikusiko dugun bezala, Zuzenbide foral edo berezia duten autonomia erkidegoetan.

Kasu konkretuan eskuduntza nori dagokion jakiteko, kontuan izan behar dugu zein natura duten urratutako arau substantiboek: Zuzenbide komunekoak badira, Auzitegi Gorenari; Zuzenbide foral edo bereziarenak badira, Justizia Auzitegi Nagusiari⁴.

Zer gertatzen da helegite berean Zuzenbide foralaren zein komunaren urrapena alegatzen badugu? Kasu horretan, PZLko 478.1 artikulua dioenez, JANei dagokie bi helegite arrazoiei buruz ezagutzea.

7.1. Prozedura

Helegite debolutibo bati buruz ari garenez, bi fase izango ditugu: *a quo* eta *ad quem*.

7.1.1. A quo fasea

Alderdiak bost eguneko epea izango du, sententzia jakinarazi zitzaion egunetik, helegitea idazki baten bidez aurkezteko. Idazki horrek, jatorrizko prozesuaren arabera, zenbait baldintza berezi bete beharko ditu:

- Jatorrizko prozesua funtsezko eskubideen defentsarako izan bada, orduan prestatze idazkian aipatu beharko da zein funtsezko eskubidearen urrapena gertatu den.
- Muntarengatik tarteratu bada kasazioa, orduan nahiko izango da alderdiak zein urrapen legal eman dela ulertzen duen aipatzea.
- Kasaziorako interesa bada helegitearen jatorria, orduan, ustez gertatu den urrapen legalaren aipamenaz gain, kasaziorako interesa sortzen duten sententzia kontrajarriak aipatu beharko dira.

Legeak eskatzen dituen baldintza formal guztiak bete badira, *a quo* organoak tramitera onartuko du helegitea. Onarpena gaitzesten badu, errekurritzaileak kexaren bidez inpugna dezake erabaki negatiboa.

Helegitea tramitera onartu ondoren, errekurritzaileak jakinarazpenetik hogeit eguneko epea izango du bere helegitea prestatzeko.

Idazki horretan, bere helegitearen oinarriak luze azaldu beharko ditu, eta bistaren ospakizuna ere eska dezake. Honekin batera, alegatu beharko du oinarri gisa erabili den arauaren indarraldia eta, bidezkoa bada, ustez urratu den arauaren inguruko doktrina jurisprudenzialaren falta.

Idazkiarekin batera, helegin den sententziaren agiria aurkeztu beharko da, eta, kasaziorako interesa alegatzen denean, oinarri gisa alegatu diren sententzien kopia.

7.1.2. Ad quem fasea

Helegitea eta auto originalak jaso bezain pronto, Auzitegiko ponenteak eskuratu egingo ditu eta, aztertu ondoren, aretoaren erabakira jarriko du helegitearen tramitezko onarpena.

Helegitea ez da tramitera onartuko:

- Helegitea arrazoi formalengatik bidezkoa ez bada (erabakia heleginezina delako, edo beste edozein arrazoi formalengatik konponezina bada).
- Tarterapen idazkiak ez balitu Legeak ezartzen dituen baldintza formalak beteko.

4. Kasu honetan ere, beharrezkoa izango da Autonomia Erkidego konkretuaren Estatutuak JANaren aldeko eskuduntza hau espreski ezartzea.

- Prozesuaren munta ez bada Legeak exigitzen duen neurrira iristen.
- Kasu zehatz horretan ez bada kasaziorako interesik sumatzen.

Aretoak, onarpenari buruz erabaki baino lehen, pertsonatutako alderdiak entzungo ditu puntu honi buruz.

Tramite honetan ere, aretoak aztertuko du eskuduntzarik ba ote duen edo ez tarteratutako kasazioari buruz ezagutzeko.

Tramitera onartu eta gero, errekurritu ez duten alderdiei errekurritzailearen helegite idazkiaren trasladoa emango zaie, beren alegazioak egin ditzaten.

Une honetan, alderdi errekurrituek helegiteari oposaketa azaltzeko eskubidea daukate. Oposaketa alegazioak fondoari buruzkoak izan daitezke, baina une honetan helegitearen onartezintasun arrazoiak alega ditzakete, Auzitegiak ordurako ez baditu gaitzetsi. Bistaren ospakizunari buruz alegatzeko aukera ere badute.

Bista ospatuko da alderdi guztiek horrela eskatzen badute edo, nahiz eta horrela ez izan, Auzitegiak ofizioz beharrezkoa dela adierazten badu.

Bista amaitu ondoren edo, ospatzen ez bada, alderdien idazkiak jaso ondoren, Auzitegiak hogeit eguneko epean emango du sententzia.

Sententziak, helegiteak ez badu kasaziorako interesik alegatu, inpugnatutako sententzia osoa edo partzialki konfirmatu edo kasatuko du.

Helegiteak kasaziorako interesa alegatu badu, orduan, eztabaidatutako doktrinaren arabera konfirmatu edo kasatuko du sententzia, baina sententziak ezarritako doktrinak ez du eraginik izango erabilitako beste sententziengan.

8. Legearen interesaren aldeko helegitea

Helegite hau, urrapen prozesalengatik ezohiko helegitea ebazten duten sententzien aurka tartera daiteke, baldin eta Justizia Auzitegi Nagusietako Zibil eta Penal Aretoek iritzi ezberdinak aplikatzen badituzte arazo berdintsuak ebazteko, eta helegin nahi dugun sententzia zehatza ez bada jadanik inpugnatua izan babes helegitearen bidez Auzitegi Konstituzionalaren aurrean.

Helegite honetan nahiko murriztuta dago legitimazioa: Ministerio Fiskala, Herriaren Defendatzailea eta Zuzenbide publikoko edozein pertsona juridiko, baldin eta bere funtzio eta jardueraren arabera interes legitimoa balu doktrina jurisprudenzial bateratuan eztabaidatu diren arazo prozesaletan.

Helegitea tarteratzeko epea urte betekoa da, sententziarik modernoena eman zen egunetik, eta eskuduntza Auzitegi Goreneko Areto Zibilarena da.

Helegitea zuzenean Auzitegi Gorenaren aurrean tarteratzen da. Idazkiarekin batera aurkeztu beharko dira ustez kontrajarriak diren sententzien testigantza edo agiria, eta Auzitegi Konstituzionalaren agiria adieraziz ez dela babes helegiterik tarteratu alegatzen diren sententzien aurka.

Alegatu diren prozesuetan alderdi izan direnei helegitearen trasladoa emango zaie, hogeit eguneko epean beren alegazioak egin ditzaten. Segidan, sententzia emango da.

Emandako sententziak errespetatu egin beharko du alegatutako sententziak sortutako egoera juridikoa, eta helegitea estimatzen badu, orduan dagokion doktrina jurisprudenziala ezarriko du. Sententzia hori Estatuko Boletín Ofizialean argitaratuko da eta, hortik aurrera, eskumendun organo guztiak lotuko ditu, ordenamendu juridikoa osatuz.

Kautelazko neurriak

Gilen ORMAZABAL SANCHEZ*

1. Atariko gogoetak. Kautelazko neurriak eta babes judizial eraginkorra erdiesteko eskubidea

Kautelazko neurririk gabe ez dago babes judizial eraginkorrik. Horra printzipiozko ideia edo baieztapena, jorratzea dagokidan gaia aurkezteko eta hastedanik bere funtsezko koordinatuetan kokatzeko. Ikus dezagun xehekiago.

Prozesuko luzamenduak direlakoak, hein handi batean bederen, ez dira inoiz eta inon erabat galaraziak izan, ez gure ordenamendu juridikoaren esparruan, ezta ere –anitz ñabardurekin– munduko ezain beste batean. Eta ekidin ere, ez dira, segur aski, inoiz ekidinak izango. Epaiaren denborazko ortzimuga, izan ere, era ohargarrian labur daiteke prozeduraren gidaritzaz eta antolamendu egokiaren bidez, eta baita epaileen kopurua gehituz ere. Epaitzeak, baina, operazio konplexu eta askotarikoen multzo bat osatzen du berez, defentsa-printzipioaren bermea xede duelarik, espainiar Konstituzioak eta giza eskubideei buruzko hainbat nazioarteko itunek agindu bezala. Eta, esan gabe doa, ez dago operazio hauek burutzerik ezinbesteko denbora-tarte jakin bat iragan gabe. Gutxienezko denbora honen luze-laburra bestelakoa izango da kasuaren zertzeladen arabera, baina, edozelan ere, behar baino luzeagoa herritarren eskubideak komeni bezala jagoteko, maiz aski bederen.

Iraunaldi hau laburtzeko, ez da zilegi –erraz uler daitekeenez– prozeduraren eraentza hain berme garrantzitsuez gabetu edo soiltzea. Aldi berean, baina, auzibitarlean konponezinezko moduan indargabetu edo kaltetu litekeemandatzaileak prozeduraren bidez xede duen babes judiziala, halako moldez non jardunen buruan eman litekeen bere aldeko epaiak agian ez duen inolako probetxurik ekartzen, edo behintzat, hasieran uste baino askoz atarramentu gutxiago. Europar Erkidegoen Justizi Auzitegiak gomutara ekarri duenez, justizia berant batek ez du maiz justiziaren izenik ere merezi (*Factortime* Epaiak, 1990eko ekainaren 19koa). Hona hemen, bada, legegileak oroitezinezko garaietatik hona aurrez aurre duen arazo konpongaitza: prozedura-bermeen betetasuna eta babes judizial eraginkorraren arteko talka edo gatazka. Edo nahiago bada: lastertasun beharraren eta defentsa-printzipioaren arteko kontraesana.

Halatan, mekanismo edo erabideren bat taxutu behar du legegileak, prozeduraren berezko luzamenduek babes judiziala hutsal ez dezaten, lehentxeago azaldutako kontraesana gaindituz. Jomuga honetarantz jotzen dute, hain zuzen, kautelazko neurriek, balizko epai baiesle baten ondorio edo eragin juridikoak auzibitarlean gerizatzen bideratzen direlarik. Haien gabe, Konstituzioak denei aitortu babes judizialerako eskubidea ez litzateke ilusio edo begitazio hutsal bat baino, adierazpen erretorikoaz gaindi ailegatzen ez den asmo onen erakusgarria. Adibidez: batzuetan, auzi-jartzaileak ezin balezake aurreneurritzko enbargo bat erdietsi, era guztietako maniobra iruzurti eta maulazkoak burutu zitzaizkeen auzipetuak auzia gauzatzeko bitartean –agian urteetan zehar luza zitezkeen prozedura–, bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak –balizko exekuzio baten objektua– betearazpenaz kanpo utziz eta, beraz, prozeduran egikaritu eskubidearen asepena zapuztuz. Esandakoa gogoan duelarik, honako hau dio PZLaren Zioen Adierazpenak: “Justizia kontzeptuari dagokionez eta naturakide ere zaionez, justizia zibil eraginkorrak berme prozesalen betetasuna esan nahi du. Baina aldi berean, erantzun judizial lasterragoa esan nahi behar du, denboraz hurbilagoa eta gauzak eraldatzeko gaitasun handiagokoa. Esan nahi du, beraz, tresna-multzo

* Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra. Universitat de Girona.

bat, zuzenbidea kasuan kasu zehazteko aldia laburtzeko, hots: epai hurbilagoak auziaren hastapenetik, kautelazko neurri eskuragarri eta eraginkorrakoak, nahitaezko betearazpen lasterragoa...”.

Helburu hain desiragarri hauek erdiesteko, PZL berriak hogeita zazpi artikulua txertatu ditu bere testuan, 3. Liburuaren VI. Tituluan (PZL 721-747 artikuluetan), kautelazko neurrien eraentza berri bat ezarriz. Hona hemen, gaingiroki bada ere, Legearen berritasun nabarmengarrien edo nagusiak:

- 1) Legeak kautelazko babesaren araubide bateratu eta erkide bat ezartzen du, aurreko PZLan gertatzen zenez bestera. Lege honetan, neurriak elkarrengandik bereizita arautzen ziren, bakoitzarentzat eraentza bana edo bedera ezarriz. Eraentza hau, beste aldetik, osagabea zen ia beti, hutsartez beterikoa. Hedabanatze eta aniztasun handia zen, beraz, eraentza hartan nagusi, batez ere ondorengo alderdietan: neurriak akordatzeko baldintzak eta prozedura, neurriekiko oposizioa gauzatzeko prozedura, neurrien altxamendu eta aldarazpena, auzi-jartzailearen erantzukizuna eta ordezkotza. Gaur egun, oster, alderdi hauek guztiak eraentza orokor batean bilduta daude, eragina duelarik PZLaz kanpoko beste lege bereziek aurreikusitako neurrietan.
- 2) Kautelazko neurri zehatzez den bezainbat, hots, banako babes-mota edo babes-jardunez den bezainbat, sistema ireki bat ezartzen du Legeak, halako moldez non ez duen kautelazko neurri konkreturik arautzen (aurreneurritzko enbargoa, gordailu judiziala etab.). Bestela baizik, edonolako neurriak dekretatzeko ahalmena aitortzen zaie Auzitegiei, balizko epai baieslearen ondorioak segurtatzeko baliagarri edo apropos diren heinean. Horrek, baina, ez dio legegileari galarazten akorda daitezkeen neurrien katalogo bat eskaintzea, sor litezkeen zalantzen argigarri eta suposamendu berezi batzuk konkretatzeko xedez.

Alderdi hauek guztiak ondorengo lerroetan izanen ditut aztergai.

2. Kautelazko babesaren definizio eta ezaugarriak

Aurreko epigrafean iradoki dugunez, hona hemen kautelazko neurrien definizio bat: edozein motako auzitegi-jarduna, auzibitarlean edo prozedura hasi aurretik auzi-jartzailearen eskariz akordatuta, balizko epai baieslearen ondorioak segurtatzeko xedez. Auzibitarlean aipatzean, prozeduraren denborazko hedadura edo iraunaldi osoa adierazi nahi dugu, demanda tarteratzetik epaiaren irmotasuneraino alegia, prozedura ez baita ordura arte bukatzen. Neurriak, beraz, epai irmoa diktatu arte galdegin daitezke, bai lehenengo auzialdian, bai bigarrenetan eta bai aparteko helegiteren bat jartzen denean, auzialdi edo helegite hauek ez baitira beregaineko prozedura bat, prozedura berberaren beste fase bat baino.

Definizio honetatik, kautelazko neurrien ezaugarriak erator daitezke, jarraian egiten dugunez.

2.1. Instrumentalitatea

Kautelazko neurriak berak eta haiek adoptatzeko prozedura ezin daitezke ez existitu ez iraun beste prozedura batekin loturik izan ezik, non babes judizial jakin bat galdatzen eta bilatzen den. Bigarren prozedura hau, “prozedura nagusia” izenez ezagutu ohi da, eta kautelazko prozedura bere zerbitzutan oldoztuta dago. Kautelazko neurriak, beraz, instrumentalitate-lotura zuzen eta haustezinezko bat daukate prozedura nagusi horrekin.

Instrumentalitate honetatik eratortzen da, hain zuzen, neurriak ezin mantendu ahal izatea behin epai irmo bat diktatuz gero, edo, epai irmoa diktatu baino lehen, prozedura edozein kausaz amaitzen bada, auzi-jartzaileak, adibidez, demanda atzera egiten duelako edo akzioari uko egiten dielako (PZL 745. artikulua). Hala dio, esan ere, PZL 731.1.I artikulua: *“prozedura edozein kausagatik bukatu bada, ez da kautelazko neurririk mantenduko, kondenazko epaia edo auto baliokidearen kasuan izan ezik”*. Transkribatu dugun azken zati honetan aipatzen den neurrien mantentzea, kondenazko epaiaren edo auto baliokideren kasuan, behin-behinekoa da soilik, hogeitazero egunetako, epaiaren betearazpena eskatzeko Legeak ezarritako nahitaezko itxaronaldia iragan arterainokoa hain zuzen. Behin-behineko luzamendu motz hori gorabehera, kautelazko neurriak eta epaiaren irmotasuna erabat bateraezinak dira.

Halaber, demanda aurkeztu baino lehen eskatu eta akordatu diren neurriak altxatu beharko dira, demanda hogei egunen buruan aurkeztu ere, aurkezten ez bada (ikus PZL 730.2.II artikulua).

Arrazoi honengatik ere, nahitaezkoa da kautelazko neurriak altxatzea prozedura luzaroan etenik gelditu bada: *“ez da kautelazko neurririk mantenduko, baldin eta prozedurak sei hilabete baino gehiago eman baditu etenik, neurrien eskatzaileari egozgarri zaizkion kausak direla-eta”* (PZL 731.1.II artikulua).

Balizko epai baieslea bada kautelazko neurrien segurtagai (hau da, oraindik diktatu ez den epai bat), garbi uler daiteke behin-behineko exekuzioak ez duela kautelazko izaerarik, nahiz eta kautelazko neurriak bezala epai irmoaren aurretik dekretatzen den. Behin-behineko exekuzioaren bitartez epaia betearazten da, betearazi ere, nahiz eta behin betiko exekuzioan ez bezala, gauzatu diren betearazpen-egintzak erabat deusezgarri edo atzera eragingarri izan. Kautelazko neurriek, ostera, epai baiesleko baliztasun edo gertagarritasun huts bat segurtatzen dute. Edo, gehienez –neurriak bigarren auzialdian eskatzen badira–, ez dute exekuzio xederik, etorkizuneko exekuzioaren segurtamendua baizik.

Izan, behin-behineko exekuzioa eta kautelazko babes bateginak dira legez, goian azaldu diren arrazoi guztiengatik. Horrela dio, hain zuzen, PZL 731. 2. artikulua: *“epaiaren behin-behineko exekuzioa abiaraziz gero, altxatu egingo dira akordaturiko kautelazko neurriak, exekuzio horri buruzkoak izanez gero”*.

Azkenik, instrumentalitate ezaugarri honek prozedura sumarioen teknikaren eta kautelazko neurrienaren arteko ezberdintasuna esplikatzen du ere. Izan ere, biak dira legegileak eskura dituen erabideak eskubideei babes laster edo azkar bat eskaintzeko. Prozedura sumarioetan, jakina denez, tasatu edo mugatuak dira auzipetuak alega ditzakeen ihardespenuak. Ondorioz, prozeduraren debatea arras mehartu edo murrizturik gelditzen da eta, horrenbestez, auziaren iraunaldia nabarmen gutxiagotzen da. Defentsa alegagarrien murrizte horren kariaz, hain zuzen, auziaren buruan diktatzen den epaiak ez du gauza epaituaren indarrik. Epai honek eskuratzen duen babes, baina, ez da berez behin-behineko edo aldi baterakoa, ezta ere beste edozein prozesu jardunera baldintzatua, egonkor eta iraunkorra baizik, baldin eta auzipetuak prozedura plenario bat abiarazten ez badu, auzigaiak defentsa-aukera beteekin eztabaidatzeko. Horrelakorik egin ezean, aldi-mugarik gabe iraun dezake epaiak emaniko babesak. Kautelazko neurriek, ostera, ezin dezakete babes egonkor eta iraunkorrik eskaini, beste prozedura bati loturik baitaude ezinbestez. Ez dira babes judizial iraunkor bat eskaintzeko gauza, prozeduran menturaz lortuko den babes segurtatzeko soilik baizik. Auzibitarrean bakarrik akorda daitezke eta, salbuespen gisa, demanda tarteratu baino lehen adoptatuz gero, berehala altxatu behar dira hogei egunen buruan demanda aurkezten ez bada. Egia da, bai, neurriek demandan galdaturiko erabakia aurrehartzen dutela batzuetan, inpugnaturiko akordio sozial baten esekipena eskatzen denean, adibidez. Baina babes honek ezin dezake beregain iraun, eta prozedura bukatuz gero, edo demanda interposatzen ez bada, berehala altxatzen da neurria. Ostera, adibide bat ipintzearen, ondasun higiezin baten edukitza prozedura sumario baten bidez berreskuratzen bada (PZL 250.1.4º artikulua), erdietsitako babes honek zehaztugabeko aldi iraun dezake, auzipetuak prozedura plenario bat inkoatzen ez badu, gauza epaituaren indarrez hornituriko epai bat lortzeko.

2.2. Kautelazko neurrien xedea

Lehengo Prozedura Zibileko Legearen indarraldian bizi zuten Zuzenbide Prozesalaren Doktrinak kautelazko babesaren helmugaz. Batzuen iritziz, kautelazko neurriek epaiaren exekuzioa segurtatzea zuten helburu bakarra. Kondenazko epaiek baino ezin liteke kautelazko neurriak izan eta, beraz, exekuzioaren bermagarri soilak lirateke. Beste motatako epaiek (eratzaille edo konstitutiboek eta deklarazio hutsekoek) ez lukete auzibitarrean segurtatuak izateko premiarik, beren jaulkipenarekin berarekin ahituko bailirateke euren ondorio juridikoak (ondasun baten jabetasunari buruzko deklarazioa, ezkontza baten disoluzioa etab.). Horrenbestez, ez legoke bere eragina auzibitarrean zemai lezakeen arriskurik, ezta ere epaia diktatu aurretik babes jardunak akordatzeko beharrik.

Doktrinaren beste sektore zabalago baten aburuz, aitzitik, neurriak edozein motako epai edo uziak segurtatzeko gai dira, baldin eta prozesu-aldi zehar epaiaren eragina andegatu edo eragotzi lezakeen arriskurik gerta baliteke eta arriskua uxatzeko jardun egoki edo aproposen bat akorda baliteke. Lege berriak bigarren jarrera hau egin du bere, neurrien xedea azaltzerakoan ez baitu, hitzez hitz, “kondenazko epai”-rik aipatzen, epai “baieslea” baizik (ikus PZL 721, 726.1.1, 727.11, eta 728 artikulua). Izan ere, jarrera honek dirudi arrazoitsuena. Egia da ez dagoela, arruntetan, epai eratzaille edo konstitutiboak eta

deklarazio hutsekoak auzibitarrean segurtatzeko beharrik. Arruntetan diot. Izan ere, litekeena baita zenbait kasutan horrelako premiarik izatea (adibidez, ondasun inskribagarri baten jabetasunaz deklarazio soil bat eskatzen denean). Kasu honetan, auzipetuak ondasuna besteren lezake prozesuak dirauen artean, eta hirugarren baten izenez erregistroan inskribatu, halako moldez non hirugarren honen eskuratzea jarkiezinezkoa bihurtuko litzatekeen, erregistroak hirugarrenei eskaintzen dien babes delata-eta. Horrelakorik ekiditeko, demandaren aurreneurritzko idatzohar bat eska lekioko Auzitegiari kautelazko neurri gisa, hirugarrenaren eskuratzea erregistro-babesetik landa uzteko.

Kautelazko babesaren jomugari buruz orain arte azaldutakoa argi eta garbi islatzen da PZL 721.1 artikuluan: *“Titulu honetan xedatu bezala, eta bere erantzukizunaren pean, auzi-jartzaile orok, hala nagusiak nola kontra-demandaren bidezkoak, kautelazko edozein neurri galdegin diezaioko Auzitegiari, egoki bada babes judizialaren eragina segurtatzeko, epaiak demanda baietsiz gero”*.

3. Kautelazko neurriak eta arbitrajea

Balitzko epai baiesle baten ondorioak kaltetuak gerta badaitezke prozedura jurisdikzionalaren iraunaldian, berdin jazo daiteke prozedura arbitrala garatzen den bitartean. Alde honetan, erabateko berdintasuna dago bi prozedura-moten artean, beste hainbat alderdietan bezala. Zeren arbitrajeak, dakigunez, prozedura jurisdikzionalaren ondorio berberak sorrarazten ditu, batik bat laudoaren indarrari edo ondorioei dagokienez.

Arbitrajearen Legeak ez die aipamenik egiten kautelazko neurriari, eta berdin gertatzen zen aurreko PZLarekin. Oraingoak, ostera, esanbidez onartzen du kautelazko neurrien bidezkoatasun eta zilegitasuna arbitraje prozeduretan, bere 722. I artikuluan: *“Espainian garatzen den prozedura arbitraleko partaidea dela akreditatzen duenak kautelazko neurriak eskatu ahal izango ditu...”*.

Epailak ez bezala, arbitroak ez daude exekutatzeko ahalmenaz horniturik, Zuzenbidea kasuan kasu deklaratzeko soilaz baizik. Legeak, teoriarik, neurriak dekretatzeko arbitroen gain utz lezake, baina haiek betearaztea epaileen eskumen eksklusiboa da, beti eta noraezean. Hala ere, neurriak dekretatzeko ahalmena Auzitegiari soilik konferitzea, Legeak agintzen duenez, eta ez arbitroei, hainbat autorek kritikatu izan da, epaileari prozedura arbitralaren auzigaiak ezaguera egokia falta dakiokela argudiatuz. Haien ustez, posizio egokiagoan leudeke arbitroak horretarako. Beraz, horien aburuz, gauzak zuzen eta artez taxutzeko, arbitroek erabaki beharko lukete neurriak hartzekoak diren edo ez, eta, baietzear, zer-nolako baldintzekin. Nire ustez, badago beste desabantaila bat legegileak hautaturiko jardunbidean: arbitraje gehienak ekitatez ebaztekoak dira, hau da, zuzenbide positiboa zorrotz aplikatu gabe, sen oneko arau edo maximak erabiliz. Arbitrajea hitzartu dutenek, areago, pertsona edo erakunde batean ezarri dute, *intuitus personae*, beren konfiantza, epailari ez profesionalok euren hobespen eta kasuaren berezitasunen arabera izendatuz. Epailari, ostera, ezin dakioko arbitrajearen partaideen konfiantza presumatu. Areago: partaideek, arbitrajearen bitartez, organo judizialen esku-hartzea baztertu dute bere kasuaz arduratzeko. Halatan, litekeena da muturreko kasu hau gertatzea: neurriak dekretatzeko beharrezkoa den eskubide oneko itxura (*fumus boni iuris*) epailearentzat argi eta garbia izatea eta, arbitroen iritziz, ostera, erabat arbuiztekoa.

Hala ere, egia da neurriak dekretatzeko fakultatea arbitroei eratzikiko balitzaie, jurisdikzio arruntaren epailearengana joko beharko luketela betearazpen eske, eta horrek ezin lezakeela, besterik gabe, neurriak betearazi euren adopzio-baldintzen inguruan azterketa bat burutzeke. Beraz, bikoiztu egingo litzateke neurrien baldintzen gaineko azterketa. Bikoizpen hau ekiditeko eta bien arteko balitzko kontraesanak galarazteko, hain zuzen, balio du Legeak ezarritako sistema.

Arbitraje bat burutzeko interesatuek, gero eta sarriagotan, erakunde jakin batzuetara jo ohi dute, arbitrajearen kudeaketa edo administrazioan berezitetara, bai arbitroen izendapena eta bai arbitrajearekiko beste zenbait eginkizun haien gain utziz. Gaur egun arbitraje modalitate hau da, hain zuzen, ohikoena. Halakoetan, eskari bat aurkeztu behar zaio erakundeari, eta honek erabaki behar du eginkizuna onartzen duen edo ez. Bitarteko aldia luze samarra izan daiteke, eta interesaren batek premia gorria izan lezake kautelazko neurria akorda dadin.

Horrelako zerbait jazo liteke arbitrajea formalizatu behar bada. Formalizazioa, ezaguna denez, arbitroak izendatzeko prozedura bat da, arbitrajea arbitroen pertsonak zehaztuz itundu denean.

Izendaturiko arbitrook eginkizuna burutu ezinik aurkitzen direnean edo onartzen ez dutenean eska daiteke formalizazioa, arbitrajea porrot egin dadila galarazteko. Formalizazio prozedurak agerraldi judizial bat aurreikusten du, zeinean partaideak arbitroen izendapenaz akordio batera iritsi ezean, izendapenari ekiten dion epaileak zozketa baten bidez.

Bi kasu hauetan neurriak galdegin daitezke, nahiz eta prozedura arbitrala oraindik ez den hasi. Horrela dio PZL 722.1 artikulua: (kautelazko neurriak eskatu ahal izango ditu) *“baita ere Arbitrajeko Legearen 38. artikuluan aurreikusten den formalizazio prozedura abiarazi duenak eta, halaber, arbitraje instituzionalaren kasuan, dagokion erakunderen bati behar bezalako eskaria aurkeztu dionak”*.

Txalotzekoa da artikulua honetan xedatua. Ohar bedi, baina, tratamendu ezberdintasuna sortzen duela prozedura arruntarekiko. Formalizazio eta arbitraje instituzionalaren kasuetan ez baita premia larri bat alegatu behar neurriak prozedura aurretik lortzearen, prozedura jurisdikzionalan gertatu lez (ik PZL 730.2 artikulua).

4. Kautelazko neurrien auresupostuak

Kautelazko neurri bat adoptatzeko, hiru baldintza edo auresupostu bete behar dira: luzamendu prozesaleko arriskua, eskubide oneko itxura eta kauzio baten prestazioa. Oraingo PZLak bere 728. artikuluan biltzen ditu baldintzok. Iruzkintxo bana eskainiko diegu.

4.1. Luzamendu prozesaleko arriskua (periculum in mora)

Hasieran azaltzen nuenez, prozeduraren iraunaldia –beharbada oso luzea– konpentsatzen dute kautelazko neurriek, *tempus procedendi* hartan balizko epai baieslearen eragina kaltetu edo eragotzia izan baitaiteke era askotako gorabeherak direla-eta, bai auzipetuak berariaz gertaraziak (bere ondareko ondasunak besteen titularitatearen pean ezarri, etorkizuneko exekuzio bati itzuri egiteko asmoz, adibidez), bai halaberbeharrez edo inoren borondateak ez eraginak (demandak galdagai duen gauza produktibo baten narriadura, behar bezalako mantentzearen peituagatik, esaterako). CARNELUTTIK egoki esan bezala, kautelazko neurriek gauzak ondo egitea (prozeduraren izapide guztiak behar bezala gauzatu) eta aldi berean azkar egitea (galdaturiko eskubideari berehalako babesa eskaintzea) komunztatzea dute xede. Ideia hau, 728.1 artikuluan plasmatzen da:

“Kautelazko neurriak dekretatzeko, honako hau akreditatu beharko du eskatzaileak: auzibitartean gerta daitezkeen gorabeherak direla-eta, neurriak akordatu ezean, babes judizialaren eragina galaraz edo eragotz zitekeela, epaiak demanda baiesten badu”.

Horrelako arriskurik gabe, ez litzateke inondik inora bidezkoa izango botere publikoaren hain esku-hartze bortitza auzipetuaren ondarean.

Legegileak suposamendu berezi bati egiten dio so artikulua honetan, arrisku honen konkurrentziarik eza presumatzen duelarik:

“Ez da kautelazko neurriak akordatu eskatzaileak aspaldidanik kontsentitu dituen egoerak aldarazteko, neurri haiek zergatik ez diren artean eskatu egokiro arrazoitu ezean”.

4.2. Eskubide oneko itxura (fumus boni iuris)

Epaiak auzi-jartzaileak bere alde baieztatzen duen eskubidea berretsi arte, ezin daiteke bere uziaren bidezkotatasunaren ziurtasun juridiko osoa erdietsi. Kautelazko neurri bat adoptatzeko ziurtasun goi maila hau galdatuko balitz, bortxatu edo urratu egingo litzateke kautelazko babesaren izaera, zeinen funtsa, genioenez, honetan baitatza: prozedurak dirauen artean, balizko epai baieslearen ondorio juridikoak segurtatzea. Ziurtasun hori barik, nolabaiteko itxura juridiko faboragarri bat jario behar zaio auzi-jartzailearen posizioari. Horregatik, hala xedatzen du Legeak: *“kautelazko neurriak eskatzen dituenak datu,*

argudio eta dokumentuzko justifikazioak aurkeztu beharko ditu, Auzitegiak bere uziaren funtsaz behin-behineko eta aieruzko balioespen bat egin dezan, auzigaia aurrez epaitu gabe. Dokumentuzko justifikaziorik ezean, eskatzaileak beste bitartekoez baliatu ahal izango du". Ikus daitekeenez, prezeptuak ez du "frogatzeaz" hitz egiten, "akreditatzeaz" edo "justifikatzeaz" baizik. Hau da, itxura juridiko arrazoitsu bat baino ez da aportatu behar kautelazko neurri bat akordatzeko, ziurtasun beteraino iristeko premiarik gabe. Itxura honek nolabaiteko itxaropen oinarritu bat eskaini behar du, itxura edo antzirudi huts hori ziurtasun betea bihurtuko dela epaia ematerakoan. Itxura honek, noski, uziaren alderdi juridiko eta egitatezkoak bildu behar ditu, hots: uziaren bidezkototasunak konkludentea izan behar du juridikoki, eta egitatez den bezainbat, egiantzekoa. Lehenengo alderdiari dagokionez, sendotasun handiagoz burutu daiteke zuzenbidezko konkludentziaren gaineko azterketa egitatezkoa baino, nahiz eta kondena-epaia emateko moduko balorazio juridiko zorrotza galdagarri ez izan, hau da, demandaren baiespen edo ezespenari bide emateko modukoa. Egitate alegatuen egiantzaren gaineko azterketari ere, ez zaio ezarri behar judiziopeko gertakarien frogari galdatzen zaion adinako hertsitasuna. Ezpere, frogaldiaren aurrehartze bat bilakatuko litzateke, kautelazko babesaren xede eta funtsezko ezaugarriak naturaldatuz eta kontraesanez. Egiantza arrazoitsu hori aportatzeko, edozein frogabidez baliu daiteke neurrien eskatzailea. Legeak, noski, aparteko lehentasuna ematen dio dokumentuen bidezko frogari, arlo zibileko auzietan dagokion gailentasun eta nagusigoari jarraiki, inguratzen duten ziurtasun bermeak direla-eta.

4.3. Kauzinoa emateko beharra

Ikusi dugunez, kautelazko babesaren kontzesioak funts ahul samarra du irozgarri, uziari darion bidezkototasun itxura soila, alegia. Halatan, litekeena da auzi-jartzaileak baieztatu duen uzia Auzitegiak epaian ukatzea. Horrelakorik gertatuz gero, baliteke neurriak jasan dituenak hainbat kalte-galera pairatu izana bere ondarean –eta, agian, baita bere izen edo entzute onean ere–, ulerbidez, enbargoa dela-eta, ondasunez xedatzeko ezintasunak eraginik. Jatorrizko ahultasun hori nolabait konpentsatu nahian, legegileak kauzino bat emateko beharra ezartzen dio neurrien eskatzaileari, iruzkintzen dugun artikuluan esaten denez:

"Bestelakorik esanbidez agindu ezean, neurriaren eskatzaileak kauzinoa eskaini beharko du, auzipetuaren ondareari neurriak eragin liezazkiokkeen kalte-galerak azkar, eraginkor eta osorik ordaintzeko.

Kauzinoa zehazteko, honako alderdi hauek izango ditu Auzitegiak kontuan: uzien izaera eta edukia, eta eskabidearen funtsaz egin duen balioespena, aurreko idatz-zatiaren arabera.

Aurreko lerroaldean aipaturiko kauzinoa 529 artikulua 3. idatz-zatiaren 2. lerroaldean aurreikusitako moduetan prestatu ahal izango da".

Aurreko Legeak ez bezala, oraingoak kauzinoaren derrigortasuna ezartzen du, legezko aginduren batek bestelakorik esanbidez aurrakusi ezean. Beste aldetik, kauzinoaren munta kalkulatzeko jarraibide zehatzik eman ez arren, gida-arau preziagarri bat eskaintzen dio behintzat Auzitegiari Legeak, kauzinoak *kalte-galerak azkar, eraginkor eta osorik ordaintzeko* aski izan behar duela agintzen duenean. Eta, oso era generiko edo orokorrean izan arren, kauzinoa zehazteko xedez aztergai izan behar dituen hainbat alderdi seinalatzen dizkio Legeak Auzitegiari: *uzien izaera eta edukia, eta eskabidearen funtsaz egin duen balioespena.*

Modu honetan, ahalik eta ganora edo seriotasun handiena bermatu nahi da kautelazko neurrien eskarian, eta, azken finean, auzipetuaren kaltegabetasun osoa, prozeduraren buruan demandaren funtsik eza agerian geratuz gero. Helburu hauek erdiesteko, legegileak beste haruntzagoko urrats bat eman du neurriaren exekuzio edo betearazpena arautzerakoan, alegia: neurrien edozein exekuzio-egintzari ekin baino lehen, ezinbesteko baldintza gisa, kauzinoa emateko beharra eta bere muntaren askiespen eta prestatzeko moduaren egokiespena, PZL 737. artikuluan adierazten denez. Izan ere, hain neurri kementsu eta bortitzak har badaitezke –epaiaren ondorioak aurreratzeraino hel daitezkeenak, ikusiko denez–, balizko kalte-galeren ordainarazpena taxuz eta eraz segurtatu behar da.

Kauzinoaren zenbatekoaz gain, bera emateko moduak ere aurreikusten ditu Legeak, horretarako PZL 529.3º.2 artikulura joz, behin-behineko betearazpenera oposatzeko kauzinoa eraentzen duena eta bere

baitan hainbat prestazio-modu biltzen dituena. Hauek dira prezeptu hartan aurreikusitako kauzio-motak: abal solidarioa, iraupen zehaztugabekoa, lehen errekerimenduan ordaintzekoa eta kreditu-entitateek edo elkarrekiko bermetarako sozietateek jaulkia. Horrelakorik ezean, beste edozein modutara eman daiteke kauzioa, Auzitegiaren aburuz kalte-ordaina berehala eskuratzea bermatzen badu. Ikus daitekeenez, kauzioa personala ahalik eta gehien ekiditen da, segurtasun gutxienekoa delakoan. Beste aldetik, hobetsiak dira dirua berehala erdiestea ahalbidetzen duten kauzio-motak, bahiturazko eta hipotekazkoak kasu bigarren lekura baztertuz.

5. Kautelazko babesaren irismen edo norainokoa

5.1. Neurri adoptagarriak zehazteko numerus apertus sistema

Epigrafe honek ondorengo galdera erabakigarri honi eman nahi dio erantzuna: zein edukitako neurriak adopta daitezke? Edo, gurago bada, noraino irits daiteke kautelazko babesari? Badakigu, jakin ere, aurreko Prozedurako Legeak eta beste lege sakabanatu batzuek ere, arau orokor gisa, neurrien *numerus clausus* bat ezartzen zutela; hau da: kautelazko neurri jakin batzuk aurreikusten zituzten (aurreneurritzko enbargoa, administrazio judiziala, gordailua etab.), baina horiez gainera ez zegoen beste kautelazko babes-motak onartzerik. Denbora iragan ahala, sistema honen zurruntasun eta desabantailak agerian jarri ziren, anitzetan ezinezkoa baitzen uzi batzuei premiazkoa zuten kautelazko babesari eskaintzea. Hau dela-eta, 1428 artikulua berria atxiki zitzaion aurreko PZLari, akatsa konpontzeko. Klausula ireki bat ezartzen zen hor, zeinen bitartez edozein eratako neurriak adopta zitezkeen epaiaren eraginak kasuan kasu segurtatzeko, jadanik tipifikatutako neurriak horretarako egoki ez baziren.

Oraingo Legeak azken sistema hau ezarri du bakar gisa. Hau da: indarrean dagoen PZLak ez du banako kautelazko neurriak ezartzen eta arautzen, baizik eta klausula orokor bat finkatzen du bere 721.1 artikuluan:

“Titulu honetan xedatu bezala, eta bere erantzukizunaren pean, auzi-jartzaile orok, hala nagusiak nola kontrademandaren bidezkoak, edozein kautelazko neurri galdegin diezaioke Auzitegiari egoki bada, epaiak demanda baietsiz gero babes judizialaren eragina segurtatzeko”.

Epaiaren ondorio juridikoak segurtatzeko gaitasuna da, beraz, eta printzipioz, jardun bat kautelazko neurri gisa akordatu ahal izateko oinarritzko baldintza. Eraentza honen malgutasunak anitz onura dakartziko kautelazko babesari, kasuan kasuko beharrezanetara moldatzeko aisetasun handia eskaintzen duelako.

Antzeko zerbaite dio, zehaztasun handiagoz, PZL 726.1. artikulua: *“Auzitegiak edozein jardun, zuzeneko edo zeharrekia, akordatu ahal izango du kautelazko neurri gisa auzipetuaren ondasun eta eskubideekiko, honako ezaugarri hauek bete izanez gero: 1º. Balizko epai baietsile batek eman lezakeen babes judiziala segurtatzeko xede bakarria izatea, babes hori eragotz edo galaraz lezakeen gorabeherarik auzibitarrean jazo ez dadin...”*.

Eta, azkenik, ildo beretik, hara zer dioen PZL 727.11 artikulua, adoptagarri diren kautelazko neurrien zerrenda ireki bat osatzerakoan: *“legeek eskubide jakinetarako berariaz hautematen dituzten bestelako neurriak, edo beharrezkotzat jotzen direnak, judizioan eman daitekeen balizko epai baietsilearen eragina bermatzeko”.*

5.2. Astuntasun gutxieneko printzipioa

Neurri akordagarrien zehaztapenean, baina, areagoko pauso bat eman du legegileak, aurrekoari beste zenbait espezifikazio erantsiz, PZL 726. artikuluan behatuak:

“1. Auzitegiak edozein jardun, zuzeneko edo zeharrekia, akordatu ahal izango du kautelazko neurri gisa, auzipetuaren ondasun eta eskubideekiko, honako ezaugarri hauek betez gero: (...) 2º Beste neurri batez ezin ordeztu izatea eraginkortasun berdinez eta auzipetuarentzat astuntasun gutxiagoz”.

Ikusi lez, “astuntasun gutxieneko printzipioa” izenda genezakeena ezartzen da lerroalde honetan. Hau da, epaia segurtatzeko berez aproposa izateaz gain, neurri egokien artean ahalik eta astuntasun gutxienekoa hautatu behar da, auzipetuari premiagabeko kalte edo deserosotasunak ekiditeko xedez.

5.3. Kontserbazio soileko eta asepenezko neurriak

Arreta berezia merezi du PZL 726.2. idatz-zatian xedaturikoak, kautelazko babesaren funtsezko alderdi oso eztabaidatu bat ukitzen baitu, aurreko PZLaren doktrinazko diskusioan oso iritzi ezberdinak sorrarazi zituen: *“Auzitegiak kautelazko neurri gisa akordatu ahal izango ditu prozeduraren uziek bezalako edukia duten agindu eta debekuak, betiere emango den epaia aurrez erabaki gabe eta kautelazko neurriei, Lege honen arabera, dagokien behin-behineko, aldi baterako, baldintzapeko, aldagarri eta altxagarri izaeraz”*.

Galdera liskartia honako hau zen: segurtamendu huts edo soilekoak izan behar dute kautelazko neurriak (hots, bakar-bakarrik epaiaren ondorioen eraginkortasuna jagotera bideratuak), ala haruntzago joan daitezke, epaiaren ondorioak segurtatze hutsez gaindi, beraiek aurreratuz edo aurrehartuz? Izan ere, ez da gauza bera aurreneurritzko enbargo bat dekretatzea eta sozietate anonimo baten akordioa kautelaz esekitzea. Lehendabiziko neurriak kontserbazio edo segurtamendu ondorio soilak ditu (ondasun baten jabegoa aldagabe jarraiarazi edo bere balizko aldaketa oposaezin bihurtu). Bigarrenak, aldiz, epaiak eragin litzakeen ondorio juridikoak aurretiaz betearaztea dakar; hots, epai baiesleak emango lukeen babes judizial bera deklaritzen eta betearazten du, demandatzaileak galdaturiko eskubidea behin-behinik asebetez.

Doktrinaren atal batek ezezko erantzuna eman zion itaunari. Haien ustez, kautelazko neurri batek balizko epaiaren ondorioak era hartan aurreratuko balitu, titulurik gabeko exekuzio bati emango litzaiokie bide. Doktrinaren beste sektore bat, ostera, aurreratze honen alde agertu zen. Esku-hartze guztiz kementsu eta traumatikoa da, izan ere, balizko epaiaren ondorioak aurrez betearaztea; zenbait kasuetan, baina, bide bakarra izan daiteke, auzi-jartzaileak xede duen babes judiziala segurtatzeko. Aurrehartze hori baimenduta ez balego, auzi-jartzailearen balizko eskubidea zapuztuta geratuko litzateke askotan, halaberrez eta erremediorik gabe. Babes judizial eraginkorra erdiesteko eskubidearen aldetik, guztiz desegokia litzateke egoera hori eta, beraz, epaiaren eraginak hain era kaliputsuan baino ezin badaitezke segurtatu, zilegi eta bidezkoa litzateke babes judizialaren ondorioak, azaldu bezala, aurreratzea. Pentsa, bestela, nola segurtatu, behar bezalako eraginkortasunaz, Jabego Intelektualak zaindutako lan diskografiko bat, enpresa ustiatzaileak bere egilearen borondatearen kontra zabaldu nahi badu irrati-uhinen bidez. Egilearen demandak lanaren ustiakuntza debekatzea badu xede, eta ezin balitezke irrati-emanaldiak kautelaz geldiarazi, bere autore-eskubide moralala urratuta geratuko litzateke prozedurak dirauen artean, emanaldien poderioz. Bere uziaren ondorezko alderdiak enbargo baten bidez segurta litezke, ez ostera autore-eskubide moralala. Horretarako, balizko epai baieslearen ondorioak aurreratu edo aurrez betearazi behar dira noraezean, irrati-emanaldiak etenaraziz. Horrela ulertu du, behintzat, mende berriko legegileak, aipatu dugun artikulua bigarren idatz-zatian.

Izatez, epaiak sorraraz ditzakeen ondorioak eta neurriak edukiz berdinak izango dira. Baina ez guztiz berdinak, *antzekoak* baizik, aurreratutako ondorioak behin-behineko, baldintzapeko, aldi baterako, altxagarri eta aldagarri izanen baitira, epaiak emaniko babesa ez bezala.

Azkenik, eta geroago ikusiko dugunez, adopta daitezkeen kautelazko neurrien zerrenda bat egiterakoan, Legeak horrelako neurri aurreratzailerik edo asegile asko bildu ditu esanbidez eta berariaz (ikus PZL 727. artikulua 7^o eta 10^o idatz-zatiak).

5.4. Adopta litezkeen neurrien zerrenda irekia (PZL 727. artikulua)

Zeingura neurri adoptatzeko baimen hark, hain komenigarri eta egokia izanik ere, zenbait arrisku eta eragaitz ekar ditzake, zeren, nahiz eta Legeak epaileari hainbat jarraibide eta gida-arau eskaini kautelazko babesa kasuan kasuko berezitasunetara moldaraztearren, zehaztugabetasun erlatibo honek “hustasunarekiko beldurra” delakoa (*horror vacui*) eragin liezaioke Auzitegiari. Berau uxatzeko, adopta daitezkeen neurrien zerrenda ireki bat atxiki dio Legeak bere testuari 727. artikuluan. Asmoa ez da, beraz, organo judizialaren erabakimena estutu edo mehartzea, jarraibide edo lagungarri bat eskaintzea baino.

Hona hemen legegileak ipinitako adibideak:

“Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo kautelazko neurri hauek akorda daitezke, besteak beste:

1. Ondasunen enbargoa, ondorengo edukiak dauzkaten entregatzeko kondena-epaiak segurtatzeko: diru kopuruak, fruituak, errentak, eta prezio jakinen bidez dirutan zenbakarri diren gauzak.

Aurreko lerroaldearen kasuez landa, enbargoa akordatu ahal izango da ere, neurria egokia izanez gero eta beste neurri batez ordeztu ezin badaiteke, eraginkortasun berdinez edo gehiagoz, eta auzipetuarentzat astuntasun gutxiagoz”.

Enbargoa, berez, neurri egoki eta paradigmaticoa da diru-kopuruak galdagai dituzten uziak segurtatzeko. Xedatzeko ahalmenean eragin gabe eta edukitza edo posesioa eskualdatu barik, enbargoak ukitzen duen ondasuna betearazpena afektaturik geratzen da, bere salmentaren produktuarekin hartzekodunaren kreditua asetzeko.

Horrez gain, enbargoa neurri egokia izan daiteke diru-kopururik galdagai ez duten bestelako uzietarako, iruzkintzen dugun idatz-zatiaren lehengo lerroaldean bertan esaten denez: *fruituak eta prezio jakinen bidez dirutan zenbakarri diren gauzak*. Horrelakoetan, gauza generiko edo ordezgarriak dira galdagai, dirutarako bihurpen erraz bat ahalbidetzen dutenak. Fruitu edo gauzon entrega era espezifikoan gauzatu ezinaren arriskua uxatzeko, beraz, enbargoa eska daiteke kautelazko neurri gisa.

Eta, azken buruan, enbargoa neurri egokia izan daiteke baita ere diru-kopururik xede ez duten beste edozein uzi-mota babesteko; hots, zordunaren jarduteko edo ez jarduteko betebeharrak jakin bat galdagai duten uzietarako, kondenaren betearazpena era espezifikoan (*in natura*) ezinezko izango delako beldurra dagoenean. Halakoetan, betearazpen espezifikoak diruzkoa bihurtzen da, hartzekodunari kalte-galaren diruzko ordain bat erdiesteko helburuz; alegia, zor zitzaion prestazio espezifikoaren ordeza.

Azaldutako arrazoi hauengatik guztiengatik, enbargoa kautelazko neurri usuen eta gehien erabilia da.

“2. Ondasun produktiboen kontu-hartze edo administrazio judiziala: beraiek eskuratzeko epaia jabe edo gozamenaren tituluz galdatzen denean. Baita ere ondasunon produktibitatea mantentzeko edo hobetzeko interes zilegia inplikatzeko duen beste edozein titulu alegatzen denean edo produktibitatearen bermea interes behinena bada jaulki daitekeen epaiaren eragina segurtatzeko”.

Administrazio edo kontu-hartze judiziala neurri egokiak dira ondasun produktiboen entrega segurtatzeko. Horrelakoetan, epaiaren eraginari kalte egin liezaioketen arriskuak ondasunaren produktibitatea lerra dezaketenak dira. Pentsa bedi ondorengo edukiak entregagai dituzten uzietan: jardunean dagoen enpresa edo lantegi bat, uztak ematen dituen soroak, etab. Ez dira, beraz, diru kopuruak galdagai, gauza produktiboak baizik.

Administrazioa eta kontu-hartzea guztiz neurri ezberdinak dira. Lehendabizikoak erabat baztertzen ditu aurreko administratzaile edo kudeatzaileak, eta horien ordeza beste batzuk ezartzen ditu, Auzitegiak izendaturik. Kontu-hartzeak, aldiz, intentsitate txikiagoa du, aurreko administratzailea bere lekuan mantentzen baitu eta haren ondoan kontu-hartzaile bat ezarri, bestearekin batera ondasunaren ustiakuntza aurrera atera dezan. Jatorrizko administratzaileak ez du kontu-hartzailearen baimenik gabe esplotazio egintzarik burutu behar, eta horrelakorik galarazteko, beharrezkoa izanez gero, idatzohar aproposak praktika daitezke legokiokoen erregistroan, hirugarrenetikiko babesa indargabetzeko.

Neurri hauen araubidez den bezainbatean, ikus neurrien exekuzioaz esango duguna beheragoko epigrafe batean.

“3. Gauza higigarri baten gordailua, auzipetuaren menpean dagoenean eta demandak beratu entregatzeko kondena duenean xede”.

Neurri egokia da hau ondasun higigarriak auzibitarrean narria edo ezkuta daitezela ekiditeko, eta baita ere ondasunok hirugarren bati eskualda ez daitezela, beraiek erreibindikaezinak bihurtuz. Gordailuzainaren betebeharrak Kode Zibileko 1787 eta 1788 artikuluetan aurreikusten dira.

“4. Ondasunen inbentarioa osatzea, Auzitegiak xedatutako baldintzen arabera.

5. Demandak erregistro publikoetan inskribagarri diren ondasun edo eskubideak baditu xede, bere prebentziozko idatzoharra”.

Neurri hau Hipoteka Legean eta bere erregelamenduan eraenduta dago (HL 42.1º, 43 eta 76 artikulua, eta Hipoteka Erregelamenduaren 139 eta hurrengo artikulua).

Demandaren prebentziozko idatzoharrak, prozedurak dirauen artean ondasuna besterentzea ekiditeko xedea dauka. Izan ere, auzibitarrea iragartzen duen idatzohar bat inskribaturik agertzen bada erregistroan, balizko erosle edo erdiesle batek ezingo du fede onaren printzipioa bere alde alegatu haren eskuratzea oposaezin bihurtzeko.

Akzio errealak egikaritzen direnean eskatu ohi da neurria, baina Legeak ez du idatzoharra kasu hauetara soilik mugatzen eta, beraz, besteetan ere lortu ahal izango da, zein den ere baliarazi den uziaren mota, epai estimatzailearen eraginak segurtatzeko neurri erabilgarri eta egokia izanez gero.

“6. Beste motatako erregistro-idatzoharrak, erregistro-publizitatea baliagarria izanez gero exekuzioa arrakastaz gauzatzeko”.

Jabegokoaz gain, beste erregistro asko daude, zeintzuetan prebentziozko idatzoharrak egin daitezkeen, hainbat lege berezi eta sektorialekin aurreikusitakoak: Merkataritzakoa, Zibila, Jabego Intelektualekoa, Ondasun Higigarrien Hipoteka eta Eskualdatzerik gabeko Bahiturakoa, Patente eta Marketarako Espainiar Bulegoa, Kooperatibetakoa, Epekako Salmentakoa, Kontratazioaren Baldintza Orokorretakoa, etab.

“7. Jarduera bat behin-behinik bertan behera uzteko agindu judiziala; jokoera bat garatzetik abstenitzeko agindua; garatzen ari zen prestazio bat eten edo geldiarazteko behin-behineko debekua”.

Neurri hauek, lehen esan bezala, balizko epaiaren ondorioak aurreratzea inplikatzeko dute, eta beraz, ordenamendu juridikoak behatzen dituen bizkor eta kementsuenak dira.

“8. Ez-zilegizat jotako jarduera baten bidez lortutako irabazien esku-hartze eta gordailua, demandaren xedea jarduera haren debeku edo etendura denean; eta baita ere jabego intelektualaren ordainsari gisa galdatzen diren dirutzen kontsignazio edo gordailua.

9. Aleen eta gauzakien aldi baterako gordailua, ustez industria edo intelektual jabegoaren gaineko arauak urratuz ekoitzi badira, eta baita ere euren ekoizpenean erabilitako materiala.

10. Inpugnaturiko akordio sozialen esekipena: auzi-jartzaile edo auzi-jartzaileek gutxienez kapital sozialaren %1 edo %5a ordezkatzeko badute, sozietate auzipetuak balorerik jaulki duen edo ez duen arabera, eta baietzean, balore haiek bigarrenezko merkatu ofizial batean negoziatorako onartuak izan badira inpugnazioaren garaian”.

Antzeman daitekeenez, atal honek legitimazio aktiboko xedapen zahatz bat ezartzen du. Baina, esan dudanez, neurri-zerrenda hau adibidezkoa baino ez da, legegileak espresuki horrela xedatu duenez. Hona hemen, bada, berehala azaleratzen den itauna: ehuneko haiek nahitaez galdu beharko al ditu epaileak akordio sozialen esekipen edo etenaraztea eskatzen den bakoitzean, ala beheratu edo, baita ere, areagotu ahal izango ditu, kasuaren zertzeladen arabera? Aurreikusitako arauaren arrazoizkotasuna, izan ere, aise ulertzen da: akordioaren esekipena, hain neurri astun edo larria izanik, ez dadila elkartekide edo bazkide bakar baten edo gutxi batzuren eskariz dekretu, agian besteen interesaren kaltetan.

Zerrenda hau, alabaina, adibide hutsezkoa izanik, ez dirudi idatz-zatiak aginduzko aurreikuspen bat biltzen duenik. Hori izan balitz legegilearen asmoa, zenbakitze honetatik landa ezarri beharko zuen aurrikuspena, eta ez du, ageri denez, halakorik egin. Beraz, arrazoitsuagoa ematen du ondorioztatzea legegileak artamendu edo ohartarazpen gisako bat zuzendu nahi izan diola epaileari, neurriaren eskatzaileen kopurua aintzat har dezan. Izan ere, neurri honen zerrendaratze soilak eragin garrantzitsua

izango du auzitegi-praxian, epaileek joera handia izango bide baitute akordio sozialen esekipena atalean profilatzen den bezala dekretatzera, era ezberdineko arazoak eta eragaitzak ekiditeko.

“11. Legeek eskubide jakinetarako berariaz xedatzen dituzten bestelako neurriak, edo beharrekoztat jotzen direnak, judizioan jaulki daitekeen balizko epai estimatzailearen eragina bermatzeko”.

PZLa promulgatu baino lehen, kautelazko neurriek adarrarte edo sastrakadi korapilatsu eta trinko bat osatzen zuten, hainbat lege ezarritako kautelazko eraentza ezberdinak zirela-eta. Orain, ostera, PZLa deuseztatu egin ditu lege haietan ezarritako eraentzak. Esandakoa egiaztatzeko, ez dago PZLaren bigarren Xedapen Derogatzailaren 10^o-14^o zenbakiei begirada bat eman besterik: Lehiakidetzak Desleial, Publizitate, Jabego Intelektual eta Patentei buruzko Legeen kautelazko araubide bereziak deuseztatzen dira hor, marka eta patenteetako prezeptu gutxi batzuk izan ezik, neurriak ordeztuko kauzioari buruzkoak, hain zuzen (11/1986 Patentei buruzko Legearen 133-139. artikulua, zehazki).

6. Neurriak akordatzeko prozedura

6.1. Eskaera

6.1.1. Alderdiaren ekimenez akordatu beharra

Zibil arloko prozeduran eskuarki gertatzen denez, kautelazko prozedura ere alderdiak eskatuta abiarazi behar da. Auzitegiak ezin dezake ofizioz, bere kabuz alegia, neurriak akordatu. Badago, baina, inkisiziozko agergaririk daukan prozedura zibilik, jagongai duen interes publiko edo erdi-publikoa dela-eta. Halakoetan, legegileak berak aurreikusi du neurriak ofizioz agintzeko aukera. Ezgaitzeta prozedurak (PZL 762.1), eta filiazio (seme-alabatasun) prozedurak (PZL 768) dira suposamendu nagusiak.

6.1.2. Eskabidearen edukia. Akreditamenduen aurkezpena, atariko eginbideak eta kauzio eskaintza

- a) PZL 732.1 artikulua dioenez, *“kautelazko neurrien eskaria argi eta zehatz formulatuko da, bere adopzioarako legez agindutako baldintzak behar diren moduan akreditatuz eta argudiatuz”.* ORTELLS RAMOSen esanetan, nabarmentzekoak dira Legeak aipaturiko “zehaztasun” eta “argitasun” horiek. Izan ere, Lege berriak neurri tipifikatuaren sistema behin desagerraraziz gero eta zehaztaperen lokabeko beste batera aldatzean, berebiziko garrantzia dauka eskatzaileak bere eskabidea ahalik eta doitasun handienaz formulatzeak, epaileak alderdiak eskatuta jardun behar baitu, eta behar bezalako zehaztasun hori zenbait alderditan falta izanez gero, neurrien ingeradak taxutzerakoan, ezingo litzuke akordatu, inkongruentzian erori nahi ez badu behintzat.
- b) Dakigunez, kautelazko prozeduran ez dago, zentzu hertsian, frogaldirik. Baina luzamendu prozesaleko arrisku eta eskubide oneko itxura bat akreditatu behar da. Horretarako aportatu nahi diren akreditamenduak demandarekin batera aurkeztu behar dira, PZL 732.2 artikulua xedatu lez: *“eskari-idazkiarekin batera, eskaria irozteko dokumentuak aurkeztuko dira edo, halakorik ezean, beste akreditamenduak eskainiko dira, kautelazko neurrien adopzioa funtsatzen duten baldintzak akreditatzeko”.* Gainera, akreditamenduok aurkezteko aukera eskariarekin batera prekluditzen da, artikulua berak idatz-zatiaren III. lerroaldean ohartematen duenez.
- c) PZL 732.2.II artikulua prozedura nagusian aurreikusten diren atariko eginbideen antzeko zerbait baimentzen du kautelazko prozeduran, eskatzaileak bere kabuz lortu ezineko akreditamenduen premia izanez gero, neurrien baldintza edo auresupostuak akreditatzeko. Eginbideok jarduera ez-zilegien debeku edo etendura galdagai duten uzietarako oldoztuta daude: *“demandak jarduera ez-zilegi baten debeku edo etendura badu xede, eta abiarazi den prozeduran kautelazko neurriak eskatzen badira, Auzitegiari proposatu ahal izango zaio txostenak errekeri ditzala, edo baita ere ikerketak burutu ditzala, eskatzaileak berez ezin baditu aportatu edo prestatu, eta bere eskariak ebazteko premiazkoak badira. Jardun hauek ahalik eta lasterren burutuko dira, eskabide-idazkia auzipetuari helarazi gabe”.* Prozedura nagusian bezalako eginkizuna dute, beraz, atariko eginbide

hauek kautelazko prozeduran. Eginbideek berebiziko garrantzia izan dezakete bai industria eta intelektual jabegoaren gaineko auzietan, eta bai publizitatearen arlokoetan, prozedura haiei berezkoa zaien berezitasun batzuek direla-eta, batez ere frogaren eremuan.

- d) Azkenik, PZL 732.3 artikuluan esan bezala, *“eskari-idazkian kauzioaren prestazioa eskaini beharko da, zein motatan prestatu nahi den zehaztuz eta proposatzen den zenbatekoa arrazoituz”*.

6.1.3. Neurriak eskatzeko unea

- a) **Neurrien eskaera demanda nagusiarekin batera.** PZL 730.1 artikulua dioenez, neurriak, ohikoetan, demanda nagusiarekin batera galdegin behar dira. Izan ere, egunerokotasunak erakusten duenez, kautelazko babesaren beharra prozesuaren hastapenetik nabaritu ohi da. Horregatik agintzen du Legeak horrela jokatzeko beharra.
- b) **Neurrien eskaera demanda aurkeztu eta gero.** Baliteke, baina, kautelazko babesaren beharra prozedura hasi eta gero agerian jartzea. Ondorioz, PZL 730.4 artikuluan adierazten duenez, prozeduraren edozein unetan eska daitezke neurriak: *“demanda aurkeztu ondoren, eta baita helegite-aldiak dirauen artean ere, eskatu ahal izango dira kautelazko neurriak, eskaria une hauetan ganorez irozotzeko zertzelada eta gertakariak badaudela akreditatzen denean. Eskari hau, kapitulu honetan xedatzen den moduan bideratuko da”*. Izan ere, auzibitateak dirauen artean –prozedura epai irmo batez bukatu ez bada, alegia–, epaiaren eraginak segurtatzeko aukera dago.
- c) **Neurrien eskaera demanda aurkeztu baino lehen.** Aurreko bi aukerak bete-betean egokitzen dira neurrien berezko instrumentalitatearen ezaugarriari. Hala ere, Legeak, bere 730.2 artikuluan, neurriak demanda jarri baino lehen eskatu eta erdiesteko aukera onartzen du: *“demanda jarri aurretik ere eskatu ahal izango dira kautelazko neurriak, baldin eta, orduan eskatzen dituenak presazko edo premiazko arrazoiak alegatzen eta akreditatzen baditu”*. “Presazko edo premiazko arrazoiak” dira, beraz, instrumentalitate ezaugarriaren urratze partzial hau bidezkotzen duten zioa. Izan ere, Legeak aukera hau eskainiko ez balu, interesatuari ez litzaioke askotan baliagarri izango demanda tarteratzea, xede duen eskubidearen ezagumendua ordurako edo gutxi geroago erabat ezindu edo eragotzia geratuko litzatekeelako. Badaude, izan ere, zaurberatasun handiko eskubide eta posizio juridikoak, zeintzuen zapuzte edo urratzea oso denbora motzean bururatu daitekeen (jabego intelektual eta industrialaren gainekoak, publizitatearekin lotuta daudenak etab.).

Suposamenduak, baina, ez dio guztiz salbuespenezkoa izateari uzten, neurrien oinarriko printzipio bat, instrumentalitatearena alegia, argi eta garbi kontraesatea inplikatzeko baitu. Genioenez, kautelazko babesaren xedea ez da beregain irautea, prozedura nagusi batekin zuzeneko loturan ez bada, bere eginkizuna ez baita inoren eskubideak behin betiko asebetetzea, lor daitekeen epaiaren segurtamendua baizik. Horregatik, areago dio Legeak: *“Kasu honetan, adopzio unetik hogeit egunen barruan ez bada demandarik aurkezten eskariak arduratu zen Auzitegian, ondorioz gabe utziko dira akordatu neurriak. Auzitegiak, auto baten bidez, ofizioz aginduko du altxa edo atzera dei daitezela gauzatu diren betearazpen-egintzak. Prozesuko kostuak eskatzaileari inposatuko dizkio, eta neurriak jasan dituenari eraginiko kalte-galere erantzun behar duela deklaratu du”*.

Zenbait lerro lehenago ikusi dugunez, arbitraje instituzionalaren eta arbitrajearen formalizazioa eskatzen denean ere, neurriak prozedura arbitrala hasi aurretik galdegin daitezke. Halakoetan, prozedura noiz hasiko den, hasi ere, ez dago erabat interesatuaren esku, erakunde baten jardueraren edo auzitegi-jardun baten menpean baizik. Hori dela-eta, Legeak ez du neurrien mantentzea prozedura epe jakin batean hasi izatera baldintzatzen, interesatuak prozedura arbitrala has dadin beharrezko egintza guztiak gauzatu izatera baizik. Horrela esaten da PZL 730.3 artikuluan: *“aurreko idatz-zatian aipaturiko denborazko baldintzak ez du baliorik izango arbitrajearen formalizazio judizialaren edo arbitraje instituzionalaren kasuetan. Neurriak iraun dezan, lortu zuenak burutu beharko ditu prozedura arbitrala abiarazteko xedez premiazko diren egintza guztiak”*.

6.2. Neurriak akordatzeko eskumena

6.2.1. Auzitegi eskudunaren zehaztapena

- a) Lehen auzialdian** eskatzen badira, afera nagusiaz arduratzeko Auzitegi eskudunari dagokio neurriak akordatzeko eskumena, PZL 723.1 artikuluan esan lez: *“kautelazko neurrien eskabideaz arduratzeko eskumena, lehen auzialdian aferaz arduratzen den Auzitegiari dagokio, eta prozedura oraindik hasi ez bada, demanda nagusiaz arduratzeko Auzitegi eskudunari”*.
- b) Bigarren auzialdian** edo aparteko helegiteak izapidetzen diren bitartean eskatzen badira neurriak, bigarren auzialdi honetaz edo helegiteez arduratzeko Auzitegi eskudunari dagokio eskumena, PZL 723.2 artikuluan arabera: *“bigarren auzialdian, arau-hauste prozesalarengatik aparteko errekurtsioan edo kasazio helegitea izapidetzen den bitartean eskatzen badira kautelazko neurriak, bigarren auzialdiaz edo aipaturiko helegiteez arduratzen diren Auzitegiei dagokio eskumena”*.
- c) Prozedura arbitrala eta arbitraje formalizazioa garatu bitartean, edo atzerriko prozedurekiko** eskatzen badira neurriak, *“laudoa exekutatu behar den tokiko epailea izango da eskudun eta, horrelakorik ezean, neurrien eraginak gertatu behar diren tokikoa”* (PZL 724. artikulua).

6.2.2. Eskumenaren tratamendu prozesala

Neurriak, ohi bezala, demandarekin batera galdegiten badira, jurisdikzio edo eskumenari buruzko era guztietako akatsek prozedura nagusirako legez aurreikusitako tratamendua izango dute, bai deklinatoriaz den bezainbat –auzilari baten kabuz alegatzen bada– eta bai Auzitegiari ofizioz dagozkion fakultateez den bezainbat.

Kautelazko neurriak demandaren aurretik eskatzen badira, berezitasun batzuk ezarri ditu Legeak bere 725. artikuluan, eskumenaren tratamendu prozesalaren puntuan: *“kautelazko neurriak demanda aurkeztu aurretik eskatzen badira, ez da deklinatoriarik onartuko, lurralde-eskumenik ezan funtsatzen bada. Auzitegiak, alabaina, ofizioz aztertuko ditu bere jurisdikzioa, eskumen objektiboa eta lurraldezkoa. Jurisdikzio edo eskumen objektiboa falta zaiola irizten badu, Ministerio Fiskala eta kautelazko neurrien eskatzailea entzun ondoren, auto bat jaulkiko du, zeinean kasuaz arduratzetik abstenitzeaz gain, auzilariari ohartaraziko dien euren eskubidea dagokion Auzitegian balia dezaketela, abstentzioa jurisdikziorik ezan oinarritzen ez bada. Berdin egingo du Auzitegiak ere haren lurralde-eskumena ezin badaiteke ezein legezko foruan –aginduzkoa edo ez– oinarritu, eskatuarengatik aplikatu beharrekoa. Hala ere, aplikatu behar den legezko forua xedapenezkoa izanez gero, Auzitegiak ez du bere eskumena deklinatuko baldin eta auzilariak beren jurisdikzioari berariaz men egin badiote afera nagusiaz arduratzeko”*.

Bere garaian ikusiko denez, premia larri batek egon behar du neurriak demanda jarri baino lehen akordatzeko. Halatan, ez luke inolako zentzurik izango deklinatoriaren proposamena baimentzeak, bere tramitazioak galdutako lukeen aldia bateraezina bailitzateke interesatuak adierazitako presa-egoerarekin. Horrenbestez, jurisdikzio eta eskumenari dagokion guztia Auzitegiak ofizioz aztertu behar du eta, akatsik dagoela egiaztatuz gero, abstenitu egin behar du eskariaz arduratzetik. Baita ere lurralde-eskumenaz den bezainbat, nahiz eta aplikatu beharreko forua xedapenezkoa izan. Salbuespen bat baino ez dago jarduteko modu honetan, lurralde-eskumenari buruzkoa, hain zuzen: menperatze espresuko itun batean funtsatzen bada, afera nagusiaz arduratzekoa, Auzitegiak ez du bere eskumena deklinatuko, eta aferaren ardurarekin jarraituko du.

Hala ere, arduratzetik abstenitzea oso ondorio gogor eta larregizkoa litzateke, baldin eta lurralde-eskumenik eza xedapenezko foru baten peituan oinarrituko balitz, Legeak ezarrita. Izan ere, eskatzaileak babesgabetasun egoera batean ikusiko luke bere burua, bere eskubideak galdatzen duen presari aurre egin ezinik, eta bere interesaren porrota etsipenean eta halabeharrez behatzera behartuta. Horregatik, PZL 725.2 artikulua neurriak prebentzioan akordatzea ahalmentzen dio Auzitegiari kasu honetan: *“aurreko idatz-zatian aipaturiko kasuetan epaileak lurraldearengatik eskugabea dela baderitzo ere, prebentzioan dekretatu ahal izango ditu presakoen deritzen kautelazko neurriak, suposamenduaren zertzeladek horrela gomendatzen dutela uste badu. Hala eginez gero, geroago Auzitegi eskudunari igorriko dizkio jardunak”*.

6.3. Alderdiei agerraldi bidezko entzunaldia

Geroago iruzkinduko dugun kasuaz aparte, kautelazko neurri bat adoptatu baino lehen, bera jasan behar duen subjektua entzuteko beharra dago, komeni zaizkion argudio juridikoak eta frogabideak alega eta proposa ditzan neurriei aurka egiteko.

Balizko oposizio hau agerraldi baten bidez hezuramitzen da, PZL 734. artikulua xedatu bezala: *“(...)behin eskaria jasoz gero, Auzitegiak, probidentziaren bidez, agerraldi batera deituko ditu auzilariak bost eguneko epearen barruan, eskaria auzipetuari jakinarazi zitzaionetik kontatuta. Agerraldi hau ondorengo hamar egunetan egingo da, Auzitegiak bere ardurapean dituen aferen ordena jarraiki gabe, neurriaren eraginkortasunak horrela galdatzen badu”.*

PZL 734.2 artikulua entzunaldiaren edukia deskribatzen du: *“agerraldi honetan auzi-jartzaileak eta auzipetuak egokien deritzena azalduko dute euren eskubidearen alde, eskura dituzten frogabideak erabiliz. Hauek onartu eta praktikatu egingo dira, kautelazko neurrien baldintzei buruzkoak izanez gero. Epaile azterketaren praktika ere eskatu ahal izango da, alderdi garrantzitsuak frogatzeko xedez. Pertinentea bada eta ezin badaiteke agerraldian praktikatu, ondorengo bost egunetako epean burutuko da. Berebat, alegazioak egin ahal izango dira kauzioaren mota eta zenbatekoari buruz. Neurria jasan behar lukeenak ordezkari kauzioa onar diezaiola eskatu ahal izango dio Auzitegiari kauzioaren ordezkari, Lege honetako 746. artikuluan xedatzen denaren arabera”.*

Beraz, eskabide-aurkariak komeni zaizkion alegazio eta frogabideak azaltzeko eta proposatzeko aukera dauka. Ohar bedi Legeak ez duela mugapenik ezartzen, ez alegazioekikoan, ezta ere frogabideen kasuan. Azken hauei dagokienez, kontuan har dezagun hemen ez gaudela prozedura nagusiaren frogaldian eta, beraz, ekarri behar duten ziurtasuna ez dela kasu hartan bezain zorrotza. Eskubide oneko itxura soil bat, aieruzko gertagarritasun edo baliztasun soil bat akreditatu edo justifikatu behar da hemen. Bestela, frogaldiaren aurrehartze bat burutuko litzateke, behar ez den leku eta unetan.

Kauzioaren mota eta zenbatekoa ere eztabaidagai izan daitezke entzunaldi honetan. Beste alde batetik, entzunaldi hau abagune egoki bat da ordezkari kauzioa eskaintzeko eta, horrela, kautelazko neurriak ekiditeko. Aurrerago arduratuko gara gai honetaz.

Agerraldi honetan hartzen diren ebazpenak, PZL 734.3 artikuluan esaten denez, ez dira helegingarri Legeak aurreikusitako suposamenduetan (ia posible diren guztiak, izan ere): *“ez da helegiterik jarri ahal izango Auzitegiaren ebazpenen aurka, agerraldiaren garapena, bere edukia eta proposaturiko frogaren gainekoak izanez gero. Hala ere, agerraldian gertaturiko arau-urratzeak alegatu ahal izanzen dira kautelazko neurriez ebazten duen autoaren kontrako helegitean, aurretik behar bezalako protesta egin bada”.*

Geroago ikusiko denez, agerraldi honen araubidea garrantzi handikoa da, legegileak bertara igortzen baitu beste suposamendu askotan. Zehazkiago, agerraldi honen eraentza honako suposamendu hauetan jarraitu behar da: neurriekiko oposizioa izapidetzeko, auzipetua entzun gabe akordatu direnean (PZL 741. artikulua), eta neurrien aldarazpena eskatzeko (PZL 743. artikulua). Igorpen sistema hau guztiz egokia da, ene iritziz, horrela prozesu egintzen eraentza askotarikoa ekiditen baita, balizko nahasmendu eta behar gabeko konplikaziorik galaraziz.

6.4. Neurriak adoptatzen edo ukatzen dituen autoa

Agerraldia amaituta, Auzitegiak kautelazko neurriez deliberatuko du, auto bidez. PZL 735. artikulua esanetan, Auzitegiak *“neurriak dekretatuko ditu ezarritako baldintza guztiak konkurrituz gero eta, akreditamendu eta alegazioen arabera, ziurtatutzat jotzen badu luzamendu prozesaleko arriskua, betiere eskubide oneko itxura kontuan harturik”.* Bai luzamendu prozesaleko arriskua, eta bai eskubide oneko itxura ere, neurrien aurrepostuak dira eta, beraz, arau honetan xedatzen denak ez du berri handirik ekartzen.

Ikusi dugunez, salbuespenezko kasu bakan batzuetan izan ezik, neurrien adopzioak kauzio bat galdatzen du, autoan finkatu behar delarik. Horra zer dioten PZL 735.2 artikulua: (epaileak) *“doitasun osoz finkatuko ditu agintzen diren kautelazko neurri edo neurriak, eta zehaztuko du zer-nolako eraentzari jarraitu*

behar dioten eta, hala balegokio, eskatzaileak zein eran, zenbatekoz eta denboran prestatu behar duen kauzioa”.

Kautelazko neurriak akordatzen dituen autoaren aurka apelazio helegitea baino ez dago, ondorio etenarazlerik gabe.

Kautelazko neurriak ukatzen dituen autoaren aurka apelazio-helegitea soilik jarri ahal izango da, eta lehentasunezko tramitazioa emango zaio. Kostuak 394. artikuluan ezarritakoaren arabera inposatuko dira (PZL 736. artikulua).

6.5. Neurrien adopzioa subjektu pasiboa aurrez entzun gabe

Inorekiko ondorioak eragin litzakeen beste edozein auzitegi-jardunek lez, neurrien adopzioak jasango dituen subjektua aurrez entzutea aurreikusi behar du, arestian ikusi dugun bezala. Batzuetan, baina, aurreko entzunaldi horrek neurrien eraginkortasuna murriz dezake. Batetik, ezinbesteko tramitazio-aldi jakin bat eskatzen duelako, zein azkar eta arin gauzatzen diren ere entzunaldiaren inguruko jardunak (jakinarazpena, zitazioa, etab.); eta bestetik, subjektu pasiboak, entzunaldiaren bitartez, gainera datorkion neurriaren berri badauka, litekeena da era ezberdinetako egintzak burutzea, eskatzaileak xede duen eskubidearen aitortzea galarazi edo oztopatzeko. Halatan, neurriak eraginkor izango badira, subjektu pasiboa entzun gabe dekretatu beharko dira hainbatetan.

Gogoramen hauek bere eginez, honako hau xedatzen du PZL 733.2 artikulua:

“2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, auto baten bitartez eta bost eguneko epean, Auzitegiak kautelazko neurriak akordatu ahal izango ditu auzipetua entzun gabe, eskatzaileak horrela galdegiten badu presazko arrazoiak daudela akreditatuz edo aurreko entzunaldiak neurriaren arrakastari kalte egin diezaiokeela argudiatuz. Eskari hau onartuz gero, Auzitegiak argudiatuko du kautelazko neurriaren baldintzak konkurritzen direla eta baita ere azalduko du zeintzu arrazoiak gomendatzen zuten neurria auzipetua entzun gabe adoptatzea.

Kautelazko neurriak auzipetua entzun gabe akordatzen dituen autoaren aurka ez da helegiterik izango, kapitulu honetan xedatzen denari jarraiki behar zaiolarik”.

Antzeman daitekeenez, presazko arrazoiak eta neurriaren arrakasta dira epaileak kontuan hartu beharreko alderdiak, neurriak subjektu pasiboa entzun gabe dekretatzeko.

Jardunbide honek ez du defentsa eskubidea urratzen, zeren nahiz eta alde aurreko entzunaldia bazterten duen, geroko entzunaldi bat inplikatu du, neurria behin hartu eta gero. Exekuzioa abiarazteko autoan gertatzen den bezala, jardunbide hau ordenamendu juridikoak oniritzia dago eta Konstituzioaren arabera da. Izan ere, neurria jasan duen subjektuak aurka egin ahal izango dio, nahiz eta, artikulua xedatzen duenez, oposizio hau ez den adopzio-autoaren aurkako helegite baten bidez bideratuko, oposizio-agerraldi baten bitartez baizik, PZL 739-741 artikuluetan aurreikusten den moduan.

7. Neurriekiko oposizioa subjektu pasiboa entzuteke adoptatu direnean

Esan bezala, neurriak auzipetua entzun gabe akordatzen dituen autoaren kontra ez dago helegiterik. Berauen ordez, PZL 739-742 artikuluek agindu bezala jarduteko beharra dago. Artikulu hauetan neurrien kontrako oposizioa gauzatzeko prozedura ezartzen da, hala nola oposizioa funtsatu dezaketen kausak zehaztea. Oposizioa hogeit eguneko epean aurkeztu behar du subjektu pasiboak, auto baieslea jakinarazi zaionetik zenbatuta.

Hona hemen, PZL 740. artikulua arabera, oposizioaren eduki eta hedadura posibleak: *“oposizioa formulatzen duenak honako hauek eskrima ditzake, inolako mugapenik gabe: neurriaren bidezkotasun, baldintza eta irismenera oposatzen diren egitate eta arrazoiak, eta neurriaren gaineratiko inguruabarrak. Ordezko kauzioa ere eskain dezake, Titulu honetako V. Kapituluaren xedatutakoaren arabera”.*

Oposizioa gauzatzeko prozedura guztiz bakuna da, eta PZL 741. artikuluan dago aurreikusita. Aurkariak oposizio-idazki bat aurkeztu beharko du, baliarazi nahi dituen alegazioak azalduz eta erabili nahi dituen frogabideak aurkeztuz. Auzitegiak agerraldi batera deituko ditu auzilariak, eta PZL 734. artikuluan xedatu bezala jardungo du, hots, neurriak adoptatzeko agerraldian egiten den bezala. Oposizioak prosperatzen ez badu, auzi-kostuak aurkeztu zuenari ezarriko zaizkio. Garaitzen badu, berriz, neurrien eskatzaileak ordainduko ditu kostuak, eta oposatzaileari neurriak eraginiko kalte-galerez erantzungo du.

Kalte-galerak ordainarazteko prozedura PZL 742. artikuluan arautzen da. Ez gara oraingoan honetaz arduratuko, ikusiko dugunez kalte-galerak ordainarazi behar diren kasu guztietan jarraitu beharreko eraentza baita hau eta, beraz, geroago izanen dugu aztergai, neurrien altxamendu eta aldarazpenagatik sor daitekeen erantzukizun zibila jorrazteko garaian.

8. Neurrien altxamendu eta aldarazpena

Kautelazko neurriek aldi baterako bokazioa dute. Alde batetik, epai irmoa dute muga gaindiezin eta, bestetik, auresupostu ahul samarretan oinarritzen dira, beren adopzioarako ez baita galdatzen epaia diktatzeko adinako ziurtasunik. Baliteke, beraz, geroago alegatzen eta akreditatzen diren zertzeladak direla-eta, Auzitegiak konkluditzea ez direla adopzioarako betekizunak konplitzen, hasieran uste zuen bezala.

PZLak kontuan hartu du neurrien berezko aldagarritasun edo mudagarritasun hori, eta berariazko arautzapen bat aurreikusi du halako kasuei aurre egiteko.

8.1. Neurrien aldarazpena

PZL 743. artikulua esanetan, *“kautelazko neurriak aldaraz daitezke auzilariaren batek alegatzen eta frogatzen badu haien adopzio garaian edo beraietara oposatzeko epean kontuan ezin hartuzko gertakari eta gorabeherak jazo direla. Aldarazpen-eskaria PZL 734. artikuluan aurreikusten denaren arabera izapidetu eta erabakiko da”*.

Neurriaren aldarazpena eskatzeko, beraz, premiazko akreditamenduez gain, akreditamenduok neurrien adopzio garaian ezin aurkeztu izana akreditatu beharko du neurriak eskatu zituenak, Legeak berak oharrematen duenez, neurrien eskabidearekin batera prekluditzen baita froga proposatzeko aukera. Auzipetuaren kasuan, preklusio hau neurriez erabakitzeke agerraldian gertatzen da, eta bera entzun gabe akordatu baziren, beraietara oposatzeko epea iraungi orduko gertatzen da preklusioa.

“Aldarazpenaz” hitz egiten dugunean, “altxamendua” ere ematen dugu barnean, aldarazpen edo aldaketa hura altxamendu zentzuan ere gerta baitaiteke. Izan ere, neurrien adopzioa frogazko eta egitatezko euskarri jakin batek justifikatu zuen. Euskarri honen alterazioak neurriak aldaraz ditzake zenbait alderditan, baina baita desagerrarazi edo altxarazi ere, neurrien irozgarri hura hain errotik aldatu bada, non agerian geratzen den neurrien auresupostuen eza.

Azkenik, badago beste arazo interesgarri bat neurrien aldarazpenari buruz: akorda al daiteke neurrien aldarazpena subjektu pasiboa entzun gabe? Ene aburuz, neurrien adopzioa horrela akordatu badaiteke, arrazoi berberaz edo handiagoz, berdin egin ahal izango da ere aldarazpenarekin. Areago: aldarazpena neurria astuntzeko zentzuan akordatzen bada ere, neurria bera adoptatzea baino larritasun gutxiagoko erabakia da. Neurriak arintzeko zentzuan aldarazteak, noski, ez du bidezketasun zalantzarik aurkezten.

Aldarazpenaren prozedurazko eraentza 734. artikulura igorri izanak ere, ez du, nire iritziz, horretarako galarazpen edo eragozpenik txikiena ere sorrarazten, nahiz eta prozedura hau neurriak kasu orokorrean akordatzeko espreski oldoztua izan eta, horrenbestez, entzunaldi bat aurreikusi. PZL 741. artikulua ere –neurrien adopzioa auzipetua entzun gabe arautzen duenak, hain zuzen–, igorpen bera egiten du espresuki prozedura edo izapidetzeaz den bezainbat. Argi dago, beraz, legegileak ahalik eta bakuntze edo sinplifikazio handiena lortzea izan duela xede prozedura erkide bat hainbat suposamendutarako ezartzean.

8.2. Neurrien altxamendua

Legearen hainbat artikuluk arautzen dute gai hau. Hona hemen, prezeptu hauek destilatu eta gero, altxamenduaren gaineko panorama orokor bat.

a) Absolutiozko epai irmoa, aferaren muinaz edo prozesal soila (akzioaren ukoari eta atzera egiteari ere aplikatu dakioketela).

PZL 745.I artikulua arabera, kasu honetan altxatu egin behar dira neurriak, prozesuko kostuak auzi-jartzaileari inposatu behar zaizkio, eta auzi-jartzailea auzipetuari eraginiko kalte-galerez erantzule deklaratu behar da.

b) Absolutio epaia oraindik ez irmoa

– Kasu honetan, PZL 744.1 artikulua neurrien berehalako altxamendua xedatzen du. Auzi-jartzaileak helegitea aurkezten bada, alabaina, euren aldarazpen edo mantentzea eska dezake, eta Auzitegiak, aurkaria entzun ondoren, eskaera justifikatzeko zertzeladak konkurritzen badira, galdegindako mantentze edo aldarazpen horiek xedatuko ditu. Ageri denez, absolutio-epaia diktatu bada, eskubide oneko itxura ahulduta geratu da. Ondorioz, kasu honetan kauzioaren nahitaezko emendamendua edo gehikuntza inposatzen dio Legeak auzi-jartzaileari, neurriak aldarazte edo mantentzearen.

– PZL 744.2 artikulua arau berezi bat ezartzen du demanda partzialki estimatzen denerako. Aurreko kasuan bezala, neurriak mantendu eta aldaraztea baimentzen da. Eskubide oneko itxuraren narriadura edo makaltzea ez da suposamendu honetan aurrekoan bezain handia, epaiak demandaren punturen bat estimatu baitu, eta, beraz, Legeak ez du kauzioaren nahitaezko emendamendua xedatzen. Aise ulertzen denez, epaiak estimatu duen punturen bat segurtatzeko xedez hartu baziren neurriak, berehala altxatu beharko dira, behin-behineko betearazpena eskatzen ez bada.

c) Epai baiesle irmoa (PZL 731.1 artikulua)

– PZL 731. artikulua agintzen duenez, epaia kondenazkoa izanez gero, neurrien altxamendua dekretatu behar da, kautelazko neurriak exekuziozko bihurtzen baitira. Altxamendua xedatzeko, baina, PZL 548. artikuluan aurreikusitako epeak iragan behar du betearazpena eskatu gabe. Betearazpena eskatu bada, izan ere, neurriak exekuziozko bihurtuko dira (behin-behineko enbargoa behin betiko edo exekuziozkoa bilakatuko da, adibidez).

– Kondenaz bestekoa bazen epai baieslea, neurrien altxamendu huts eta soila agindu behar da edo, gehienez, kautelazko neurriak exekuzio inpropioa egintzak bilakatuko dira, hala nola erregistro-inskripzio bat (ikus PZL 521.2 art.).

d) Epai baiesle oraindik ez irmoa

- Epaia kondenazkoa eta behin-behinek betearazteko gai denean, neurrien altxamendua dekretatu behar da (PZL 731.2 artikulua), exekuziozkoak bilakatzen direlako.

- Epaia kondenaz besteko edo, kondenazkoa izanik, behin-behinek betearazi ezinena bada, mantendu egin behar dira neurriak, altxamendua behin epai irmoa diktatuz gero bakarrik baimentzen baita, PZL 731.1 artikulua ezarritako printzipioaren arabera.

e) Prozedura epairik gabe bukatzeko moduak: transakzioa edo prozeduran lorturiko beste motako hitzarmena, eta uziaren asepena prozeduraz kanpo

Legeak ez du kasu honetan arau espezifikorik ezartzen. Uzia prozeduraz kanpo asetu bada, nabaria da neurriak altxatzeko beharra. Transakzioa edo prozeduran lorturiko hitzarmena biltzen dituen autoak exekuzio-tituluak dira (PZL 19 eta 517.3 artikulua) eta, horrenbestez, kondenazko epaien tratamendua eman behar zaie (ikus goian), prozeduran akordatu ziren neurriak transakzioak edo hitzarmenak bildutako puntuak segurtatzeko egokiak badira.

9. Neurrien betearazpena

Horrela dio 738. artikulua:

“1. Kauzioa eman ondoren, berehala betearaziko da agindutako kautelazko neurria, beharrezko diren bitarteko guztiak erabiliz, epaien exekuzioari dagozkionak barne.

2. Aurreneurritzko enbargoa akordatu bada, 584. eta hurrengo artikuluetan xedatzen denaren arabera jardungo da, exekuzio-prozeduran agindutako enbargoetan bezala. Alabaina, zorduna ez dago 589. artikuluan begietsitako ondasunen aitorpena egitera behartuta.

Administrazio judiziala akordatu balitz, 630. eta hurrengo artikuluetan bezala jardungo da.

Prebentziozko idatzoharra balitz, dagokion erregistroaren arauak xedatzen duten moduan jardungo da.

3. Kautelazko neurri batek erasaniko eskubide eta ondasunak besterentzeko, haien gordailuzainak, administratzaile judizialek edo erantzuleek Auzitegiaren aurretiko baimena beharko dute. Baimen hau emateko, guztiz salbuespen handiko zertzeladek konkurritu behar dute, halako moldez non kontserbazioa eskualdatzea baino astunagoa den auzipetuaren ondarearentzat”.

Kautelazko prozedura, deklaraziozkoaren antzera, bi fase edo unez osaturik dago. Batetik, deklarazio fase bat, hau da, neurrien adopziokoa; eta bestetik, exekuziozko edo betearaztekoa. Ez da nahikoa neurriak agintzea, praktikara eraman ere egin behar dira. Transkribatu dugun artikuluan betearazte hau eraentzen da, hain zuzen, eta antzeman daitekeenez, Legeak epaiak betearazteko prozedurara egiten du igorpen orokor bat, aldi berean hainbat espezifikazio edo zehaztapen eginez.

Aurreneurritzko enbargoari dagokionez, PZL 584-633 artikuluetara igortzen du Legeak, hau da, betearazteko enbargoaren araubidera. Salbuespen bat baino ez dago igorpen honetan: 589. artikuluan aurreikusen den ondasunen aitorpena. Igorpen orokor bera egiten du Legeak administrazio judizialaren kasuan.

Azkenik, arau berezi bat txertatzen du Legeak administrazio judizial eta gordailu neurriek segurtatzen dituzten ondasun edo eskubideak besterentzeko. Guztiz bestelako helburua daukate neurri haiek betearazteko prozeduran edo kautelazkoan agintzen direnean. Lehendabiziko kasuan, hartzekodunaren kreditua asetzea dute jomuga eta bigarrean, aldiz, kontserbazio edo mantentze hutsa. Ulgarria da, horrenbestez, ondasun edo eskubideen besterentzea salbuespenezkoa izatea kautelazko prozeduran, eta auzitegiaren baimenera zorrozki baldintzaturik egotea.

10. Neurrien aldarazpen eta altxamenduaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila

Gaurko PZLak, goian esan dugunez, aurrekoak baino arreta handiagoa eskaintzen dio neurrien adopzioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibilari, subjektu pasiboari gertarazitako kalte-galerak direla-eta. Zuzen, zeren orduan baino neurri kementsu edo traumatikoagoak akorda daitezke orain, eta intentsitate edo lastertasunaren areagotze honen kariz, balizko kalte-galeren ordainarazpenak berme handiagoak inplikatu behar ditu, oreka berrezartzeko. Eta batzuetan ez da nahikoa erantzukizun zibilaren eraentza orokorrari igorpen soil bat egitea, baizik eta erantzukizunaren alderdi substantibo eta prozedurazkoak xeheki zehaztu eta finkatu behar dira, kalte-galeren ordainak ager ditzakeen zertzeladen aniztasuna kontuan harturik. Zenbat eta malgutetasun eta intentsitate handiagoa izan neurriek, beraz, hainbat eta arreta bereziagoz edo mekanismo eraginkorragoaz hornitu behar da balizko kalte-galeren ordainarazpena.

Gogora bedi, beste aldetik, kauzioa emateko beharrak helburu berberera jotzen duela. Legeak, dakigun bezala, kauzioaren derrigortasun orokorra ezarri du, eta baita hainbat irizpide eta aurreikuspen

erantsi ere, kalte-galeren ordainarazpenari era azkar eta eraginkor batean aurre egiteko. Izan ere, kauzioaren kalkuluak zenbatekoaren askitasuna segurtatu behar du, neurrien balizko aldarazpen edo altxamenduak eragin litzakeen kalte-galerak osorik estaltzeko, eta, halaber, kauzinoa ahalik eta dirutarako bihurpen azkarrena segurtatzeko moduetan prestatu behar da, hainbat kobramendu berme ezarriz.

Balio gutxi edo batere ez dauka PZL 721.1 artikularen baieztapen lausoak (*bere erantzukizunaren pean...*), erantzukizunaren araubide juridikoa zehazteko. Izan ere, kalte-galerengatik sor daitekeen erantzukizuna auzi-jartzaileari egozten dio arau honek. Badirudi legegileak argi utzi nahi izan duela epaileari edo Estatuari berari legokiekeen balizko erantzukizunak ez diola auzi-jartzaileari bereaz askatzen. Litekeena da erantzukizun hauen metatze bat gertatzea (auzi-jartzailearen erantzukizun zibil arrunta; Estatuarena, Justizia Administrazioaren arauz kanpoko funtzionamendua dela-eta; eta epailearen erantzukizun zibila), aipaturiko erantzukizunak ez baitira, dakigunez, elkartezinak. Baina, orduan, legezko aipamen hau behargabeko, gainezko eta alferrikako oroigarri bat baino ez litzateke izango.

Erantzukizun zibilaren eraentza xehekiro aztertzeke, kautelazko neurriei buruzko hainbat arauen edukia aztertu behar da. PZL 742. artikuluan xedaturikoa garrantzitsuena da honetan, zeren nahiz eta, espezifikoki, neurriak auzipetua entzun gabe akordatzeko kasuari buruzkoa izan, erantzukizuneko gaineratiko kasuetara ere aplikatu daiteke.

Ondorengoak dira, ORTELLS RAMOSen sistematizazioa oinarri harturik, erantzukizun zibila sor dezaketen kasuak eta euren eraentza:

- 1) **Demanda hogeit eguneko epean ez aurkeztea, neurriak demanda jarri aurretik galdegin zirenean** (PZL 730.2.III). Erantzukizun objektiboko kasu bat da (*“eraginiko kalte-galeren erantzulea dela deklaratu du”*).
- 2) **Neurrien altxamendu edo aldarazpena, subjektu pasiboa entzun gabe dekretatu zirenean.** (PZL 741.2.III.). Erantzukizun objektiboko beste kasu bat da hau ere. Altxamendua oposizio-agerraldian gertatu bada, ordezko kauzinoa onartzeagatik (PZL 740.II.), ez dago, noski, erantzukizuna deklaraterik, neurrien desagerpenak ez baitu hasieran desegoki akordatu zirenik inplikatzeko.
- 3) **Neurrien altxamendua demanda ezesten denean, atzera egitea gertatuz gero eta akzioari uko egiten zaionean** (PZL 745.). Legeak ez du kasu honetan erantzukizuna objektiboa edo subjektiboa (erruarengatik) ote den zehazten. Atzera egitea eta ukoaren suposamenduetan erantzukizun objektiboa alde liteke. Demandaren ezesteaz den bezainbat, berriz, irozgarri sendoz sostenga daiteke erantzukizunaren izaera subjektiboa. Hala ere, tamalgarria da legegileak Lege berriak eskaintzen zuen abaguneaz profitatu ez izana, puntu hau behingoz argitzeke.
- 4) **Neurrien aldarazpena adopzioaren osteko gorabeherengatik** (PZL 743.). Hemen ere ez dago legezko aurreikuspen zehatzik. Aurreko kasuan esandakoagatik beragatik, arrazoitsua dirudi honetan ere eraentza orokorrera igorpen egitea eta, ondorioz, erruagatik erantzukizun kasutzat ematea (Kode Zibilaren 1902. artikulua).
- 5) **Apelazio-helegitearen ostean neurriak altxatzen edo aldarazten direnean** (PZL 735.2.II.). Aurreko bi kasuetan esandakoa aplikatu behar da hemen ere.

Erantzukizun kasu hauetan kalte-galeren ordaina galdatzeko prozedura PZL 742. artikuluan arautzen da. Artikulu honek, bere aldetik, PZL 712 eta hurrengo artikuluetara igortzen du. Dakigunez, azken prezeptu haiek nahitaezko exekuzioari dagozkie, eta kalte-galerengatik zor diren diru-kopuruak zehaztera bideratzen dira, zehaztapen hori epaian finkatu ez denean. Hitzezko prozeduraren izapideak jarraitu behar dira. Horrela, lastertasun handiagok ahalaziko da hainbat kasutan betearazlearen kreditua asebetetzea. Prozedura hau burutzen duen autoa apelagarria da, baina jardunak etenarazteko ondorioz gabe (PZL 716. art.).

11. Ordezko kauzioa

11.1. Atariko oharrak

Jakina denez, kautelazko neurri baten adopzioak ondarezko kalte handiak eragin liezazkioke subjektu pasiboari. Hortaz, bai oraingo Legeak, bai aurrekoak eta bai lege berezi batzuek ere, kauzio bat ematea onartzen diote auzipetuari neurrien ordezkari, kasu jakin batzuetan eta hainbat baldintza bete izanez gero, bai neurriak eskatu baino ez badira egin, eta bai dagoeneko adoptatu badira.

Ordezko kauzioaren onespina ezin daiteke baldintzarik gabekoa izan. Guztiz jagongarria bada subjektu pasiboaren interesa, bere ondarean behar gabeko kalterik ez jasateko, aintzat hartu beharrekoa da neurrien eskatzailearena ere, babes judizial eraginkor eta baliagarri bat erdiesteko.

Argi dago, beraz, neurrien ordezkari kauzioa ez dela auzi-jartzaileari baldintzarik gabe dagokion eskubide gisa taxutzen. Edo nahiago izanez gero, hainbat baldintza eta ukanbeharren menpe dagoen eskubidea da ordezkari kauzioa (batez ere auzi-jartzailearen interesa delarik aintzat hartzekoa), epailearen ponderazioak kasuan kasu zehaztekoak.

11.2. Auzitegiak kontuan hartu beharreko irizpideak ordezkari kauzioa onartzeko (PZL 746.2. art.)

Ordezko kauzioa onartzeko Auzitegiak ponderatu beharreko irizpideak, PZL 746.1 artikuluan adierazten dira:

11.2.1. Kautelazko neurrien eskabidearen funtsa

Eskabidearen funtsa delako hau ez da uziaren prosperagarritasuna edo eskubide oneko itxura, irizpide hau segidan aipatzen baita. Adierazmolde hau edukiz betetzeko, baliteke legegileak luzamendu prozesalaren arriskua izatea gogoan. Arrisku hau zenbat eta egiantzekoagoa izan, hainbat eta arrazoi gutxiago izango dira neurrien ordezkari akordatzeko, eta ifrentzuz. Izan ere, arrazoitsua dirudi Auzitegiak faktore hau kontuan hartzea kauzioa onartzen duen edo ez erabakitzean.

11.2.2. Kondenazko uzien izaera eta edukia

PZL 746.1 artikulua arabera, kauzioak aski izan behar du balizko epai baieslearen ondorioak segurtatzeko. Zentzu hertsian, epaiak diruzko eduki bat izan behar du kondenagai, eragin hauek behar bezala segurtatzeko, kauzioa diru kopuru bat baita. Horrela ez bada –alegia, kondenaz besteko edo era espezifikoa betearazi beharreko epai bat izatekotan–, kauzioaren dirua ez da berez egokia diruzko kondena bat segurtatzen ez duten neurriak ordezkari. Gehienez ere, kalte-galeren ordain bat segurtatu ahal izango du, epaia era espezifikoa ezin betearazteagatik. Beraz, bitatik bat: edota ez da izaera haietako uzietan ordezkari kauziorik onartzen, edota PZL 746.1 artikulua tenoreak ez du hitzez hitz adierazten duena esan nahi. Geroxeago azalduko denez, azalduko aldatibaren azken aukera da hobestekoa. Lehenengo eta behin, Legeak ez duelako aukera hau esanbidez baztertzen eta, bigarrenaz, kauzioaren onespina baldintzatzen duten aurespostuez ari dela, honako hau diolako, abstraktuki, PZL 746.1 artikulua: *“Ordezko kauzioa onartzen al duen erabakitzeo, Auzitegiak honako hauek aztertuko ditu: (...) kondena-uzien izaera eta edukia (...)”*. Beste aldetik, ondorengo faktorea ere aintzat hartu behar du Auzitegiak eskariak deliberatzeko: *“Era berean, Auzitegiak gogoan hartuko du ea kautelazko neurriak auzipetuaren ekonomi jarduna era larri eta desproporzionatuan murriztu edo eragotziko ote lukeen eskatzaileak xede duen segurtamenduaren aldean”*. Kasu batean zein bestean, abstrakzioa egiten du Legeak prozeduran egikaritutako uziaren izaeraz eta edukiaz.

Esandakoaren arabera, baliarazi den kondenazko uziak diru kopuruak, fruituak, errentak edo gauza ordezkariak entregatzea badu xede, berebizikoa izan daiteke ordezkari kauzioa, estu-estu gerturatzen baita galdaturiko kondenaren edukira. Halako kondena-uziak segurtatzeko, aurreneurritzko enbargoa izan ohi da

kautelazko neurri egokia (PZL 727.1^a.I art.). Horrela bada, badirudi ordezeko kauzioa guztiz aproposa dela berau ordezteko. Areago: auzi-jartzailearentzat hobegarria da, zalantza barik, diru kopuru bat eskura edukitzea, ondasun jakin bat exekuziorako afektaturik izatea baino. Aurreneurritzko enbargoa, beraz, neurri arketipikoa da kauzioak ordeztua izateko.

Enbargoaren bidezkoatasuna, baina, ezin daiteke beste uzi motetarako baztertu. Baliteke kasu jakin batean neurri egokirik ez izatea betearazpen espezifikoa segurtatzeko, auzi-jartzailea exekuzioaren geroko bideragarritasunaz mesfidatzen delarik eta kalte-galerengatik ordain bat segurtatu nahi izatea, enbargoaren bitartez. Izan ere, horrela dio PZL 727.1^o artikulua: *“Aurreko erroaldearen kasuez landa, enbargoa akordatu ahal izango da, baita, neurria egoki izanez gero, eta ezin bada beste neurri batez ordeztu eraginkortasun berdinez edo gehiagoz eta auzipetuarentzat astuntasun gutxiagoz”*. Enbargoa diruz besteko uziekiko akorda badaiteke, betearazpen espezifikoaren ezintasunaren beldurrez, guztiz arazoitsua izan liteke halako kasuetan ere enbargoa kauzio baten bidez ordezteko.

Eduki ekonomikoa duten uziak –nahiz eta zuzenean diruzkoak ez izan–, noski, egoki edo aproposagoak izango dira kauzioaren bidez ordeztuak izateko, inolako eduki ekonomikorik ez dutenak baino. Era honetan, administrazio edo kontu-hartze judizialeko neurriak aise samarrik ordeztu daitezke kauzioaren bitartez, zeren, betearazpen espezifikoa segurtatu arren, eduki ekonomikoa bat dute. Auzi-jartzaileak ondasunak ekoizteko gaitasun betearekin jasotzen ez baditu, epaia exekutatzetarako, behintzat ordain bat eskuratuko du jasaniko handega, kalte edo narrioengatik.

Eduki ekonomikorik gabeko edo kondenaz besteko uzien eraginkortasuna segurtatzen duten neurriak ordeztu nahi badira, 11.2.4-n aztertuko dugun zertzeladak konkurritu beharko du.

11.2.3. Auzipetuaren posizioak agerraraz lezakeen eskubide oneko itxura

Zuhurra dirudi, Auzitegiak kauzioa onartu edo arbuiaitzeko, baliarazitako uziaren itxura faboragarri edo prosperagarritasuna aintzat hartzea. Zenbat eta eskubide oneko itxura gutxiago, hainbat eta gehiago bidezkoaten da neurrien ordeztapena, eta alderantziz.

11.2.4. Kautelazko neurriaren eragina auzipetuaren jarduera ekonomikoan

Honela dio 746.4 artikulua: *“Auzitegiak gogoan hartuko du kautelazko neurriak auzipetuaren jardun ekonomikoa era larri eta desproporzionatuan murriztu edo eragotziko ote lukeen eskatzaileak xede duen segurtamenduaren aldean”*.

Atal honetan, kautelazko babesaren arazo behinenetariko eta aldi berean bereizgarri bat islatzen da. Izan ere, babes mota hau oso oreka zail bat gordetzera deitua dago: alde batetik, auzi-jartzaileak eskubide osoa dauka xede duen babes judiziala eraginkortasun betez lortzeko, eta bestetik, auzipetuak ere badauka interes arazoitsu eta jagongarria bere ondarean ahalik eta kalte txikiak sufritzeko. Nahiz eta neurri jakin bat erabat proportzionatua iruditu, eta auzi-jartzailearentzat eraginkortasun berdineko edo handiagoa eta auzipetuarentzat astuntasun gutxiago duen beste batez ezin ordeztu, baliteke auzipetuari eraginiko kaltea demasekoa izatea auzi-jartzaileak xede duen babesaren aldean. Kasu honetan, legegileak ordezeko kauzioa baimentzen du kasuan kasuko zertzeladen arabera.

Irizpide hau oinarri harturik, jada esan dugunez, litekeena da ordezeko kauzioa onartu ahal izatea aurreneurritzko enbargarako berez desegoki diren uziekiko (PZL 727.1^o.I. art.), alegia, kondenaz besteko edo diruzko kondenarik galdagai ez duten uziak egikaritzen direnean.

11.3. Ordezko kauzioaz erabakitze prozedura

Ondorengo une hauetan eskain daitezke kauzioak:

A) Neurriak adoptatzeko agerraldian (PZL 734.2.II art.).

B) Neurriak *inaudita parte* adoptatu diren osteko agerraldian (PZL 740.II art.).

- C) Neurriak adoptatu osteko edozein unetan, idazki arrazoitu baten bidez. Kasu honetan, PZL 747.1.II artikulua araberan, idazkia auzi-jartzaileari helarazi behar zaio eta, bost egunen buruan, agerraldi batera deitu behar dira auzilariak. PZL 734. artikuluan xedatu bezala gauzatzen da agerraldia; neurriak adoptatzeko bezala, alegia.

PZL 747.1 artikulua esanbidez dioen bezala, kauzioaren eskatzaileak, idazki harekin batera, luzamendu prozesaleko arriskuaren balioespen zehatzago bat egiteko egoki derizkion dokumentuak aportatu ahal izango ditu, eta bere kaudimenari eta neurriaren adopzioak eragin litzakeen ondorioei buruz. Hala ere, ez dirudi aurkez daitezkeen akreditamendu bakarrak dokumentuak direnik. PZL 734. artikulura egiten du igorpen 747. artikulua, eta arau hartan era guztietako akreditamenduak onartzen dira, agerraldiaren ekitaldian praktikatu izateko egoki izanez gero.

Legean espresuki behatzen ez bada ere, badirudi agerraldi honetara eraman daitezkeela neurrien adopzioaren ostean eskubide oneko itxura edo luzamendu prozesaleko arriskua suntsitu edo ahuldu litzakeen gertakariak, gorabeheraak eta baita garai hartan ezagutzen ez ziren akreditamenduak ere. Baina egitate eta akreditamendu horiek neurriak adoptatu aurretik alegatu edo aurkeztu bazitezkeen, erabat baztertuak geratuko dira, agerraldiarekin batera gertatu den preklusioa dela-eta.

Ordezko kauziora neurriak adoptatzeko agerraldian eskaintzen bada, bai *inaudita parte* eta bai auzipetua aurretik entzunez adoptatzen badira ere, luzamendu prozesaleko arriskuari eta eskubide oneko itxurari buruzko alegazio eta akreditamendu guztiak ekarri ahal izango dira, prozesune edo abagune egokia delako neurrien adopzioari kontra egiteko, eta baita ere ordezkotzeko kauzioaren eskaintza iruzotzeko.

Kauzioari buruz ebazten duen autoa inpugnaezina da, baiesle nahiz ez eslea izan. Kauzioari buruzko eskaria, baina, noiznahi errepikatu ahal izango da prozedurak dirauen artean, aurreko eskarian kontuan hartu ezinako gertakariak jazo badira edo orduz geroztik aurkitutako akreditamenduetan oinarriturik, neurriak aldarazteko eskabidearekin gertatzen den bezala. Izan ere, litekeena da, adibidez, azken eskabidetik hona auzipetuaren kaudimena areagotu izana eta, beraz, parada hobean egotea ezarritako kauzioari aurre egiteko. Berdin gerta liteke auzi-jartzaileak alegaturiko eta neurrien euskarri izaniko eskubide oneko itxurarekin: beharbada, lehen ezagutzen ez ziren akreditamenduek agerian uzten dute itxura honen makaltasuna.

Kauzio-modalitateez den bezainbat, PZL 747.3 artikulua PZL 529.3.2 artikulura igortzen du. Bertan ezartzen diren modalitateak behin-behineko betearazpenari aurka egiteko aurrekusi dira.

Azkenik, Legeak esanbidez xedatzen ez badu ere, badirudi Auzitegiak ezin izango dituela neurriak altxatu auzipetuak ordezkotzeko kauziora eman arte, neurrien betearazpen-egintzak akordatzeko gertatzen denari jarraiki (ikus PZL 737 eta 738.1 artikulua).

Frogaren arauketa

Edmundo RODRÍGUEZ ACHÚTEGUI*

1. Sarrera

Agian frogaren arloa da 1881eko Prozedura Zibileko Legearekin zegoen egoerarekiko gehien aldatu den gaietariko bat, Prozedura Zibileko 1/2000 Lege (aurrerantzean, PZL) berria indarrean sartu denetik. Baina aldaketa hori ez da gogoeta pausatuen ondorio izan, edo adituen eta praktikoan iritzien trukaketaren ondorio, eta ezta ere prozesu zibilaren beharren azterketa zorrotz baten ondorio ere.

Aitzitik, frogaren trataeran izan diren aurrerapenik garrantzitsuetako gehienak PZLaren Proiektuari tramitazio parlamentarioan zehar oso berandu egin zaizkion aldaketen ondorio dira. Ez zirriborroak, ez Aurreproiektuak, ez proiektuak berak, ez zuten azkenean geratu den froga sistema diseinatu. Ahozkotasanari, frogaren ondorioari eta froga proposatzeko moduren bati (judizialki izendatutako adituak emandako irizpen periziala, adibidez) egindako erreferentziak azken orduan sartu ziren, azkar batean, eta, horregatik, modu inkoherente batean zenbaitetan.

PZL berriak ez du gai hau epaiketaren barnean arautzen, baizik eta prozesu deklaratiiboetako buruzko II. Liburuko I. Tituluan (prozesu deklaratiiboentzako xedapen komunak). Frogarekin lotutako epigrafeetan datozen kapituluek gain, artikulua solte asko daude Lege osoan zehar, eta horiek ere kontuan hartu beharko ditugu gai honen araudia –askotan kontraesanek betea– aztertzerakoan.

Frogaren trataera, prozesuaren diseinu berriaren ondorio da. Epaiketa zibil berriak, orain arte ezagutzen genuena osatzen zuten egintza prozesal solteen multzoaren aldean, benetako epaiketa bat izan nahi du, froga egintza bakar batean praktikatzeko, epailearen hurrentasunarekin eta batik bat ahozko forma duela. PZLko Zioen Adierazpenak dioenez, *“Legeak deklaraziozko prozesuak diseinatzen ditu hurrentasuna, publikotasuna eta ahozkotasuna eraginkorrek izan daitezen”*.

Prozesuaren diseinuak erabateko aldaketa egin nahi du. Epaiketa jada ez da egintzen multzo bat, baizik eta egintza bakar kontzentratu bat. Horregatik, desagertu egin beharko luke sakabanaketa tradizionalak: lehenengo froga proposatzen zen, eta lekukoek eta alderdiek deklaratzeko zuten une batera geroratzen zen, baldin eta lehenengo aldiz agertzen baziren, zeren eta bigarren batera dei bailitezke, bien bitartean alderdiek froga periziala onar ote litekeen edo ez eztabaida zezaketela, eta Bake epaitegietan eta partidu judizialeetan exhortoak egiten zirela epaiketa gauzatzen ari zen lekutik gertu.

Aurrerantzean, epaiketak edozein legok ezagutzeko moduko egintza bat izan beharko luke. Lehen epailearen eta abokatuen presentzia ezohikoa baldin bazen, orain epaiketa aretoan egitea, grabatzea, togak erabiltzea, ahozko alegazioak egitea eta abar saio bakar batean edo batzuetan, baina jarraian egitea da asmoa.

Hori lortzeko, exigentzia serio batzuk inposatu zaizkie alderdiei eta epaitegiei. Gauzak aurrez ondo presta daitezela nahi da, batik bat epaiketa arruntetan kasuan, aurrerantzean epaiketa ez dadin izan frogak jasotzeko lekua, orain arte bezala, baizik eta froga aurkezten eta praktikatzeko den lekua. Horretarako, froga aurrez egitea, epaile-azterketa, exhortoak nahiz etxeko adierazpenak behar direnean egiteko aukera ematen du. Beste alde batetik, hori baimenduko duten egintza prozesalak ere segurtatzen dira: alderdien zitazioa, ofizioak libratzea, edota irizpen periziala prestatzea.

* Bilboko Lehen Auzialdiko 10. Epaitegiko magistratua.

Gero guztia epaiketan edo bistan praktikatuko da, eta, salbuespen gisa, azken eginbideak onartuko dira epaiketa arruntean, oso eraentza murrizkorra du-eta. Jarraian hori guztia ikuspegi praktikoko batetik aztertuko dugu, hau ez baita instituzioak zientifikoki aztertzeo unea.

2. Frogaren objektua eta karga

PZL 281.1 artikulua dio prozesuan lortu nahi den babes judizialarekin lotuta dauden egintzak izango direla frogaren objektu. Definizio hau 3. atalean esaten denarekin osatzen da; hau da, frogatik salbuetsita gelditzen direla alderdiak ados dauden egintzak, prozesuaren materia auzilarien xedapen ahalmenetik kanpo gelditzen den kasuetan salbu –esate baterako, pertsonen egoera zibilari buruzkoetan (PZL 752.2 art.)–. Azkenik, 4. zenbakiak dio ez dela beharrezkoa erabata nabarmenak diren egintzak frogatzea.

Arautik ondorioztatzen den lehenengo gauza da frogaren objektua gertakariak direla. Eskubidea ezin da frogatu; beraz, dagozkien uneetan, iritzi doktrinalak, interpretazio jurisprudentialak edo entzunaldiaren irizpidea alegatu ahal izango dira, baina hauei dagokienez ezin izango da frogarik eskatu, ezinezkoa delako. Salbuespen bakar bat dago: ohitura eta atzerriko Zuzenbidea, auzitegiari ezin zaiolako horiek ezagutzea exigitu (PZL 281.2 art.), eta, Kode Zibileko 12.6 artikulua dioen bezala, alegatzen dituen alderdiak akreditatu beharko ditu. PZLak berak epaileak Zuzenbidea ezagutzen dueneko printzipioa jasotzen du (*iura novit curia*), 218.1 artikuluan esaterakoan auzitegiak, eskatu zaion kausatik aldendu gabe, kasuari aplikagarri zaizkion arauen arabera ebartziko duela, arau horiek behar bezala aipatu edo alegatu ez izan arren.

Artikuluak, bestetik, dio ez dagoela alderdiek adostutakoa edota bistakoak diren gertakariak frogatu beharrik. Gertakari bat gertatu zela edo ez zela gertatu onartzen baldin bada, horri lotu beharko zaio epaitu behar duen auzitegia. Honi dagokionez, gogorarazi behar da demandaren edota errekonbertsioaren erantzunean horren korrelatiboa onartzea edo ezestea exigitzen dela (PZL 405.2 art.), zeren eta auzitegiak gertakari onarpen tazitu gisa hartu ahal izango ditu isiltasuna edo erantzun ebasiboak.

Ez dago, ezta ere, jende guztiak dakizkien gauzak frogatu beharrik (adibidez, Gasteizen hotza egiten duela, Bilbon euria egiten duela, edota Donostiak hondartza daukala).

Gertakariak errazago finkatzeko, izapide berezi bat ezarri da epaiketa arruntean. PZL 428 artikulua, aurretiatzko entzunaldia arautzean, esaten du alderdiek eta auzitegiak adostasuna edo ezadostasuna sortzen duten gertakariak zehaztuko dituztela. Beraz, entzunaldian garbi finkatuta gera daitezke ez bakarrik alderdiek onartzen dituzten gertakariak, baizik eta baita ere eztabaida sortzen dutenak ere. Horrek asko errazten du frogaren proposamena, azken hauei dagokienez bakarrik izango delako beharrezkoa.

Hitzezko epaiketari dagokionez, aukera hori PZL 443.4 artikuluan aurreikusten da, baina, jakina, ez aurretiaz, baizik eta bistan bertan: alderdiei bat datozen edota bat ez datozen gertakari nagusiak zehazteko aukera ematen die.

Gertakari berriak ere frogaren objektu izan daitezke (PZL 286. art.); hau da, prozesu arruntean alegazio idatziaren egintzen ondoren gertatutakoak. Kasu honetan, 3. atalak dio froga proposatu eta praktikatu ahal izango dela prozedura motak eta prozesuaren egoerak baimentzen duten heinean.

Aurretiatzko entzunaldian gertakari dagokienez ezadostasunik ez dagoela ikusiko balitz, eztabaidatzen den auzia juridiko hutsa izateagatik, 428.3 artikulua arabera hogeit eguneko epean epaia emanez amaituko da. Gauza bera gertatzen da hitzezko epaiketan ere, zeren eta 443.4 artikulua dio frogak proposatuko direla soilik gertakari buruz “*adostasunik ez balego*”.

Atal honetan, beharrezkoa da frogaren kargari buruzko arauak aipatzea. Alegatu den eta beste alderdiak aintzatesten ez duen gertakari bati buruzko frogarik ezaren ondorioak arautzen dituzte, eman behar den ebazpenerako errebantzea dela suposatuz.

Tradizionalki, arau orokor bat jasotzen zuen Kode Zibileko 1214 artikulua derogatuak; orain, ordea, PZL berriko 217. artikulua arautzen du. Arrazoizkoa dirudi, zeren eta BJLO 11.3 artikulua eta Kode Zibileko 1.7 artikulua kasu guztietan epaia ematera behartzen dituzte auzitegiak, eta horrek frogarik ezaren ondorio kaltegarriak finkatu beharra dakar.

Beraz, kontua ez da alderdi bakoitzari zer frogatzea dagokion, baizik eta nor kaltetuko duen gertakari bat ez frogatzeak, zein ondorio izango dituen eta hori epaiaren motibazioan adieraztea.

1. atalean, alderdi bakoitzak bere uzia oinarritzen duten gertakariak akreditatu behar dituela dioen printzipio tradizionala jasotzen du, edota absoluzio eskaera oinarritzen duten gertakari iraungitzaile, enerbatorio edo eragozleak. Gertakari horiek zalantza-koak badira, auzitegiak ezetsi egingo ditu aktorearen (271.2) edo demandatuaren (271.3) alegazioak. Horretarako, alderdi bakoitzari dagokion “*xedagarritasuna eta frogatzeko erraztasuna*” izango ditu kontuan (217.6 art.).

Azken arau honek Lege maila ematen dio funtsezko printzipio bati: froga eskaini zezakeenak ez baldin badu eskaintzen, ezin izango du gertakari bat ez kreditatu izanetik onurarik jaso. Horrela, fede on prozesalaren eta prozesuan zehar gorde behar den leialtasunaren aurka jokatzegatik, zigortu egiten dira frogabide bat oztokatzen edo eragozten duten ekintzak. Esate baterako, ezin denean irizpen periziala eman alderdi batek leku jakin batean sartzen ez uztean, enpresaren kontabilitatea erakusten ez duenean, dauzkan agiri batzuk aportatzen ez dituenen, etab.

Azkenik, 217.4 artikulua arau berezi bat ezartzen du publizitate ilizitu edo lehiakortasun desleialaren kasurako, eta demandatua “*iragarkiak adierazten dituen datu materialen inguruan esandakoen eta egindako adierazpenen zehaztasun eta egiazkotasuna*” akreditatzera behartzen du. Arau berezi hau hurrengo atalak, 5.ak, aipatzen dituen kasuetako bat dugu; bertan esaten da arau hauek aplikatuko direla baldin eta beste lege batek frogari buruz beste agindu zehatzik ematen ez baldin badu.

3. Frogaldia egitea onartzea

Prozesu berria ahoz tramitatzen denez gero, dagoeneko ez da beharrezkoa froga egiteko eskaria egitea, Legeak hala xedatzeagatik gertatuko delako, alderdiak gertakariaren inguruan ados ez daudela ikusi ondoren. Legearen trataera berriaren ondorioz, desagertu egin beharko lukete orain demandan edo erantzunean ezagutzen ditugun eskaerak, normalean *otrosí*-en bidez egiten direnak.

Epaiketa arruntari dagokionez, zera dio PZL 429.1 artikulua: “*auzia amaitzeko alderdien artean akordiorik ez balego, eta gertakari buruzko adostasunik ere ez, entzunaldiak aurrera egingo du froga proposatu eta onartzeko*”. Hitzeko epaiketari dagokionez, 443.4 artikulua dio alderdiei beren uziak oinarritzen dituzten gertakariak garbi zehazteko hitza eman ostean “*ez balego horiei buruzko adostasunik, frogak proposatuko dira, eta inpertinente edo alferrikakoak ez direnak onartutakoan, praktikatu egingo dira*”.

Beraz, gertakariaren inguruan ezadostasunik dauden guztietan onartuko da froga, derrigorrean, eta alderdiek eskatu beharrik gabe¹. PZLak epaiketa arrunteko aurretzeko entzunaldian eta hitzeko epaiketako bistan kontzentratu du frogaren proposamena, munta txikiko epaiketaren gertatzen zen bezala geroratu egin beharrean. Horrela, egintza horietan epailea presente egongo da, eta horrek, era berean, auzia aurrez eta sakon aztertzea eskatzen du, eta, beraz, egintza prozesal horietan lortu nahi diren beste helburuak betetzea.

Egoera hau demandatua auzi-iheslari denean ere ematen da, zeren eta kasu horietan ere beharrezkoa da aurretzeko entzunaldia edo hitzeko epaiketaren bista egitea, Legeak ez duelako 1881eko PZLak egiten zuen munta txikiko epaiketaren bereizketarik egiten. Argi dago aurretzeko entzunaldian ezin izango direla gertakari eztabaidagarriak zehaztu, baina horrek ez du esan nahi demandatua auzi-ihesean egon arren ospatuko ez denik. Hitzeko epaiketaren, egoera oraingoaren antzekoa da, zeren eta deklarazioa bistan bertan egingo da, eta jarraitu egingo du froga proposatu, onartu eta praktikatzeko.

Gertakari buruz ezadostasunik ez dagoenean, ez da frogarik egin beharrik izango; kasu horietan, eztabaida arazo juridikoetara mugatuko da (PZL 428.3 art.), auzitegiak bukatutzat emango du aurretzeko entzunaldia, eta hogeiei eguneko epean emango du epaia. Gauza bera xedatzen du 447.1 artikulua hitzeko epaiketarako.

1. CREMADES MORANT, J. “La Prueba. Disposiciones Generales”, In: LEC Comentada, Madril: SEPIN, 2000; 716. or.

4. Froga proposatzen duten subjektuak

Oro har alderdiei dagokie frogak proposatzea, baina zabaldu egin direnez epailearen ahalmenak, frogabideak iradokitzeo aukera ematen zaio. Hala ere, galdu egin du hobeki epaitzeko frogak akordatzeko aukera. Hau guztia PZL 282. artikuluan jasotzen da, Legeak auzitegiari hainbat froga praktikatzeko baimena ematen diola ezartzen duenean.

Epaiketa deklaratiobetan sistema berdina jarraitzen da, zeren eta hitzezko epaiketa puntu honi dagokionez epaiketa arruntean aurreikusten denera eragortzen da (PZL 443.4, azken paragrafoa). Hemen, aurretiazko entzunaldiari buruz, 429.1 artikulua dio akordio bat lortzerik izan ez denean, alderdiek gertakari eztabaidagarriari buruzko frogak proposatuko dituztela.

Ondoren, epaileari baimena ematen zaio alderdiei gertakari baten inguruan froga gutxiegi dagoela adierazteko, proposatu dituzten frogabideen bidez agian ez litzatekeelako akreditatu ahal izango. Auzitegiak, gainera, egoki derizkion frogak praktikatzea "iradoki" dezake. Hau da, gertakari baten inguruan froga gutxiegi daudela adieraz dezake, eta gertakari hori akredita dezaketean frogabide zehatzak iradoki ditzake.

PZL 429.1.III artikulua dio iradokizun horren aurrean alderdiek beren froga proposamena "*osatu edo aldatu*" ahal izango dutela. Beraz, epaileak ahalmena du alderdiek gertakari bat akreditatzeko proposatu dituzten frogabideak nahikoak ez direla adierazteko eta gertakari hori frogatzen lagunduko luketen frogabide zehatzak iradokitzeo, baina alderdien esku dago epailearen iradokizun hori onartzea edo atzera botatzea.

Oso zaila izango da gisa honetako iradokizun bat atzera botatzea, baina hala ere auzitegiei kontu handiz jokatzeko eskatu beharko zaie, praktika honek ez lukeelako orokor bihurtu behar². Aukera honetaz abusatuz gero, epailearen inpartzialtasun irudia kaltetu egin daiteke. Nolanahi ere, alderdien despiste edo aholkularitza tekniko faltaren kasuan, onuragarria ere izan daiteke.

Aldiz, gaitasun, filiazio, ezkontza eta adingabeei buruzko prozesuetan, 752.1 artikulua baimena ematen dio auzitegiari "*egoki derizkion [frogak]*" akordatzeko. Lehen esan bezala, auzitegia ez da alderdiek akorda ditzaketean gertakariari lotuta gelditzen, eta ezta ere alderdiek eta Ministerio Fiskalak proposa ditzaketean frogei ere.

Ezgaitasun prozesuan beharrezkoa da medikuaren irizpen perizialaren froga (PZL 759.1 art.). Auzitegiak ustezko ezgaiaren ahaidetik gertukoak entzun ditzake, ustezko ezgaia aztertu beharko du, eta beharrezko diren irizpen perizialak agindu beharko ditu. Gaitasuna itzultzeko edo akordatutako ezgaitasuna aldatzeko ere froga berberak egin beharko dira (PZL 761. art.).

Auzitegiak behin-behineko neurriak (771.3 art.) nahiz behin betiko neurriak (774. art.) hartzeko eta adostasunezko dibortzio edo banaketei (777.4 art.) buruzko prozesuetan ofizioz akorda dezake froga, hitzarmen erregulatuzaileko proposamena onartzeko jatorria ezagutzeko nahikoa ez balitz.

5. Froga proposatzeko uneak

Froga, normalean, aurretiazko entzunaldian proposatuko da epaiketa arruntean, edo bistan hitzezko epaiketan, gertakariari buruz ezadostasuna dagoela ikusten denean. Baina lehenago edo beranduago proposatzeko aukera ere badago, eta arau preklusibo batzuk daude emandako epea igaro ostean proposatzeko.

2. Erregulazio honen eragozpenak aztertzeo, SACRISTAN REPRESA, G. "Consideraciones sobre la LEC 2000", In: "Jueces para la Democracia, Información y Debate" aldizkaria, 40. alea, 2001eko martxoa; 32 eta 33 orr.

5.1. Demanda

Lehenik eta behin, demandarekin eskatzen edo aurkezten diren frogak daude. PZL 336.1 eta 339.2.II artikuluek diote alderdiek judizialki izendatutako aditu baten froga perizial bat nahi dutenean, demandan edo erantzunean eskatu beharko dutela, baina ez dute hala egin beharko baldin eta aktoreak edo demandatuak demanda edo erantzunarekin batera –hitzezko epaiketan ahozkoa izango dena (PZL 443. art.)– beren kontura lortu dituzten irizpenak aurkeztean, edo aurkeztu egingo dituztela esaten dutenean (336.1 eta 337.1 art.).

Beste hainbeste esaten da 339.1 artikuluan, alderdiak dohain litigatzeko eskubidea daukan kasurako, nahikoa izan baita demandan frogabide zehatz bat erabiltzeko asmoa daukala adieraztea.

Eskaria, ez baldin bada demanda edo erantzunean egiten, edo hitzezko epaiketako ahozko erantzunean, ez da onartuko (PZL 339.2.II), baina epaileak PZL berriko 429.1 artikuluko ahalmena erabili ahal izango du.

Beste alde batetik, demanda eta erantzunarekin batera, froga proposamenik egin ez arren, agiri batzuk aurkeztu behar dira. PZL 266. artikulua demandarekin batera derrigorrean aurkeztu behar diren hainbat agiri zehazten ditu, eta hauek aurkeztu ezean demanda atzera botako da. Hauek dira kasuak:

- 1) Epaile eta magistratuen erantzukizun zibila deklaratu nahi denean beren funtzioen egikaritzan dolo, culpa edo neglijentzia edo ezjakintasun barkaezinagatik sortutako kalteengatik, prozesua amaitu dela eta kaltea sortu zuen ebazpenaren aurka helegitea tarteratu zela akreditatzen duten agiriak (266-1 art.).
- 2) Elikagaiak erreklamatzeko, eskatzeko oinarritzen den titulua argi eta garbi adierazten duten agiriak (266-2 art.).
- 3) Atzeraeskuratze kasuetan, oinarritzen diren tituluaren froga hastapen bat suposatzen duten agiriak, eta kontsignazioa, legeak edo kontratuak hala exigituz gero (266-3 art.).
- 4) Oinordetzaz eskuratutako ondasunen edukitza erreklamatzeko denean, demandatzailearen aldeko *mortis causa* titulua eta jabe edo usufruktuario modura edukitzarik ez duela deklaratu dezaketen lekukoaren zerrenda (266-4 art.).
- 5) PZL berriak edo beste lege batzuek exigitzen dituzten gainerako agiriak (266-5 art.). Esate baterako, PZL 767.1 artikulua filiazioa zehaztu edota inpugnatzeko demanda oinarritzen duten gertakarien froga hastapen bat exigitzen du.

Epaiketa arruntean, PZL 399.3 artikulua dio uzia oinarritzen duten gertakarien inguruko agiri, bitarteko eta tresnak modu txukun eta garbi batean aurkeztuko direla. Eta 264 artikulua dio norberaren izenean jarduten ez denean demanda edo erantzunarekin batera boterea edo ordezkariak akreditatzen duten agiriak aurkeztuko direla, eta, eskuduntza eta prozedura zehazteko beharrezko izanez gero, auzigaiaren balioa akreditatzen duten agiri edo irizpenak ere bai.

Era berean, 265.1 artikulua dio demanda edo erantzunarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko direla:

- 1) Eskatzen den babes judizialerako eskubidearen oinarri direnak.
- 2) PZL 299.2 artikulukoak; alegia, hitza, soinua eta irudia jasotzen dituzten bitarteko eta tresnak, eta helburu kontableak edo bestelakoak dituzten hitzak, datuak, zifrak edo eragiketa matematikoak artxibatzeke, ezagutzeko edo jasotzeko balio duten tresnak, eta prozesurako garrantzitsuak direnak, uziak horietan oinarritzen baldin badira.
- 3) edozein idazpeni buruzko nahiz erregistro liburuen, jardueren edo edozein motako espedienteren edukari buruzko ziurtagiri eta oharrak.

4) Alderdien uziak oinarritzeko irizpen perizialak, kasu hauetan izan ezik:

- irizpenak prest egon edota prestatzen ari direla, ezin izan direnean aportatu. Kasu honetan, zein irizpen erabili nahi diren adierazi beharko da, eta prest izan bezain laster aurkeztu beharko dituzte beste alderdiari trasladatzeko. Edozein kasutan, aurretiazko entzunaldia baino lehen (epaiketa arruntean) edota bista baino lehen (hitzezko epaiketan) aurkeztu beharko dira (PZL 337.1 art.). Alderdietako edonork eskatu ahal izango du (PZL 337.2 art.) irizpenen egilea epaiketan edo bistan agertzea, eta adierazi egin beharko du zer egitea nahi duen: irizpenari buruzko azalpenak ematea, galderei erantzutea, zuzenketak egitea edo beste edozer jarduera erabilgarri.
- judizialki izendatutako peritu baten irizpena proposatu nahi denean (PZL 339.2 art.). Hori demandan edo erantzunean adierazi beharko dute alderdiek, eta aurretiazko entzunaldian (epaiketa arruntean) edota bistan (hitzezko epaiketan) erabakiko da pertinetea den edo ez.
- alderdietako edonork dohain litigatzeko aintzatespena duenean. Espresuki adierazi beharra dago, eta irizpenaren berri PZL 339 artikuluan esan bezala eman beharko du.

5) Gaitasun legala daukaten lkerketa pribatuko profesionalak egindako irizpenak, uziak oinarritzen diren gertakari esanguratsuei buruz. Gertakari hauek egiaz gertatu direla onartzen ez bada, lekukoaren frogara egingo da (380. art., kontuan izanik artikulua honetako 1. zenbakiak 265.1 artikulura egiten duen eragorpena azken honen 5. zenbakira dela, eta ez 4.era, hala dioen arren, zeren eta akats hori ez da akatsen zuzenketan aipatu).

265.2 artikulua dio alderdiek demanda edo erantzuna aurkezterakoan ezin baldin badituzte aipatutako agiri horiek aurkeztu, agiriak dauden artxibo, protokolo edo lekua adierazi ahal izango dutela, edota zein erregistro, erregistro-liburu, ekintza edo espedienteren ziurtagiria eskuratu nahi den. Demandari dagokionez esaten da agiriak artxibo, espediente, protokolo edo erregistro batean baldin badaude eta horien kopia fede-emaileak eskatu eta eskura baldin badaitezke, agiri horiek aktoreak eskuratzeko moduan daudela ulertuko da. Presuntzio honek ez dio erantzunari eragiten.

Demandarekin ez baldin badira 264 eta 265. artikuluetako agiriak aurkezten, 231 artikulua arabera konpondu ahal izango da omisio hori, auzitegiak epe bat emanaz. Epe horretan ez baldin badira aurkezten, edota ez baldin bada artxiboak zeintzuk diren adierazten, alderdiak ezin izango ditu aurkeztu, eta ezin izango du autoetara ekar daitezela eskatu (269.1 art.). Hala ere, 270. artikuluan alderdiek agiriak salbuespen gisa noiz aurkeztu ahal izango dituzten zehazten da: demanda, erantzuna edo aurretiazko entzunaldiaren ondorengo data duten agiriak; demanda, erantzuna edo aurretiazko entzunaldia baino lehenagoko agiriak, baldin eta aurkezten dituen alderdiak ezagutzen ez zituela justifikatzen baldin badu; eta alderdiei egozgarri ez zaizkien arrazoiengatik lehenago aurkeztu ahal izan ez direnak, baldin eta zein artxibotan zeuden adierazi baldin bazen.

Ikus daitekeenez, erregimena oso desberdina da 1881eko PZL 506.2 artikuluaerikiko, ez baita nahikoa aurrez existitzen ziren agiriak ezagutzen ez zirela zin egitea; horrez gain, existitzen zirenik ez zekiela justifikatu behar da. Gainerako alderdiek judizioan edota bistan kontuan hartzea bidegabea dela alega dezakete, aipaturiko kasuetan ez sartzeagatik (270.2 art.). Erabakia berehalakoan hartuko da, eta auzitegiaren iritzian epaiketa atzeratzeko asmoa edo fede txar prozesala egongo balitz, 30.000 pezetatik 200.000ra bitarteko isuna ezarri ahal izango du.

Bestetik, 271.1 artikulua debekatu egiten du judizioaren (epaiketa arruntean) edota bistaren (hitzezko epaiketan) ondoren inolako agiririk onartzea, azken eginbideei buruz 435.1.3 artikulua aurreikusten duen salbuespenarekin, gertakari edo albiste berrien kasurako, eta konklusioen ondoren jakinarazitako epai edo ebazpen judizial edo administratiboaren aurkezpenaren kasurako (271.2 art.).

Hitzezko epaiketan erabateko aldaketak daude aurkeztu beharreko agiriei dagokienez. PZL berriarekin, aktorearen kasuan ezinezkoa izango da agiri horiek epaiketa unean agertzea. Nahitaez demandarekin batera aurkeztu beharko dira, demanda hori arrunta, laburra edo formularioa izan.

Lehen aipatu bezala, 264 artikulua dio demanda eta erantzunarekin batera boterea aurkeztu beharko dela –hau da, ordezkaritza akreditatzen duen agiriak– eta baita ere prozesuaren munta adierazten duten agiriak. Bestetik, 265.1 artikulua alderdien babes judizialerako eskubidea oinarritzen duten agiriak ere aurkeztu beharko direla dio.

PZL 265.4 artikulua hitzezko epaiketari buruz dio demandatuak bakarrik aurkeztu ahal izango dituela bistan bere eskubidea oinarritzeko agiriak eta hitza, soinua eta irudiak jasotzen dituzten bitartekoak, edozein erregistroko ziurtagiri eta oharrak, eta ikertzaile pribatuen irizpen perizialak.

Beraz, aktoreak ezin du judizioan horrelakorik aurkeztu; hori demandarekin bakarrik egin ahal izango du. PZL 269 eta 272. artikuluek arau preklusibo batzuk ezartzen dituzte honen inguruan. Horrela, hitzezko epaiketako bistan demandatuarenak bakarrik onartu ahal izango dira, edota demandatzaileak unean bertan konpentsazioari oposatzeko edota errekonbentzioari erantzuteko aurkezten dituenak, errekonbentzioa orain aurrez iragarri behar baita (438.1 art.); hori, logikoa denez, idatziz egin beharko da, benetako demanda bat da-eta (437. art.).

Arrazoi berberagatik, errekonbentzioa aurkezten duenak, errekonbentzio demandarekin batera, bere uzia oinarritzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu. Demanda hau aktoreak bista ospatu baino gutxienez bost egun lehenago ezagutu beharko du, bistara egoki derizkion defentsa bide guztietan joan ahal izateko.

5.2. Aurretiatzko entzunaldia eta bista

Epaiketa arruntean, aurretiatzko entzunaldian proposatzen dira frogak. 429.1 artikulua esanetan, gertakari eztabaidagarriak daudenean alderdiek horiei buruzko frogak proposatu ahal izango dute. Gai hau oro har arautzen duen 284. artikulua, ordea, ez du esaten nola egin behar den; esaten duen gauza bakarra da banandurik egingo direla.

Baina entzunaldiaren arauketa garbi uzten du batik bat ahozkoa dela. Horregatik, eta bere onarpen eta helegiteari buruz ahoz erabakitzen delako, alderdiek ere ahoz jardun beharko dutela dirudi, ohar edo notak erabil ditzaketen arren.

Hitzezko epaiketari dagokionez, 443.4 artikulua dio alderdiek gertakari buruz ados ez daudela ikusi ondoren frogak proposatuko dela. Kasu honetan garbi dago ahoz proposatuko dela, aipaturiko artikulua esaten baitu “... hitza alderdiei emango zaie...”.

5.3. Geroko uneak

Epaiketa arruntean azken eginbideak egin daitezke, baina ez daude hitzezko epaiketarako aurreikusita. PZL 434.2 artikulua epaia emateko epean (hogeitun egun) egin daitezkeela dio.

Eginbide hauek alderdiak eska ditzake, baina ez da esaten noiz. PZL 435.1 artikulua ez du eperik finkatzen, baina aurreko artikulua epaia emateko epearen barruan bakarrik akordatu ahal izango direla dio, eta hori dela-eta suspenditu egingo dela epe hori. Beraz, une horretan egin beharko da, edota, arauak debekatzen ez duenez, epaiketa ahoz bukatzeko unean (433.2 art.).

Epaileak ofizios akordatzen baldin baditu (435.2), epaia emateko hogeitun eguneko epearen barruan zehaztu beharko dira, epe hau suspenditu egingo delarik.

Azkenik, 271.2 artikulua epaiak eta ebazpen judizial edo administratiboak aurkezteko baimena ematen du, baldin eta konklusioak formulatzeko unearen ondoren eman edo jakinarazi baldin badira, eta ebazteko erabakigarriak badira. Gainera, epaia emateko epearen barruan ere aurkeztu ahal izango dira; kasu honetan, trasladoa emango zaie gainerako alderdiei, bost eguneko epean alegazioak egin ditzaten. Bitartean, suspendituta geldituko da epaia emateko epea.

6. Onarpena eta helegiteak

Proposaturiko frogak onartzeko arauak PZL 283. artikuluan jasotzen dira, eta bertan esaten da ez direla onartuko frogak inpertinenteak, alferrikakoak eta Legeak debekatzen dituenak. Froga inpertinenteak, prozesuaren objektuarekin loturarik ez dutenak dira, ez dutelako eztabaidatzen den auzia konpontzen lagunduko. Alferrikako frogak, arau eta irizpide arrazonagarri eta ziurren arabera gertakari eztabaidatuak argitzen inolaz ere lagunduko ez dutenak dira. Debeikutako frogak, Legea urratzen dutenak dira.

Azken hauei dagokienez, 287. artikuluan legez kontrako frogari buruz esaten dena ikusi behar da. Gogoan izan BJLO 11.1 artikulua esaten duela baztertu egingo direla funtsezko eskubideak zuzenean edo zeharka urratuz lortu diren frogak. Arau hauek ikerketa pribatuko profesionalak egindako txostenak aurkezteko aukerarekin lotzen baditugu (265.1.5 art.), eta filmaketa eta grabaketarako tresnen bidez jasotako hitz, irudi eta soinuekin, nahiko ohikoa bihur daiteke salaketa mota hau.

Alderdiek nahiz auzitegiak sala dezakete froga bat ustez legez kontrakoa dela, funtsezko eskubideak urratu izanagatik. Salaketa hau "berehala" planteatu beharko da judizioan epaiketa arruntaren kasuan (287 eta 433.1 art.), edota bistan, hitzezko epaiketan (287 art.). Alderdiei horren inguruan entzungo zaie, eta berehalakoan hartuko da erabakia. Legez kontrakotasun horren salaketan judizioan bertan egin daitekeen froga proposa eta onar daiteke.

Epaileak berehala hartuko du erabakia; ezin du atzeratu. Epaiketa arruntan birjarpen helegitea tarteratu ahal izango da, eta beste alderdiari trasladoa eman ondoren judizioan bertan ebatziko da (287.2 art.). Hitzeko epaiketan ezin izango da helegin (446 art.). Bi kasuetan legez kontrako frogaren inpuñazioa epaiaren aurkako apelazioan errepika daiteke.

Frogak proposatu ondoren, epaileak epaiketa arruntan nahiz hitzezkoan, ahoz erabakiko du zeintzuk onartzen dituen. Hala ere, autoaren forma beharko duela erabaki ahal izango du (PZL 206.2 art.), posible baitira ahozko autoak. Horretarako, gainetik bada ere azaldu egin behar dira, PZL zaharrear bezala, hitzezko epaiketan eta kogniziozkoan frogabide bat ukatzeko dauden arrazoiak.

Epaiketa arruntari dagokionez, PZL 429.2 artikulua froga pertinente eta baliagarriak onartuko direla ezartzen du; gainerakoak atzera botako dira. Froga onartzen edo atzera botatzen duen ebatzpena judizioan bertan helegin dezake froga hori proposatu zuen alderdiak (PZL 285. art.), eta epaileak, beste alderdia entzun ostean, ahoz ebatziko du; helegite hori ezestu egingo balitz, alderdiak protesta egin ahal izango du bigarren auzialdian, 459. artikulua arabera, berme prozesalen edo arauen urrapena alegatuz. Arau berezi honek, hitzezko epaiketarako aurreikusitakoak bezala, lehentasuna du 210.2 artikuluekiko, aurreikuspen orokorrak prozesu bakoitzerako ezarritako berezitasunei ematen baitie lehentasuna.

Aurreko PZL 527 artikulua xedatutakoarekiko egon den funtsezko aldaketa bat da orain froga atzera bota nahiz onartu izana helegin daitekeela; ez dago helegitea froga atzera bota izanaren kasura mugatzen duen araurik. Garbi esaten du 285 artikulua: ebatzpena da helegin daitekeena, edozein eduki duela. Tartera daitekeen helegite bakarra birjarpena da (PZL 285.1), 1881eko PZLan bezala; beraz, atzera bota den froga praktika dadila eska daiteke bigarren auzialdian, eta hori apelazio helegitea tarteratzeko idazkian adierazi beharko da (460.2 art.), hau da, aintzinako adhesioan, edo helegitearen oposizioan (461.2 eta 3 art.).

Hitzezko epaiketan, ezin dira helegin epaileak frogak atzera botatzeko edota funtsezko eskubideak urratuz lortu direla salatutako frogak onartzeko emandako ebatzpenak; hauei dagokienez protesta bakarrik egin daiteke, eskubide horiek bigarren auzialdian gauzatzeko (446. art.). Artikuluaren idazketak ez du garbi uzten salaketa hori jaso ez duen frogak onartzen dituen erabakia helegin ote daitekeen edo ez.

7. Frogaren prestaketa eta praktika

Pertinentetzat jo den froga, onartu ondoren, judizioan (prozesu arruntan) edo bistan (hitzezko epaiketan) praktikatu da. Prozesu arruntan, auzitegiak epaiketaren data zehaztuko du, entzunaldia amaitu denetik hilabete bat igaro baino lehen ospatuko dena (429.2 art.); froga guztia edo gehiena auzitegiaren egoitzatik kanpo edota exhorto bidez egin behar bada, epaiketa bi hilabeteko epean egin ahal izango da (429.3 art.).

Pertinente deklaratu den froga bakarria agirizkoa izan baldin bada, dagozkion alegazio idazkiekin batera aurkeztu bada, eta ez baldin bada helegin, edota irizpen periziala bakarrik proposatu baldin bada, demanda edo erantzunean aurkeztu bada, eta alderdiek nahiz auzitegiak ez baldin badute berrestu edo argi dadila eskatu, ez da datarik finkatu behar izango judizioa ospatzeko edo bistarekin jarraitzeko. Epaiketa arruntean bukatutzat emango da entzunaldia, eta hitzezkoan epaiketa, eta epaia emateko hogeiguneko epea kontatzen hasi da.

Judizioa edo bista baino lehen, prestakuntza egintza batzuk egin ahal izango dira, edota prozesuaren ondoren, zitazioen praktikaren eta laguntza judizialaren eskaeraren bitartez.

7.1. Froga aurreratua

Judizioa baino lehen, eta prozesua bera baino lehen, froga aurreratua praktika dadila eskatu ahal izango da. Prozesua baino lehen aktoreak bakarrik eskatu ahal izango du, eta judizioa baino lehen alderdietako edozeinek, baldin eta pertsonengatik edota gauzen egoeragatik froga horiek judizioan edo bistan ezin izango direla gauzatu pentsatzeko oinarriak baldin badago (PZL 293.1 art.).

Prozesua hasi baino lehen eskatzen baldin bada, eskuduntza objektibo eta lurraldetarra duen epaitegiaren aurrean planteatu beharko da –auzitegiak berak ofizioz eskuduna ote den begiratu–, eta demandatu izango direnen izena eta helbidea zehaztu beharko dira, frogaren praktikara zitu ahal izateko. Ondorengo prozesua, auzien banaketa dela-eta, beste epaitegiaren bati balegokio, bigarren auzitegi honek lehenengo auzitegiko idazkariari praktikatu den froga eskatu ahal izango dio (PZL 296.2 art.). Prozesua hasia denean, berriz, froga aurreratua praktikatzeko eskaria auzia ezagutzen ari den epaitegiari zuzenduko zaio (PZL 293.2 art.).

Eskaria justifikatu egin behar da (PZL 294.1 art.), Legeak berak salbuesten duenean izan ezik (adibidez, bisten aretora eraman ezin diren gauzen epaile-azterketarekin gertatzen den bezala; PZL 353.3 art.). Eskaria oinarrituta dagoela ikusiz gero, epaileak probidentzia batez onartuko du –beste edozein bezala helegin daiteke–, eta bertan noiz praktikatuko den zehaztuko da, judizioa edo bista baino lehen betiere (PZL 294.2 art.).

Froga, prozesua hasi baino lehen nahiz prozesua hasia dela, bistan edo judizioan egingo litzatekeen modu berean praktikatu da (PZL 295.2 art.), etorkizunean demandatua izango den edo diren pertsona edo pertsonak zitatuz (PZL 295.1 art.). Beste edozein froga bezala dokumentatuko dira, eta idazkariaren zaintzapean geldituko dira (PZL 296.1 art.). Froga hauek etorkizuneko prozesu batean balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da prozesu hori bi hilabeteko epean hastea, indar nagusia edo antzeko izaerako beste arrazoi batengatik hasi izan ezin duenean salbu (PZL 295.3 art.). Nolanahi ere, froga aurreratua praktikatu ondoren, demanda berria aurkezterakoan alderdiren batek froga hori berriz praktikatzea eskatuko balu, eta praktikatzea posible balitz, hala egingo da, eta auzitegiak bi frogak baloratuko ditu (PZL 295.4 art.).

Froga aurreratzeaz gain, posible da froga praktikatu ahal izango dela segurtatzeko neurriak hartzea ere, pertsonen jarrerak edota gertaera naturalek objektu materialak edo gauzen egoera aldatu edo suntsitu egin dezakeenean, eta gero ezinezko izango denean froga praktikatzea (PZL 297. art.). Kasu honetarako arauak froga aurreratuaren kasurako ezarritako gauza bera aurreikusten dute. Auzitegiari askatasun handia ematen zaio neurriak hartzeko orduan, eta mota desberdinekoak izan daitezke: gauzak edo egoerak kontserbatzeko, beren egoera edo ezaugarri fede-emaileak adierazteko, edo egiteko nahiz ez egiteko aginduak, bestelakoan desobedientzia egingo dela ohartaraziz.

Froga baliagarria edo pertinentea ez bada, eskaera atzera bota daiteke (PZL 298. art.). Frogaren eskatzaileak froga praktikatzearen ondorioz sor daitezkeen kalteengatik erantzuteko bermeak eskain ditzake, eta froga jasan behar duen pertsonak kausioa eskain dezake froga geroan praktikatu ahal izango dela segurtatzeko.

Epaiketa arruntari dagokionez, PZL 429.4 artikulua dio judizioan praktikatu behar ez diren frogak judizioa baino lehen praktikatuko direla; hori, normalean, epaile-azterketarekin edota lekukoaren nahiz alderdien etxeko deklarazioarekin gertatuko da. Baina hitzezko epaiketan ez da horrelakorik gertatuko,

froga bistan proposatzen delako, prozesuaren aurreko frogaren aukerara jotzean salbu (PZL 293 eta hurr. art.)³.

Epaile-azterketa, gero ikusiko dugun bezala, gutxienez bost egun lehenago zehaztuko da, eta alderdiak gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago zitatuko dira (PZL 291. art.) eta, betiere, judizioa baino lehen (PZL 290 eta 429.4 art.). Judizioa entzunaldia ondorengo hilabete bat edo biko epean egin beharko denez, logikoena entzunaldian bertan zehaztea izango da.

Alderdien eta lekukoen etxeko deklarazioak, gaixo egoteagatik edo beste inguruabar bereziengatik komenigarri direnean egingo dira; horrela, auzitegia eta, posible bada alderdiak ere bai, beren etxera joango dira (PZL 311 eta 364 art.). Froga hauek judizioa baino lehen gauzatu beharko dira (PZL 290 eta 429.4 art.), ospatu baino gutxienez bost egun lehenago zehaztu beharko dira (PZL 290. art.) eta zitazioa gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago jaso beharko da (PZL 291. art.). Horregatik, logikoena aurretiazko entzunaldian bertan zehaztea izango da, laguntza judizial bidez egingo denean salbu (PZL 313 eta 364 art.).

Alderdiek, joaten baldin badira, interrogatuari zuzenean egingo dizkiote galderak (PZL 311.2 eta 364.1 art.), baina ez balute joaterik izango edota, pertsonaren eta lekuaren inguruabarrak kontuan hartuz, auzitegiari hauek joatea egoki iruditzen ez bazaio, aurrez galdeketa idatzi bat aurkeztu ahal izango dute, pertinente deklaratu beharko dena (PZL 311.1 eta 364.1 art.).

Gertatutako guztia idazkariak akta batean jasoko du (PZL 312. art.), eta, irakurri ostean, interesatuak sinatu egingo du, judizioan ez bezala. Baina alderdiak joango balira, egokiagoa litzateke gertatutakoa grabatzea, epaile-azterketarako aurreikusita dagoen bezala, eta alderdien lekukotza eta galdeketerako (PZL 357 eta 359. art.).

Lekukoen etxeko galdeketeraren kasuan, alderdiak agertu ez badira, lortu diren erantzunen bista emango zaie, hiru eguneko epean galdera osagarri edo argitzaile berriak aurkeztu ahal izateko (PZL 364.2 art.).

7.2. Zitazioak

Lekuko eta perituak epaiketa arruntean zitatzea eska diezaioke auzilariak auzitegiari (PZL 429.5 art.). Epaietan saio bat baino gehiago izango direla aurreikusten baldin bada, zituari horren berri eman beharko zaio, adieraziz saioak zein orduetan hasiko diren, eta hurrengo egunetan jarraituko ote duten (PZL 429.7 art.).

Epaiaketa honetan ez da beharrezkoa izango entzunaldira pertsonalki edo prokuradorearen bidez agertu diren alderdiak zitatzea, entzunaldian jada enteratu direlako (PZL 429.6 art.). Baina zitatu egin beharko da, ordea, auzi-ihesean, demandatua entzunaldira ez agertzean, edota aktorea ez agertzean demandatuak fondoari buruzko epaia eman dadin epaiaketeraren jarraipena eskatu eta lortuko balu (PZL 413.3 art.).

Baina 284. artikulua baimena ematen du bost eguneko epean auzitegiari frogabide bakoitza burutzeko zitatu behar den pertsona bakoitzari buruzko datuak emateko. Aurreikuspen hau soilik epaiketa arruntarentzako egiten da; beraz, aurretiazko entzunalditik gertatzen dela ulertu beharko da, orduan proposatzen baita deklaratu duen lekuko edo alderdia.

Pertsona juridiko edo nortasunik gabeko ente bat baldin bada, eta bere ordezkariak ez balu auzian eztabaidatzen diren gertakariekin zerikusirik, hala adieraziko da agerraldian, izena adieraziko delarik epaiaketera zitatu dadin. Dagoeneko ez baldin bada entitate edo pertsona juridiko horretakoa, lekuko gisa zitatuko da.

3. Hitzeko epaietan froga praktikatzeko zailtasunak aztertzeko, SARAIZA JIMENA, R. "La prueba en la nueva LEC", In: Rev. Jueces para la Democracia. Información y Debate, 39. zkia., 2000ko azaroa, 77 -78 orr.

Hitezko epaiketan, alderdiak judiziora zitatu ostean, alderdiek hiru eguneko epea izango dute beren kabuz aurkeztu ezin dituzten pertsonentzako zitazio judiziala eskatzeko (PZL 440.1 art.). Zitazio hori egin ahal izateko, beharrezko diren datu eta inguruabar guztiak zehaztuko dituzte. Horrek ez die alderdiei eragiten, zeren eta judiziorako zitazioan bertan ohartarazten da beste alderdiak bere deklarazioa eskatzen baldin badu eta onartu egiten baldin bada, bere ez agertzeak guztiz kaltegarriak zaizkion gertakariak onartzea ekar dezakeela.

Nire ustez ez du oztoporik egon behar aktorearen kasuan lekukoak zitzateko eskaria demanda baino lehen egiteko, horrek zitazioa erraztu egiten baitu, nahiz eta nahastu egiten duen proposatuko den frogaren zentzua.

7.3. Laguntza judiziala

Prozesu zibil berriak judizioaren figura berreskuratzen du ordena jurisdikzional zibilean. Horretarako hainbat sistema aurreikusten ditu, epailearen presentzia exigitzen du, eta judizioan edo bistan kontzentratzen ditu frogaren burutzea eta alderdien azken alegazioak.

Kontzentrazioaren exigentziek bigarren maila batean uzten dituzte laguntza judizialeko egintzak, eta beraz exhortoak ezin dira orain arte bezala sistematikoki erabili, frogaren praktika auzitegian bertan ez egiteko.

Horregatik, alderdiek adierazi egin behar dute zein froga egin behar den laguntza judizialaren bidez, eta dagokion epaileak hartuko du erabakia, zeren eta orain salbuespenezkoa da froga praktikatzeko laguntza judiziala (PZL 169.2 eta 4 art.). Ezin da bake epaitegien bitartez egin (PZL 170. art.), hau komunikazio egintzak egitera mugatuko baita. Exhorto hauek egin ez arren, judizioa ez da etengo (PZL 429.5 art.).

Auzitegiari dagokio lekukotza bat funtsezkoa ote den baloratzea, eta hala izatekotan lekukotza hori, laguntza judizialaren bidez egin beharrean, epaia eman behar duen epailearen aurrean egin behar dela erabakitzea⁴. Helbidea barruti judizialek gertu baldin badago, alderdien, lekukoen eta perituen galdeketa ezin izango da exhorto bidez egin (PZL 169.4 art.), distantziagatik, desplazatzeko zailtasunagatik, alderdi, peritu edo lekukoaren inguruabar pertsonalengatik edo antzeko beste arrazoiren batengatik agertzea oso larria edo ezinezkoa denean salbu.

Hori ez du Legeak bakarrik exigitzen. Frogaren kontzentrazioaren eta inmediazioaren (hau da, testigantza zuzenean entzutea) printzipioen arabera, laguntza judiziala ezohiko kasuetan bakarrik erabili beharko litzateke, batez ere lekuko edo perituak zitzateko sistema berria sinplifikatu egin denean, eta deklaratu behar duten auzitegiak zuzenean postaz erremittitu dezala ahalmentzen denean; beraz, exhorto zitazioa postaz edo antzeko modu batean egiterik ez dagoenean bakarrik izango da beharrezko.

Froga bat lortzeko laguntza judiziala eskatzen denean, alderdiak froga horretara joateko eskubidea du (PZL 313. art.), baina aktoreak joaterik ez badu, idatzizko galdeketa egin ahal izango du. Horretarako, froga onartu duen auzitegiari galderak idatziz bidaliko dizkio, pertinentetzat jo ditzan. Galdeketa egin nahi duten alderdi guztiek hiru egun izango dituzte hori egiteko.

7.4. Froga praktikatzeko modua eta dokumentazioa

PZL 289. artikuluan ezartzen dira edozein prozesutan froga praktikatzeko jarraitu beharreko printzipioak. Lehenik eta behin, bista publikoan modu kontradiktorioan egingo dela esaten da, eta beraz alderdiei parte hartzen utziko zaiela, baina froga guztietan dauden muga barnean.

4. RODRIGUEZ ACHUTEGUI, E. "El juicio ordinario y la prueba en la nueva LEC", In: I Jornadas sobre la Nueva Ley de Enjuiciamiento Civil, Bilbo: Ilustre Colegio de Procuradores de Bizkaia, 2000; 278. or.

Alderdiak frogako subjektu edo objektu ez izan arren presente egoteak, prozesu ororen ezaugarri izan behar duen kontradikzioa bermatzen du. Kontradikzioa, babes judizialerako funtsezko eskubidea aitortzen duen Konstituzioko 24. artikulutik eratorritik den armen berdintasun printzipioaren ondorioa da. PZL 291. artikulua dio froga auzitegiaren egoitzatik kanpo egin behar denean alderdiak zitatu beharko direla, eta 290.ak gauza bera, judizio edo bista baino lehen egiten badira.

Froga burutzearen bigarren ezaugarria publizitatea da. Hala exigitzen du Konstituzioko 120.1 artikulua, eta baita ere PZL 289.1 artikulua, "bista publikoa" hitza aipatzean. PZL 138. artikulua jardun judizial guztietara zabaltzen du arau hori, baina betiere alderdiei aurrez entzunaldia emanez, ahoz, gero ezin dela errekurritu, nahiz eta protesta egiteko aukera dagoen, atek itxita ospatzea erabaki daiteke, baldin eta beharrezkoa bada ordena publikoa, segurtasun nazionala, adingabeen interesak, pertsonen bizitza pribatua edo beste edozein eskubide nahiz askatasun babesteko.

PZLak aurreikusten duen beste salbuespen bat gaitasun, filiazio, ezkontza eta adingabeei buruzko prozesuen ingurukoa da; izan ere, 754. artikulua baimena ematen dio auzitegiari inguruabarrek hala aholkatuz gero bista atek itxita ospatzea erabakitzeko ofizioz edo alderdien eskariz.

Hirugarren, epailearen inmediazio edo hurrentasuna legoke, behar-beharrezkoa baita epailearen presentzia (PZL 137 eta 289.2 art.). Zioen Adierazpenak presentzia horrek "garrantzi berezia" duela aitortzen du. Prozesuaren diseinu honen bitartez, epailearen "desagerketa" oztopatu nahi da, eta baldintza hau ez betetzea deuseztasun kausa gisa aurreikusten da (PZL 137.3 art.). Bestetik, eta gainerako ordena jurisdikzionaletan gertatzen den bezala, bista edo judizioa presiditzen duen epaileak bakarrik eman ahal izango du epaia (PZL 194.1 art.).

Idazkariari aurkeztu beharko zaizkio agiriak, beste frogabideak, agiri pribatu baten egiazkotasunaren aitortpena, letrak erkatzeko idazkiak, eta irizpen perizialaren egiletzaren berrespena (PZL 289.3 art.). Baina, hala ere, jardun hauetako batzuk epailearen aurrean egingo dira bistan edo judizioan, alderdiak gertakari eta agiriak aztertzea deitzean.

Frogaren laugarren ezaugarria, bere kontzentrazioa da. Egintza bakar batean burutuko dira (PZL 290. art.), baina, salbuespen gisa, egintza horretan burutu ezin daitezkeenak –baina betiere judizio edo bista baino lehen burutu beharko dira– zeintzuk diren adieraziko du auzitegiak. Kasu hauetan, kontradikzio printzipioa gordetzearren, auzitegiak gutxienez bost egun lehenago zitatuko ditu alderdiak frogara; hala ere, aurretiazko entzunaldian bertan zehaz daiteke froga burutzeko data.

Kontzentrazioarako exigentzia, frogan laguntza judiziala eskatzeko ezintasunean ikus daiteke, alderdi, lekuko eta perituen helbidea auzitegiaren egoitzatik kanpo egon arren (PZL 169. art.), eta Bake Epaitegiek laguntza emateko ezintasunean, komunikazio egintzak izan ezik (PZL 170. art.). Bistak eten (193. art.) eta atzeratzeko (198. art.) kausen erregulazioan ere ikus daiteke. Hitzeko epailetaren kasuan, azken eginbiderik ez egotean. Eta judizioaren nahiz bistaren erregulazioan bertan, PZL 433 eta 443 artikuluen arabera froga burutu behar den lekuan.

Frogan dagoen beste printzipio bat, fede on prozesalarena da. PZL 247. artikulua alderdiek beren jardunean printzipio hori jarraitu behar dutela xedatzen du, eta, errespetatuko ez balute, auzitegiak zehapenak ezarri ahal izango ditu. Printzipio hori bera jasotzen du 288. artikulua ere; izan ere, froga bat denbora batean auzilari baten erruz egin ez bada, 10.000-100.000 pezeta bitarteko isuna ezarri ahal izango zaio judizioan edo bistan, alderdiak entzun ostean, bere errurik egon ez dela akreditatzean edota froga berak proposatutakoa izanik uko egitean salbu.

Azkenik, PZLaren berrikuntzarik nagusienetarikoa bat, BJLO 280. artikulua aipatutako judizio, bista eta frogak dokumentatzeko moduari dagokio. PZL berriko 187. artikulua idazkariaren fedepean (PZL 147. art.) epailetan irudi eta soinua graba daitezela agintzen du, eta, posible izango ez balitz, soinua bakarrik. PZL 187.2 artikuluan aurreikusten den salbuespena (grabazio sistemak ez funtzionatzea) ez da ez grabatzeko baimen gisa ulertu behar.

Idazkari judizialak, gainera, akta labur bat prestatu beharko du (PZL 146.2 art.), bertan lekua, data, alderdien eskariak, auzitegiaren ebazpenak eta grabazioko euskarrian agian azalduko ez diren gainerako inguruabar eta intzidentziak adieraziz.

PZLak ez du esaten nola hartuko diren kontuan epaiketa aurreko froga eta laguntza judizialaren bidez eskuratutakoa. Argi dago alderdiek parte hartu baldin bazuten –adibidez, etxeko galdeketa presente egon baziren–, ez direla errepikatu beharko, baina gainerakoetan, alderdietako bat presente egon arren, auzitegiak jaso egin beharko du, eta, beraz, grabatu edo idatzi arren, erreproduzitu egin beharko da. Hala ondorioztatzen da epaiketaren ezaugarri diren ahozotasun eta kontzentrazio printzipioetatik, eta Legeak hainbat frogara arautzen dituen modutik –hala nola, erakunde publikoen txostenak, PZL 415.2 artikulua araberan epaiketan irakurri behar direla–.

8. Frogabideak

Froga, aipatu diren kasuetan izan ezik, judizioan bertan praktikatzen da, epailearen aurrean. Baina PZLak ez du ezer esaten laguntza judizialaren bidez eskuratutako frogaren inguruan. Galderak eta erantzunak idatziz jaso ez direnean erreproduzitu egin behar direla dirudi. Laguntza judizialean arau orokorra alderdiak frogara joatea da, alderdi eta lekukoei galdeketa eginez, eta joaterik ez daukatenean bakarrik aurkeztuko dute idatziz galdeketa (PZL 313. art.). Baina frogaren emaitza epaileak berak ikusi behar duenez, beharrezkoa izango da irudia eta/edo soinua erreproduzitzea edo akta irakurtzea, bere kasuan.

Frogabideak PZL 299. artikuluan jasotzen dira, baina bertako zerrenda ez da itxia; izan ere, azken atalak dio “gertakari esanguratsuei buruz ziurtasuna” lortzeko balio duen “artikulu honetako aurreko ataletan espresuki jaso ez den beste edozein bitarteko” erabili ahal izango dela. Horretarako, 300. artikuluan azaltzen den ordenari jarraituko zaio epaiketan zehar. Hala ere, dokumentu bidezko frogak azaltzen hasiko gara.

8.1. Dokumentu bidezko frogak

Dagoeneko adierazi dugu zein agiri aurkeztu behar diren demanda, erantzuna eta errekonbentzioarekin batera, demandatu nagusiak edo errekonbentzionalak bere erantzunean jasotakoaren ondorio direnean salbu. Kasu horretan, epaiketa arruntean entzunaldian aurkeztu ahal izango da (PZL 265.3 art.) eta hitzezkoan berriz bistan. Epaiketa arruntean aurretiazko entzunaldian (PZL 427. art.) eta hitzezko epaiketan bistan, alderdi bakoitza beste aldeak aurkeztu dituen agiriei buruz pronuntziatuko da, onartu, inpugnatu edo errekonozitu egiten duen adieraziz. Bere kasuan, bere egiazkotasunari buruzko frogak ere proposatu ahal izango du.

PZL 317. artikulua, aipatu daitezkeen agiri publiko originalak aipatzen ditu, ziurtagiri fede-emaile edo kopia soil baten bidez, eraginkorrak izango direla gainerako alderdiek inpugnatzen ez baldin badituzte (PZL 267. art.). Inpugnatu egingo balira, kopia, ziurtagiri edo lekukotza fede-emaileak erkatu edo konprobatu egingo dira (PZL 320. art.), eta Merkataritza artekari kolegiatu batek interbenitutako polizak izanik, bere Erregistro Liburuko idazpenekin konprobatuko dira.

Idazkaria da originala edo matriza dagoen artxibo edo lokalera joango dena, alderdiak zitatuz. Ez da aginduen erremisiorik aurreikusten, aurreko PZL 597.2 artikulua baimentzen zuen bezala. Erkaketa edo konprobazioak sortzen dituen kostak, gastu eta eskubide guztiak inpugnatu zuenak ordaindu beharko ditu, eta auzitegiaren iritzian ausarkeria balego, 20.000-100.000 pezeta bitarteko isuna ezarri ahal izango du.

Agiri publikoen frogak arautzen zuten Kode Zibileko 1216-1224 artikuluek indarrean dira, PZL 2.1 Xedapen Iraungitzaile Bakarrak ez dielako eragin.

PZL 324. artikulua dio agiri pribatuak publiko ez direnak direla. Agiri originalak edo kopia egiaztatuak aurkeztu behar dira, espedientean, protokoloan edota erregistro publikoan daudenean salbu, kasu horietan egiazko kopia lortu edota izendatu egin beharko baita (PZL 268.3 eta 325 art.). Beti autoei erantsiko zaizkie, baina aurkeztutako agiriak originalak badira autoetan horren testigantza utzi eta ekarri dituen alderdiari itzultzeko aukera dago, hala eskatzen duenean (PZL 268. art.).

Inpugnatzen ez baldin badira, eraginkortasuna izango dute (PZL 268.2 art.), baina beren egiazkotasuna eztabaidatzen baldin bada, alderdiak letren erkaketa periziala edo beste frogabideren

bat eskatu ahal izango du, eta berak ordaindu beharko ditu sortzen diren gastu nahiz eskubideak. Inpugnazioa ausarkeriazkoa balitz, gainera, auzitegiak isun bat ezar diezaiokie (PZL 326.2 eta 3 art.). Bestetik, indarrean diraute agiri pribatuaren frogari buruzko Kode Zibileko 1225 eta 1227-1230 artikuluek.

Auzitegi Konstituzionalak 7/1994 Epaian, urtarrilaren 17koan, adierazi zuen bezala, PZL 328 eta 329. artikuluek dauzkaten agiriak erakustera behartzen ditu auzilariak; beraz, agiriaren kopia aurkeztu beharko dute, eta, posible ez balitz, bere edukia ahalik eta modurik zehatzenean azaldu beharko dute.

Errekerimenduari kasurik egiten ez baldin bazaio, auzitegiak kopiari edota agiriak duen edukiri buruz emandako bertsioari balioa eman liezaioke. Auzitegiak, gainera, eskatu diren agiriak erakusteko errekerimenduak formulatu ahal izango ditu (PZL 329. art.).

PZL 330. artikulua gauza bera aurreikusten du hirugarrenei dagokienez, auzitegiaren iritziz agiri horiek behar-beharrezkoak badira epaia emateko; PZL 327. artikulua Merkatarien Liburuei buruz dio hori bera, aztertu behar diren idazpenak zehaztuz; eta PZL 332. artikulua erakunde ofizialei dagokienez. Hirugarrenak prest baldin badaude agiriak erakusteko, ez dira epaitegian egitera behartuta egongo; izan ere, eskatzen baldin badute, idazkari judiziala beren etxera joango da lekukotza hartzera.

8.2. Alderdien galdeketa

Lehen aitortza deitzen genuen alderdien galdeketa izena du orain, ulergarriagoa izanik eta nahasmen gutxiago sortuz. Zin egitea desagertu egin da eta baita froga tasatuaren balioa zuen “zin erabakitzaila” ere. Orain ezin da prozesuaren edozein unetan eskatu, baizik eta aurretiazko entzunaldian epaiketa arruntean, eta bistan hitzezko epaiketan. Ahozko galdeketa bihurtu da, eta arintasuna eskatzen du, beste ordena jurisdikzionaletan bezala.

Araudi berriak berme batzuk finkatzen ditu alderdiak judiziora edo bistara agertuko direla ziurtatzeko. PZL 304. artikuluko 1. paragrafoak dio zitazioan alderdiari ohartaraziko zaiola agertzen ez baldin bada pertsonalki parte hartu duen eta guztiz kaltegarriak zaizkion gertakariak aintzat hartu ahal izango dituela auzitegiak; hau aurreko araudiko *ficta confessio* izango litzateke. Beraz, ahalmen hau erabili ahal izateko jada ez dago bigarren zitazio bat egin beharrik.

Zitazio eta ohartarazpen hau epaiketa arrunteko aurretiazko entzunaldian pertsonalki egingo dira, agertu baldin bada, edota prokuradore bidez, agertu ez bada (PZL 28.1 eta 153 art.), zeren eta 429.6 artikulua oso argia ez bada ere, adierazi nahi duena da epaiketaren data zehazte horrek alderdiak zitatzeko balio duela, nahiz eta 304. artikuluko ohartarazpena orduan egin beharko litzatekeen. Demandatua auzi-ihesean badago, zitazioa pertsonalki egingo zaio, ohartarazpen berberarekin.

Hitzezko epaiketan demandatuari beti pertsonalki egingo zaizkio zitazioa eta ohartarazpena, epaiketara zitatzearekin batera (PZL 440.1 art.), eta bi alderdiei eragiten die. Honek ez ditu joan behar izatetik salbuesten, prokuradorez jardun arren. Aktoreak prokuradore bidez jardungo balu, ematen zaion zitazioak zitazio pertsonal baten balio bera izango du (PZL 153. art.). Gainera, bi prozeduretan 30.000-100.000 pezeta bitarteko isuna ezartzeko aukera aurreikusten da (PZL 292.4 art.).

Gertakariak errekonozitzeko presuntzioa aplikatzeko aukera oso modu murriztean baloratu behar da demandatu bat baino gehiagori eragin diezaikeenean, eta batzuk agertzean eta besteak ez. Beste alde batetik, orain espresuki baimentzen da koauzilarien galdeketa (PZL 301. art.) oposizioa edo interes gatazka egotekotan; beraz, ez da onartuko horrelakorik ez egotekotan (adibidez, bere kontura pertsonatzen den aseguratua, gertakari batean erantzukizunik ez duela esanez, bere aseguratzailak bezala, beste alderdi desberdin bat dena).

Galdeketa erantzun behar diona ez denean harreman juridiko eztabaidatuko subjektu (adibidez, bere kolegiatuaren ordezkariak eraklamaratzen duen Elkargo Profesionala), PZL 301.2 artikulua esanetan froga proposatzen duen deklaratzera afektatua ager dadila eskatu ahal izango du.

Dagoeneko esan dugu deklarazioa pertsona juridiko edo nortasunik gabeko ente batena denean, eta bere ordezkariak ez dituenean gertakariak ezagutzen, beren izenean jardun zuen pertsonaren izena eman beharko duela, galdeketa berari egin diezaioten; jada ez baldin bada erakunde horietako kide, besterik ez bada lekuko gisa egin ahal izango du (PZL 309. art.). Nolanahi ere, ordezkari honek galdetzen zaion guztiari erantzun beharko dio, eta gertakari horietan parte hartu zuen pertsona nor zen adierazi beharko du (PZL 309.2 art.), azken eginbideetan galdeketa egin diezaioten. Ez baldin bada pertsona hori nor zen adierazten, galderak aipatzen dituen gertakariak egiazat jo ahal izango dira kaltegarriak badira eta bertan pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko enteak parte hartu baldin badu (PZL 309.3 art.).

PZL 302 eta hurrengo artikuluetan, galdeketa egiteko modua arautzen da. Proposatu zuena hasiko da, eta galderak argiak, laburrak, baiezkoak eta baloraziorik gabeak izango dira. Balorazio hauek juridikoak bakarrik direla dirudi, baina ez epailearentzat lagungarri izan daitezkeen gainerakoak (adibidez, azkar edo mantso ote zihoan, argi asko edo gutxi ote zegoen, zehazki zer kontratatu nahi zen, etab.). Horregatik, baztertu egin daitezke galdera maltzur (gezurrezkoa, engainagarria) edo iradokitzaileak, erantzun jakin bat lortzera bideratuta daudenak.

Ondoren gainerako alderdiek egiten dute galdeketa, eta galderei erantzun behar dienaren abokatuak. Epaileak aklarazio eta datu osagarriak eska ditzake (PZL 306.1 art.) eta ofizios baztertu egin behar ditu galdera inpertinente eta alferrikakoak. Erantzun behar duen alderdiak edo bere abokatuak –beraz, ez gainerakoek– galderen onarpena inpugnatu ahal izango dute, eta epaileak berehala hartu beharko du horren gaineko erabakia (PZL 303. art.).

Galderak errepikatuz gero, epaileak atzera botako ditu (PZL 314. art.). Alderdiek gertakari eztabaidatu berdinei buruz deklaratu beharko balute, edota auzikide batek baino gehiagok erantzun beharko balute, beren artean inkomunikatuta egoteko neurriak hartuko dira (PZL 310. art.).

Legearen esanetan, erantzunek argiak izan beharko dute, baiezko edo ezezkoak, eta beharrezko azalpenak eman beharko direla. Erantzunen bat ekiditen saiatuz gero, bere kalterako diren gertakariak errekonozituzat jo ahal izanago dituela ohartaraziko du auzitegiak, baldin eta pertsonalki hartu baldin bazuen parte (PZL 307. art.). Salbuespen gisa, onartzen da erantzunik ez ematea legeak sekretua gordetzea agintzen duenean. Erantzunak emateko ezin izango da nota edo borradorerik erabili, memoriari laguntzeko komenigarri direla ikusten denean salbu.

Galderak deklaraztailearen gertakari pertsonalak ez diren gertakari buruzkoak balira, honek nolatan dakizkien erantzun beharko du, baina gaiari buruz gehiago dakien hirugarren batek ere erantzun ditzala proposatu ahal izango du, eta onartu egin beharko ditu hirugarren honen deklarazioaren ondorioak. Horretarako, froga proposatu zuen alderdiaren onespina behar da. Hala ere, ez baldin badu onespenerik ematen, hirugarren horri galdeketa lekuko gisa egitea eskatu ahal izango da, eta auzitegiak erabakiko du zer egin (PZL 308. art.).

Lehen esan bezala, etxeko galdeketa ere egin daiteke (PZL 311 eta hur. art.) –laguntza judizialaren bidez ere egin daitekeena eta judizioa baino lehen egin behar dena (PZL 290 eta 429.4 art.)–, erakunde publikoena (PZL 315. art.) –judizioa baino lehen idatziz gauzatzen dena–, eta “galdeketa gurutzatua” (PZL 306.2 art.) edo alderdien arteko kareoa, baldin eta abokatuaren parte-hartzea beharrezkoa ez bada, edota alderdien eta lekukoen artekoa (PZL 373. art.), ez delarik aipatutako baldintza bete behar. Erakunde publikoen galdeketa kasuan, ulertezina da nola egin ahal izango den hitzezko epaiketan, froga bistan proposatzen delako, eta beraz ezinezkoa izango delako erantzunerako legeak xedatzen duen moduen gauzatzea. Epaiketa arruntaren kasuan, galdeketa erantzuna irakurri egingo da, eta emaitzaren arabera alderdiek galdeketa berri bat eskatu ahal izango dute, azken eginbide gisa akordatu dena, baldin eta pertinentetzat jotzen bada.

PZLak ez du esaten alderdiek judizioan akta sinatu behar dutenik, baina bai etxeko galdeketa kasuan. Bestetik, esaten da alderdiek ezin izango dutela jada deklaratu duten gertakari buruzko beste galdeketa bat erantzun (PZL 314. art.); horren arabera, badirudi beste gertakari batzuei buruz deklaratu dezaketela, baina kontraesanak sortuko lituzke Legeak hitzezko epaiketarako eta arrunterako aurreikusten duen ahozko epaiketa kontzentratu batean.

8.3. Lekukoen galdeketa

Alderdien galdeketaren ondoren, PZL 330.1 artikulua lekuko galdeketa arautzen du. Bere objektua, PZL 360. artikulua arabera, "epaiketaren objektu diren gertakari eztabaidagarriak ezagutzen dituzten pertsonen" deklarazioa da. Arlo honetan aurrerapen nabariak egin dira, ezabatu egin direlako galderen eta birgalderen plegu idatziak; hala ere, tamalez mantendu egin da taxen intzidentea.

Xedapen derogatzaileak deuseztatu egin dituenez Kode Zibilak deklaratzeko aurreikusten zituen ezgaitasun kausa batzuk, edozein pertsona izan daiteke lekuko, alderdiekin edozein harreman dutela, zoratuta egon edota gertakari jabetzeko adina zentzurik izan ezean salbu. Hamalau urtetik beharagoek ere deklaratu dezakete, auzitegiaren iritzian behar adina heldutasun baldin badute (PZL 361. art.).

Lekuko bidezko frogak eta deklaratu beharko duten lekuko zehatzak hitzezko epaiketako bistan proposatu dira, baina alderdiek judiziorako zitatuak izan direnetik hiru eguneko epean eska dezakete lekuko horien aurretzeko zitazio judiziala (PZL 440.1 art.), eta Legeak ez dio aktoreari demandan planteatzea debekatu. Froga proposatzerakoan, lekuko izen-abizenak, lanbidea eta helbidea adierazi beharko dira, edota beren kargua edo identifikatzeko balio duen beste edozein inguruabar, zitu ahal izateko (PZL 362. art.).

Lekukoak agertu egingo direla ziurtatzeko –hain garestia izanik ordena jurisdikzional honetan–, arau batzuk bete behar dira. Alde batetik, ez agertuz gero, 30.000- 100.000 pezeta bitarteko isuna ezarriko zaie, eta hurrengoan ez agertzekotan autoritateari desobediencia leporatuko zaieela ohartaraziko zaie (PZL 292. art.). Beste alde batetik, deklaratu duten lekukoek kalte ordain bat jasotzeko aukera dute, proposatu zituen alderdiak ordaindu beharko duena, eta bere zenbatekoa auzitegiak auto bidez zehaztuko du, judizio edo bistaren ondoren. Auto horren aurka berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango da (PZL 375. art.), eta auto horren bidez premiamenduzko bidera jo ahal izango da.

Lekukoak ez agertzean bista ez da nahitaz suspendituko, PZL 292.3 artikulua oso garbi adierazten ez badu ere. Auzitegiak bista etetea erabaki dezake (193.1.4 art.); horrela, gainerako frogak praktikatu dira, eta bista hogeitun egunen buruan ospatuko da, lekukoak deklaratu ezan. Erabaki hori hartzeko, auzitegiak alderdiak entzungo ditu lehenengo, eta ondoren erabakiko du bista etengo ote duen edota lekukoaren deklaraziorik gabe jarraituko duen.

Lekuko kopuruari dagokionez ez dago mugarik, baina hirutik gorako gastuak alderdiak ordaindu beharko ditu, eta ezin izango ditu kostu erreklamazioan barnebidu. Auzitegiak gertakari eztabaidatuaren inguruan gutxienez hiru lekuko entzun ostean, falta diren lekuko deklarazioak baztertu ahal izango ditu (363. art.). Lekukoek ezin izango dute beren artean komunikatu, eta horretarako beharrezko diren neurriak hartuko dira (366.2 art.).

Lekuko bati etzeko galdeketa egin dakiok, eta laguntza judizialaren bidezko deklarazioa ere egin daiteke, eta, Legeak lehen aldiz aurreikusten duen bezala, pertsona juridiko eta erakunde publikoen txostena ere bai (PZL 381. art.). Hala ere, ez da zehazten nola gauzatuko den hitzezko epaiketaren.

Lekukoak –alderdiek ez bezala– egia esango duela zin egin behar du, penalki adingabea denean salbu, eta lekukotza faltsuarentzat aurreikusita dauden zigorrak jakinaraziko zaizkio (PZL 365. art.). Ondoren, galdera "orokorrak" egingo zaizkio (PZL 367. art.), eta galdera hauei erantzuten dienaren arabera, alderdiek bere inpartzialtasunari eragin diezaioketen inguruabarrak daudela adierazi ahal izango diote epaileari, eta honek galderak egin ahal izango dizkio, eta galde-erantzunak aktan jaso daitezela aginduko du, epaia ematerakoan lekukotza hori baloratzeko.

Alderdien galdeketa bezala, lekukoenean ere baiezko galdera formulatu da eta balorazioak ekidin egin behar dira. Epailak baztertu egingo ditu gertakari eztabaidatuaren ingurukoak ez izateagatik inpertinentzat jotzen dituenak (PZL 368.2 art.). Gainerako alderdiek galderaren onarpena inpregna dezakete, eta baztertu diren aurka protesta egin daiteke gero. Lehenengo abokatuari edota proposatu zuen alderdiari erantzunak dio, eta gero gainerakoei; beraz, desagertu egin dira "birgalderak" direlakoak.

PZL 368.3 artikulua arabera, galdera inpertinenteen erantzuna "ez da aktan jasoko", baina nahiko zaila da hori, guztia grabatu egiten delako. Esandakoa berraztertzea oso zentzuzkoa ez dirudenez, idazkariak prestatu behar duen akta laburrean (PZL 146.2 art.) galdera inpertinentetzat jo dela adieraztea

izango litzateke agian egokiena. Froga epaiketean egiten denez, deklarazio guztia grabatu egingo da (PZL 374. art.), eta Legeak ez du esaten bukaeran akta hori sinatu beharra dagoenik.

Lekuko gisa proposatu zuena hasten da galdeketa egiten, eta batzuk izan baldin baziren proposatzaileak, aktorea hasiko da. Erantzunetan azalpenak ere emango dira, eta ezin izango da borradorerik erabili, galdera kontuei, liburuei edo agiriei buruzkoa denean salbu (PZL 370.2 art.). Ondoren, gainerako abokatuek egingo dituzte galderak, eta auzitegiak berak azalpen eta zehaztasun gehiago eskatu ahal izango ditu (PZL 372. art.).

Balorazioak eska daitezke, eta lekukoak ezagutza zientifiko, tekniko, artistiko edo praktikoak daukanean "lekuko-peritu" direlakoak ere onartzen dira (PZL 370.4 art.). Hala ere, alderdien ustez tatxatzeko arrazoiren bat baldin badago, epaileari jakinaraziko diote. Gertakari garrantzitsuen inguruko txostenen egileen galdeketa kasuan, PZL 380. artikulua dio ezingo direla tatxatu, gaian interesa edukitzeagatik. Hauek, alderdiek bezala, galdeketa amaitutakoan ez dute akta sinatu beharrik, inon ez baita horrelakorik aipatzen, eta PZL 146. artikulua ere ez baitu hori exigitzen.

Lekukoaren edota alderdi eta lekukoaren artean kontraesanik sortuz gero, PZL 373. artikulua kareoa egiteko aukera ematen du. Alderdiak eska dezake, edota epaileak ofizioz akordatu. Kareoa egiteko eskaria lekukoaren galdeketa amaitutakoan aurkeztu behar da; beraz, lekukoari kareoa ospatu ahal izateko bertan gelditu behar duela jakinarazi behar zaio.

Tatxak, lekukotzen froga onartzen denetik judizio edo bista hasi arteko tartean aurkeztu ahal izango dira (PZL 378. art.); hala ere, lekukoek, PZL 367 artikuluan aurreikusitako galderak egiten zaizkienean, eta tatxa kausaren bat baldin badago, adierazteko obligazioa daukate. Hitezko judizioan ezin izango dira alegatu, zeren eta judizioa baino lehen proposatzen diren arren, bistan hartzen da lekukotzaren onarpenari buruzko erabakia, eta tatxa hau hasi baino lehen aurkatzen da.

8.4. Irizpen periziala

Hiru modutara proposa daiteke froga periziala: demandarekin batera proposa daiteke irizpen periziala (PZL 335.1 art.), epaiketa arruntean aurretiazko entzunaldia baino lehen eta hitzezko epaiketan bista baino lehen aurkeztuko dituztela jakinaraz dezakete (PZL 337. art.), edota perituak judizialki izenda daitezela eska dezakete (PZL 339.2 art.). Legeak presumitzen du demandatzaileak irizpen perizialak aurkez ditzakeela, bere eskubidea defendatzeagatik irizpena lortu arte demanda berandu tarteratzerik izan ez duela justifikatzen ez baldin badu (PZL 336.3 art.). Bestetik, demandari idatziz erantzuten zaionean, eta demandatuak ezin baldin baditu erantzunarekin batera irizpenak aurkeztu, irizpen horiek eskatzeko ezintasuna justifikatu beharko du (PZL 336.4 art.). Beste kasuetan bezala, auzian garrantzitsuak diren gertakari edo inguruabarrak baloratzeko ezagutza zientifiko, artistiko, tekniko edo praktikoak behar direnean onartuko dira irizpenak (PZL 335. art.).

PZL 335.1 artikulua aukera bat egin behar dela ematen du aditzera: alderdiaren eskariz egin den irizpena aurkeztu ahal izango da, edota epaileak izendatutako perituak egindakoa. Batzuen ustez, alderdiak bi aukeretako edozein aukeratzeko askatasuna du⁵, baina ni kontrakoa defendatzen dutenekin nago⁶, zeren eta 335. artikulua ematen duen aukera hori irizpena aktorearen esku dagoenaren presuntzio legalarekin osatu behar da (PZL 336.3 art.), eta aktoreak eta demandatuak aurkeztu ahal izango dituztela soilik baldin eta demandarekin eta erantzunarekin batera aurkezteko zuten ezintasuna justifikatzen baldin badute (PZL 336.3 eta 4 eta 337.1 art.).

5. FONT SERRA, E. "El dictamen de peritos en la nueva LEC", In: Cuadernos de Derecho Judicial, Madrid: CGPJ, 2000; 74. or.; SOTOMAYOR ANDUIZA, E. "Prueba Pericial: La intervención del perito en la vista del juicio. Valoración del dictamen pericial. Referencia a la anticipación y aseguramiento de la prueba", Consejo Vasco de la Abogacía-k Bilbon 2001eko otsailaren 27an eta Vitoria-Gasteizen 2001eko martxoaren 23an antolatutako El Dictamen Pericial en la nueva LEC Ikastaroko ponentzia, 2. or.

6. GARCIA GONZALEZ, J.L. "El nuevo régimen de peritos designados judicialmente"; Consejo Vasco de la Abogacía-k Bilbon 2001eko otsailaren 27an eta Vitoria-Gasteizen 2001eko martxoaren 23an antolatutako El Dictamen Pericial en la nueva LEC Ikastaroko ponentzia, 14. or.; GOMEZ COLOMER, J.L.ek, El nuevo proceso civil, ZZAA, Valentzia: Tirant lo Blanch, 2000 liburuan, dio "funtsezkoa" dela alderdiak izendatutako perituak lortutako irizpena, eta "subsidiarioa" judizialki izendatutako perituak lortutakoa (318. or.).

Orain arte "alderdien irizpen" bezala ezagutzen genuenak froga balioa dauka, eta aurkako alderdiari kontrolatzeko aukerak ematen dizkio. Epaiketa arruntean, aktoreak demanda idazkiarekin batera aurkeztu behar du, edo aurkeztuko duela adierazi, edota demandan peritu judiziala izenda dadila eskatuko du. Demandatuak gauza bera egingo du erantzunean, eta biek adieraziko dute irizpena egin duen peritua judiziora edo bistara zitatzea nahi duten (PZL 337.2 eta 338.2 art.), adieraziz ez azaltzekotan 30-000-100.000 pezeta bitarteko isun ekonomikoa ezarri ahal izango zaiola (PZL 292.1 art.) eta autoritatea desobeditzeko delitua lepora dakioketela (PZL 292.2 art.). Hitzezko epaiketan, aktoreak demandarekin batera aurkeztuko du, eta demandatuak bistan aurkeztuko du.

Alderdiak doako laguntza juridikoa jaso izan balu, demandan irizpen hori erabiltzeko asmoa bakarrik adierazi beharko du (PZL 339.1 art.). Ondorioz, Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoaren 6.6. artikulua arabera, PZL 15. Azken Xedapenak aldatzen duena, irizpen hori organo jurisdikzionaletara atxikitako langile teknikoek eskuratu beharko dute, edota, hauek ez baleude, Administrazio Publikoetako funtzionario, organismo edo zerbitzu teknikoek, eta, salbuespen gisa, PZL 341. artikulua arabera izendatzen diren perituek.

PZL 427. artikulua dio entzunaldian alderdiak kontrako alderdiak aurkeztutako irizpen perizialen inguruan pronuntziatuko direla, adieraziz ea onartu egiten dituzten edo inpugnatu egingo dituzten, eta zabal daitezela ere eskatu ahal izango dute. PZL 265.1.5 artikulua arabera aurkeztu diren ikertzaile pribatuen txostenei buruz ere pronuntziatuko dira. Hasiera batean hitzezko epaiketan ere beste hainbeste egin beharko litzateke, batez ere alderdien eskariz txostena egin duena bistara zitzateke baldin bada.

Alegazio osagarrien ondorioz irizpen perizial berri bat aurkeztu beharko balitz, judizioa edo bista baino gutxienez bost egun lehenago aurkeztu beharko da, eta alderdiek peritua judizio edo bistara zitatzea eskatu ahal izango dute, edota auzitegiak erabaki ahal izango du (PZL 427.3 eta 338.2 art.).

Bada beste aukera bat ere: peritua auzitegiak berak izendatzea (PZL 339 eta hurr. art.). Aurreko araudian ez bezala, peritu bakar bat egongo da gai bakoitzeko edo gai multzo bakoitzeko, ez denean aditu desberdinen iritzia behar (PZL 339.6 art.), eta bi alderdiek gai berdinari buruz peritu bat izenda dadila eskatu dutenean ere, bakarra izendatuko da (PZL 339.2 art.). Alderdiak bat baldin badatoz irizpena zein peritu zehatzek ematea nahi duten, auzitegiak peritu hori izendatuko du (PZL 339.4 art.).

Alderdien artean ezadostasuna balego, PZL 341. artikulua aipatzen duen zerrenda erabiliko da, eta demandari erantzun zaionetik bost eguneko epean (PZL 339.2 art.) urte hasieran egindako zozketaren arabera zehaztutako txandari jarraituz izendatuko da peritua. Beste bost egunetan perituari hautatua izan dela jakinaraziko zaio (PZL 342. art.), eta beste bost eguneko epean onarpena eman beharko du. Baiezkoa ematekotan, izendatu egingo da, eta perituak zin egingo du. Perituak fondoan horniketa eskatu ahal izango du, eta alderdiek ez baldin badiote ematen, ez da irizpena ematera derrigortuta egongo. Peritua bi alderdiek eskatutako baldin bada, eta alderdietako batek falta den fondoa kontsignatuko balu, orduan bai eman beharko duela irizpena.

Hitzezko epaiketaren kasuan oso zaila da peritua sistema honen bidez izendatzea, bistak suspenditu edo etetean salbu, ez dena arautzen duten artikuluetan aurreikusten (PZL 188 eta 193. art.), eta batez ere ezin direnean azken eginbideak egin.

Alderdiek operazio perizialak egiterakoan presente egoteko baimena eska dezakete (PZL 345.1 art.). Horretarako, auzitegiak perituari aginduko dio alderdiei zuzenean adieraz diezaiela, gutxienez 48 ordu lehenago. Alderdiek leku, objektu edo pertsonak aztertzerakoan presente egon ahal izango dute baita, ez baldin badute perituaren lana eragozten (PZL 345.1 art.).

Perituak idatziz aurkeztuko du bere irizpena (PZL 346. art.), eta auzitegiak alderdiei helaraziko die, perituak judizioan edo bistan presente egon behar ote duen erabaki dezaten. Erabaki hori auzitegiak berak ofizioz ere har dezake.

Judizioan edo bistan, perituak, zin eginez, adierazi behar du egia esango duela (PZL 335.2 art.), ahalik eta objektibotasun handienarekin jokatu duela edo jokatu duela, alderdietako edozeinen onerako nahiz kalterako den guztia hartu duela kontuan, eta badakiela peritu gisa dauzkan eginbeharrak ez betez

gero zein zehapen penal jaso ditzakeen⁷. Doktrinak esan duen bezala⁸, horrelako adierazpenen helburua irizpenaren objektibotasunari buruzko zalantzak uxatzea da, ez dadin aurrez alderdietako batek enkargatuta eta ordaindutakoa izan. Bermeak are handiagoak izateko, irizpena azal eta esplikatu dezala eskatu ahal izango diote alderdiek perituari, galderak eta objekzioak egin ahal izango dizkiote, irizpena puntu konexotara zabaltzea eskatu ahal izango diote, unean bertan egin ahal izanez gero, eta irizpena kritikatu eta tatxatu ere egin ahal izango dute (PZL 347. art.).

Peritua desenkusarik gabe ez agertzeak ez du bista automatikoki suspenditu edo etengo. Auzitegiak alderdiak entzungo ditu eta entzunaldia suspenditu edo jarraitu erabakiko du (PZL 292.3 eta 191.1.3 art.).

Kasu batzuetan, epaileak ofizioz eskatu ahal izango du irizpen periziala, ez alderdiek, ez Ministerio Fiskalak eskatu gabe: filiazio prozesuetan, froga biologikoa eskatu ahal izango duela (PZL 767.2 art.), ezgaitasun prozesuetan eta ezkontza prozesuetan (PZL 339.5 art.). Ezgaitasun prozesuetan, gainera, derrigorrezkoa izango da irizpena (PZL 759.1 art.).

Arlo honen baitan, PZLak espezifikoki letren erkatzea arautzen du. Matrizerik edo kopia fede-mailerik ez daukan agiri publiko edo pribatu baten egiazkotasunari buruz zalantzak daudenean praktikatzen da, berau sortu zuen funtzionarioak ezin duenean errekonozitu (PZL 349.1 art.). Letren erkatzea eskatzen duen alderdiak zalantzarik sortzen ez duen agiri bat edo batzuk adierazi beharko ditu (PZL 350.1 art.), hauek izanik zalantzarik sortzen ez duten agiriak (PZL 350.2 art.): alderdiek errekonozitutakoak, eskritura publikoak, NAN, erkatu nahi den idatzian zalantzarik sortzen ez duen zatia, eta agiri pribatuak, zalantza sortzen duen agiriaren egileak judizioan bere letra edo sinadura errekonozitu duenean. Agiri hauek ez baleude, zalantza sortzen duen agiriaren egileari idatzi bat idazteko eskatu ahal izango zaio (PZL 350.3 art.), eta uko egingo balio, egiazkotzat joko da inpugnatutako agiria.

8.5. Azterketa judiziala

Gertakariak argitu eta apreziatzeko beharrezko edo komenigarria denean, epaitegiak zuzenean aztertuko ditu lekuak, pertsonak edo objektuak (PZL 353. art.). Pertsonen azterketa arautzen den lehenengo aldia da, baina betiere beren duintasun eta intimitatea errespetatu beharko dira (PZL 355.2 art.).

Posible denean, bistan bertan egingo da, aztertu beharreko objektua erakutsiz (PZL 300.1.4 art.), edota, posible ez balitz, lehenago, epaiketa arruntean (PZL 353.3 art.). PZL 429.4 artikulua arabera, hasiera batean ez luke eragozpenik egon beharko data entzunaldian bertan finkatzeko, batez ere alderdiak presente egon daitezkeenean (PZL 354.2 eta 3 art.). Hitzezko epaiketan bista eten egingo da egoitza kanpo egin behar baldin bada eta saio bataren eta bestearen arteko tartean berifikatu ezin izango balitz (PZL 193.1.2 art.).

Objektuari dagokionez, auzilariak adierazi behar dute zein puntu nagusiri buruz gauzatu behar den azterketa, baina auzitegiak egoki deritzonera zabal dezake. Alderdiek azterketara gaien tekniko edo aditu diren pertsonekin joango ote diren jakinarazi behar dute (PZL 353.2 art.), eta, komeniz gero, azterketa periziala eta lekukoen edo kontrako alderdiaren galdeketa egiten diren une berean praktikatu ahal izango da (PZL 356 eta 357 art.), horien guztien adierazpenak argitzen lagun baldin badezake.

Azterketan bertan alderdiek, hitzez, egokitzen jotzen dituzten oharak egin ahal izango dituzte (PZL 354.2 art.). Epaileari komenigarria iruditzen baldin bazaio alderdiekin batera joan diren tekniko edo adituak entzutea, aurrez egia esango dutela zin egin beharko dute (PZL 354.3 art.).

Azterketaren emaitza idazkariak dokumentatuko du, eta irudiak eta soinuak ere grabatu ahal izango dira. Nolanahi ere, akta egin beharko da (PZL 358 eta 359. art.).

7. Prozesu zibilean parte hartzen duten perituen zehapen penalei buruz, ikus AYO FERNANDEZ, M. "La Responsabilidad Penal del Perito", In: Ponencia de las Jornadas sobre el Dictamen Pericial en la nueva LEC, Bilbo: Ilustre Colegio Oficial de Administradores de Fincas de Bizkaia, 2001eko apirila.
8. PICO i JUNOY, J. Comentarios a la nueva LEC, ZZAA, Valladolid: Lex Nova, 2000; II. lib., 335.2. art., 1884. or; ARREGUI ROMARATE, A, Comentarios a la nueva LEC, ZZAA, Madrid: Dykinson, 2000; 352. or.

8.6. Grabaketen eta filmazioen erreprodukzioa

PZL 300.1.5 artikulua arabera, azkenean grabaketak eta filmazioak erreproduzitzen dira. 1992ko azaroaren 30eko Auzitegi Gorenaren Epaiak onartu zuen jada, epaiketa zibilerako. Grabaketa edo filmazioaren instrumentuaz gain, hitz nagusien transkripzioa eta komenigarritzat jotzen diren irizpen eta frogabide instrumentalak ere aurkeztu ahal izango dira (PZL 382. art.). Gainerako alderdiek ere beste hainbeste egin dezakete.

Froga hau praktikatzeko, akta bat egin beharko da (PZL 383. art.), eta auzitegiari transkripzio literal bat agintzeko ahalmena ematen dio. Honek ez du esan nahi erreprodukzioa judizioan edo bistan bertan egin ezin denik. Azkenik, 384. artikulua fitxero kontable automatizatu edo informatizatuak aipatzen ditu, eta hauei buruz ere antzeko arauak aurreikusten ditu.

8.7. Beste frogabide batzuk

Dagoeneko esan dugu PZL 299. artikuluan jasotako frogabideak *numerus apertus* direla. PZL 299.3 artikulua dio auzitegiak gertakari buruzko ziurtasuna beste edozein bideren bitartez lor baldin badezake, bide hori froga gisa onartuko dela, eta dagozkion neurriak hartuko dituela.

Irudi eta soinuak erreproduzitzeko bitartekoen aurreikuspena zabala denez, orain existitzen direnak bertan barnebil daitezke (audioa, bideoa, CD, DVD, etab.), eta baita ere geroan sor daitezkeenak ere. Nolanahi ere, PZL berriaren espresuki araututa ez dagoen beste edozein frogabide ere onartzen du 299.3 artikulua.

PZL 299 eta 300. artikuluetan ez jaso arren, presuntzioak aipatu behar dira. Xedapen Derogatzailer Bakarreko 2.1 atalak Kode Zibileko 1249-1253 bitarteko artikulua derogatzen ditu, eta hauen ordez PZL 385 eta 386 artikuluek diote legeak ezartzen dituen presuntzioek dispensatu egiten dutela alderdia ustezko gertakaria frogatetik. Horretarako, beharrezkoa izango da presuntzioa oinarritzen den gertakariaren indizioa dagokion frogaren bidez ziurtatuta egotea.

Auzitegiak beste gertakari baten ziurtasuna presumitu ahal izango du, giza irizpidearen arauen arabera onartutako edo frogatutako gertakariaren artean eta presuntuaren artean lotura zehatz eta zuzena baldin badago. Hala ere, presuntzioak kaltetzen duen alderdiak hori gezurtatzeko froga praktika dadila eskatu ahal izango du.

9. Azken eginbideak

Epaiketa arruntean, judizioa amaitzen denetik hogeit eguneko epean epaia eman behar da (PZL 434.1 art.). Epe horretan, alderdiek azken eginbideak –1881eko PZLko “hobeto epaitzeko” eginbideen oinordeak– praktika daitezela eskatu ahal izango dute. Lehenagokoak ez bezala, azken eginbideak epaiketa arruntean bakarrik aplikatu daitezke, ez direlako zati orokorrean kokatzen, baizik eta prozedura honen araudian. Ondorioz, ezin direnez hitzezko epaiketan aplikatu, eta epaiketa berezi gehienek epaiketa honi egiten diotenez eragorpena, jarduera hauek oso ezohikoak izan beharko luketela dirudi.

“Hobeto epaitzeko” eginbideak ez bezala, azken eginbideak alderdiek proposatzen dituzte, ez epaileak (PZL 435.1 art.). Epaileak, demanda ofizioz kontrolatu, erantzuna aztertu eta aurretiazko entzunaldia prestatu ostean, zein gertakari frogatu gabe gelditu diren adieraz diezaietke alderdiei, edo zein frogabideak akreditatuko lituzketen. Horregatik, judizioa baino lehen zehazten du frogaren objektua, ez ondoren.

PZLak ez duenez azken eginbideak praktikatzeko eskatzeko eperik zehazten, epaia eman arte eskatu ahal izango dira, PZL 434.2 artikulutik ondorioztatzen den bezala. Epaia emateko epea hogeit eguneko denez, oso komenigarria izango litzateke interesatuek beren ahozko ondorioetan adieraztea, epaiketa arrunta amaitzean.

Azken eginbideak eskatu eta onartzen baldin badira, epaia emateko epea suspenditu egingo duen auto bat emango da. Epe hori, eginbideak amaitu ostean hasiko da berriz kontatzen (PZL 436.2 art.).

Espresuki debekatuta dago zegokion unean proposatu ez zen frogaren azken eginbidea egitea (PZL 435.1.1 art.), baina onartu egingo dira alderdiaren borondatek kanpo dauden kausengatik praktikatu ezin izan direnak (PZL 435.1.2 art.), hala nola alderdi, lekuko edo peritu batek gaixo egoteagatik judiziora joan ezin izan duenean, edota frogaren objektua gertakari berriak edo une horretara arte ezagutzen ez zirenak direnean (PZL 435.1.3 art.).

Salbuespen gisa, epaileak berak behar bezala alegatu diren gertakari garrantzitsuei buruzko froga praktika dadila agindu ahal izango du (PZL 435.2 art.), ordura arte praktikaturakoak ez direnean lagungarria izan alderdien borondatek kanpo dauden eta jada desagertu diren arrazoiengatik, baldin eta froga berriek gertakari horiei buruz ziurtasuna emango dutela pentsatzeko nahikoa arrazoi baldin badaude.

Auto bat eman beharko da inguruabar eta arrazoi horiek guztiak xehetasunez zehaztuz. Ezin du epaia emateko epea luzatzeko bitarteko bat izan, praktika prozesal maltzur batek hobeto epaitzeko eginbideekin egiten zuen bezala. Artikulua oso zorrotza da, eta garbi uzten du ezohikoa izan behar duela; beraz, oso kasu gutxitan erabili beharko litzateke, eta inola ere ez epea luzatzeko asmoarekin.

PZL 309.2 eta 315.2 artikuluek azken eginbide batzuen derrigorrezkotasuna finkatzen dute. Lehenik eta behin, pertsona juridikoaren galdeketa, bere legezko ordezkariak ez duenean gertakarietan parte hartu, baina gertakari haietan parte hartu zuenaren izena eman beharko duela. PZLaren esanetan, kasu horretan azken eginbidea praktikatu beharko da, pertsona horri galdeketa eginez. Argi dago galdeketa legezko ordezkariak parte hartu ez zuen gertakari buruzkoa denean bakarrik egingo dela hori.

Galdeketa legezko ordezkariak parte hartu ez duen gaiei buruzkoa denean –banku, aseguratzaile eta konpainia handien kasuan maiz gertatzen den bezala–, bere ordezkari prozesalak adierazi egin beharko du aurretiazko entzunaldian (PZL 309.1 art.), eta gertakari haietan parte hartu zuen pertsona nor zen adierazi beharko du, judiziora zitatzeko. Baldintza nahitaez bete beharko da, ez dadin azken eginbide gisa entzunaldian izendatu zen langile baten deklarazioa erabili, eta, beraz, legezko ordezkariaren ordezkari bera zitatzeko judizioan.

Gauza bera agintzen du PZL 315.2 artikulua: Estatuak, autonomia erkidego batek, entitate lokal batek edo beste erakunde publiko batek ezin dituztenean egin zaizkien galderak idatziz erantzun, eta “ordezkari prozesalak” –normalean letradua izango da– auzitegiak pertinente eta erabilgarritzat jotako galdera osagarri ezin diela erantzun justifikatzen duenean.

Azkenik, gertakari berri edo jakin berriei buruzko frogan kasuan ere agintzen da (PZL 435.1.3 art.), pertinente eta erabilgarriak baldin badira.

Azken eginbideak praktikatzeko epea hogeit egunekoa da. Epea igarotakoan, edota akordatutako froga guztiak praktikaturakoan, alderdiek idatziz baloratu beharko dituzte emaitzak. Alegatzeko mota hau, 1881eko PZL 342. artikulukoaren antzekoa, kontradiktorioa da epaiketa arrunterako marrazten den ahozko prozesu guztiarekiko. Koherenteagoa izango zatekeen alderdiak azken eginbideak praktikatzeko bista batera zitatzea eta bukaeran emaitzak komentatzea, PZL 185.4 artikulua baimentzen duen gisa.

Nolanahi ere, prozesua eta frogaren praktikaren ezaugarri den kontzentrazio printzipioa betetzeko, bista bakar batean egin beharko dira frogaren azken eginbide guztiak.

Azken eginbide gisa praktikaturako frogaren balorazioaren idazkiak jaso ostean, berriz hasiko da epaia emateko hogeit eguneko epea kontatzen. Hala ere, epe hori suspenditzeko azken aukera bat gelditzen da (PZL 271.2 art.): epai edo ebazpen judizial edo administratiboa ematen baldin bada, edota konklusioak atera baino lehen jakinarazten bada, epaia emateko epearen barruan aurkeztu ahal izango dira, epaia emateko erabakigarriak baldin badira.

Kasu horretan suspenditu egiten da epaia emateko epea, eta gainerako alderdiei bost egunez helaraziko zaizkie, komenigarri iruditzen zaiena alegatu eta eskatu ahal izango dutela. Epea amaitutakoan, edo alegazioak jasotakoan, suspentsioa altza egingo da eta epaian erabakiko da beren onargarritasun eta norainokotasunari buruz, aurrezko PZL 513. artikuluan aurreikusten zen bezala.

10. Frogaren balorazioa

Frogaren emaitzak baloratzea batik bat funtzio jurisdikzionala den arren, alderdiek une prozesal zehatz batzuetan emaitzei buruzko ondorioak atera ahal izango dituzte. Prozesu arruntean epaiketan gertatzen da hori, PZL 433.2 artikulua araberan alderdiek ahoz formulatuko dituztelako gertakari eztabaidagarriari buruz atera dituzten ondorioak, eta modu txukun, garbi eta laburrean azalduko dutelako beren ustez gertakari horiek onartu egin behar diren edota zalantzazkoak ote diren.

Prozesu honetan, praktikatuako froga bakoitzaren laburpen bat egin dezakete, edota presuntzioren bat aplikatu daitekeela adierazi. Arauak dio lehenengo norberaren frogari buruz egin beharko dela, eta ondoren aurkakoarenari buruz. Epailera, bere iritzian, ez baldin badago behar bezala ilustratuta, alderdiei behar adina aldiz eman diezaike hitza, informa dezaten. Azken eginbideak egongo balira, azaldu berri den bezala jokatu da.

Baina hitzezko epaiketan ez da, epaiketa arruntean bezala, konklusioetarako tramite espresurik finkatu. PZL 447.1 artikulua froga praktikatu ondoren *“bista amaitutzat emateko”* agintzen du, eta ez baldin bada egon, alegazioak egin ondoren, hamar eguneko epean epaia emateko.

Hala ere, honek ez du esan nahi ezin direnik bistaren arau orokorrak aplikatu. Honi dagokionez, 185.4 artikulua dio froga praktikatu ondoren *“epaileak edo presidentek hitza alderdiei emango die berriz ere, praktikatuako frogaren emaitzen harian gertakariak edo kontzeptuak zuzentzeko eta, bere kasuan, alegazioak labur formulatzeko”*. Arau hori hitzezko epaiketei ere aplikatu dakiekeela dirudi, prozesu zibilei buruzko *“xedapen orokorrak”* arautzen dituen I. Liburuan kokatzen delako.

Gainera, PZL 443. artikulua *“bista”* deitzen dio hitzezko epaiketari, *“bistaren garapena”* deitzen delako, eta 440. artikulua *“bistarako”* zitatzen ditu, 441.ak *“bistaren”* aurreko egintzak. etab. Beraz, frogari eta alderdiaren argudio juridikoei buruzko ahozko konklusioen fase batek ez dirudi gauza burugabe bat; edonola ere, laburrak izan beharko dute (PZL 185.4 art.).

Hala ere, eraginkortasuna baloratzea epaileari dagokio, eta horretarako hainbat arau izan beharko ditu kontuan. Hala nola, demandan espresuki ukatzen ez diren gertakariak tazituki onartutaz jo ahal izango ditu (PZL 405.2 art.), edota balorazio bikoitza, aurretiazko froga errepikatzeke eskatzen baldin bada (PZL 295.4 art.), kritika sanoaren arauen arabera.

Kritika sanoaren irizpidea, PZL 316. artikuluan alderdiaren galdeketerako, 348.ean irizpen perizialerako, eta 376.ean lekukoen galdeketerako errepikatzen da. Irizpide zabal horrekin batera, balorazioa egiteko arau legal batzuk ere aurreikusten dira. Lehenik eta behin, alderdiaren galdeketa, PZL 316. artikulua dio egiazkotzat joko direla alderdi batek onartutako gertakariak, gertakari horietan pertsonalki hartu baldin badu parte, guztiz kaltegarriak baldin bazaizkio, eta ez baldin badituzte beste froga batzuren emaitzak kontraesaten.

Agiri publikoek dokumentatzen dituzten gertakariak, jasotzen duten datuen eta fede-emaitzen nahiz parte hartzen duten gainerako pertsonen froga osoaren balioa dute (PZL 319.1 art.), usura edo lukurreria kasuan izan ezik (PZL 319.3 art.). Agiri baten zati bati buruzko lekukotzek eta ziurtagiriek ez dute froga osoaren baliorik, zati horrek kaltetzen duen auzilariak eskatutako gehikuntzekin osatzen ez diren bitartean (PZL 321. art.). PZL 322. artikuluan zehaztutako agiri publikoek ere froga osoaren balioa dute, hau da, erkatu ezin diren aintzinako eskriturak eta originalik edota erregistrorik ez daukaten beste agiri publikoek. Protokoloa, matriza edo originalak desagertuta dauden kasuetan, Kode Zibileko 1221 artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

Agiri pribatuak agiri publikoek bezainbateko froga osoaren balioa dute, inpugnatzen ez direnean (PZL 326.1 art.). Inpugnatuz gero, eta letren erkatzeak edota beste frogabideek ez dutenean beren egiazkotasuna ondorioztatzeke balio, kritika sanoaren irizpidearen arabera baloratuko dira (PZL 326.2 art.), eta gauza bera agiri, plano, argazki, krokis edo pinturaren kopia ezin denean originalarekin erkatu (PZL 334.1 art.).

Nolanahi ere, gai hau arautzen duten Kode Zibileko 1225-1227 eta 1230 artikuluetan oinarrituz, bat gatzoz zera adierazten zuen doktrina jurisprudenzialarekin: *“...según tiene declarado esta Sala en STS de*

6 de junio de 1982, 12 de junio de 1986 y 9 de julio de 1988, un documento privado puede tenerse por eficaz en juicio cuando se corrobore con otras pruebas practicadas, a pesar de lo expresado en aquel precepto (el art. 1227 del Código Civil), dado que este sólo es aplicable cuando el hecho a que se refiere únicamente puede tener demostración por el propio documento, pero no cuando existen otras pruebas que acreditan su realidad...” (1990eko abenduaren 18ko Auzitegi Gorenaren Epaia), edota *“esta Sala tiene declarado reiteradamente que la falta de reconocimiento de un documento privado no le priva íntegramente del valor probatorio que el art. 1225 del Código Civil le asigna, pudiendo ser tomado en consideración, ponderando el grado de credibilidad que pueda merecer en las circunstancias del debate, o complementado con otros elementos de prueba, pues la posición contraria supondría tanto como dejar al arbitrio de una parte la eficacia probatoria de un documento (STS 27 de enero y 11 de mayo de 1987, 25 de marzo de 1988, etc...)”* (Auzitegi Gorenaren 1990eko azaroaren 23ko eta 1991ko azaroaren 18ko Epaia).

Jurisprudentzia honek are garrantzi handiagoa hartzen du alderdiek bereziki hitzezko epaiketean frogarako izango dituzten oztopoak ikusita, erraza baita beste alderdiak aurkeztutako agiri guztien egiazkotasuna ukatzeko erabakia hartzea, eta ez dagoelako prozesalki kontrastatzeko aukerarik.

Glosarioa

UZE

A

a quo epaile

Zuzenbide prozesala.

es juez a quo

abeniko

Sin.: bat etortze

Zuzenbide prozesal zibila.

es avenencia

abokatu

Sin.: letradu

Zuzenbide prozesala.

es letrado; abogado

abokatu-laguntzaile

Sin.: pasante

Zuzenbide prozesala.

es pasante

abokatuen elkargo

Zuzenbide prozesala.

es colegio de abogados

absoluzio prozesal

Sin.: auzialdiko absoluzio

Zuzenbide prozesala.

es absolución de la instancia; absolución en la instancia

ad quem epaile

Zuzenbide prozesala.

es juez ad quem

adingabekoen epaile

Zuzenbide prozesala.

es juez de menores

adingabekoen epaitegi

Zuzenbide prozesala.

es juzgado de menores

Adingabekoen Epaitegien Eskumena eta Prozedura arautzen duen 4/1992 Lege Organikoa

Zuzenbide prozesala.

es Ley Orgánica 4/1992 reguladora de la Competencia y el Procedimiento de los Juzgados de Menores

adingabekoen eta ezgaituen ondasunak besterentze

Zuzenbide prozesal zibila.

es enajenación de bienes de menores e incapacitados

adiskidetze

Sin.: elkar-aditze

Zuzenbide prozesala.

es conciliación

adiskidetze-akta

Zuzenbide prozesala.

es acta de conciliación

adiskidetze-ekitaldi

Sin.: adiskidetzeko ekitaldi

Zuzenbide prozesala.

es acto de conciliación

adiskidetze-ekitaldia atzeratze

Zuzenbide prozesala.

es suspensión del acto de conciliación

adiskidetzeko ekitaldi

Ik. adiskidetze-ekitaldi

administratzaile judicial

Zuzenbide prozesal zibila.

es administrador judicial

administratzailekide

Zuzenbide prozesala.

es coadministrador

administrazioarekiko auzietako sala

Zuzenbide prozesala.

es sala de lo contencioso administrativo

ados

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es conforme

adostasun gabeko dibortzio

Zuzenbide prozesal zibila.

es divorcio contencioso; divorcio sin acuerdo

agente judicial

Zuzenbide prozesala.

es agente judicial (*Justizia Administrazioiko langileak: BJLOko 454. art. eta hurrengoak*)

agerraldi

Zuzenbide prozesala.

es comparecencia

agerraldiaren akta

Sin.: agertze-akta

Zuzenbide prozesala.

es acta de comparecencia

agertutako

Sin.: agertutako alderdi

Zuzenbide prozesala.

es compareciente; parte compareciente

agertutako alderdi

Ik. agertutako

agertze-akta

Ik. agerraldiaren akta

agertzeko errekerimendu

Zuzenbide prozesala.

es requerimiento de comparecencia

agindu

Sin.: dekretatu

Zuzenbide prozesala.

es decretar

agindu (iz.)

Sin.: manamendu judizial; agindu judizial; manamendu

Zuzenbide prozesala.

es mandamiento; mandamiento judicial

agindu judizial

Ik. agindu (iz.)

agindu-gutun

Zuzenbide prozesala.

es carta orden

agiri

Sin.: dokumentu

Zuzenbide prozesala.

es documento

agiriak

Sin.: dokumentazio; dokumentuak

Zuzenbide prozesala.

es documentación

agiriak inpugnatze

Sin.: dokumentuen inpugnazio

Zuzenbide prozesala.

es impugnación de documentos

ahalorde

Zuzenbide prozesala.

es poder

ahalorde notarial

Sin.: notario-ahalorde

Zuzenbide prozesala.

es poder notarial

ahalorde-emaile

Zuzenbide prozesala.

es poderdante; mandante (*zentzu zabalean*)

ahalordea apud acta emate

Zuzenbide prozesala.

es apoderamiento apud acta

ahalordea askieste

Zuzenbide prozesala.

es bastanteo de poder

ahalordea legearen aurkakoa izate

Sin.: ahalordearen legekontrakotasun

Zuzenbide prozesala.

es ilegalidad del poder

ahalordearen legekontrakotasun

Ik. ahalordea legearen aurkakoa izate

ahalordedun

Zuzenbide prozesala.

es apoderado

aholkulari

Zuzenbide prozesala.

es asesor

ahozko bista

Sin.: bista

Zuzenbide prozesala.

es vista oral; vista

ahozko epaiketako ekitaldi

Sin.: ahozko judizioko ekitaldi

Zuzenbide prozesala.

es acto del juicio oral

ahozko judizioko ekitaldi

Ik. ahozko epaiketako ekitaldi

ahozko judizioko saio

Zuzenbide prozesala.

es sesión de juicio oral

ahozkotasun-printzipio

Ik. ahozkotasuneko printzipio

ahozkotasuneko printzipio

Sin.: ahozkotasun-printzipio

Zuzenbide prozesala.

es principio de oralidad

aipatutako autoak

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es autos referenciados; autos de referencia

aitortutzat hartu

Sin.: aitortutzat jo

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** tener por confeso**aitortutzat jo**

Ik. aitortutzat hartu

aitortza

Sin.: aitortza judicial; judizioko aitortza

*Zuzenbide prozesala.***es** confesión judicial (*1881eko PZLko 579-595 art.ak*); confesión en juicio; confesión**aitortza judicial**

Ik. aitortza

aitortzagile*Zuzenbide prozesala.***es** confesante; parte confesante**akta***Zuzenbide prozesala.***es** acta**akta egin**

Sin.: aktan jaso

*Zuzenbide prozesala.***es** levantar acta**akta-liburu***Zuzenbide prozesala.***es** libro de actas**aktan jaso**

Ik. akta egin

akusatu gisa

Ik. akusatua den aldetik

akusatua den aldetik

Sin.: akusatu gisa; akusatua denez

*Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.***es** en calidad de acusado; en concepto de acusado**akusatua denez**

Ik. akusatua den aldetik

akzio*Zuzenbide prozesala.***es** acción**akzio zibil***Zuzenbide prozesala.***es** acción civil**akzio-metatze**

Ik. akzioak bateratze

akzioa abandonatze

Sin.: akzioa bertan behera uzte

*Zuzenbide prozesala.***es** abandono de la acción; abandono de acción**akzioa bertan behera uzte**

Ik. akzioa abandonatze

akzioa egikaritu*Zuzenbide prozesala.***es** ejercitar una acción**akzioak bateratze**

Sin.: akzio-metatze; akzioak metatze

*Zuzenbide prozesala.***es** acumulación de acciones**akzioak metatze**

Ik. akzioak bateratze

alderdi

Sin.: prozesuko alderdi

*Zuzenbide prozesala.***es** parte; parte procesal**alderdi apelatu**

Sin.: apelatu

*Zuzenbide prozesala.***es** apelado; parte apelada**alderdi apelatzaile**

Sin.: apelatzaile

*Zuzenbide prozesala.***es** apelante; parte apelante**alderdi betearazi**

Sin.: betearazi

*Zuzenbide prozesala.***es** ejecutado (*epaien betearazpenetan*); parte ejecutada**alderdi betearazle**

Sin.: betearazle

*Zuzenbide prozesala.***es** ejecutante (*epaien betearazpenetan*); parte ejecutante**alderdi demandatu**

Sin.: demandatu

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** parte demandada; demandado**alderdi demandatzaile**

Ik. auzi-jartzaile

alderdi demandatzailearen alde bakarreko egintza*Zuzenbide prozesal zibila.***es** acto unilateral de la parte demandante

alderdi errekurritu

Sin.: errekurritu
Zuzenbide prozesala.
es recurrido; parte recurrida

alderdi errekurtsogile

Sin.: errekurtsogile
Zuzenbide prozesala.
es recurrente; parte recurrente

alderdiak eskatuta

Sin.: alderdiak hala eskaturik
Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es a instancia de parte

alderdiak hala eskaturik

Ik. alderdiak eskatuta

alderdien galdeketa

Zuzenbide prozesal zibila.
es interrogatorio de las partes (1/2000 PZLko 301-316 art.ak)

alegatu

Sin.: alegazioak egin
Zuzenbide prozesala.
es alegar

alegazio

Zuzenbide prozesala.
es alegación

alegazio juridikoak

Zuzenbide prozesala.
es alegaciones jurídicas

alegazio-idazki

Zuzenbide prozesala.
es escrito de alegaciones

alegazioak egin

Ik. alegatu

amaieran sinatzen duen idazkari

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es infrascrito secretario

amore emate

Zuzenbide prozesal zibila.
es allanamiento

aparteko errekurtsu

Zuzenbide prozesala.
es recurso extraordinario

apelatu

Ik. alderdi apelatu

apelatutako epai

Zuzenbide prozesala.
es sentencia apelada

apelatzaile

Ik. alderdi apelatzaile

apelazio

Zuzenbide prozesala.
es apelación

apelazio-errekurtsu

Sin.: apelazioko errekurtsu
Zuzenbide prozesala.
es recurso de apelación

apelazioarekiko atxikimendu

Sin.: apelazioari atxikitze
Zuzenbide prozesala.
es adhesión a la apelación

apelazioari atxikitze

Ik. apelazioarekiko atxikimendu

apelazioko auzitegi

Zuzenbide prozesala.
es tribunal de apelación

apelazioko errekurtsu

Ik. apelazio-errekurtsu

apelazioko erroilu

Zuzenbide prozesala.
es rollo de apelación

apud acta agertze

Zuzenbide prozesala.
es comparecencia apud acta

apud acta jakinarazte

Zuzenbide prozesala.
es notificación apud acta

arau prozesal

Zuzenbide prozesala.
es norma procesal

arau-hauste

Zuzenbide prozesala.
es infracción de normas; infracción

arau-hauste prozesalarengatiko aparteko errekurtsu

Zuzenbide prozesal zibila.
es recurso extraordinario por infracción procesal (1/2000 PZLko 468-476 art.ak)

arbitrajeko laudoa betearazte

Zuzenbide prozesal zibila.
es ejecución de laudo arbitral

arbitratzaile

Sin.: ekitatezko arbitro; arbitro
Zuzenbide prozesal zibila.
es árbitro de equidad; arbitrador; árbitro

arbitro

lk. arbitratzaile

arrazoi zuzen*Zuzenbide prozesala.***es** causa justa**arrazoibide juridikoak**

Sin.: zuzenbideko oinarriak

*Zuzenbide prozesala.***es** razonamientos jurídicos; fundamentos jurídicos; fundamentos de derecho (*1/2000 PZLko 280. art.*)**askiespen**

Sin.: askieste

*Zuzenbide prozesala.***es** bastanteo**askieste**

lk. askiespen

asmo gaiztoko deien zirkuitu*Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.***es** circuito de llamadas maliciosas**atariko eginbideak***Zuzenbide prozesal zibila.***es** diligencias preliminares**atxikimendu-idazki**

Sin.: atxikimenduzko idazki

*Zuzenbide prozesala.***es** escrito de adhesión**atxikimenduzko idazki**

lk. atxikimendu-idazki

atxikitzeko interdiktu*Zuzenbide prozesal zibila.***es** interdicto de retener (*1881eko PZLko 1.651-1.662 art.ak*)**atzemandako gauzak***Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.***es** objetos intervenidos; efectos ocupados; efectos intervenidos**atzera egite***Zuzenbide prozesala.***es** desistimiento**atzera eskuratzeko epaiketa**

Sin.: atzera eskuratzeko judizio

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** juicio de retracto**atzera eskuratzeko judizio**

lk. atzera eskuratzeko epaiketa.

aurka egite*Zuzenbide prozesala.***es** oposición**aurrekariak**

Sin.: gertakariak

*Zuzenbide prozesala.***es** antecedentes de hecho; hechos; antecedentes**aurrekasu***Zuzenbide prozesala.***es** precedente**aurreneurriak**

Sin.: prebentziozko neurriak

*Zuzenbide prozesala.***es** medidas preventivas**aurreneurritzko embargo***Zuzenbide prozesala.***es** embargo preventivo**aurretiaz adiskidetze**

Sin.: aurretiazko adiskidetze

*Zuzenbide prozesala.***es** conciliación previa**aurretiazko adiskidetze**

lk. aurretiaz adiskidetze

aurretiazko froga*Zuzenbide prozesala.***es** prueba anticipada**aurri-interdiktu***Zuzenbide prozesal zibila.***es** interdicto de obra ruinosa (*1881eko PZLko 1.676-1.685 art.ak*)**ausarkeria***Zuzenbide prozesala.***es** temeridad**auto***Zuzenbide prozesala.***es** auto**auto etenarazle**

Sin.: etete-auto

*Zuzenbide prozesala.***es** auto de suspensión**auto hauetan frogaldia egin dadila eskatu***Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** solicitar recibimiento de los autos a prueba**auto ukatzaile***Zuzenbide prozesala.***es** auto denegatorio**autoa behin-behinean betearazte***Zuzenbide prozesala.***es** ejecución provisional de auto

autoak

Zuzenbide prozesala.

es autos

autoak bateratze

Sin.: autoak metatze

Zuzenbide prozesala.

es acumulación de autos

autoak metatze

Ik. autoak bateratze

autoetan benetakoa dela egiaztatu

Sin.: autoetan lekukotza jaso

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es testinoniar en autos (*dokumentuak*)

autoetan lekukotza jaso

Ik. autoetan benetakoa dela egiaztatu

auzi

Zuzenbide prozesala.

es causa

auzi

Zuzenbide prozesala.

es litigio; pleito

auzi zibil

Zuzenbide prozesal zibila.

es causa civil

auzi-ihes

Zuzenbide prozesala.

es rebeldía

auzi-iheseko epaiketa

Sin.: auzi-iheseko judizio

Zuzenbide prozesala.

es juicio en rebeldía

auzi-iheseko judizio

Ik. auzi-iheseko epaiketa

auzi-iheslari deklaratu

Sin.: auzi-iheslaritzat jo

Zuzenbide prozesala.

es declarar en rebeldía

auzi-iheslari

Zuzenbide prozesala.

es rebelde

auzi-iheslariari entzuteko errekurtsio

Sin.: entzuna izateko errekurtsio

Zuzenbide prozesal zibila.

es recurso de audiencia al rebelde; audiencia al condenado en rebeldía (*1881eko PZLko 773. art.*)

auzi-iheslaritzat jo

Ik. auzi-iheslari deklaratu

auzi-jartzaile

Sin.: demandatzaile; alderdi demandatzaile

Zuzenbide prozesal zibila.

es demandante; parte demandante; actor; parte actora

auzialdi

Zuzenbide prozesala.

es instancia (*jurisdikzio-maila*)

auzialdi bakar

Zuzenbide prozesala.

es única instancia

auzialdiko absoluzio

Ik. absoluzio prozesal

auzian den alderdi

Sin.: auzilari

Zuzenbide prozesala.

es litigante

auziaz arduratu

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es conocer de la causa

auzibide

Sin.: bide judicial

Zuzenbide prozesala.

es vía judicial

auzibitarte

Sin.: litispendentzia

Zuzenbide prozesala.

es litispendencia

auzigai

Zuzenbide prozesala.

es cosa litigiosa

auzikide

Zuzenbide prozesala.

es litisconsorte

auzikidetza

Zuzenbide prozesala.

es litisconsorcio

auzilari

Ik. auzian den alderdi

auzipeko ondasunak

Zuzenbide prozesal zibila.

es bienes litigiosos

auzipeko ondasunei kontu hartze

Sin.: auzipeko ondasunen kontu-hartze judiciala egite

Zuzenbide prozesal zibila.

es intervención judicial de bienes litigiosos; intervención de bienes litigiosos

auzipeko ondasunen kontu-hartze judiziala egite

Ik. auzipeko ondasunei kontu hartze

auzitan aritu

Sin.: auzitan ibili; auzitan jardun

Zuzenbide prozesala.

es pleitear; litigar

auzitan ibili

Ik. auzitan aritu

auzitan jardun

Ik. auzitan aritu

auzitegi

Sin.: justizi auzitegi

Zuzenbide prozesala.

es tribunal; tribunal de justicia

auzitegi baten eskumenean jartze

Zuzenbide prozesala.

es sumisión a la competencia de un tribunal

Auzitegi Gorena

Zuzenbide prozesala.

es Tribunal Supremo

Auzitegi Konstituzionala

Sin.: KA; Konstituzio Auzitegia

Zuzenbide prozesala.

es TC; Tribunal Constitucional

Auzitegi Militar Zentrala

Zuzenbide prozesala.

es Tribunal Militar Central

Auzitegi Nazionala

Zuzenbide prozesala.

es Audiencia Nacional

auzitegi-medikuntza

Sin.: medikuntza legal

Zuzenbide prozesala.

es medicina legal

auzitegi-tako prokuradore

Sin.: prokuradore

Zuzenbide prozesala.

es procurador; procurador de los tribunales

auzitegi-tan deklaratz

Zuzenbide prozesala.

es declaración ante los tribunales

auzitegi-tiko buru

Sin.: auzitegi-tiko lehendakari

Zuzenbide prozesala.

es presidente del tribunal

auzitegi-tiko klinika

Zuzenbide prozesala.

es clínica forense; clínica médico-forense

auzitegi-tiko lehendakari

Ik. auzitegi-tiko buru

auzitegi-tiko mediku

Zuzenbide prozesala.

es médico forense

azken eginbideak

Zuzenbide prozesal zibila.

es diligencias finales (1/2000 PZLko 435. art.)

B**babes jurisdikzional**

Sin.: jurisdikzio-babes

Zuzenbide prozesala.

es protección jurisdiccional

baiespen

Sin.: baieste

Zuzenbide prozesala.

es estimación

baieste

Ik. baiespen

baiesten duen epai

Sin.: epai baieste

Zuzenbide prozesala.

es sentencia estimatoria

baimen

Ik. benia

baimen judizial

Sin.: epailearen baimen

Zuzenbide prozesala.

es autorización judicial

bake-epaile

Zuzenbide prozesala.

es juez de paz

bake-epaitegi

Sin.: bakezko epaitegi

Zuzenbide prozesala.

es juzgado de paz

bake-epaitegiaren alde inhibitze

Zuzenbide prozesala.

es inhibición a juzgado de paz

bakezko epaitegi

Ik. bake-epaitegi

banaketa-bulego

Zuzenbide prozesala.

es oficina de reparto

barkatutako epai

Zuzenbide prozesala.

es sentencia remitida

barruti judicial

Sin.: epaitegi-barruti

Zuzenbide prozesala.

es partido judicial

bat datorren artikulu

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es artículo concordante

bat etortze

Ik. abeniko

batzorde judicial

Zuzenbide prozesala.

es comisión judicial

behar bezain ahalorde zabal

Zuzenbide prozesala.

es poder tan amplio como sea necesario

behar bezala zitatu

Ik. behar bezalako forman zitazioa egin

behar bezalako forman zitazioa egin

Sin.: legeak agindu bezala zitatu; behar bezala zitatu

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es citar en forma

behin betiko artxibatze

Zuzenbide prozesala.

es archivo definitivo

behin-behinean artxibatze

Sin.: behin-behineko artxibatze

Zuzenbide prozesala.

es archivo provisional

behin-behineko artxibatze

Ik. behin-behinean artxibatze

behin-behineko mantenuko epaiketa

Sin.: behin-behineko mantenuko judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de alimentos provisionales

behin-behineko mantenuko judizio

Ik. behin-behineko mantenuko epaiketa

benia

Sin.: baimen

Zuzenbide prozesala.

es venia

berebat

Sin.: berebat diot

Zuzenbide prozesala.

es otrosí digo; otrosí

berebat diot

Ik. berebat

berraztertze-errekurtso (1)

Zuzenbide prozesala.

es recurso de reposición

berrerantzute

Sin.: duplika

Zuzenbide prozesal zibila.

es dúplica (1881eko PZLko 540-549 art.ak)

berreskuratzeko interdiktu

Zuzenbide prozesal zibila.

es interdicto de recobrar (1881eko PZLko 1.651-1.662 art.ak)

berrespen

Sin.: berreste

Zuzenbide prozesala.

es ratificación

berrespen-akta

Zuzenbide prozesala.

es acta de ratificación

berreste

Ik. berrespen

berresteko eginbide

Zuzenbide prozesala.

es diligencia de ratificación

berrikuspen-errekurtso

Sin.: berrikuspeneko errekurtso

Zuzenbide prozesala.

es recurso de revisión

berrikuspeneko errekurtso

Ik. berrikuspen-errekurtso

betearazi

Ik. alderdi betearazi

betearazle

Ik. alderdi betearazle

betetze-agindu

Sin.: betetzeko agindu

Zuzenbide prozesala.

es mandamiento de cumplimiento

betetzeko agindu

Ik. betetze-agindu

bidaltze-ofizio

Ik. bidaltzeko ofizio

bidaltzeko ofizio

Sin.: igortzeko ofizio; bidaltze-ofizio

Zuzenbide prozesala.

es oficio remisorio

bide judicial

Ik. auzibide

bideratze

Sin.: substantziazio; gauzatz

Zuzenbide prozesala.

es substanciación; sustanciación

bidezko arrazoi

Sin.: bidezko kausa; bidezko kari

Zuzenbide prozesala.

es causa justificada

bidezko izan

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es proceder

bidezko kari

Ik. bidezko arrazoi

bidezko kausa

Ik. bidezko arrazoi

bidezkotasun

Zuzenbide prozesala.

es procedencia

bikoiztu

Zuzenbide prozesala.

es duplicado

bilaketa-agindu

Sin.: errequisitoria

Zuzenbide prozesala.

es requisitoria

birgaldera

Sin.: kontragaldera

Zuzenbide prozesala.

es repregunta

birgaldera-sorta

Sin.: birgalderen plegu

Zuzenbide prozesal zibila.

es pliego de repreguntas (1881eko PZLko 641. art.); interrogatorio de repreguntas

birgalderen plegu

Ik. birgaldera-sorta

bista

Ik. ahozko bista

bista atzeratze

Zuzenbide prozesala.

es suspensión de celebración de vista

bistaren akta

Zuzenbide prozesala.

es acta de vista

Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Zerbitzua

Zuzenbide prozesala.

es Servicio de Mediación, Arbitraje y Conciliación

BJLO

Sin.: Botere Judizialaren Lege Organikoa; Botere

Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa

Zuzenbide prozesala.

es LOPJ; Ley Orgánica del Poder Judicial; Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial

borondatezko jurisdikzio

Zuzenbide prozesal zibila.

es jurisdicción voluntaria

Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa

Ik. BJLO

Botere Judizialaren Lege Organikoa

Ik. BJLO

bultzamen prozesal

Sin.: prozedura bultzatz

Zuzenbide prozesala.

es impulso procesal; impulso

D**data zehazte**

Sin.: eguna izendatze; eguna jartze

Zuzenbide prozesala.

es señalamiento

defendatu (iz.)

Zuzenbide prozesala.

es defendido

defendatzaile

Sin.: defentsari

Zuzenbide prozesala.

es defensor

defentsa

Zuzenbide prozesala.

es defensa (*alderdia edo bere abokatua*)

defentsa

Sin.: prozesuko defentsa

Zuzenbide prozesala.

es defensa procesal; defensa

defentsa-gabezia

Zuzenbide prozesala.

es indefensión

defentsari

Ik. defendatzaile

deklaratu

Sin.: deklarazioa egin

Zuzenbide prozesala.

es declarar; deponer; prestar declaración

deklaratzeko ezezko

Sin.: deklaratzeko uko

Zuzenbide prozesala.

es negativa a declarar

deklaratzeko uko

Ik. deklaratzeko ezezko

deklarazio judicial

Zuzenbide prozesala.

es declaración judicial

deklarazio-judizio

Sin.: deklarazioko judizio; deklarazioko epaiketa

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio declarativo (1881eko PZLko 481-740 art.ak)

deklarazioa egin

Ik. deklaratu

deklarazioa hartze

Zuzenbide prozesala.

es recibir declaración; oír en declaración

deklarazioko epaiketa

Ik. deklarazio-judizio

deklarazioko judizio

Ik. deklarazio-judizio

deklinatoria

Zuzenbide prozesala.

es declinatoria

dekretatu

Ik. agindu

delegazio

Sin.: eskuordetzan emate; eskuordetze

Zuzenbide prozesala.

es delegación

demanda

Zuzenbide prozesal zibila.

es demanda

demanda-idazki

Zuzenbide prozesal zibila.

es escrito de demanda

demanda-idazki

Sin.: demanda-paper

Zuzenbide prozesal zibila.

es papeleta de demanda (1881eko PZLko 722. art.)

demanda-paper

Ik. demanda-idazki

demandako eskaera

Sin.: demandako ESKATZEN DIOT

Zuzenbide prozesala.

es súplica; SUPLICO de la demanda; súplica de la demanda

demandako ESKATZEN DIOT

Ik. demandako eskaera

demandan atzera egite

Zuzenbide prozesal zibila.

es desistimiento de la demanda

demandari amore emate

Zuzenbide prozesal zibila.

es allanamiento a la demanda

demandari erantzute

Zuzenbide prozesal zibila.

es contestación a la demanda

demandatu

Ik. alderdi demandatu

demandatukide

Zuzenbide prozesal zibila.

es codemandado

demandatzaile

Ik. auzi-jartzaile

desahuzio-judizio

Sin.: desahuzioko epaiketa

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de desahucio

desahuzioko epaiketa

Ik. desahuzio-judizio

desenkusa

Zuzenbide prozesala.

es excusa

deskargu

Zuzenbide prozesala.

es descargo

diru-erantzukizunak

Zuzenbide prozesala.

es responsabilidades pecuniarias

diziplina-zentzarazpen

Ik. diziplinako zuzengarri

diziplinako zuzengarriSin.: diziplina-zentzarazpen; diziplinazko zuzenarazte
*Zuzenbide prozesala.***es** corrección disciplinaria (*BJLOko 448-453 art.ak*)**diziplinazko zuzenarazte**

Ik. diziplinako zuzengarri

doako justizia

Sin.: doako justizia izateko eskubide; doako justiziaren eskubide

*Zuzenbide prozesala.***es** derecho a justicia gratuita; justicia gratuita**doako justizia izateko eskubide**

Ik. doako justizia

doako justiziaren eskubide

Ik. doako justizia

doako laguntza juridiko*Zuzenbide prozesala.***es** asistencia jurídica gratuita**Doako Laguntza Juridikoaren Legea**

Sin.: urtarrilaren 10eko Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legea

*Zuzenbide prozesala.***es** Ley 1/1996 de 10 de enero de Asistencia Jurídica Gratuita; Ley de Asistencia Jurídica Gratuita**dokumentazio**

Ik. agiriak

dokumentu

Ik. agiri

dokumentu bidezko froga

Sin.: dokumentuzko froga

*Zuzenbide prozesala.***es** prueba documental**dokumentu faltsu***Zuzenbide prozesala.***es** documento falso**dokumentu kauto***Zuzenbide prozesala.***es** documento auténtico**dokumentu pribatu***Zuzenbide prozesala.***es** documento privado**dokumentu publiko***Zuzenbide prozesala.***es** documento público**dokumentuak**

Ik. agiriak

dokumentuak autoetatik bereizte*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** desglose de documentos**dokumentuak erakuste***Zuzenbide prozesala.***es** exhibición de documentos**dokumentuak erkatze***Zuzenbide prozesala.***es** cotejo de documentos; compulsas de documentos; cotejo documental**dokumentuen inpugnazio**

Ik. agiriak inpugnatze

dokumentuzko froga

Ik. dokumentu bidezko froga

duplika

Ik. berrerantzute

E**EAEko Auzitegi Nagusia***Zuzenbide prozesala.***es** Tribunal Superior de Justicia del País Vasco**ebazmen**

Sin.: erabakimen; erabakimen judicial; ebazmen judicial

*Zuzenbide prozesala.***es** arbitrio; arbitrio judicial**ebazpen**

Sin.: epaile-ebazpen; ebazpen judicial

*Zuzenbide prozesala.***es** resolución; resolución judicial**ebazpen judicial**

Ik. ebazpen

ebazpen-proposamen*Zuzenbide prozesala.***es** propuesta de resolución**edesle**

Sin.: errelatore

*Zuzenbide prozesala.***es** relator**ediktu***Zuzenbide prozesala.***es** edicto**ediktuen ordezkoko entzunaldi***Zuzenbide prozesala.***es** audiencia sustitutoria de edictos

efektu etenarazle

Sin.: ondorio etenarazle
Zuzenbide prozesala.
es efecto suspensivo

eginbide

Zuzenbide prozesala.
es diligencia

eginbideak betetze

Sin.: eginbideak egite; eginbideak burutze
Zuzenbide prozesala.
es práctica de diligencias

eginbideak burutze

Ik. eginbideak betetze

eginbideak egite

Ik. eginbideak betetze

egintza errekurritu

Sin.: errekurritutako egintza
Zuzenbide prozesala.
es acto recurrido

egintzak inpugnatze

Sin.: egintzen inpugnazio
Zuzenbide prozesala.
es impugnación de actos

egintzen inpugnazio

Ik. egintzak inpugnatze

egitate frogatu

Zuzenbide prozesala.
es hecho probado

egoitza judicial

Zuzenbide prozesala.
es sede judicial

egonleku ezezagun

Sin.: leku ezezagun
Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.
es paradero desconocido

eguna izendatze

Ik. data zehazte

eguna jartze

Ik. data zehazte

ekitatezko arbitraje

Zuzenbide prozesal zibila.
es arbitraje de equidad

ekitatezko arbitro

Ik. arbitratzaile

eliz auzitegi

Zuzenbide prozesala.
es tribunal eclesiástico

elkar-aditze

Ik. adiskidetze

elkargo

Zuzenbide prozesala.
es colegio

elkargokide

Zuzenbide prozesala.
es colegiado

enbargatzeko agindu

Sin.: enbargo-agindu
Zuzenbide prozesala.
es mandamiento de embargo

enbargo

Zuzenbide prozesala.
es embargo

enbargo-agindu

Ik. enbargatzeko agindu

enbargo-eginbide

Ik. enbargoa egiteko eginbide

enbargoa egiteko eginbide

Sin.: enbargo-eginbide
Zuzenbide prozesala.
es diligencia de embargo

enbargoa kentze

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es levantamiento de embargo

enbargoaren aurreneurritzko idatzohar

Zuzenbide prozesala.
es anotación preventiva de embargo

enkante

Zuzenbide prozesala.
es subasta

enkante publiko

Sin.: jendaurreko enkante
Zuzenbide prozesala.
es subasta pública

enkantea egin

Sin.: enkantean atera; enkantean jarri
Zuzenbide prozesala.
es subastar

enkantean atera

Ik. enkantea egin

enkantean jarri

Ik. enkantea egin

entregatzeko eginbide*Zuzenbide prozesala.***es** diligencia de entrega**entzuna izateko errekurtsu**

Ik. auzi-iheslariari entzuteko errekurtsu

entzunaldi*Zuzenbide prozesala.***es** audiencia (*ekitaldia*)**entzunaldi publiko***Zuzenbide prozesala.***es** audiencia pública**entzunaldi publikoa eratu***Zuzenbide prozesala.***es** constituirse en audiencia pública**entzunaldi-areto***Zuzenbide prozesala.***es** sala de audiencias**entzunaldia haste**

Sin.: entzunaldiari hasiera emate

*Zuzenbide prozesala.***es** apertura de la audiencia**entzunaldiari hasiera emate**

Ik. entzunaldia haste

epai*Zuzenbide prozesala.***es** sentencia**epai apelaezin***Zuzenbide prozesala.***es** sentencia inapelable**epai baiesle**

Ik. baiesten duen epai

epai betearazle*Zuzenbide prozesala.***es** sentencia ejecutoria**epai ezesle**

Sin.: ezesten duen epai

*Zuzenbide prozesala.***es** sentencia desestimatoria**epai irmo***Zuzenbide prozesala.***es** sentencia firme**epai irmoa desegite***Zuzenbide prozesal zibila.***es** rescisión de sentencia firme (*1/2000 PZLko 501. art.*)**epai irmoak berrikuste***Zuzenbide prozesal zibila.***es** revisión de sentencias firmes (*1/2000 PZLko 509-516 art.ak*)**epai kondenatzaile**

Sin.: kondena-epai

*Zuzenbide prozesala.***es** sentencia condenatoria**epaia baieztatu**

Sin.: epaia berretsi

*Zuzenbide prozesala.***es** confirmar sentencia**epaia behin betiko betearazte***Zuzenbide prozesala.***es** ejecución definitiva de la sentencia**epaia berretsi**

Ik. epaia baieztatu

epaia betearazte*Zuzenbide prozesala.***es** ejecución de sentencia**epaia eman***Zuzenbide prozesala.***es** sentenciar**epaia emateko prest**

Sin.: epairako prest

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** visto para sentencia**epaia errebokatu***Zuzenbide prozesala.***es** revocar sentencia**epaia irmo deklaratu**

Ik. epaia irmoa dela deklaratu

epaia irmoa dela deklaratu

Sin.: epaia irmo deklaratu; epaia irmotzat jo

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** declarar firme la sentencia**epaia irmotzat jo**

Ik. epaia irmoa dela deklaratu

epaiaren irmotasun*Zuzenbide prozesala.***es** firmeza de la sentencia**epaiaren lekukotza***Zuzenbide prozesala.***es** testimonio de la sentencia

epaiketa

Sin.: judizio
Zuzenbide prozesala.
es juicio

epaiketa arrunt

Sin.: judizio arrunt
Zuzenbide prozesal zibila.
es juicio ordinario

epaiketa aurreko arazo

Sin.: judizio aurreko arazo
Zuzenbide prozesala.
es cuestión prejudicial

epaiketa plenario

Sin.: judizio plenario
Zuzenbide prozesala.
es juicio plenario

epaiketako akta

Sin.: judizioko akta
Zuzenbide prozesala.
es acta del juicio

epaiketako ekitaldiari hasiera emate

Sin.: judizioko ekitaldia irekitze; judizioko ekitaldia haste
Zuzenbide prozesala.
es apertura del acto del juicio

epaiketako ordezkari

Sin.: judizioan ordezkatzeko
Zuzenbide prozesala.
es representación en juicio

epaiketara agertze

Sin.: judizioan agertze
Zuzenbide prozesala.
es comparecencia en juicio

epaiketez arduratzeko eta epaitza emateko eskumen

Sin.: judizioez arduratzeko eta epaitza emateko eskumen
Zuzenbide prozesala.
es competencia para el conocimiento y fallo de los juicios

epaile

Zuzenbide prozesala.
es juez

epaile arduradun

Zuzenbide prozesala.
es juez encargado

epaile dekan

Zuzenbide prozesala.
es juez decano

epaile jauna/andrea

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es su señoría; S.S.^a

epaile jn.aren/and.aren baimenarekin

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es con la venia de S.S.^a

epaile magistratu

Zuzenbide prozesala.
es magistrado-juez

epaile-azterketa

Zuzenbide prozesal zibila.
es reconocimiento judicial

epaile-ebazpen

Ik. ebazpen

epaile-jardunak

Sin.: jardun judizialak
Zuzenbide prozesala.
es actuaciones judiciales

epaileak errefusatzeko

Zuzenbide prozesala.
es recusación de jueces

epailearen baimen

Ik. baimen judicial

epailearen erabaki

Sin.: erabaki judizial
Zuzenbide prozesala.
es decisión judicial

epaileria

Sin.: epailetza
Zuzenbide prozesala.
es judicatura

epailetza

Ik. epaileria

epairako prest

Ik. epaia emateko prest

epaitegi

Zuzenbide prozesala.
es juzgado

epaitegi-barruti

Ik. barruti judicial

epaitegian agertu

Zuzenbide prozesala.
es comparecer ante el juzgado

epaitegian jakinarazte

Sin.: epaitegiko iragarki-lekuan jakinarazte
Zuzenbide prozesala.
es notificación en estrados (1881eko PZLko 281-283 art.ak)

epaitegiko idazkari

Sin.: idazkari judicial
Zuzenbide prozesala.
es secretario judicial

epaitegiko iragarki-lekuan jakinarazte

Ik. epaitegian jakinarazte

epaitegiko lantalde tekniko

Zuzenbide prozesala.
es equipo técnico del juzgado

epaitegitik egindako dei

Zuzenbide prozesala.
es llamamiento judicial

epaitu

Sin.: juzgatu
Zuzenbide prozesala.
es enjuiciar; juzgar

epaitza

Zuzenbide prozesala.
es fallo

epaitza apelaezin

Zuzenbide prozesala.
es fallo inapelable

epaitza eman

Zuzenbide prozesala.
es fallar

epatu (iz.)

Zuzenbide prozesala.
es emplazado

epatu

Zuzenbide prozesala.
es emplazar

epatze

Zuzenbide prozesala.
es emplazamiento

epatzeko eginbide

Zuzenbide prozesala.
es diligencia de emplazamiento

epatzeko zedula

Zuzenbide prozesala.
es cédula de emplazamiento

epe-luzapen

Ik. epea luzatze

epea luzatze

Sin.: epe-luzapen
Zuzenbide prozesala.
es prórroga del plazo

erabaki

Zuzenbide prozesala.
es pronunciamiento

erabaki

Sin.: erabakia eman
Zuzenbide prozesala.
es proveer

erabaki judicial

Ik. epailearen erabaki

erabaki-indarreko zin

Sin.: zin erabakitzaile
Zuzenbide prozesala.
es juramento decisorio (1881eko PZLko 580. art.)

erabaki-indarrrik gabeko zin

Zuzenbide prozesala.
es juramento indecisorio (1881eko PZLko 580. art.)

erabakia eman

Ik. erabaki

erabakimen

Ik. ebazmen

erabakimen judicial

Ik. ebazmen

erakunde juridiko

Sin.: zuzenbideko erakunde
Zuzenbide prozesala.
es institución jurídica

erantzukizun

Zuzenbide prozesala.
es responsabilidad

erantzukizun subsidiario

Zuzenbide prozesala.
es responsabilidad subsidiaria

erantzukizun zibil

Zuzenbide prozesala.
es responsabilidad civil

erantzukizun zibileko epaiketa

Sin.: erantzukizun zibileko juzizio
Zuzenbide prozesala.
es juicio de responsabilidad civil

erantzukizun zibileko juzizio

Ik. erantzukizun zibileko epaiketa

erantzule zibil subsidiario

Zuzenbide prozesala.
es responsable civil subsidiario

erkapen

Sin.: erkatze
Zuzenbide prozesala.
es cotejo

erkatze

Ik. erkapen

errebokaezin

Sin.: ezeztaezin
Zuzenbide prozesala.
es irrevocable

errebokatze

Sin.: errebokazio; ezeztatze
Zuzenbide prozesala.
es revocación (*agintari baten erabakiarena*)

errebokazio

Ik. errebokatze

errefusagarri

Zuzenbide prozesala.
es recusable

errefusatzaile

Zuzenbide prozesala.
es recusante

errefusatzte

Zuzenbide prozesala.
es recusación

errefusatzte-intzidente

Zuzenbide prozesala.
es incidente de recusación

erregistratu

Zuzenbide prozesala.
es registrar (*erregistroan sartu*)

erregistro orokor

Zuzenbide prozesala.
es registro general

Erregistro Zibilaren Erregelamendua

Zuzenbide prozesal zibila.
es Reglamento del Registro Civil

erregistro-liburu

Zuzenbide prozesala.
es libro de registro

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia

Zuzenbide prozesala.
es Dirección General de los Registros y del Notariado

errekerimendu

Zuzenbide prozesala.
es requerimiento

errekerimendu judicial

Zuzenbide prozesala.
es requerimiento judicial

errekerimendu notarial

Sin.: notario-errekerimendu
Zuzenbide prozesala.
es requerimiento notarial

errekerimendua egin

Sin.: errekeritu
Zuzenbide prozesala.
es requerir

errekeritu (iz.)

Zuzenbide prozesala.
es requerido

errekeritu

Ik. errekerimendua egin

errekeritzaile

Zuzenbide prozesala.
es requirente

errekisitoria

Ik. bilaketa-agindu

erreklamatzaille

Zuzenbide prozesala.
es reclamante

erreklamazio

Zuzenbide prozesala.
es reclamación

erreklamazioa aurkeztu

Zuzenbide prozesala.
es entablar una reclamación

errekonbentzio

Sin.: kontrademanda
Zuzenbide prozesal zibila.
es reconvención

errekonbentzioa aurkeztu

Zuzenbide prozesal zibila.
es formular reconvención

errekurritu (iz.)

Ik. alderdi errekurritu

errekurritu

Sin.: helegitea jarri; errekurtsoa aurkeztu; errekurtsoa jarri
Zuzenbide prozesala.
es interponer recurso; recurrir; entablar recurso

errekurritutako egintza

Ik. egintza errekurritu

errekurritutako jardun*Zuzenbide prozesala.***es** actuación recurrida**errekurtso**

Sin.: helegite

*Zuzenbide prozesala.***es** recurso**errekurtso-iraungitze**

Sin.: errekurtsoa iraungitze

*Zuzenbide prozesala.***es** caducidad del recurso**errekurtsoa aurkeztu**

Ik. errekurritu

errekurtsoa formalizatu*Zuzenbide prozesala.***es** formalizar recurso**errekurtsoa formalizatzeko idazki***Zuzenbide prozesala.***es** escrito de formalización del recurso**errekurtsoa hutsal deklaratu***Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** declarar desierto el recurso**errekurtsoa iragarri***Zuzenbide prozesala.***es** anunciar recurso**errekurtsoa iraungitze**

Ik. errekurtso-iraungitze

errekurtsoan atzera egite*Zuzenbide prozesala.***es** desistimiento del recurso**errekurtsogile**

Ik. alderdi errekurtsogile

errekurtsotik banantze*Zuzenbide prozesala.***es** separación del recurso**errelatore**

Ik. edesle.

erremate*Zuzenbide prozesal zibila.***es** remate**errematerako zitazioa egin***Zuzenbide prozesal zibila.***es** citar de remate**errentak enbargatze**

Sin.: errenten embargo

*Zuzenbide prozesala.***es** embargo de rentas**errenten embargo**

Ik. errentak enbargatze

erreplika

Sin.: kontraerantzute

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** réplica (1881eko PZLko 540-549 art.ak)**erroilu***Zuzenbide prozesala.***es** rollo**erruduntasun-testigantza***Zuzenbide prozesala.***es** tanto de culpa**eskritura egileste***Zuzenbide prozesal zibila.***es** otorgamiento de escritura**eskubide hobeko hirugarrengotza***Zuzenbide prozesal zibila.***es** tercería de mejor derecho**eskubidez egoki deritzona alegatu**

Sin.: eskubidez komeni zaiona alegatu

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** alegar lo que a su derecho convenga; alegar lo que interese a su derecho**eskubidez komeni zaiona alegatu**

Ik. eskubidez egoki deritzona alegatu

eskudun*Zuzenbide prozesala.***es** competente (*ahalmen juridikoa duena*)**eskuetsitako eskritura***Zuzenbide prozesala.***es** escritura autorizada**eskuetsitako kopia**

Sin.: kopia eskuetsi

*Zuzenbide prozesala.***es** copia autenticada; copia autorizada**eskumen***Zuzenbide prozesala.***es** competencia**eskumen objektibo***Zuzenbide prozesala.***es** competencia objetiva**eskumen-arazo***Zuzenbide prozesala.***es** cuestión de competencia

eskumenik ez

Zuzenbide prozesala.

es incompetencia; falta de competencia

eskuordetzan emate

Ik. delegazio

eskuordetze

Ik. delegazio

eskuratzeko interdiktu

Zuzenbide prozesal zibila.

es interdicto de adquirir (1881eko PZLko 1.633-1.650 art.ak)

espediente

Zuzenbide prozesala.

es expediente

espediente-berrespen

Zuzenbide prozesala.

es ratificación del expediente

espediente-irekitze

Ik. espedientea haste

espedientea haste

Sin.: espedientea irekitze; espediente-irekitze

Zuzenbide prozesala.

es incoación de expediente; apertura de expediente

espedientea irekitze

Ik. espedientea haste

Espetxeen Lege Organiko Orokorra

Ik. ELOO

Estatuko Fiskaltza Nagusi

Zuzenbide prozesala.

es Fiscalía General del Estado

etendura-epe

Sin.: etete-epe

Zuzenbide prozesala.

es plazo de suspensión

etete-auto

Ik. auto etenarazle

etete-epe

Ik. etendura-epe

exceptio

Sin.: salbuespen

Zuzenbide prozesal zibila.

es excepción; exceptio

exekutatzaile

Zuzenbide prozesal zibila.

es ejecutante (*judizio exekutiboan*)

exekutoria

Zuzenbide prozesala.

es ejecutoria (*BJLOko 245-4 art.*)

exekuzio-agindu

Sin.: exekuzio-manamendu

Zuzenbide prozesala.

es mandamiento de ejecución

exekuzio-akzio

Sin.: exekuzioko akzio

Zuzenbide prozesal zibila.

es acción ejecutiva (*1/2000 PZLko 517. art.*)

exekuzio-bide

Zuzenbide prozesala.

es vía ejecutiva

exekuzio-manamendu

Ik. exekuzio-agindu

exekuzio-titulu

Zuzenbide prozesal zibila.

es título ejecutivo

exekuzioa abiarazi

Sin.: exekuzioa agindu

Zuzenbide prozesal zibila.

es despachar la ejecución

exekuzioa agindu

Ik. exekuzioa abiarazi

exekuzioko akzio

Ik. exekuzio-akzio

exekuzioko epaiketa

Sin.: judizio exekutibo

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio ejecutivo

exhorto

Zuzenbide prozesala.

es exhorto

exhortoa agindu duen organo

Sin.: organo exhortogile

Zuzenbide prozesala.

es órgano exhortante

exhortoa jaso behar duen organo

Sin.: organo exhorto-hartzaile

Zuzenbide prozesala.

es órgano exhortado

ez-agertze

Zuzenbide prozesala.

es incomparecencia; falta de comparecencia

ezagutarazi

Sin.: ezagutzera eman
Zuzenbide prozesala.
es comunicar; participar

ezagutzera eman

Ik. ezagutarazi

ezezen

Sin.: ezeste
Zuzenbide prozesala.
es desestimación

ezeste

Ik. ezezen

ezesten duen epai

Ik. epai ezesle

ezeztaezin

Ik. errebokaezin

ezeztatze

Ik. errebokatze

ezkontza-deuseztasuneko demanda

Zuzenbide prozesal zibila.
es demanda de nulidad conyugal; demanda de nulidad matrimonial; demanda de nulidad de matrimonio

F**famili epaitegi**

Zuzenbide prozesal zibila.
es juzgado de familia

fede eman

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es dar fe

fede-emaile

Sin.: fede-emaile publiko
Zuzenbide prozesala.
es fedatario público; fedatario

fede-emaile

Zuzenbide prozesala.
es fehaciente

fede-emaile publiko

Ik. fede-emaile

filiazioa inpugnatzeko errekurtsio

Sin.: seme-alabatasuna inpugnatzeko errekurtsio
Zuzenbide prozesal zibila.
es recurso de impugnación de la filiación

fiskal

Zuzenbide prozesala.
es fiscal (*iz.*)

fiskal

Sin.: ministerio fiskal; ministerio publiko
Zuzenbide prozesala.
es ministerio fiscal; ministerio público

fiskalak aldeko txostena egin

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es informar el fiscal en sentido favorable

fiskalaren txosten

Zuzenbide prozesala.
es informe del fiscal

fiskalburu

Zuzenbide prozesala.
es Fiscal Jefe

fiskaltza

Zuzenbide prozesala.
es fiscalía

forma-hauste

Sin.: forma-urratze
Zuzenbide prozesala.
es quebrantamiento de forma

forma-urratze

Ik. forma-hauste

formalizazio-idazki

Zuzenbide prozesala.
es escrito de formalización

froga

Zuzenbide prozesala.
es prueba

froga aurretiaz burutze

Sin.: froga aurretiaz egite
Zuzenbide prozesala.
es práctica anticipada de la prueba

froga aurretiaz egite

Ik. froga aurretiaz burutze

froga burutze

Sin.: froga egite
Zuzenbide prozesala.
es práctica de la prueba

froga egite

Ik. froga burutze

froga egoki

Zuzenbide prozesala.
es prueba pertinente

froga material

Zuzenbide prozesala.
es prueba material

froga onartezin

Zuzenbide prozesala.
es prueba inadmisibile

froga perizial

Sin.: peritu bidezko froga; peritu-froga
Zuzenbide prozesala.
es prueba pericial

froga pertsonal

Zuzenbide prozesala.
es prueba personal

froga proposatze

Ik. froga-proposamen

froga proposatzeko idazki

Ik. froga-proposameneko idazki

froga ukatze

Ik. froga-ukapen

froga-indar

Zuzenbide prozesala.
es fuerza probatoria

froga-karga

Sin.: frogatu beharraren karga; froga-zama
Zuzenbide prozesala.
es carga de la prueba

froga-karga trukatzeko

Sin.: froga-zamaren alderanzketa
Zuzenbide prozesala.
es inversión de la prueba; inversión de la carga de la prueba

froga-proposamen

Sin.: froga proposatze
Zuzenbide prozesala.
es proposición de prueba

froga-proposameneko idazki

Sin.: froga proposatzeko idazki
Zuzenbide prozesala.
es escrito de proposición de prueba

froga-ukapen

Sin.: froga ukatze
Zuzenbide prozesala.
es denegación de prueba

froga-zama

Ik. froga-karga

froga-zamaren alderanzketa

Ik. froga-karga trukatzeko

frogabide

Zuzenbide prozesala.
es medio de prueba

frogagarrien gordailu

Zuzenbide prozesala.
es depósito de piezas de convicción

frogaldi

Zuzenbide prozesala.
es periodo de prueba; periodo probatorio

frogaldia egitea onartu

Zuzenbide prozesala.
es recibir la prueba; recibir a prueba

frogaldia egitea onartze

Zuzenbide prozesala.
es recibimiento a prueba

frogatu beharraren karga

Ik. froga-karga

G

galdeketa

Sin.: itaunketa
Zuzenbide prozesala.
es interrogatorio

galdera amarrutsu

Sin.: galdera maltzur
Zuzenbide prozesala.
es pregunta capciosa

galdera maltzur

Ik. galdera amarrutsu

galdera-sorta

Sin.: galderen plegu
Zuzenbide prozesal zibila.
es interrogatorio de preguntas; pliego de preguntas
(1881eko PZLko 638. art.)

galderen plegu

Ik. galdera-sorta

garaiz eta behar bezalako forman

Sin.: garaiz eta forman
Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es en tiempo y forma

garaiz eta forman

Ik. garaiz eta behar bezalako forman

gatazka jurisdikzional

Sin.: jurisdikzio-gatazka
Zuzenbide prozesala.
es conflicto jurisdiccional; conflicto de jurisdicción

gauza epaitu

Sin.: gauza juzgatu
Zuzenbide prozesala.
es cosa juzgada

gauza juzgatu

Ik. gauza epaitu

gauzatze

Ik. bideratze

gertakariak

Ik. aurrekariak

gertakarian izandako lekuko

Sin.: zuzeneko lekuko

*Zuzenbide prozesala.***es** testigo presencial; testigo directo**gezurrezko zina egite**

Sin.: zin faltsua egite

*Zuzenbide prozesala.***es** juramento en falso**gobernu-espeditente***Zuzenbide prozesala.***es** expediente gubernativo**goi-organo**

Sin.: goragoko organo

*Zuzenbide prozesala.***es** órgano superior**goragoko organo**

Ik. goi-organo

gordailu eta kontsignazioen kontu*Zuzenbide prozesala.***es** cuenta de depósitos y consignaciones**gordailuzain***Zuzenbide prozesala.***es** depositario**gurasotasun eta seme-alabatasuneko demanda***Zuzenbide prozesal zibila.***es** demanda de paternidad y filiación**H****habilitatutako ofizial***Zuzenbide prozesala.***es** oficial habilitado**habilitazio***Zuzenbide prozesala.***es** habilitación**habilitazio judicial***Zuzenbide prozesala.***es** habilitación judicial**hartu izanaren berri eman**

Sin.: jaso izanaren berri eman

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** acusar recibo**hartu-agiri***Zuzenbide prozesala.***es** acuse de recibo**hartzekodunen konkurtso***Zuzenbide prozesal zibila.***es** concurso de acreedores**hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko***Zuzenbide prozesal zibila.***es** declaración de concurso de acreedores**hasiera emate**

Ik. irekitze

haste

Ik. irekitze

HE

Ik. Hipoteka Erregelamendua

helarazi*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** dar traslado; conferir traslado**helarazitakoari erantzun**

Ik. jasotakoari erantzun

helarazpen*Zuzenbide prozesala.***es** traslado**helarazpenari erantzun**

Ik. jasotakoari erantzun

helegite

Ik. errekurtso

helegitea jarri

Ik. errekurritu

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea

Ik. Administrazio eta Prozedura Legea

Hipoteka Erregelamendua

Sin.: HE

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** RH; Reglamento Hipotecario**Hipoteka Legea**

Sin.: HL

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** LH; Ley Hipotecaria

hipoteka-epaiketa

Ik. hipoteka-judizio

hipoteka-judizio

Sin.: hipoteka-epaiketa
Zuzenbide prozesal zibila.
es juicio hipotecario

hiri-errentamenduei buruzko epaiketa

Sin.: hiri-errentamenduei buruzko judizio
Zuzenbide prozesal zibila.
es juicio sobre arrendamientos urbanos

hiri-errentamenduei buruzko judizio

Ik. hiri-errentamenduei buruzko epaiketa

hirugarren interesatu

Sin.: hirugarren interesdun
Zuzenbide prozesala.
es tercero interesado

hirugarren interesdun

Ik. hirugarren interesatu

hirugarren

Zuzenbide prozesala.
es tercero

hirugarrengotza

Ik. hirugarrentza

hirugarrentza

Sin.: hirugarrengotza
Zuzenbide prozesala.
es tercera

hitzez hitzeko kopia

Zuzenbide prozesala.
es copia literal

hitzezko epaiketa

Sin.: hitzezko judizio
Zuzenbide prozesal zibila.
es juicio verbal (1/2000 PZLko 250. art.)

hitzezko epaiketa sumario

Sin.: hitzezko judizio sumario
Zuzenbide prozesal zibila.
es juicio verbal sumario

hitzezko judizio

Ik. hitzezko epaiketa

hitzezko judizio sumario

Ik. hitzezko epaiketa sumario

HL

Ik. Hipoteka Legea

hobeto epaitzeko eginbide

Sin.: hobeto erabakitzeke eginbide
Zuzenbide prozesala.

es diligencia para mejor proveer (1881eko PZLko 340-342 art.ak.)

hobeto erabakitzeke eginbide

Ik. hobeto epaitzeko eginbide

homologatu

Zuzenbide prozesala.
es homologar

hurrentasun printzipio

Zuzenbide prozesala.
es principio de intermediación

I

idatzagiri

Zuzenbide prozesala.
es despacho

idatzagiria bidali

Zuzenbide prozesala.
es librar despacho

idazkari judicial

Ik. epaitzeko idazkari

idazkari lanean diharduen ofizial

Zuzenbide prozesala.
es oficial en funciones de secretario

idazki

Zuzenbide prozesala.
es escrito

idazkia baieztatu eta berretsi

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.
es afirmarse y ratificarse en el contenido del escrito

identifikazio-zenbaki orokor

Sin.: IZO
Zuzenbide prozesala.
es número de identificación general (EAEko informatika-sistemako zk.); N.I.G.

igortzeko ofizio

Ik. bidaltzeko ofizio

indarraldi

Sin.: indarreko epe
Zuzenbide prozesala.
es plazo de vigencia

indarreko epe

Ik. indarraldi

indemnizazioa ordaintze

lk. kaltea ordaintze

inhibitoria*Zuzenbide prozesala.***es** inhibitoria (1881eko PZLko 72. art.)**inhibitze**

Sin.: inhibizio

*Zuzenbide prozesala.***es** inhibición**inhibizio**

lk. inhibitze

inkongruentzia*Zuzenbide prozesala.***es** incongruencia; falta de congruencia**inpartzialitate**

Sin.: inpartzialtasun

*Zuzenbide prozesala.***es** imparcialidad**inpartzialtasun**

lk. inpartzialitate

inpugnaezin

Sin.: inpugnaezinezko

*Zuzenbide prozesala.***es** inimpugnable**inpugnaezinezko**

lk. inpugnaezin

inpugnagarri*Zuzenbide prozesala.***es** impugnabile**inpugnatutako ebazpen***Zuzenbide prozesala.***es** resolución impugnada**inpugnatutako egintza***Zuzenbide prozesala.***es** acto impugnado**inpugnatutako jardun***Zuzenbide prozesala.***es** actuación impugnada**inpugnatzaile***Zuzenbide prozesala.***es** impugnador; impugnante**inpugnatze**

Sin.: inpugnazio

*Zuzenbide prozesala.***es** impugnación**inpugnatzeko idazki**

Sin.: inpugnazioko idazki

*Zuzenbide prozesala.***es** escrito de impugnación**inpugnazio**

lk. inpugnatze

inpugnazioko idazki

lk. inpugnatzeko idazki

inskripzioa ezerezte*Zuzenbide prozesala.***es** cancelación de inscripción**interdiktu***Zuzenbide prozesal zibila.***es** interdicto (1881eko PZLko 1.631-1.685 art.ak)**interes legitimodun***Zuzenbide prozesala.***es** persona con interés legítimo**interesatu**

Sin.: interesdun

*Zuzenbide prozesala.***es** interesado**interesdun**

lk. interesatu

intzidente*Zuzenbide prozesala.***es** incidente**irabazpidezko ondasunen sozietatea likidatze***Zuzenbide prozesal zibila.***es** liquidación de la sociedad de gananciales**iragarki-ohol**

Sin.: iragarki-taula

*Zuzenbide prozesala.***es** tablón de anuncios**iragarki-taula**

lk. iragarki-ohol

irekitze

Sin.: hasiera emate; haste

*Zuzenbide prozesala.***es** incoación**irizpen***Zuzenbide prozesala.***es** dictamen**itaunketa**

lk. galdeketa

itzultze-agindu

Sin.: itzultzeko agindu

Zuzenbide prozesala.

es mandamiento de devolución

itzultzeko agindu

Ik. itzultze-agindu

iuris et de iure presuntzio

Zuzenbide prozesala.

es presunción iuris et de iure

iuris tantum presuntzio

Zuzenbide prozesala.

es presunción iuris tantum

izapide

Sin.: prozesuko izapide

Zuzenbide prozesala.

es trámite procesal; trámite

izapideak egin

Sin.: izapidetu; tramitatu

Zuzenbide prozesala.

es tramitar

izapidetu

Ik. izapideak egin

izapidetzeko onartze

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es admisión a trámite

izenpea egiaztatze

Sin.: sinadura norberarena dela aitortze

Zuzenbide prozesala.

es reconocimiento de firma

IZO

Ik. identifikazio-zenbaki orokor

J

jabari-espediente

Zuzenbide prozesal zibila.

es expediente de dominio

jabari-hirugarrengotza

Zuzenbide prozesal zibila.

es tercería de dominio

jakinarazi

Sin.: jakinarazpena egin

Zuzenbide prozesala.

es notificar

jakinarazpen

Sin.: jakinarazte

Zuzenbide prozesala.

es notificación

jakinarazpen-akta

Zuzenbide prozesala.

es acta de notificación

jakinarazpen-zedula

Sin.: jakinarazteko zedula

Zuzenbide prozesala.

es cédula de notificación

jakinarazpena egin

Ik. jakinarazi

jakinarazte

Ik. jakinarazpen

jakinarazteko eginbide

Zuzenbide prozesala.

es diligencia de notificación

jakinarazteko zedula

Ik. jakinarazpen-zedula

jakitun egin izanaren idazki

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es escrito de instrucción

jarduketa-etendura

Sin.: jarduketak etete

Zuzenbide prozesala.

es suspensión de las actuaciones

jarduketak artxibatze

Zuzenbide prozesala.

es archivo de actuaciones

jarduketak etete

Ik. jarduketa-etendura

jarduketak

Zuzenbide prozesala.

es actuaciones (*autoak, espedienteak*)

jarduketan jakitun egin

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es instruirse de las actuaciones

jardun judizialak

Ik. epaile-jardunak

jardun prozesalak

Sin.: prozesuko jardunak

Zuzenbide prozesala.

es actuaciones procesales

jarduneko abokatu

Sin.: jarduneko letradu

Zuzenbide prozesala.

es abogado en ejercicio; letrado en ejercicio

jarduneko letradu

Ik. jarduneko abokatu

jaso izanaren berri eman

Ik. hartu izanaren berri eman

jaso izanaren berri emateko eskatu*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** interesar acuse de recibo**jasoarazteko eginbide***Zuzenbide prozesala.***es** diligencia de constancia**jasotakoari erantzun**

Sin.: helarazitakoari erantzun; helarazpenari erantzun

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** evacuar traslado**jasotzeko eginbide***Zuzenbide prozesala.***es** diligencia de recepción**jatorrizko dokumentu***Zuzenbide prozesala.***es** documento original**jendaurreko enkante**

Ik. enkante publiko

judizio arrunt

Ik. epaiketa arrunt

judizio aurreko arazo

Ik. epaiketa aurreko arazo

judizio exekutibo

Ik. exekuzioko epaiketa

judizio

Ik. epaiketa

judizio plenario

Ik. epaiketa plenario

judizio-areto*Zuzenbide prozesala.***es** sala de vistas**judizio-ekitaldia atzeratze***Zuzenbide prozesala.***es** suspensión del acto del juicio (*LPLko 83. art.*)**judizioan agertze**

Ik. epaiketara agertze

judizioan ordezkatzte

Ik. epaiketako ordezkaritza

judizioez arduratzeko eta epaitza emateko eskumen

Ik. epaiketez arduratzeko eta epaitza emateko eskumen

judizioko aitortza

Ik. aitortza

judizioko akta

Ik. epaiketako akta

judizioko ekitaldia haste

Ik. epaiketako ekitaldiari hasiera emate

judizioko ekitaldia irekitze

Ik. epaiketako ekitaldiari hasiera emate

judizioko gastuak

Sin.: prozesu-gastuak

*Zuzenbide prozesala.***es** gastos del juicio; gastos procesales**jurisdikzio***Zuzenbide prozesala.***es** jurisdicción**jurisdikzio**

Sin.: jurisdikzio-ordena

*Zuzenbide prozesala.***es** orden jurisdiccional; jurisdicción**jurisdikzio arrunt***Zuzenbide prozesala.***es** jurisdicción ordinaria**jurisdikzio berezi***Zuzenbide prozesala.***es** jurisdicción especial**jurisdikzio militar***Zuzenbide prozesala.***es** jurisdicción militar**jurisdikzio-babes**

Ik. babes jurisdikzional

jurisdikzio-gatazka

Ik. gatazka jurisdikzional

jurisdikzio-maila*Zuzenbide prozesala.***es** grado de jurisdicción**jurisdikzio-ordena**

Ik. jurisdikzio

jurista

Sin.: legelari

*Zuzenbide prozesala.***es** jurista

justizi auzitegi

Ik. auzitegi

Justizia Administrazioa

Zuzenbide prozesala.

es Administración de Justicia

Justizia Administrazioko laguntzaile

Zuzenbide prozesala.

es auxiliar de la Administración de Justicia (*Justizia Administrazioko langileak: BJLOko 454. art. eta hurrengoak*)

justizia-jauregi

Sin.: justiziako jauregi

Zuzenbide prozesala.

es palacio de justicia

justiziako jauregi

Ik. justizia-jauregi

justiziako sala

Sin.: sala

Zuzenbide prozesala.

es sala de justicia; sala (*epaile-taldea*)

justizian entzuna izate

Sin.: justizian entzuna izateko errekurtsu

Zuzenbide prozesala.

es recurso de audiencia en justicia (*BJLOko 194.2. art.*); audiencia en justicia

justizian entzuna izateko errekurtsu

Ik. justizian entzuna izate

justiziari laguntza emateko obligazio

Zuzenbide prozesala.

es obligación de colaborar con la justicia

juzgatu

Ik. epaitu

K

KA

Ik. Auzitegi Konstituzionala

kalte-galerak erreklamatz

Sin.: kalte-galeren erreklamazio; kalte-galeren ordaina erreklamatz

Zuzenbide prozesala.

es reclamación de daños y perjuicios

kalte-galeren erreklamazio

Ik. kalte-galerak erreklamatz

kalte-galeren ordaina erreklamatz

Ik. kalte-galerak erreklamatz

kalte-ordaina emate

Ik. kaltea ordaintze

kalte-ordainaren eta interesen likidazio

Zuzenbide prozesala.

es liquidación de indemnización e intereses

kaltea ordaintze

Sin.: kalte-ordaina emate; indemnizazioa ordaintze; kalte-galerak ordaintze

Zuzenbide prozesala.

es pago de indemnización

kanbio-letren atzerabidezko akzio

Zuzenbide prozesal zibila.

es acción cambiaria de regreso

karguko lekuko

Ik. akusazioaren lekuko

kasazio

Zuzenbide prozesala.

es casación

kasazio-errekurtso

Sin.: kasazioko errekurtsu

Zuzenbide prozesala.

es recurso de casación

kasazioko auzitegi

Zuzenbide prozesala.

es tribunal de casación

kasazioko errekurtsu

Ik. kasazio-errekurtso

kaudimengabeziako auto

Zuzenbide prozesala.

es auto de insolvencia

kautelazko neurri

Zuzenbide prozesala.

es medida cautelar

kexa-errekurtso

Sin.: kexako errekurtsu

Zuzenbide prozesala.

es recurso de queja

kexako errekurtsu

Ik. kexa-errekurtso

kita eta itxaroteko prozedura

Zuzenbide prozesal zibila.

es procedimiento de quita y espera

kognizioko epaiketa

Sin.: kognizioko judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de cognición (*1881eko PZLko 482 eta 486. art.ak*)

kognizioko judizio

Ik. kognizioko epaiketa

komunikazio*Zuzenbide prozesala.***es** comunicación (*idazki ofiziala*)**komunikazio-egintzak**

Ik. komunikazioak

komunikazioak

Sin.: komunikazio-egintzak

*Zuzenbide prozesala.***es** actos de comunicación**kondena***Zuzenbide prozesala.***es** condena**kondena-epai**

Ik. epai kondenatzaile

kongruentzia*Zuzenbide prozesala.***es** congruencia**konpontze**

Sin.: ongitze

*Zuzenbide prozesala.***es** subsanación (*okerrena, akatsena, hutsegiteena*)**Konstituzio Auzitegia**

Ik. Auzitegi Konstituzionala

kontrademanda

Ik. errekonbentzio

kontraerantzute

Ik. erreplika

kontraesateko printzipio*Zuzenbide prozesala.***es** principio de contradicción**kontragaldera**

Ik. birgaldera

kontsignatu*Zuzenbide prozesala.***es** consignar (*kopuru bat*)**kontsignazio**

Sin.: kontsignazio judicial

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** consignación; consignación judicial**kontsignazio judicial**

Ik. kontsignazio

kontu-hartzaile judicial*Zuzenbide prozesal zibila.***es** interventor judicial**kontuen zin***Zuzenbide prozesala.***es** jura de cuentas**kontulari banatzaile erabakitzaile***Zuzenbide prozesal zibila.***es** contador partididor dirimente**kopia bakun**

Sin.: kopia soil

*Zuzenbide prozesala.***es** copia simple**kopia eskuetsi**

Ik. eskuetsitako kopia

kopia fede-emaile*Zuzenbide prozesala.***es** copia fehaciente**kopia soil**

Ik. kopia bakun

kopia ziurtatu*Zuzenbide prozesala.***es** copia certificada**kostu judicialak**

Ik. kostuak

kostuak

Sin.: kostu judicialak; prozesuko kostuak

*Zuzenbide prozesala.***es** costas; costas judiciales; costas procesales**kostuak ezartze***Zuzenbide prozesala.***es** imposición de costas**kostuak ordaintzera kondenatze**

Sin.: kostuetarako kondena

*Zuzenbide prozesala.***es** condena en costas**kostuak tasatze**

Sin.: kostuen tasazio

*Zuzenbide prozesala.***es** tasación de costas**kostuen tasazio**

Ik. kostuak tasatze

kostuetarako kondena

Ik. kostuak ordaintzera kondenatze

kredituak mailakatze

Sin.: kredituen graduazio

Zuzenbide prozesala.

es graduación de créditos

kredituen graduazio

Ik. kredituak mailakatze

L

laburpen

Zuzenbide prozesala.

es extracto

laguntza judicial

Zuzenbide prozesala.

es auxilio judicial

laguntzailekide

Zuzenbide prozesala.

es coadyuvante

lan-arloko epaiketa

Sin.: lan-arloko judizio

Lan Zuzenbidea.

es juicio laboral

lan-arloko judizio

Ik. lan-arloko epaiketa

lan-arloko sala

Zuzenbide prozesala.

es sala de lo social

lan-auzitegi zentral

Zuzenbide prozesala.

es tribunal central de trabajo

landa-errentamenduei buruzko epaiketa

Sin.: landa-errentamenduei buruzko judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio sobre arrendamientos rústicos

landa-errentamenduei buruzko judizio

Ik. landa-errentamenduei buruzko epaiketa

lankidetzak judicial

Zuzenbide prozesala.

es cooperación judicial

laudo

Zuzenbide prozesal zibila.

es laudo

lege prozesal

Zuzenbide prozesala.

es ley procesal (*zentzu hertsian*)

lege prozesal zibil

Zuzenbide prozesal zibila.

es ley procesal civil

lege-dispentsa

Sin.: lege-lekapen

Zuzenbide prozesala.

es dispensa de ley

lege-hauste

Zuzenbide prozesala.

es infracción de la ley

lege-lekapen

Ik. lege-dispentsa

legeak agindu bezala

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es en legal forma

legeak agindu bezala zitatu

Ik. behar bezalako forman zitazioa egin

legearen aurkako eskaera

Zuzenbide prozesala.

es petición ilegal

legelari

Ik. jurista

legezko betekizun

Sin.: legezko ukanbehar

Zuzenbide prozesala.

es requisito legal

legezko bidea eman

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es dar destino legal

legezko epe

Zuzenbide prozesala.

es plazo legal

legezko izapide

Zuzenbide prozesala.

es trámite legal

legezko ohartarazpenak

Zuzenbide prozesala.

es prevenciones legales; apercebimientos legales; advertencias legales

legezko ordezkari

Zuzenbide prozesala.

es representante legal

legezko ukanbehar

Ik. legezko betekizun

legitimazio aktibo

Zuzenbide prozesala.

es legitimación activa

legitimazio pasibo*Zuzenbide prozesala.***es** legitimación pasiva**lehen auzialdiko epaile***Zuzenbide prozesala.***es** juez de primera instancia**lehen auzialdiko epaitegi***Zuzenbide prozesal zibila.***es** juzgado de primera instancia**lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi***Zuzenbide prozesala.***es** juzgado de primera instancia e instrucción**leku ezezagun**

Ik. egonleku ezezagun

lekuko*Zuzenbide prozesala.***es** testigo**lekuko bidezko froga**

Sin.: lekuko-froga

*Zuzenbide prozesala.***es** prueba testifical**lekuko-froga**

Ik. lekuko bidezko froga

lekukoei galdeketa egite

Sin.: lekukoen galdeketa

*Zuzenbide prozesala.***es** interrogatorio de testigos**lekukoen deklarazio***Zuzenbide prozesala.***es** declaración de testigos; declaración testifical**lekukoen galdeketa**

Ik. lekukoei galdeketa egite

lekukotasun

Ik. lekukotza

lekukotza bidez jaso beharreko dokumentu*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** documento a testimiar**lekukotza egin**

Sin.: testigutza eman; testigantza egin

*Zuzenbide prozesala.***es** testificar; testimiar; atestiguar**lekukotza**

Sin.: testigantza; lekukotasun

*Zuzenbide prozesala.***es** testimonio**lekukotza**

Sin.: testigantza

*Zuzenbide prozesala.***es** testimonio**letradu**

Ik. abokatu

litispendentzia

Ik. auzibitarte

LPL

Ik. Lan Prozedurako Legea

lurralde-eskumen*Zuzenbide prozesala.***es** competencia territorial**luzapenezko salbuespen***Zuzenbide prozesala.***es** excepción dilatoria (1881eko PZLko 532-539 art.ak)**M****magistratu***Zuzenbide prozesala.***es** magistrado**magistratu ponente**

Sin.: magistratu txostengile

*Zuzenbide prozesala.***es** magistrado ponente**magistratu txostengile**

Ik. magistratu ponente

magistratura

Sin.: magistratutza

*Zuzenbide prozesala.***es** magistratura**magistratutza**

Ik. magistratura

manamendu judizial

Ik. agindu

manu*Zuzenbide prozesala.***es** precepto**medikuntza legal**

Ik. auzitegi-medikuntza

merkataritzako efektuen gordailu*Zuzenbide prozesala.***es** depósito de efectos mercantiles

ministerio fiskal

Ik. fiskal

ministerio publiko

Ik. fiskal

munta

Zuzenbide prozesala.

es cuantía

munta handiko epaiketa

Sin.: munta handiko judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de mayor cuantía (1881eko PZLko 524-679 art.ak)

munta handiko judizio

Ik. munta handiko epaiketa

munta txikiko epaiketa

Sin.: munta txikiko judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de menor cuantía (1881eko PZLko 680-714 art.ak)

munta txikiko judizio

Ik. munta txikiko epaiketa

N

neurri astunagoak

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es medidas más gravosas

norbaiti dituen eskubideak aditzera eman

Sin.: norbaiti dituen eskubideak azaldu

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es instruir a alguien de sus derechos

norbaiti dituen eskubideak azaldu

Ik. norbaiti dituen eskubideak aditzera eman

notario-ahalorde

Ik. ahalorde notarial

notario-errekerimendu

Ik. errekerimendu notarial

O

O. E.

Sin.: ontzat emana

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es visto bueno; Vº Bº

obra berriko interdiktu

Zuzenbide prozesal zibila.

es interdicto de obra nueva (1881eko PZLko 1.663-1.675 art.ak)

ofizio

Zuzenbide prozesala.

es oficio

ofizioa bidali

Zuzenbide prozesala.

es oficiar; librar oficio

ofizioz berrikuste

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es revisión de oficio

ofizioz defendatze

Sin.: ofiziozko defentsa

Zuzenbide prozesala.

es defensa de oficio

ofizioz

Zuzenbide prozesala.

es de oficio

ofizioz jardute

Sin.: ofiziozko jardun

Zuzenbide prozesala.

es actuación de oficio

ofiziozko abokatu

Zuzenbide prozesala.

es abogado de oficio

ofiziozko abokatua izendatze

Sin.: ofiziozko txandako abokatua izendatze

Zuzenbide prozesala.

es nombramiento del abogado de oficio; nombramiento de abogado del turno de oficio

ofiziozko defentsa

Ik. ofizioz defendatze

ofiziozko jardun

Ik. ofizioz jardute

ofiziozko paper

Zuzenbide prozesala.

es papel de oficio

ofiziozko prozedura

Zuzenbide prozesala.

es procedimiento de oficio

ofiziozko txanda

Zuzenbide prozesala.

es turno de oficio

ofiziozko txandako abokatua izendatze

Ik. ofiziozko abokatua izendatze

ohartarazi*Zuzenbide prozesala.***es** apercibir**ohartarazpen***Zuzenbide prozesala.***es** apercibimiento**oker judicial***Zuzenbide prozesala.***es** error judicial**okerrak zuzentze**

Sin.: okerren zuzenketa

*Zuzenbide prozesala.***es** rectificación de errores**okerren zuzenketa**

Ik. okerrak zuzentze

ondasun enbargaezin*Zuzenbide prozesala.***es** bien inembargable (*1/2000 PZLko 605-612 art.ak*)**ondasun higigarrien hipoteka exekutatzeko***Zuzenbide prozesal zibila.***es** ejecución de hipoteca mobiliaria**ondasunak enbargatze**

Sin.: ondasunen enbargo

*Zuzenbide prozesala.***es** embargo de bienes**ondasunak gordailuan uzte**

Sin.: ondasunak gordailutze

*Zuzenbide prozesala.***es** depósito de bienes (*ekintza*)**ondasunak gordailutze**

Ik. ondasunak gordailuan uzte

ondasunen enbargo

Ik. ondasunak enbargatze

ondorio etenarazle

Ik. efektu etenarazle

onespen-akta*Zuzenbide prozesal zibila.***es** acta de consentimiento**ongitze**

Ik. konpontze

ontzat emana

Ik. O. E.

ordainketa-errekerimendu

Sin.: ordaintzeko errekerimendu

*Zuzenbide prozesala.***es** requerimiento de pago**ordaintzeko errekerimendu**

Ik. ordainketa-errekerimendu

ordenazioko eginbide*Zuzenbide prozesala.***es** diligencia de ordenación**ordezkaritza***Zuzenbide prozesala.***es** representación**organo exhorto-hartzaile**

Ik. exhortoa jaso behar duen organoa

organo exhortogile

Ik. exhortoa agindu duen organoa

orri-bazterrean inskribitze*Zuzenbide prozesal zibila.***es** inscripción al margen**oso-osoan irakurriz eta hitzez hitzeko kopia emanaz jakinarazte***Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** notificación por medio de lectura íntegra y entrega de copia literal**P****partaidetza-mota**

Sin.: prozesuan duen partaidetza; prozesuan duen izaera

*Zuzenbide prozesaleko esamoldea.***es** posición procesal; calidad procesal; calidad de intervención**parte-hartzaile***Zuzenbide prozesala.***es** interviniente**partikularren lekukotza***Zuzenbide prozesala.***es** testimonio de particulares**pasante**

Ik. abokatu-laguntzaile

penaleko sala

Sin.: zigor-arloko sala

*Zuzenbide prozesala.***es** sala de lo penal**peritu***Zuzenbide prozesala.***es** perito

peritu bidezko froga

Ik. froga perizial

peritu judicial

Zuzenbide prozesala.

es perito judicial

peritu-azterketa

Zuzenbide prozesala.

es reconocimiento pericial

peritu-froga

Ik. froga perizial

peritu-gastuak

Zuzenbide prozesala.

es gastos periciales

peritu-txosten

Ik. perituaren txosten

perituaren txosten

Sin.: peritu-txosten

Zuzenbide prozesala.

es informe pericial

perituen irizpen

Zuzenbide prozesala.

es dictamen de peritos; dictamen pericial

Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko 62/1978 Legea, abenduaren 26koa

Sin.: Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko Legea

Zuzenbide prozesala.

es Ley de Protección Jurisdiccional de los Derechos Fundamentales de la Persona; Ley 62/1978, de 26 de diciembre, de Protección Jurisdiccional de los Derechos Fundamentales de la Persona

Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko Legea

Ik. Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko 62/1978 Legea, abenduaren 26koa

pertsonatu

Zuzenbide prozesala.

es personarse

pertsonatutako alderdi

Zuzenbide prozesala.

es parte personada

pertsonatze

Zuzenbide prozesala.

es personación

pertsonatze-idazki

Sin.: pertsonatzeko idazki

Zuzenbide prozesala.

es escrito de personamiento; escrito de personación

pertsonatzeko idazki

Ik. pertsonatze-idazki

pieza

Zuzenbide prozesala.

es pieza

pieza banandu

Zuzenbide prozesala.

es pieza separada

plus petitio

Zuzenbide prozesala.

es plus petitio; plus petición

polizia judicial

Zuzenbide prozesala.

es policía judicial

porrota kalifikatze

Zuzenbide prozesal zibila.

es calificación de la quiebra

posizio-plegu

Ik. posizioen plegu

posizioak

Zuzenbide prozesala.

es posiciones (1881eko PZL)

posizioei erantzute

Zuzenbide prozesal zibila.

es absolución de posiciones (1881eko PZLko 582. art. eta hurrengoak)

posizioen plegu

Sin.: posizio-plegu

Zuzenbide prozesal zibila.

es pliego de posiciones (1881eko PZLko 581-582 art.ak)

postulazio

Zuzenbide prozesala.

es postulación; postulación procesal

prebentziozko atxiloketa

Ik. aurreneurritzko atxilotze

prebentziozko espetxeratze

Ik. aurreneurritzko espetxeratze

prebentziozko neurriak

Ik. aurreneurriak

prebentziozko presoaldi

Ik. behin-behineko presoaldi

preklusio

Sin.: preklusioko printzipio

*Zuzenbide prozesala.***es** preclusión; principio de preclusión**preklusioko printzipio**

Ik. preklusio

premiamendu*Zuzenbide prozesal zibila.***es** apremio**premiamendu judicial***Zuzenbide prozesala.***es** apremio judicial**premiamendu-bide***Zuzenbide prozesala.***es** vía de apremio**premiamendu-bidetik ordainarazte**

Sin.: premiamendu-bidezko ordainarazpen

*Zuzenbide prozesala.***es** exacción por la vía de apremio**premiamendu-bidezko ordainarazpen**

Ik. premiamendu-bidetik ordainarazte

premiamendu-espeditente

Sin.: premiamenduzko espeditente

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** expediente de apremio**premiamendu-prozedura**

Sin.: premiamenduzko prozedura

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** procedimiento de apremio**premiamenduzko espeditente**

Ik. premiamendu-espeditente

premiamenduzko prozedura

Ik. premiamendu-prozedura

prestaera-eginbideak*Zuzenbide prozesala.***es** diligencias preparatorias**presuntzio***Zuzenbide prozesala.***es** presunción**probidentzi proposamen**

Ik. probidentzia-proposamen

probidentzia*Zuzenbide prozesala.***es** providencia**probidentzia-proposamen**

Sin.: probidentzi proposamen

*Zuzenbide prozesala.***es** propuesta de providencia**probintzi auzitegi**

Ik. probintzia-auzitegi

Probintzia Auzitegiko x. sekzio*Zuzenbide prozesala.***es** sección x de la Audiencia Provincial**probintzia-auzitegi**

Sin.: probintzi auzitegi

*Zuzenbide prozesala.***es** audiencia provincial**prokuradore**

Ik. auzitegietako prokuradore

prokuradoreen elkargo*Zuzenbide prozesala.***es** colegio de procuradores**Prokuradoreentzako Jakinarazpenen Areto***Zuzenbide prozesala.***es** Salón de Notificaciones de Procuradores**prokuradoretza***Zuzenbide prozesala.***es** procuraduría**prozedura***Zuzenbide prozesala.***es** procedimiento**prozedura bultzatze**

Ik. bultzamen prozesal

prozedura haste

Sin.: prozedurari hasiera emate

*Zuzenbide prozesala.***es** incoación del procedimiento**prozedura honen arduratik inhibitze***Zuzenbide prozesala.***es** inhibición del conocimiento de este procedimiento**prozedura zibil***Zuzenbide prozesal zibila.***es** procedimiento civil**Prozedura Zibileko Legea**

Sin.: PZL

*Zuzenbide prozesal zibila.***es** Ley de Enjuiciamiento Civil; LEC

prozedura-lege

Ik. prozedurako lege

prozedurako lege

Sin.: prozedura-lege

Zuzenbide prozesala.

es ley de procedimiento; ley procedimental; ley procesal
(*zentzu zabalean*)

prozedurari hasiera emate

Ik. prozedura haste

prozesu

Zuzenbide prozesala.

es proceso

prozesu sumario

Zuzenbide prozesal zibila.

es proceso sumario

prozesu-gastuak

Ik. judizioko gastuak

prozesuan duen izaera

Ik. partaidetza-mota

prozesuan duen partaidetza

Ik. partaidetza-mota

prozesuan esku hartze

Sin.: prozesuko esku-hartze

Zuzenbide prozesal zibila.

es intervención procesal

prozesuko alderdi

Ik. alderdi

prozesuko defentsa

Ik. defentsa

prozesuko esku-hartze

Ik. prozesuan esku hartze

prozesuko izapide

Ik. izapide

prozesuko jardunak

Ik. jardun prozesalak

prozesuko kostuak

Ik. kostuak

prozesurako legitimazio

Zuzenbide prozesala.

es legitimación procesal

PZL

Ik. Prozedura Zibileko Legea

S

saiatu eta huts egindako adiskidetze-ekitaldi

Zuzenbide prozesala.

es acto de conciliación intentado sin efecto

sala

Ik. justiziako sala

salbuespen

Ik. exceptio

salbuespena aurkeztu

Sin.: salbuespena jarri

Zuzenbide prozesala.

es ejercitar una excepción; interponer una excepción; excepcionar

salbuespena jarri

Ik. salbuespena aurkeztu

seme-alabatasuna inpugnatzeko errekurtsio

Ik. filiazioa inpugnatzeko errekurtsio

sinadura erdi

Zuzenbide prozesala.

es media firma; M/.

sinadura norberarena dela aitortze

Ik. izenpea egiaztatze

sinadura oso

Zuzenbide prozesala.

es E./; firma entera

sindiko

Zuzenbide prozesala.

es síndico

substantziazio

Ik. bideratze

suplika-errekurtsio

Sin.: suplikako errekurtsio

Zuzenbide prozesala.

es recurso de súplica

suplikako errekurtsio

Ik. suplika-errekurtsio

T

tatxa

Zuzenbide prozesala.

es tasa

telefono-interbentzioa altxatu

Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.

es desintervenir el teléfono; dejar sin efecto la intervención telefónica

telefonoa interbenitze

Sin.: telefonoaren interbentzio

Zuzenbide prozesal penaleko esamoldea.

es intervención telefónica

telefonoaren interbentzio

Ik. telefonoa interbenitze

testamentu-epaiketa

Sin.: testamentu-judizio

Zuzenbide prozesal zibila.

es juicio de testamentaria; testamentaria

testamentu-judizio

Ik. testamentu-epaiketa

testigantza

Ik. lekukotza

testigantza

Ik. lekukotza

testigantza egin

Ik. lekukotza egin

testigutza eman

Ik. lekukotza egin

tramitatu

Ik. izapideak egin

U**Urtarrilaren 10eko Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legea**

Ik. Doako Laguntza Juridikoaren Legea

urte judicial

Zuzenbide prozesala.

es año judicial

uzi

Zuzenbide prozesala.

es pretensión; pretensión procesal

X**x zk.ko epaitegi**

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es juzgado núm. x

xedapenak

Zuzenbide prozesala.

es parte dispositiva (*ebazpenetan*)

Z**zakuratze**

Zuzenbide prozesala.

es insaculación (*1881eko PZLko 1.237. art.*)

zehapen

Zuzenbide prozesala.

es sanción

zibileko sala

Zuzenbide prozesala.

es sala de lo civil

zigor-arloko sala

Ik. penaleko sala

zin

Zuzenbide prozesala.

es juramento

zin bidezko kauzio

Sin.: zin-eginezko kauzio

Zuzenbide prozesala.

es caución juratoria

zin egin

Zuzenbide prozesala.

es prestar juramento

zin eginez edo hitzemanenez aitortu

Sin.: zin eginez edo hitzemanenez deklaratu

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es declarar bajo juramento o promesa

zin eginez edo hitzemanenez deklaratu

Ik. zin eginez edo hitzemanenez aitortu

zin eginez

Sin.: zinpean

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es bajo juramento

zin egite

Zuzenbide prozesala.

es juramento (*ekintza*)

zin erabakitzaile

Ik. erabaki-indarreko zin

zin faltsua egite

Ik. gezurrezko zina egite

zin-eginezko kauzio

Ik. zin bidezko kauzio

zina hartu

Zuzenbide prozesala.

es tomar juramento; recibir juramento

zinpean

Ik. zin eginez

zinpeko aitorten

Sin.: zinpeko deklarazio

Zuzenbide prozesala.

es declaración jurada

zinpeko deklarazio

Ik. zinpeko aitorten

zinpekoen epaimahai bidezko judizio

Ik. zinpekoen epaimahaiaren aurreko epaiketa

zitzatu (*iz.*)

Zuzenbide prozesala.

es persona que se cita

zitzatu

Sin.: zitazioa egin

Zuzenbide prozesala.

es citar

zitatzeke eginbide

Sin.: zitazioa egiteko eginbide

Zuzenbide prozesala.

es diligencia de citación

zitazio

Sin.: zitazio judicial

Zuzenbide prozesala.

es citación; citación judicial

zitazio judicial

Ik. zitazio

zitazio-zedula

Ik. zitazioa egiteko zedula

zitazioa egin

Ik. zitzatu

zitazioa egiteko eginbide

Ik. zitatzeke eginbide

zitazioa egiteko zedula

Sin.: zitazio-zedula

Zuzenbide prozesala.

es cédula de citación

ziurtagiri

Zuzenbide prozesala.

es certificado; certificación

ziurtagiria egin

Sin.: ziurtagiria eman

Zuzenbide prozesala.

es librar certificado

ziurtagiria eman

Ik. ziurtagiria egin

ziurtatu

Zuzenbide prozesala.

es certificar

Zuzenbide prozesal

Zuzenbide prozesala.

es Derecho procesal

Zuzenbidean horrelakoetarako zehaztutako kaltea izan

Zuzenbide prozesaleko esamoldea.

es pararle el perjuicio a que hubiere lugar en Derecho

zuzenbideko erakunde

Ik. erakunde juridiko

zuzenbideko oinarriak

Zuzenbide prozesala.

es fundamentos de derecho

zuzenbideko oinarriak

Ik. arrazoibide juridikoak

zuzenbidezko arbitraje

Zuzenbide prozesal zibila.

es arbitraje de derecho

zuzeneko erantzule zibil

Zuzenbide prozesala.

es responsable civil directo

zuzeneko lekuko

Ik. gertakarian izandako lekuko

Zuzenketa Eskubideari buruzko martxoaren 26ko 2/1984 Lege Organikoa

Zuzenbide prozesal zibila.

es Ley Orgánica 2/1984 de 26 de marzo sobre Derecho de Rectificación